“Azken arau-aldaketa: 2025/01/01”

# 13/2013 FORU ARAUA, abenduaren 5ekoa, Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoa (BAO Abenduaren 13koa)

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2013ko abenduaren 5eko Osoko Bilkuran foru arau hau onartu dutela: 13/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergari buruzkoa. Arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

**PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 13/2013 FORU ARAUA.**

## HITZAURREA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga zutabe nagusietariko bat da Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren barruan. Egungo arauketa, 2006ko abenduaren 26ko 6/2006 Foru Araukoa, indarrean egon den zazpi urteetan zehar beharrezkoa izan da zenbait aldaketa egitea arauketa horri, une bakoitzeko inguruabar ekonomiko eta sozialetara egokitzearren. Hala, arauketa horren azken aldaketa krisi ekonomiko-finantzarioari erantzuteko egin zen, eta modu iragankorrean onetsi zen 2012ko eta 2013ko ekitaldietarako.

Krisiak iraun egiten duenez eta ez denez ikusten hemendik gutxira noiz lortuko den ekonomia-jarduera eta enplegua berreskuratzea, gure ekonomiaren hazkunderako motor izan daitezen, Bizkaiko Lurralde Historikoko instituzioek egiteko aktiboa izan behar dute, eta neurriak hartu behar dituzte tributu-kargen banaketa egokia indartzeko -horrenbestez, esfortzu handiagoa eskatuko zaie gaitasun ekonomiko handiagoa dutenei- eta sarreren eta gastuen arteko oreka optimoa lortzeko, finantza publikoen iraunkortasuna eta nahikotasuna bermatzearren.

Pertsona fisikoen tributazioari lotutako arloan, bereziki, ezinbestekoa da ekitate, progresibotasun, neutraltasun, gardentasun eta sinplifikazioaren printzipioak sendotzea, bai eta haien arteko oreka handiagoa ezartzea ere.

Neutraltasunari dagokionez, berrikusi eta doitu egiten da zenbait zerga-onurari ematen zaien tratamendua (esaterako, errenta salbuetsi, murrizketa eta kenkariei ematen zaiena), gastu eta sarreren politikek elkarrekin gorde behar duten erlazioa sendotzearren. Aurretik, dena dela, onuron eraginkortasuna aztertu da, bikoiztasunak kendu dira eta aldatu egin dira ezarri zirenean zuten xedeari gaur egun egokitzen ez zaizkionak.

Ekitatearen printzipioari dagokionez, zabaldu egin da indarrean dagoen tarifa, eta tasa handiagoak dituzten tarte berriak sortu dira, bai likidazio-oinarri orokorrean, bai aurrezkiaren likidazio-oinarrian.

Gaitasun ekonomikoaren printzipioari dagokionez, tresna normatibo berriak eman behar zaizkio ekonomia-jardueren etekinen tributazioari, benetan lortutakoak baino sarrera gutxiago aitortzen baitira eta kengarriak ez diren gastuak ere sartzen baitira; hortaz, tresna horien bidez zaildu egin nahi da halako errentak ezkutatzea, eta iruzurraren aurkako neurriak ere ezarriko dira.

Bada, helburu horiek guztiak lortzeko onesten da foru arau hau, zeinak hamalau titulu dituen, hogeita lau xedapen gehigarri, hogeita bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bi.

I. titulua zergaren izaerari eta aplikazio-eremuari buruzkoa da. II. tituluan, «numerus clausus»ak ezartzen dira hainbat izaeratako iturriren ondoriozko errententzat. Izan ere, nahiz eta errentok gaitasun ekonomikoaren benetako indizea eta zergaren zerga-egitatearen parte izan, zerga honetan tributatzetik salbuetsi dira orain arte, politika fiskaleko hainbat arrazoi direla medio.

Horrenbestez, arautegi berriak mantendu egingo du osorik salbuetsita dauden errenten katalogoa: batzuk, gizartean duten islagatik (esaterako, sari bereziak, beka publikoak edo laguntza publikoak); beste batzuk, kalte-ordain izaera izateagatik (berbarako, ordainketa bakarreko modalitatean jasotako langabezia-prestazioak eta administrazio publikoek ordaindutako kalte-ordainak). Halakoek ez dute, beraz, zerga-betebeharrik izango. Bada, errenta horiekin batera, legegileak sendotu egin du zenbateko batera arte salbuetsita egongo diren errenten zerrenda; zenbateko horretatik aurrera, baina, gaindikina zergapetuko da. Hala egin du, adibidez, justizia sozialagatik eta tributu-karga banatzeagatik, orain arte errenta salbuetsi osotzat jo diren langileak kaleratu eta kargugabetzegatik ematen diren kalte-ordainekin. Ondorioz, haien zenbateko salbuetsia ezingo da 180.000 euro baino handiagoa izan.

Errenta salbuetsien arloan sartzen den berrikuntzarik handiena iruzurraren aurka borrokatzeko helburu iraunkorrari lotuta dago, borroka horren ardatzean, beste tresna batzuen artean, Zerga Administrazioak zergadunaren gaitasun ekonomikoari buruz duen informazio kopurua baitago. Informazio horrek, hain zuzen ere, edozein kontzepturengatik eta edozein administrazio publiko edo entitatetatik jasotzen diren errenta guztiak hartu behar ditu aintzat, bai eta zergadunari eragiten dioten eta haren tributatzeko betebeharra modulatzen duten inguruabar pertsonal eta patrimonialak ere, tributuak direla-eta haiei ematen zaien tratamendua edozein dela ere.

Horretarako, foru arau honek, bere azken zatian, administrazio publikoeiinformazioa emateko betebehar berriak ezartzen dizkie edozein motatako diru-laguntza edo errentak -salbuetsiak edo ez- ordaintzen dituzten entitateei, eta informazioa emateko eredu tributario bat erabiliz beteko dute betebehar hori. Zerga Administrazioak, horrela, zergadunak lortzen dituen errenta guztien gaineko informazioa izango du eskura, eta, horri esker, errazago egingo zaio beste administrazio publikoekin batera borrokatzea laguntza eta diru-laguntza jakin batzuk iruzurrez jasotzen dituzten pertsonen kontra.

III. titulua zergadunei buruzkoa da eta IV. titulua, luzeena, berriz, zerga-oinarriari buruzkoa. Eta zerga-oinarriaren barruan zehazten dira hauei buruzko zehaztapenak: arau orokorrak, lan-etekinak, ekonomia-jarduerenak, kapitalaren etekinak, ondare-irabazi eta -gale-rak, errenten egozpen eta esleipena, errentak zein ekitaldiri egotzi behar zaizkion, baloratzeko erregela bereziak, errenta motak eta errenten konpentsazioa.

Etekin irregularren arloan, goitik behera berrikusten da etekinok integratzeko sistema: integrazio murrizturako egungo portzentajeak mantentzen dira, baina 300.000 euroko muga kuantitatiboa ezartzen da.

Ekonomia-jardueren etekinei dagokienez, burutu egin da Bizkaiko Lurralde Historikoko araudian orain dela 10 urte baino gehiago hasitako bidea, alegia, zenbatespen objektiboko metodoaren aplikazio-eremua aldian-aldian murriztekoa, pertsona fisikoak diren enpresaburuen tributazioa haien jardueraren benetako etekinera hurbiltzearren. Horrenbestez, indargabetu egingo da metodo hori, eta halako ekonomia-jardueren etekina, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, zuzeneko zenbatespenaren metodoa erabiliz zehaztuko da, modalitate arruntean eta erraztuan.

Gainera, eremu horretan, bermatu egin behar da benetan lortutako sarreren zenbatekoa aitortu dadila eta aitorpenetan ez dadila sartu kengarria ez den gasturik, gaitasun ekonomikoaren printzipioaren arabera. Horretarako, baina, tresna normatibo berriak eman behar zaizkio Zerga Administrazioari, errentak ezkutatzea zailtzearren, eta iruzurraren aurkako neurriak ere ezarri behar dira.

Hori dela eta, foru arau honek tresna berri bat jasotzen du, zeinak balioko duen ekonomia-jarduerak egiten dituzten zergadunek beren betebehar formalak konplitu ditzaten: eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat egin beharko dute, zeina komuna den Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarako eta Balio Erantsiaren gaineko Zergarako. Erregistro-liburu berri horrek ordezkatu egingo ditu orain arte zeuden erregistro-liburuak, eta, hari, esker zehatzago ezagutu ahal izango dira halako zergadunen sarrera eta gastuak, eta funtsezko oinarria izango da, beraz, zerga-betebeharra kuantifikatzeko.

Orobat azpimarratu behar da aldatu egin direla higiezinen errentamendu edo salerosketa ekonomia-jardueratzat jotzeko irizpideak. Aurrerantzean, orain arte bezala, beharrezkoa izango da gutxienez pertsona bat kontratatuta izatea, lanaldi osoan eta dedikazio esklusiboarekin, baina, hemendik aurrera, ez dira halako pertsonatzat hartuko zergadunaren ezkontidea, izatezko bikotekidea, ondorengoak, aurrekoak edo bigarren mailara arteko alboko ahaideak, ez eta zergadunari lotutzat jotzen diren pertsonak ere. Aurrekoa osatzeko eta horrelako jarduerak gaur egungo egoera profesionalean nola egiten diren aintzat hartuta, aurrerantzean ez da bete beharko jarduera horren kudeaketa hartarako modu esklusiboan erabiltzen den lokal batean egiteko betebeharra: kendu egingo da betebehar hori.

Kapitalaren etekinei dagokienez, etxebizitzen azpierrentamendua-ren tratamendua parekatu egiten da etxebizitzen errentamenduak duenarekin, eta 1994ko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikuluan xedatutakoaren arabera joko dira halakotzat. Gastu kengarriak muga izango du, azpierrentamendutik datozen etekinen %20, hain zuzen, eta, horrela, mugatu egingo da etekin negatiboa edo zero etekina sortzeko zegoen aukera, kasu batzuetan fiktizioa ere bazena.

Aurrekoa osatzeko, kostubidearen presuntzioa ezarri da Zerga Administrazioak jasota duenerako zergadunaren titulartasuneko higiezinak errentamenduan laga direla eta ez dela inolako etekinik konputatu. Presuntzio hori higiezinaren balorazioaren %5 izango da, baina 2014ko eta 2015eko ekitaldietarako, modu iragankorrean, %10 izango da, Ondarearen gaineko zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat.

Zergaren zerga-oinarriko murrizketen arauketan ere zenbait aldaketa egin dira. Gizarte-aurreikuspenaren arloan, oro har, 5.000 euroko muga ezarri zaie ekarpen indibidualei, eta kendu egin da integrazio-portzentaje murriztua 5 urtean behin aplikatzeko aukera, hala kontingentziak gertatzeagatik hartukizunak jasotzen direnean nola aurreikuspen-sistemetako eskubide ekonomikoak erreskatatzen direnean.

Sistema ixteko tresna moduan, tributuen arloko logika jasotzen duen prebentzio bat ezartzen da, eta, haren bidez, mugatu egiten da zerga-oinarri orokorreko murrizketen tratamendua, zergaldi batean aldi berean daudenean gizarte-aurreikuspeneko erakundeei egiten zaizkien ekarpenak, batetik, eta erretiro kontingentziaren edo erreskateen ondorioz kapital gisa jasotzen diren prestazioak, bestetik. Salbuespen izango dira, dena dela, enplegu-planei eta desgaitasuna duten pertsonen gizarte-aurreikuspeneko tresnei egindako ekarpenak.

VI. tituluan, kuota osoari buruzkoan, aldaketa funtsezko bat egiten da. Horrela, aurreko arauketan kenkari orokor bat zegoen, likidazio-oinarri orokorrean tarte salbuetsia kentzeak zituen ondorioak leuntzen zituena. Arauketa berrian, ostera, likidazio-oinarri orokorreko konpentsazio horren ordez kopuru bereko gutxitzea egingo da kuotan, neurri hori zergaren likidazio-oinarri orokorrari dagokion tarifa aplikatzen duten zergadunei zuzenduta egon behar baita, eta ez aurrezkiaren likidazio-oinarriari dagokiona aplikatzen dutenei. Hori dela eta, kuota oso orokorra gutxitu baino ez da egingo, baina, hori aplikatzearen ondorioz kuota ezin da negatiboa izan.

Ekitateagatik, zabaldu egingo da indarrean dagoen tarifa, eta tarte berriak jarriko dira tasa altuenetan, hala, likidazio-oinarri orokorrean, 92.310 eurotik aurrera, tasa marjinal altuena %49 izango da, 179.460 eurotik aurrera; eta berriro diseinatu da aurrezkiaren likidazio-oinarria, zeinak %25eko tributazioa ezarriko duen 30.000 eurotik aurrera.

VII. titulua kuota likidoari eta kenkariei buruzkoa da: familiarrak eta pertsonalak, desgaitasuna duten pertsonen ondare babestuari egindako ekarpenena, ohiko etxebizitzarena, ekonomia-jarduerak sustatzeko kenkariak, dohaintzenak eta beste batzuk. Kenkari pertsonalei dagokienez, mugatu egiten da adinagatik egiten zena, eta 30.000 euro baino txikiagoak diren errentak dituzten zergadunei bakarrik aplikatuko zaie. Pertsonen desgaitasun edo mendetasunagatik dagoen kenkariari dagokionez, pertsona horrekin batera bizitzeko betebeharra ezartzen da, logikoa denez. Dena dela, kenkarirako eskubidea ematen duten pertsonak egoitzetan bizi badira, kenkaria mailarik gertueneko ondorengoek egingo dute, baldin eta, agiriak aurkeztuta, frogaturik uzten badute ahaidearen egoitzako egonaldi-gastuak eurek ordaindu dituztela.

Etxebizitzarako dauden kenkarietan, murriztu egiten da etxebizitza eskuratzen denean dagoen zerga-pizgarriaren intentsitatea. Horrela, oro har, ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik dagoen kenkaria %20 izango da aurrerantzean ere, zergaldian ordaindutako zenbatekoen gainean, urteko 1.600 euroko mugarekin. Eskuraketaren kasuan, berriz, urteko 1.530 euroko muga ezarriko zaie orain etxebizitzan ekitaldian zehar inbertitutako zenbatekoei eta zergaldian ordaindutako interesei. Gazteen eta familia ugarien kasuetan mantendu egingo da pizgarriok modu azeleratuan aplikatzeko dagoen tratamendua, baina gutxitu egingo da, aldi berean, eskuraketaren kasuan duten urteko intentsitatea.

Kenkarien atala amaitzeko, mugatu egiten dira langileek enpresan parte hartzeagatik dagoen kenkaria, dohaintzen ondoriozko kenkaria eta langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik eta alderdi politikoei emaniko kuota eta ekarpenengatik dauden kenkariak; orobat, aurreko araudiak biltzen dituen zerga-onuren eraginkortasuna handitzearren, kendu egiten da ekonomia-jarduera berrien hasieran inbertitzeko kreditu-entitateetan egindako gordailuek zuten kenkaria.

Egungo koiuntura ekonomikoa ikusita, pizgarri fiskal berritzaile bi sartuko dira araudian. Batetik, kultura ekintzailea sustatu eta norberaren kontura lan egitea bultzatzearren, murrizketa bat ezarriko da ekonomia-jardueren etekinetan, halako jarduerak mozkinak izanik egiten diren lehenengo urte bietan, gehienez ere bost urteko epean jarduera ekintzailea hasten denetik. Bestetik, enplegua eta balio erantsia sortzeko gai diren enpresa-proiektuak gara daitezela bultzatzeko eta enpresa sortu berriek pertsona fisikoen funts propioak erakarri ahal izan ditzaten, %20ko kenkaria ezarriko da hurbileko inbertsoreentzat, edo «business angel» deritzonarentzat.

Negoziatzeko onartuta dauden baloreen ondoriozko ondare-irabaziei aplikagarri zaien erregimenari dagokionez, haientzako tratamendu berritzailea jaso da xedapen gehigarri batean, zeinaren bidez baloreok eskualdatzen dituzten zergadunek aukeratu dezakete edo baloreon eskualdaketaren ondoriozko ondare-irabazia kalkulatzeko dagoen araubide orokorra aplikatzea, edo eskualdaketa-balioaren gaineko %3ko karga berezia aplikatzea. Hala egin dezakete baldin eta balio hori 10.000 euro baino txikiagoa bada zergaldi bakoitzean eskualdatutako balore guztiei dagokienez. Aukera horren bidez, burtsan transakzio txikiak egiten dituzten zergadunek modu errazean likidatu ahal izango dute zerga, batetik, eta, bestetik, Zerga Administrazioak beste tresna bat izango du zergaren kudeaketa ere errazago egiteko.

X. titulua baterako tributazioaren ingurukoa da, eta berritasun azpimarragarri bat jasotzen du, zeinak mugatu egiten dituen modalitate horretan tributatzeko aukerak. Atzemandako zenbait portaerak erakusten dute hautsi egiten dela aukera horrek atzean zuen espiritua; hortaz, kautela bat ezartzen da, zeinak ezinezko egiten duen modalitate horretan tributatzea gurasoek elkarrekin bizitzen jarraitzen badute, nahiz eta legezko banantzea gertatu edo ebazpen judizialaren bidez adierazi ez dagoela haien arteko loturarik.

Azkenik, eta xedapen iragankorrei dagokienez, azpimarratu behar da zenbait neurri ezartzen direla orain indargabetuko den 6/2006 Foru Arauan jasotako erregulazio jakin batzuen babesean sortutako egoerak babesteko. Horrela, trantsizio-neurriak onartu dira aldatu diren zenbait tributu-tratamendutan, eta haien artean hauek nabarmendu behar dira: 2014ko zergaldiaren aurreko zergaldietan murriztu gabe dauden gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen gaindikinei dagokien tributu-tratamendua eta etekin irregularrak integratzeko finkatu diren portzentaje berriak. Halaber, ekonomia-jardueren hasieran inbertitzeko kreditu-erakundeetan jarritako gordailuek duten kenkariaren araubide iragankorra azpimarratu behar da, zeinak babestu egin gura dituen foru arau hau indarrean jarri aurretik halako ekarpenak egin dituzten zergadunak.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

# I. TITULUA
# ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO-EREMUA

### 1. artikulua. Izaera.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga zuzeneko tributu bat da, izaera pertsonal eta subjektiboa duena eta pertsona fisikoen errentak kargatzen dituena, foru arau honetan xedatutako eran.

### 2. artikulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.

Foru arau honetan xedatutakoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren honako zergapeko hauei aplikatuko zaie:

1. Zergadun gisa:

   a) Hurrengo artikuluan xedatzen denaren arabera, beren ohiko egoitza Bizkaian duten pertsona fisikoei.

   Familia-unitatea osatzen duten kideek ohiko egoitza lurralde ezberdinetan dutenean, eta batera tributatzeko asmoa dutenean, foru arau honetako 97. artikuluan xedatzen denarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiari tributatuko diote, baldin eta familia-unitate horretan likidazio-oinarri handiena duen kideak ohiko bizilekua lurralde honetan badu.

   Likidazio-oinarri handiena kalkulatzeko, berez dagokien arautegia aplikatuko zaie Bizkaiko egoiliar ez diren zergadunei.

   b) Foru arau honetako 4. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan ezarritakoaren arabera ohiko egoitza atzerrian duten pertsona fisikoei, artikulu horretan jasotako eran.

2. Konturako ordainketak egitera behartutako gisa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergagatik atxikipenak eta konturako sarrerak egitera behartuta daudenei, baldin eta konturako ordainketa horien zenbatekoak Bizkaiko Foru Aldundian ordaindu behar badira Ekonomia Ituneko 7.etik 11.era arteko artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

   Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, atxikipenak eta konturako sarrerak administrazio-kontseiluetako, haien ordezko batzordeetako eta beste ordezkaritza-organoetako administratzaile eta kideek jasotako ordainsarien gainean egiten direnean, etekinak edozein motatako entitateen funts propioetan parte hartzeagatik lortzen direnean, eta, orobat, interesak eta gainerako kontraprestazioak obligazioetatik eta antzeko tituluetatik datozenean, foru arau honetan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta entitate ordaintzaileari Sozietateen gaineko Zergaren Bizkaiko araudia aplikagarri bazaio.

### 3. artikulua. Ohiko egoitza.

1. Subjektu pasiboak ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duela ulertuko da honako erregela hauek betetzen baditu, hurrenez hurren:

   1. Zergaldiko egun gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan ematen baditu, eta Bizkaian egindako egun kopurua handiagoa denean Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurralde historikoetako bakoitzean egindakoa baino.

   Lurralde jakin batean zenbat denbora eman den zehazteko, konputagarriak izango dira kanpoan eman diren aldi baterako egonaldiak, salbu eta zergadunak frogatzen badu zerga-egoitza beste herrialde batean duela. Zerga-egoitza paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetako batean dagoenean, Zerga Administrazioak galdatu ahal izango du urte naturaleko 183 egun han eman direla frogatzeko. Bestelakorik frogatzen ez bada, pertsona fisiko bat Bizkaian bizi dela joko da pertsona horren ohiko egoitza lurralde honetan dagoenean.

2. Interesen gune nagusia Bizkaian badu. Zergadun batek bere interesen gune nagusia Bizkaian duela ulertuko da, zerga-oinarriaren zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan lortzen duenean eta, gainera, Bizkaian lortutako zerga-oinarriaren zatia handiagoa denean beste lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoa baino. Dena dela, ondorio bietarako, irizpide horretatik kanpo geratuko dira kapital higigarriaren errentak nahiz ondare-irabaziak eta egotzitako zerga-oinarriak.

3. Zerga honen ondorioetarako aitortutako azken egoitza Bizkaian dagoenean.

Lehenengo erregela aplikatuta ere ezinezkoa gertatzen bada zergadunaren ohiko egoitza zein lurraldetan -erkidean edo foralean- dagoen zehaztea, bigarren erregela aplikatuko da. Lehen eta bigarren erregeletan xedatutakoa aplikatu ondoren gauza bera gertatzen bada, hirugarren erregela aplikatuko da.

2. Espainiako lurraldean egoiliar diren pertsona fisikoek ez badute bertan ematen 183 egun baino gehiago urte naturalaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliartzat hartuko dira, baldin eta beren enpresa- edo lanbide-jardueren edo interes ekonomikoen gune nagusia edo basea lurralde horretan kokatzen bada.

Aurreko lerroaldean jasotakoaren arabera pertsona fisikoen ohiko egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dagoenean, pertsona horiek Bizkaian bizi direla joko da, baldin eta beren enpresa- edo lanbide-jardueren edo interes ekonomikoen gune nagusia edo basea lurralde horretan kokatzen bada.

3. Pertsona fisiko bat Espainiako lurraldean egoiliarra dela uste bada, haren ezkontidearen -legez bereizita ez badago- eta haren mendeko seme-alaba adingabeen ohiko egoitza Bizkaian dagoelako, pertsona fisiko horren ohiko egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da. Presuntzio horren aurka kontrako froga aurkez daiteke.

4. Ohiko egoitza aldatzen denean, honako irizpide hauek izango dira kontuan:

a) Bizkaian bizi den zergadunak ohiko egoitza beste lurralde batera (komun edo foralera) aldatzen badu, edo ohiko egoitza beste lurralde batean (komun edo foralean) izanik bere ohiko egoitza Bizkaira aldatzen badu, zerga-betebeharrak egoitza berriaren arabera beteko ditu aurrerantzean, egoitza berri hori lotura-puntua baldin bada.

Horrezaz gain, hurrengo b) letran ezarritakoa dela-eta, uste bada egoitza ez dela lekuz aldatu, zergadunek beren ohiko egoitza dagoen tokiko Zerga Administrazioari aurkeztuko dizkiote aitorpenak, eta berandutze-interesak ere gehitu beharko dituzte.

b) Egoitza aldatzearen helburu nagusia zerga gutxiago ordaintzea baldin bada, aldaketa horiek ez dute ondoriorik edukiko.

Egoitza berrian egiten diren egonaldiak gutxienez eta etenik gabe hiru urtetik gorakoak direnean ulertuko da bizileku aldaketa egon dela.Ordea, honako inguruabar hauek gertatzen direnean, ez da egoitza aldaketarik egongo:

1. Egoitza aldatzen den urtean edo hurrengoan, zerga honen zerga-oinarria aldaketaren aurreko urtean izandako zerga-oinarria baino %50 handiagoa izatea, gutxienez.

Familia-unitatea osatzen duten pertsona fisikoek tributazio modu ezberdinak (banakakoa edo baterakoa) aukeratu badituzte aurreko lerroaldean aipatzen diren urteetan, tributazio moduak homogeneizatu egingo dira lerroalde horretan aipatzen diren oinarriak alderatzeko, eta, horretarako, behar diren indibidualizazio-arauak aplikatuko dira.

2. Egoera hori gertatzen den urtean, zerga honen ondoriozko benetako tributazioa aldaketa egin aurreko lurraldean aplikatu beharreko araudiarekin gertatuko litzatekeen tributazio efektiboa baino txikiagoa izatea.

3. Ohiko egoitza berriz ere hasierako lurraldean edukitzea a) letran azaldutako egoera sortzen den urtearen hurrengoan, edo honen hurrengoan.

5. Espainiako Estatuak parte hartzen duen nazioarteko tratatuetatik eratorritako arau bereziak aplikatu behar ez direnean, ohiko egoitza Bizkaian duten atzerritarrak ez dira zergaduntzat joko -elkarrekikotasuna dela bide-, baldin eta inguruabar hori foru arau honetako hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetako baten ondorio bada.

**4. artikulua. Zergak ordaintzeko betebeharraren kasu bereziak.**

1. Foru arau hau aplikatuko zaie nazionalitate espainiarra duten pertsonei, haien ezkontideei -legez bereizita ez badaude- eta haren mendeko seme-alaba adingabeei, baldin eta, zerga honen Bizkaiko araudiaren mende lotuta egonik, ohiko egoitza atzerrira aldatzen badute honako arrazoi hauek direla bide:

   a) Espainiako ordezkaritza diplomatikoetako kideak, barne hartuta bai ordezkaritzako burua bai eta diplomazia-langileak, administrariak, teknikariak edo zerbitzuetako langileak ere.

   b) Espainiako bulego kontsularretako kideak, barne hartuta bai bulegoburu dena bai eta haiei atxikitako funtzionarioak nahiz zerbitzuko langileak. Ez dira aurreko horien artean sartzen ohorezko kontsulordeak, ohorezko kontsul-agenteak edo haien menpeko langileak.

   c) Espainiako Estatuko kargu edo enplegu ofizialen titular direnak, nazioarteko erakundeen aurrean kreditatutako delegazio eta ordezkaritza iraunkorretako partaide gisa aritzen direnean edo atzerrian dauden delegazio edo misioetan begirale lana egiten dutenean.

   d) Atzerrian izaera diplomatiko edo kontsularrik gabeko kargu edo enplegu ofizial bat betetzen duten funtzionario aktiboak.

   e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarentzat lan egiten duten funtzionarioak edo kontratupeko langileak, Euskal Autonomia Erkidegoak atzerrian dituen bulegoetara bidali badituzte.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

   a) Zenbaki horretan aipatzen diren pertsonak jardunean dauden funtzionario publikoak ez direnean edo kargu edo enplegu ofizialik ez dutenean, eta aurreko zenbaki horretan aipatutako baldintzetako edozein bete baino lehen ohiko egoitza atzerrian dutenean.

   b) Legez bereizita ez dauden ezkontideak edo adingabeko seme-alabak izanez gero, ohiko egoitza atzerrian dutenean, ezkontideetako batek -ama zein aita izan- aurreko 1. zenbakian zerrendatutako baldintzak bete baino lehenago.

3. ...

**5. artikulua. Tratatuak eta hitzarmenak.**

Foru arau honetan ezarritakoaren kalterik gabe, indarrean jarraituko du Espainiako barne-ordenamenduaren parte diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoak.

# II. TITULUA
# ZERGA-EGITATEA

## 6. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Zergadunak errenta bat lortzea hartzen da zerga-egitatetzat, errenta hori non sortu den eta ordaintzailearen egoitza non dagoen kontuan izan gabe.

   Foru arau bidez ezartzen diren errenta-egozpenak ere errenta lortzetzat joko dira.

2. Hauek hartuko dira zergadunaren errentatzat:

   a) Lanaren etekinak.

   b) Ekonomia-jardueren etekinak.

   c) Kapitalaren etekinak.

   d) Ondare-irabazi eta -galerak.

   e) Foru arau bidez ezartzen diren errenta-egozpenak.

3. Zerga-oinarria zehaztu eta zerga kalkulatzeko, bi motatakoa izango da errenta: orokorra eta aurrezkiarena.

## 7. artikulua. Errenten zenbatespena.

Lana eta zerbitzuak egitea nahiz ondasun eta eskubideak lagatzea ordaindutzat joko dira, foru arau honetan ezarritako eran.

## 8. artikulua. Zerga honen mende ez dauden errentak.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren mendeko errentak ez dira zerga honen mendekoak izango.

## 9. artikulua. Errenta salbuetsiak.

Honako errenta hauek salbuetsita egongo dira:

1. Epailearen erabakia dela bide, mantenurako urteko gisa gurasoengandik jasotakoak.

   Tratamendu bera izango dute Mantenuaren Ordainketa Bermatzeko Funtsetik jasotako kopuruek. Funts hori abenduaren 7ko 1618/2007 Errege Dekretuan arautu zen, Mantenuaren Ordainketa Bermatzeko Funtsaren antolaera eta funtzionamenduari buruzkoan.

2. Terrorismo-ekintzen ondorioz jasotako prestazio publikoak.

3. Ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik Gizarte Segurantzak edo haren ordezko erakundeek zergadunei onartzen dizkieten prestazioak, eta 55 urtetik gorakoek ezintasun iraunkor osoagatik jasotzen dituztenak.

   Ezintasun iraunkor osoa dagoenean, salbuespena ezin aplikatu izango zaie foru arau honen 18.a) artikuluan jasotzen ez diren lanaren etekinak jasotzen dituzten zergadunei edo ekonomia-jardueren etekinak jasotzen dituztenei. Bateraezintasun hori ez da aplikatuko prestazioa lehenengoz jasotzen den zergaldian.

   Era berean, aurreko lerroaldeetan aipatutako egoera berdin-berdinengatik jasotzen direnean, salbuetsita egongo dira honako prestazio hauek:

- Gizarte Segurantzaren Norberaren Konturako Langile edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian ez dauden profesionalei Gizarte Segurantzaren araubide berezi horren hautabide gisa ari diren gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek aitortutako prestazioak.

- Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek kooperatibetako bazkideei aitortutako prestazioak.

Aurreko lerroaldean ezarritako bi kasuetan, hau izango da salbuetsitako zenbatekoaren muga: Gizarte Segurantzak kasuan kasuko kontzeptu gisa gehienez ere aitortzen duen prestazioaren zenbatekoa. Soberakinak lan-etekin moduan tributatuko du, eta Gizarte Segurantzaren prestazioak eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko mutualitate edo erakundeenak aldi berean jaso direnean, soberakina azken horien prestazioetan gertatu dela ulertuko da.

4. Klase pasiboen erregimenean ezgaitasun edo ezintasun iraunkorragatik jasotako pentsioak, baldin eta haien arrazoia izan den lesio edo gaixotasunak pentsioaren jasotzailea erabat ezgaitzen badu edozein lanbidetan jarduteko.

5. Langilea kaleratu edo hark lana uzteagatik ematen diren kalte-ordainak, Langileen Estatutuan, hori garatzeko araudietan edo, halakorik balego, sententziak betearazteko araudian derrigorrezko izaeraz ezarritako kopuruan; hitzarmen, itun edo kontratuen indarrez finkatutakoa ezingo da derrigorrezko izaeraz ezarritako kalte- ordaintzat hartu. Era berean, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 30. artikuluaren 2. paragrafoa aplikatuz, bazkide langileak edo lan-bazkideak kooperatiban baja hartzean jasotzen dituen kalte-ordainak salbuetsita egongo dira, Langileen Estatutuaren 52. artikuluaren c) letran lana uzteko lan-araudiak nahitaezkotzat ezarritako zenbateko berean.

   Aurreko paragrafoetan jasotakoaren kalterik gabe, Langileen Estatutuko 51. artikuluaren arabera eginiko kaleratze kolektiboak direnean edo kontratuak estatutu horretako 52.c) artikuluan jasotako arrazoiengatik amaitzen direnean, zerga ordaintzetik salbuetsiko da estatutu horretan bidegabeko kaleratzeagatik nahitaezko izaeraz ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia, betiere kaleratzeak eta kontratu-amaitzeak gertatu badira edo arrazoi ekonomiko eta teknikoengatik, edo ezinbesteko kasuengatik, edo antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiengatik. Ordezkotza-kontratu batean dauden langileek lan-harremana desegin eta lan-jarduera lehenago uzteagatik langileek jasotzen dituzten kopuruak ere muga horiekin egongo dira salbuetsita.

   ...

   Zenbaki honetan ezartzen den kalte-ordain salbuetsia 180.000 euro izango da, gehienez.

6. Legez edo epai bidez onartzen den zenbatekoan salbuetsiko dira pertsonei eragindako kalte fisiko, psikiko edo moralengatik erantzukizun zibilaren ondorioz ematen diren kalte-ordainak.

7. Aurreko apartatuan adierazitako kalte berdinengatik aseguru-kontratuen bidez jasotzen diren zenbatekoak, 150.000 euroko mugarekin, kalteon eragilea edozein dela ere. Diru kopuru hori 200.000 eurora handituko da, lesioak kalte-ordainaren jasotzailea gaitasunik gabe uzten badu edozein lan edo jardueratarako. Horrez gain, kopurua 300.000 euro izango da, baldin eta jasotzaileak beste norbaiten laguntza behar badu eguneroko jarduera oinarrizkoenak egiteko.

   Salbuespen hau ez zaie aplikatuko aseguru-kontratuetatik eratorritako hartukizunei, baldin eta ordaindutako primek edo kopuruek zerga-oinarri orokorra murrizteko eskubidea ematen badute, foru-arau honen 70. artikuluan xedatutakoaren arabera edo foru arau honen 27.1 artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik gastu kengarritzat hartzen direnak.

8. Literatur, arte edo zientzia sariak edo giza eskubideen defentsari eta sustapenari lotutako sariak, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

9. Beka publikoak, irabazi-asmorik gabeko erakundeek emandako bekak eta Aurrezki-kutxa eta banku-fundazioei buruzko 2013ko abenduaren 27ko 26/2013 Legeko II. tituluan arautzen diren banku-fundazioek beren gizarte- ekintzaren barruan emandako bekak, betiere Espainian nahiz atzerrian hezkuntza-sistemaren maila eta gradu guztietan (unibertsitateko hirugarren zikloraino) ikasketak egiteko jasotzen badira. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen kasuan, baina, haien bekak salbuetsita daude irabazi- asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko araudia aplikagarri zaienean.

   Honako hauek ere salbuetsita egongo dira: batetik, administrazio publikoek eta aurreko paragrafoan aipatutako irabazi-asmorik gabeko entitateek eta banku-fundazioek martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuak definitzen duen alorreko ikerketetarako emandako bekak (errege-dekretu horrek ikertzaile bekadunaren Estatutua onartzen du); bestetik, entitate horiek administrazio publikoetako funtzionarioei eta gainerako langileei nahiz unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileei ikerketak egiteko emandakoak.

10. Pertsonak etxean hartzeagatik erakunde publikoetatik jasotzen diren zenbatekoak.

11. 1936-1939 bitarteko Gerra Zibilean edo haren ondorioz zauriak zein mutilazioak jasan zituzten pertsonen alde onartutako pentsioak, dela Estatuko Klase Pasiboen erregimenaren bitartez, dela horretarako egindako legeria bereziaren babesean.

12. Salbuetsita egongo dira honako prestazio hauek:

    a) Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak (Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzekoak) II. tituluko X. eta XV. kapituluetan eta VI. tituluko I. kapituluan arautzen dituen familia-prestazioak, eta Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen erregimen publikoetatik jasotzen diren zurztasun pentsioak nahiz hartzeko pasiboak, eta hogeita bi urtetik beherako biloben eta anai-arreben alde edo lan orotarako ezgaituen alde onartutakoak.

    b) Adingabearen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko prestazioak eta bularreko haurraren zaintza eta erantzunkidetasunagatiko prestazioak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren II. tituluko VI. eta VII. kapituluetan arautukoak, hurrenez hurren, Gizarte Segurantzaren araubide publikoetatik jasotakoak eta funtzionarioek dagozkien araubide publikoetatik jasotako prestazio berberak.

       Halaber, salbuetsita egongo dira zerbitzuak ematen dituzten organo edo erakundeko funtzionarioek jasotako ordainsariak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 48. artikuluaren f) letran onartutako edoskitzeagatiko baimenari dagozkionak. Salbuetsitako zenbatekoak muga hau izango du: urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren testu bateginaren II. tituluko VII. kapituluan aurreikusitako bularreko haurraren zaintzaren ekitaldi erantzunkideko prestazio ekonomikoagatik Gizarte Segurantzak aitortzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa.

    c) Norberaren Konturako Langile edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian sartuta ez dauden profesionalei araubide berezi horren ordezko gisa jarduten diren gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek onartzen dizkieten prestazioak, betiere aurreko a) eta b) letretan ezarri direnen moduko egoeretan gertatzen diren prestazioak badira.

       Horrelako kasuetan Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuagatik onartzen duen gehieneko prestazioa izango da zenbateko salbuetsiaren muga. Soberakinak lan-etekin moduan tributatuko du, eta Gizarte Segurantzaren prestazioak eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko mutualitate edo erakundeenak aldi berean jaso direnean, soberakina azken horien prestazioetan gertatu dela ulertuko da.

d) Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek kooperatibetako bazkideei onartutako prestazioak, betiere aurreko a) eta b) letretan ezarri direnen moduko egoeretan gertatzen diren prestazioak badira.

   Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuagatik onartzen duen gehieneko prestazioa izango da zenbateko salbuetsiaren muga. Soberakinak lan-etekin moduan tributatuko du, eta Gizarte Segurantzaren prestazioak eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko mutualitate edo erakundeenak aldi berean jaso direnean, soberakina azken horien prestazioetan gertatu dela ulertuko da.

e) Funtzionario publikoek, minbiziak edo beste gaixotasun larri batek eragindako seme-alaba adingabea zaintzeagatik lanaldiaren murrizketa dela eta, funtzionariook zerbitzuak ematen dituzten organo edo erakundetik jasotzen dituzten ordainsariak; murrizketa hori Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategineko 49. artikuluaren e) letran aipatzen da (testu bategin hori urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

   Salbuetsitako zenbatekoak muga hau izango du: Gizarte Segurantzak minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeko prestazio ekonomikoa dela-eta aitortzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa; prestazio hori Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko II. tituluko X. kapituluan aurreikusten da.

f) Autonomia-erkidegoetatik edo toki-erakundeetatik jasotzen diren amatasun- eta aitatasun-prestazio publikoak.

g) Jaiotzagatik, erditze anizkoitzagatik, adopzioagatik, adopzio anizkoitzagatik, kargupeko seme-alabengatik eta zurztasunagatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.

13. Dagokion entitate kudeatzaileak aitortutako langabezia-prestazioak, Langabezia-prestazioak ordainketa bakarrean ordaintzeko modalitatea arautzen duen 1985eko ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuan eta Langile Autonomoen Estatutuaren 2007ko uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 34. artikuluan ezarritako ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen direnean, betiere jasotako zenbatekoak aipatutako xedapen arauemaileetan ezarritako helburuetara bideratzen badira eta bertan aipatzen diren betekizunak betetzen badira.

    Zergaduna lan-sozietateetan edo lan elkartuko kooperatibetan sarturik badago edo ekarpen bat egin badu merkataritzako erakunde baten kapitalera, aurreko paragrafoan adierazi den salbuespena aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da akzioari edo partaidetzari bost urtez eustea. Langile autonomoen kasuan, salbuespena aplikatu ahal izateko, nahitaezkoa izango dute bost urteko epean ere jarduerarekin jarraitzea. Ez da beharrezkoa izango akzioari edo partaidetzari edota jarduera ekonomikoari bost urtez eustea, baldin eta ezin bazaio eutsi enpresa likidatu egin delako konkurtso-prozedura baten ondorioz. Langile autonomoei ez zaie galdatuko epe hori betetzeko, baldin eta epeari ezin bazaio eutsi Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 331. artikuluaren 1. apartatuko a) letrako 1. eta 3. zenbakietan zehazten diren inguruabarren ondorioz (testu bategin hori 2015eko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

    Orobat, salbuetsita egongo dira borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek kooperatiba deseginetako bazkide-langileei eta lan-bazkideei behin betiko birkokapenagatik aitortutako enplegurako laguntza ekonomikoak, baldin eta kooperatibak Norberaren Konturako Langile edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari atxikita badaude eta laguntzak bazkideok behin betiko birkokatzen direneko kooperatiben kapital sozialaren aldeko ekarpenak egiteko erabiltzen badira.

    Aurreko paragrafoan ezarritako kasuetan, hau izango da salbuetsitako zenbatekoaren muga: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak aitortzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa. Soberakinak lan-etekin moduan tributatuko du.

14. 1993ko maiatzaren 28ko 9/1993 Legegintzako Errege Dekretuan nahiz 2002ko ekainaren 5eko 14/2002 Legeko 5. artikuluan ezarritakoa betez jasotako gizarte-laguntzak (legegintzako errege-dekretu horren bidez, laguntzak eman zitzaizkien Osasun Sistema Publikoan egindako jarduketen ondorioz giza immunoeskasiaren birusak (GIB) erasandakoei; legearen bidez, berriz, gizarte-laguntzak ezarri ziren hemofilia edo sortzetiko beste koagulopatia batzuk dituzten pertsonentzat).

15. Goi mailako kirolariei ematen zaizkien laguntza ekonomikoak, eskudun diren entitateek ezarritako prestaketa-programetara egokitutakoak direnean, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

16. Nazioarteko bake-misioetan edo nazioarteko giza laguntzako misioetan parte hartzeagatik jasotzen diren aparteko ordainsariak eta prestazio publikoak, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

17. Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan-etekinak, honako baldintza hauek betetzen badira:

    1. Lan horiek Espainian egoitzarik ez duen enpresa edo entitate batentzat edo atzerrian finkatutako establezimendu iraunkor batentzat egitea, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan. Bereziki, gertatzen bada lanak hartzen dituen entitateak lotura bat duela langilea enplegatu duen entitatearekin edo haren zerbitzuak jasotzen dituen enpresarekin, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 44.1 artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.

    2. Lanak egiten diren lurraldean zerga honen antzerako izaera edo izaera berdina duen zerga bat aplikatzea, eta herrialde edo lurralde hori paradisu fiskaltzat ez jotzea. Baldintza hori betetzat joko da, baldin eta lanak egin diren herrialdeak edo lurraldeak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena badauka sinatuta Espainiarekin eta hitzarmen horrek informazioa trukatzeko klausula badu.

    Atzerrian emandako egunetan sortu diren ordainsariei aplikatuko zaie salbuespena: urtean 60.100 euro, gehienez.

    ...

    Atzerrian destinaturik dauden zergadunen kasuan, salbuespen hori bateraezina izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiak tributaziotik kanpo uzten dituen soberakinen araubidearekin, atzerrian jasotako errenten zenbatekoa edozein dela ere. Zergadunak soberakinen araubidea aplikatzea aukeratu ahal izango du, salbuespen honen ordez.

    Foru Arau honetako 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, zergadunak adierazi behar du zer aplikatu nahi duen: salbuespen hau edo soberakinen araubidea; aukera hori aplikatu nahi den ekitaldiko autolikidazioa aurkezterakoan egin behar du adierazpen hori. Zergaldi baterako egindako aukera ezin izango da aldatu zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren.

18. Errenta positiboak, errentok agerian jartzeko arrazoia hauetako bat denean:

    a) Europar Batasunaren nekazaritza-politikatik datozen laguntzak jasotzea, haien zergatia, betiere, honako hauetako bat bada: esnegintzari, mahastizaintzari nahiz madariaren, mertxikaren, nektarinaren, azukre-erremolatxaren eta azukre-kanaberaren laborantzari behin betiko uztea, edo bananondoak, sagarrondoak, madariondoak, mertxikondoak eta nektarinondoak erauztea.

    b) Europar Batasunaren arrantza-politikatik datozen laguntzak jasotzea, haien zergatia, betiere, honako hauetako bat bada: arrantza-jarduera behin betiko uztea, itsasontzi baten arrantza-jarduera behin betiko geldiaraztea, edo itsasontzia eskuz aldatzea

hirugarren herrialde batean sozietate mistoak eratzeko edo sozietate horiek eratu direlako.

c) Arrantza-ontzi bat besterentzea, baldin eta eskuratzaileak, besterentze-datatik urtebeteko epea igarotakoan, hura zatitzeari ekiten badio eta arrantza-jarduera behin betiko geldiarazteko dagokion Erkidegoaren laguntza jasotzen badu.

d) Enpresa-jarduerei atxikitako ondare-elementuen sute, uholde, hondoratze, sumendien erupzio edo bestelako kausa naturalen ondoriozko suntsipena konpontzeko laguntza publikoak jasotzea.

e) Errepideko garraio-jarduera uzteagatiko laguntzak jasotzea, baldin eta administrazio eskudunak laguntza horiek emateko arautegi erregulatzailean ezarritako baldintzak betetzen dituzten garraiolariei ordaindutakoak badira.

f) Abereak nahitaez hiltzeagatik kalte-ordain publikoak jasotzea, abereen epidemia edo gaitzak desagerrarazteko jarduketak direla eta. Letra honetan jasotakoak ugalketarako animaliei baino ez die eragingo.

g) Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik (NBEF) jasotako laguntzak, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) datozen laguntzak, eta klimaren eta ingurumenaren aldeko araubideei (ekoaraubideak) emandakoak.

Zenbaki honetan aipatzen den errenta kalkulatzeko, bi hauek hartuko dira kontuan: batetik, jasotako laguntzen zenbatekoa; eta, bestetik, halakorik egonez gero, ondare-elementuetan izandako ondare-galerak. Aurreko c) letraren kasuan, ondare-irabaziak ere konputatuko dira. Diru-laguntza horien zenbatekoa elementuotan gertatutako galerak baino txikiagoa denean, diferentzia negatiboa zerga-oinarrian sartu ahal izango da. Galerarik ez badago, laguntzen zenbatekoa bakarrik salbuetsiko da kargatik.

Jasotzen diren laguntza publikoak ez badira zenbaki honetan aipatutakoak, baina haien helburua ondare-elementuek sute, uholde, hondoratze edo bestelako arrazoi naturalengatik jasandako kalteak konpontzea bada, konponketa-kostua gainditzen duen laguntza zatia sartuko da zerga-oinarrian. Konponketa-gastuak, laguntza horren zenbatekoraino, ez dira inoiz ere kengarriak izango, eta ez dira hobekuntza gisa konputatuko.

Salbuetsita egongo dira, zergadunaren ohiko etxebizitza edo ekonomia-jardueraren lokala arrazoi berberagatik aldi baterako edo behin betiko utzi beharra konpentsatzeko jasotako laguntza publikoak.

19. Baso-finkak ustiatzen dituztenei emandako diru-laguntzak, betiere finka horien kudeaketa Administrazio eskudunak onartutako planen arabera egiten bada -basoak kudeatu eta mendiak antolatzeko plan teknikoekin nahiz plan dasokratikoekin edo baso-berritze planen arabera, alegia-, eta batez besteko ekoizpen-aldia hogeita hamar urtekoa edo handiagoa bada.

20. Epaimahaikidegaiek eta epaimahaikide titular eta ordezkoek beren eginkizunak betetzeko jasotako zenbatekoak.

21. Administrazio Publikoek zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz pertsonei egindako kalte fisiko, psikiko edo moralengatik ordaindutako kalte-ordainak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako prozeduren arabera ezartzen direnean.

22. Lurperaketa edo ehorzketagatik jasotako prestazioak, izandako gastu guztien zenbatekoraino.

23. Biziarteko errenta aseguratuak eratzean agerian jartzen diren errentak, baldin eta errentok 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren

banakako aurrezki-planetatik badatoz (lege horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu). Dena dela, kontuan hartu behar dira, halaber, foru arau honetako hirugarren xedapen gehigarrian jasotako berezitasunak.

24. Foru arau honetako 34. artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, urteko 1.500 euroko mugarekin.

    Salbuespen hau ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko entitateek banatutako dibidendu eta mozkinetako partaidetzei, ez eta dibidendu-partaidetzok ordaindu aurreko bi hilabeteetan eskuratutako balore edo partaidetzetatik datozenei ere, baldin eta data horren ondoren, baina epealdi beraren barruan, balore homogeneoak eskualdatu badira. Baloreak edo partaidetzak ez badira negoziagarriak Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean emandako 2014/65/EB Zuzentarauan (finantzatresnen merkatuari buruzkoa) definituta dauden bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan, epealdia urtebetekoa izango da.

    Era berean, salbuespen hori ez zaie aplikatuko kooperatibek beren kideei kideok egindako ekarpenengatik ordaindutako interesari.

25. Ahalmen-urritasunak dituzten pertsonek errenta moduan jasotako prestazioetatik eratortzen diren lan-etekinak, betiere foru arau honetako 72. artikuluan aipatzen diren ekarpenei badagozkie. Lanbide arteko gutxieneko soldata halako hiru izango da muga.

26. Familia-inguruneko zaintzarako eta norberari egokitutako laguntza-zerbitzuari lotutako diru-prestazio publikoak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legetik ondorioztatzen direnak.

27. Erregelamendu bidez ezartzen diren laguntza publikoak, sektore publikoak emanak.

28. Espetxeratuei askatasuna kentzea konpentsatzeko Estatuko legerian edo autonomia-erkidegokoetan aurreikusten diren kalte-ordainak, Amnistiari buruzko 1977ko urriaren 15eko 46/1977 Legean jasotako kasuen ondorio direnak, baita gerra zibilaren eta diktaduraren garaian jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aitortzen eta zabaltzen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen 2007ko abenduaren 26ko 52/2007 Legean aurreikusten diren kalte-ordainak ere.

29. Askatasun eta eskubide demokratikoak defendatuz eta aldarrikatuz hiltzeagatik eta ezintasunak eragin zituzten lesioak izateagatik jasotzen diren kalte-ordainak, 2007ko abenduaren 26ko 52/2007 Legean aurreikusitakoak badira (lege horrek gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen ditu, eta haien aldeko neurriak ezartzen ditu).

30. 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2014ko urriaren 29koa Aginduaren ondoriozko laguntzak (lege hori Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzkoa da, eta sailburuaren agindua, berriz, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzekoa.) Orobat salbuetsita egongo dira lurraldeko administrazio publikoek 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren xede bererako ematen dituzten laguntzak.

31. Eskola Kiroleko Egitarauaren barnean edo eskola adinean dauden kirolarientzako Bizkaiko Foru Aldundiak baimendutako jardueretan edo Eusko Jaurlaritzaren urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak araututako Euskadiko kirol- federazioen jardueretan diharduten monitore, arbitro, epaile, ordezkari, kirol-arduradun, federazioko zuzendari tekniko eta entrenatzaileen etekinak, betiere zerga honen aitorpena egiteko betebeharrik ez dakarten lan-etekin gordinak gainditzen ez badituzte.

32. Foru arau honetako hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren epe luzerako aurrezki-planak eratzeko erabiltzen diren bizi-aseguru, gordailu eta finantza-kontratuetatik datozen kapital higigarriaren etekin positiboak, baldin eta zergadunak ez badu plan horretako kapitala erabiltzen hura irekitzen denetik bost urte igaro baino lehen.

    Epe hori amaitu baino lehen erabiltzen bada kapitalen bat edo betetzen ez bada foru arau honetako hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian zehaztutako betekizunetako edozein, aurreko paragrafoan aipatzen diren etekinak, plana indarrean egon den bitartean sortuak, ez-betetzea gertatzen den ekitaldiko zergaldian hartu behar dira kontuan.

33. Bizitzako gutxieneko diru-sarrera ezarri duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean araututako bizitzako gutxieneko diru-sarrera gisa jasotakoak.

34. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuan ezarritako konpentsazio ekonomikoak (dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortu ziren eta biktima horiei ordainak eman zitzaizkien).

35. Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legearen aurreikuspenen arabera aitortutako kalte-ordainak.

36. 1950-1985 aldian Espainian talidomidak kaltetutako pertsonei laguntzak emateko prozedura arautzen duen 2023ko uztailaren 4ko 574/2023 Errege Dekretuan aurreikusitako laguntzak, bai eta talidomidak kaltetutako pertsonatzat jotzearen ondorioz jasotzen den edozein errenta, ondare-irabazi, pentsio edo edozein motatako jasotze ere, kontzeptua edozein dela ere.

37. 65 urtetik gorako zergadunek bizi-aseguruen kontratuetatik kapital edo erreskate gisa jasotako biziraupen-prestazioetatik datozen etekinak, baldin eta lortutako zenbateko osoa haien aldeko biziarteko errenta aseguratu bat eratzeko erabiltzen bada, sei hilabeteko epearen barruan, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan. Gehienez ere 240.000 euro erabili ahal izango dituzte horrela biziarteko errentak eratzeko.

    Zergadunak foru-arau honen 42 f) artikuluan aurreikusitako salbuespena ere aplikatzen badu, aurreko paragrafoan aurreikusitako gehieneko kopurua 42 f) artikulu horretako lehen paragrafoan aurreikusitakoarekin batera aplikatuko da.

    Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada jasotako prestazioaren zenbateko osoa baino, berrinbertitutako kopuruari dagokion kapital higigarriaren etekinaren zati proportzionala bakarrik utziko da zergapetu gabe.

    Eratutako biziarteko errentaren ondoriozko eskubide ekonomikoak guztiz edo partez aurreratzen badira, kasu horretan lortzen den kapital higigarriaren etekina zergapetu egingo da.

## III. TITULUA
## ZERGADUNAK

### 10. artikulua. Zergadunak.

1. Foru arau honetako 2. artikuluko 1. zenbakiko a) eta b) letretan aipatzen diren pertsona fisikoak dira zergadunak.

2. Espainiar nazionalitatea duten pertsona fisikoek ez diote zerga honen zergadunak izateari utziko, baldin eta, Bizkaiko zergei buruzko arautegiaren mende egonik, frogatzen badute beren zerga-egoitza berria paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean dutela. Erregela hau egoitza aldatzen den zergaldian eta hurrengo lauetan aplikatuko da.

**11. artikulua. Errentak esleitzea.**

1. Sozietate zibilen -nortasun juridikoa izan ala ez-, jaraunspen jasogabeen, ondasun-erkidegoen eta Zergei buruzko Foru Arauko 34. artikuluko 3. zenbakian jasotako gainerako entitateen errentak bazkideei, jaraunsleei, erkideei edo partaideei esleituko zaizkie, hurrenez hurren, foru arau honetako IV. tituluko VI. kapituluaren 2. atalean ezarritakoaren arabera.

   Zenbaki honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko foru arau honetako hogeita hamalaugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren sozietate zibiletako bazkideei.

2. Errenta-esleipenaren araubidea ez zaie aplikatuko eraldaketarako nekazaritza-sozietateei, hauek Sozietateen gaineko Zerga ordainduko baitute.

3. Errentak eratxikitzeko araubidean dauden erakundeak ez dira sozietateen gaineko zergaren mende egongo, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 31 bis.11 artikuluan xedatutakoa aplikatzekoa denean izan ezik.

4. Errenta-eratxikipenaren araubidea ezin zaie aplikatu testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenei; jaraunspen horiek foru arau honetako 12. artikuluko 6. idatz-zatian ezarritako karga jasango dute.

**12. artikulua. Errentak indibidualizatzea.**

1. Errenta bat zergadunak lortutakotzat joko da errentaren jatorri edo iturriaren arabera, ezkontzaren edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoa, halakorik bada, zeinahi dela ere.

2. Lanaren etekinak bakar-bakarrik esleituko zaizkio etekina jasotzeko eskubidea sortu duenari. Alabaina, foru arau honetako 18. artikuluko a) letran aipatzen diren prestazioak prestazio horiek aitortuta dituzten pertsona fisikoei esleituko zaizkie.

3. Ekonomia-jardueren etekinak jarduera horiei afektatutako produkzio-bideak edo giza baliabideak ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean bere kontura antolatzen dituenak lortutakoak direla jotzen da.

   Kontrakoaren frogarik ezean, baldintza horiek ekonomia-jardueren titular gisa ageri diren pertsonek betetzen dituztela joko da.

4. Kapitalaren etekinak etekinok sortzen dituzten ondare-elementuen (ondasunak edo eskubideak) titular diren zergadunei esleituko zaizkie.

   Aurreko lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, ondasunak eta eskubideak honela esleituko zaizkie zergadunei: titulartasun juridikoari buruz kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauekin bat etorriz eta zergadunek aurkeztutako frogak eta Administrazioak aurkitutakoak kontuan hartuta.

   Hala denean, ondasunen eta eskubideen titulartasuna nori dagokion erabakitzeko, titulartasun juridikoari buruz honako hauetan ezartzen diren arauak aplikatuko dira: bai ezkontzaren edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoari buruzko xedapenetan jasotakoak, bai eta familiako kideen arteko ondare-harremanei aplikatu beharreko legeria zibileko manuetan jasotakoak ere.

   Ezkontzaren edo izatezko bikotearen ekonomia- eta ondare-araubideari dagozkion xedapenen edo itunen arabera ondasunen eta eskubideen titulartasuna biena bada, erdi bana esleituko zaizkie, beste partaidetza-kuota batzuk aplikatu behar direla frogatu ezean.

   Ondasunen edo eskubideen titulartasuna behar bezala egiaztaturik ez badago, Zerga Administrazioak erregistro fiskal batean edo beste erregistro publikoren batean halakotzat agertzen dena hartu ahal izango du titulartzat.

5. Ondare-irabazi edo -galerarik izanez gero, aurreko letran ezarritakoaren arabera irabazi eta galerok sortu dituzten ondasun, eskubide eta gainerako ondare-elementuen titular diren zergadunek lortutakoak direla ulertuko da.

   Justifikatu gabeko ondare-irabaziak, berriz, haiek sortu dituzten ondasunen edo eskubideen titulartasunaren arabera esleituko dira.

   Aurreko eskualdaketa batetik ez datozen ondasun eta eskubideen eskuratzeak haiek lortzeko eskubidea duen pertsonaren edo haiek zuzenean irabazi dituen pertsonaren ondare-irabazitzat joko dira.

6. Testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsietan, ahalordea erabili bitartean, jarauntsiaren ondasunen gozamendunari esleituko zaizkio jarauntsiari dagozkion errentak, errenta horien jatorri edo iturriaren arabera. Aurreko 3. zenbakian xedatutakoa gorabehera, ekonomia-jardueren etekinak gozamendunari egotziko zaizkio, ekonomia-jardueren etekin modura esleitu ere.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Foru Arau honen 35. artikuluan aipatzen diren kapital higigarriaren etekinak eta ondasunak edo eskubideak eskualdatzearen ondorioz eskuratutako ondare-irabaziak eta ondare-galerak, baldin eta testamentu-ahalordea noiz erabili zain dauden jaraunspenen baitako besteren kapitalen erakarpena eta erabilera ordezten dituzten aktiboak eskualdatuz lortzen badira, baldin eta eskualdaketa horrek ez badakar Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapenik, jarauntsiari berari eratxikiko zaizkio eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu duen urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauko II. Tituluaren I. Kapituluan ezarritakoaren arabera kargatuko dira.

   Haien gaineko gozamen-eskubiderik ez duten ondasun edo eskubideei dagokienez, ondasun-eskubideon errentak jarauntsiari berari esleituko zaizkio eta urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauko II. tituluaren I. Kapituluan ezarritakoaren arabera tributatuko dute (arau horrek Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tributu-Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunei egokitzen du).

   Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 140. artikuluan ezarritako ezkontza ondoko erkidegoaren errentak, testamentu- ahalordea erabili bitartean, erdi bana esleituko zaizkie ezkontide alargunari eta testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dagoen jarauntsiari, aurreko bi paragrafoetan ezarritako erregelen arabera.

   Aurreko paragrafoan jasotakoa izatezko bikoteei aplikatuko zaie, izatezko bikoteak ezartzen duen ondare- eta ekonomia-araubideari Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 2015eko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen manu hori aplikatu behar zaionean.

# IV. TITULUA
# ZERGA-OINARRIA

## I. KAPITULUA
## ARAU OROKORRAK

### 13. artikulua. Zerga-oinarriaren kontzeptua.

Zerga-oinarria zergadunak zergaldian lortutako errentaren kopurua izango da, eta titulu honetan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

### 14. artikulua. Zerga-oinarria zehaztea.

1. Zerga-oinarria zuzeneko zenbatespenaren araubidearen arabera zehaztuko da, edo, modu subsidiarioan, zeharkako zenbatespenaren araubidearen arabera, Zergei buruzko Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz.

2. Zerga-oinarria kuantifikatzeko, honako hurrenkera honi jarraituko zaio:

   1. Errentak jatorriaren arabera kalifikatuko dira.

   2. Etekin garbiak, ondare-irabazi eta -galerak zein egotzi beharreko errentak titulu honetan aurreikusitako erregelen arabera kuantifikatuko dira.

   3. Errentak integratu eta konpentsatuko dira beren jatorria zein den eta errenta orokor bezala edo aurrezkiaren errenta bezala sailkatuta dauden begiratuta.

   Eragiketa horien emaitza zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga-oinarria izango dira.

## II. KAPITULUA
## LANAREN ETEKINAK

### 15. artikulua. Lanaren etekinen kontzeptua.

Kontraprestazio eta onura guztiak hartuko dira lanaren etekintzat, haien izena edo izaera zeinahi dela ere, eta diruzkoak nahiz gauzazkoak izan, betiere zergadunaren lan pertsonaletik edo hark duen lan-harremanetik edo estatutupeko harremanetik zuzenean edo zeharka eratorritakoak badira eta ekonomia-jardueren etekinak ez badira.

Gauzazko ordainketatzat jotzen dira ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak dohainik edo merkatuko ohiko preziotik behera nork bere xedeetarako erabili, kontsumitu edo lortzea, nahiz eta ematen dituenarentzat gastu erreala ez izan.

Errentak ordaintzen dituenak zergadunari eskudirutan ordaintzen dionean azken horrek ondasun, eskubide edo zerbitzuak eros ditzan, errenta diruzkoa dela joko da.

### 16. artikulua. Diruzko lan-etekinak.

Besteak beste, honako hauek izango dira diruzko lan-etekinak:

a) Soldatak eta alokairuak.

b) Langabezia-prestazioak eta langile autonomoek jarduerari uzteagatik jasotzen dituztenak.

c) Ordezkaritza-gastuengatik ematen diren ordainsariak.

d) Bidaia-gastuetarako dietak eta ordainketak, salbu eta lokomozio-gastuak eta ostalaritzako establezimenduetan egiten diren mantenu- eta egonaldi-gastu arruntak, erregelamendu bidez ezarritako mugen barruan betiere.

e) Aurreko artikuluan zerrendatu diren harremanetatik eratorritako sari eta kalte-ordainak.

### 17. artikulua. Gauzazko lan-etekinak.

1. Besteak beste, honako hauek izango dira gauzazko lan-etekinak:

   a) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek ordaindutako kontribuzioak edo ekarpenak eta, orobat, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege-Dekretuak, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategina onartu duenak, arautzen dituen pentsio planen sustatzaileek edo Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak 2016ko abenduaren 14an enpleguko pentsio funtsen jarduerei eta ikuskapenari buruz emandako (EB) 2016/2341 Arteztarauan ezarritako enpresa sustatzaileek egindakoak.

   b) Enpresaburuek pentsioengatik hartutako konpromisoei aurre egiteko ordaindutako kontribuzio edo ekarpenak, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian eta hura garatzeko araudian aurreikusitako

eran, betiere ordainketa horiek guztiak prestazioekin lotutako pertsonei egozten bazaizkie (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen). Enpresen gizarte-aurreikuspeneko planekin zer ikusirik ez duten aseguru kolektiboko kontratuetan borondatezkoa izango da egozpen fiskal hori, baina ordaindutako gainerako primei buruz hartzen den erabakia aseguru-kontratua amaitu arte mantendu beharko da. Dena den, arrisku-aseguruen kontratuetan derrigorrez egin beharko da egozpen fiskala, hurrengo zenbakiko f) letran xedatutakoaren kalterik gabe. Aseguru-kontratuetan aldi berean erretiroa, heriotza edo lanerako ezintasuna estaltzen direnean, egozpen fiskala ez da inolaz ere nahitaezkoa izango.

c) Etxebizitza erabiltzea karguren bat betetzeagatik edo enplegatu publiko nahiz pribatua izateagatik.

d) Ibilgailuak erabiltzea edo ematea.

e) Maileguak diruaren legezko interes-tasatik behera ematea.

f) Mantenu, ostatu, turismo-bidaia eta antzekoengatik emandako prestazioak.

g) Aseguru-kontratuengatik edo antzeko beste kontratu batzuengatik enpresak ordaindu dituen primak edo kuotak, hurrengo zenbakiko e) eta f) letretan xedatutakoa izan ezik.

h) Zergadunaren, haren ezkontide edo izatezko bikote-lagunaren mantenu- eta ikasketa-gastuak nahiz ahaidetasun-harreman batengatik harekin lotuta dauden pertsonenak (ezkon-ahaideenak edo izatezko bikoteak eratzeak sortaraz ditzakeen bestelakoenak) ordaintzera zuzendutako kopuruak.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa hala izanik ere, honako hauek ez dira gauzazko lan-etekintzat hartuko:

a) Enpresetako taberna eta jantokietan edo gizarte ekonomatuetan langileei merkatutako prezioetan egiten zaizkien ekoizkinen emateak. Enpresako jantokietan prezio merkeagoko produktu-entregatzat hartuko dira zerbitzua emateko zeharkako formulak, baldin eta haien zenbatekoak ez badu gainditzen erregelamendu bidez ezarritako zenbatekoa, zerbitzua ostalaritza-establezimenduaren lokalean bertan edo handik kanpo ematen bada ere, langileak jaso ondoren edo langileak bere lantokian edo berak aukeratutako lekuan entregatuta, urrutitik edo telelanaren bidez egiten den egunetan.

b) Enplegatutako langileen gizarte- eta kultura-zerbitzuetarako ondasunak erabiltzea langileok. Besteak beste, honako hauek hartuko dira halakotzat: batetik, enpresek edo enplegu-emaileek langileen seme-alabei haur hezkuntzako lehen zikloaren zerbitzua emateko eskura jartzen dizkieten espazio eta lokalak, administrazio publiko eskudunak behar bezala homologatuak beti; bestetik, zerbitzu hori behar bezala baimendutako hirugarrenek emateko haiekin egindako kontratazioa edo zerbitzu hori eskaintzeko zeharkako formulak, betiere haien zenbatekoak erregelamendu bidez ezartzen den kopurua gainditzen ez duenean.

c) Langileen eguneratze, trebakuntza edo birziklatzerako erabiltzen diren zenbatekoak, baldin eta halakoak beharrezkoak badira jardueren garapenagatik edo lanpostuen ezaugarriengatik.

d) Enplegatutako langileak teknologia berrietan trebatzeko kopuruak, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

e) Langilearen lan-istripuko edo erantzukizun zibileko aseguru-kontratua dela-eta enpresak ordaindu dituen primak edo kuotak.

f) Heriotza edo baliaezintasun kasuetarako arrisku garbiko aldi baterako aseguru kolektiboen kontratuei dagozkien sariak, erregelamendu bidez ezartzen den mugaraino.

g) Bidaiarien garraio kolektiboko zerbitzu publikoa emateaz arduratzen diren entitateei ordaintzen zaizkien zenbatekoak, enplegatuak bizi diren lekutik lantokira joan daitezen laguntzeko, urtean 1.500 euroko muga izanik langile bakoitzarentzat. Zerbitzu publiko hori emateko ardura duten entitateei ordaindutako kopurutzat hartuko dira, halaber, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten zeharkako ordainketa-formulak.

**18. artikulua. Beste lan-etekin batzuk.**

Honako hauek ere lan-etekintzat hartuko dira:

a) Honako prestazio hauek:

1. Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen erregimen publikoetatik jasotako pentsioak eta hartzeko pasiboak zein ezintasun, erretiro, istripu, gaixotasun, alarguntza edo antzeko egoerengatik erakunde publikoek emandako gainerako prestazioak, foru arau honetako 9. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

   Aurreko lerroaldean xedatutakoa hala izanik ere, ekonomia-jardueretan aritzen direnek prestazioak edo zenbatekoak jasotzen badituzte Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak ezartzen dituen kontzeptuetako bat dela-eta, eta kontzeptuok jardueretan aldi baterako ezin aritzea badakarte, prestazio edo zenbateko horiek jardueren etekin gisa konputatuko dira.

2. Funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorretatik, zurtzen erakundeetatik eta antzeko beste erakundeetatik onuradun gisa jasotzen diren prestazioak.

3. Jarraian zerrendatzen diren prestazio hauek:

   a) Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetako bazkide osoek eta haien onuradunek jasotako zenbatekoak, borondatezko edo nahitaezko bajagatik, entitatea desegin edo likidatzeagatik, edota gaixotasun larriaren kasuan nahiz iraupen luzeko langabezia egoeretan jasotakoak barne.

      Dena den, borondatezko edo nahitaezko bajagatik nahiz entitatea desegin edo likidatzeagatik jasotako zenbatekoak, oso-osorik, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko beste erakunde batean sartzen badira, bi hilabeteko epea igaro baino lehen, zenbateko horiek guztiak ez zaizkio batuko zergaren zerga-oinarriari.

   b) Pentsio-planen onuradunek jasotako prestazioak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 8. artikuluaren 8. paragrafoan aurreikusitako kasuetan aldez aurretik xedatutako kopuruak barne eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan, enpleguko pentsio-funtsen jarduerei eta ikuskapenari buruzkoan, arautako pentsio-planetatik jasotakoak.

4. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin hitzartutako aseguru-kontratuen onuradunek jasotako prestazioak, baldin eta haien ekarpenak, zati batean behintzat, gastu kengarritzat hartu ahal izan badira ekonomia-jardueren etekin garbia kalkulatzerakoan edo zerga honen zerga-oinarria murriztu badute.

   Aurreko kontratu horietatik eratortzen diren erretiro- eta baliaezintasun-prestazioak zerga-oinarrian sartuko dira, baldin eta prestazio horietatik jasotako zenbatekoa handiagoa bada foru arau honetako 72.4.a) artikuluan, zazpigarren xedapen gehigarrian edo zortzigarren xedapen gehigarrian zehaztutako baldintzak ez betetzeagatik zerga-oinarria murrizteko edo gutxitzeko erabili ezin izan diren ekarpenen zenbatekoa baino.

5. Enpresen gizarte-aurreikuspeneko planen onuradunek jasotako prestazioak.

6. Enpresen gizarte-aurreikuspeneko planekin zerikusirik ez duten aseguru kolektiboko kontratuen onuradunek erretiro eta elbarritasunagatik jasotako prestazioak, haien zenbatekoek fiskalki egotzitako kontribuzioak eta langileek zuzenean egindako ekarpenak gainditzen dituzten neurrian. Nahitaezkoa da, betiere, kontratu horiek enpresek pentsioengatik hartutako konpromisoak bideratzeko izatea, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian eta hura garatzeko araudian aurreikusitako eran (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

7. Bermatutako aurreikuspen planen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak, are aldez aurretik jarritako kopuruak ere, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Pentsio plan eta funtsak arautzeko Legearen testu bateratuak 8. artikuluaren 8. idatz zatian jasotako kasuetan.

8. Mendetasun-aseguruen onuradunek jasotako prestazioak, 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoaren arabera (lege hori autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa da).

b) Europako Parlamentuko diputatuei, Gorte Nagusietako diputatu eta senatariei, Euskal Autonomia Erkidegoko legebiltzarkideei, beste autonomia-erkidegoetako legebiltzarkideei, Batzar Nagusietako prokuradoreei, udaletako zinegotziei eta foru-aldundietako nahiz beste toki-erakundeetako kideei euren kargua dela eta ordainduriko zenbatekoak, betiere kanpo utzita erakunde horiek bidaia eta joan-etorrien gastuetarako esleitzen duten zatia.

c) Nazioarteko erakundeetan aritzen diren funtzionario espainiarrei egindako ordainketak, nazioarteko hitzarmen eta tratatuetan aurreikusitakoaren kalterik gabe.

d) Legez aitortutako erlijioetako ministro edo apaiz lanak betetzeagatik lortutako kopuruak.

e) Administrazio-kontseiluetako eta haien ordezko batzordeetako administratzaile eta kideek nahiz bestelako ordezkaritza-organoetako kideek jasotako ordainketak.

f) Sozietateen sortzaile edo sustatzaileek beren zerbitzu pertsonalen ordainsari gisa beretzat gordetzen dituzten eskubide ekonomiko bereziak.

g) Bekak, foru arau honetako 15. artikuluan deskribatutako harremanetako batetik datozenean, foru arau honetako 9. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

h) Jarduera humanitarioetan edo gizarte-laguntzakoetan jarduteagatik jasotzen diren ordainsariak, foru arau honetako 9. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

i) Ezkontidearengandik edo izatezko bikotekidearengandik jasotzen diren konpentsazio-pentsioak, eta mantenurako urtekoak, foru arau honetako 9. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

   Ez dira halakotzat hartuko foru arau honetako 69. artikuluko bigarren lerroaldean ezartzen dena aplikatu behar bada.

j) Izaera bereziko lan-harremanetatik eratorritako ordainketak.

**19. artikulua. Lanaren etekin osoa.**

1. Lanaren etekin osoa kapitulu honetako aurreko artikuluetan definitu diren etekin guzti-guztiek osatzen dute, oro har.

2. Alabaina, zenbaki honetan zerrendatzen diren kasuetan, lanaren etekin osoa kalkulatuko da portzentaje jakin batzuk aplikatuz kapitulu honetako aurreko artikuluetan definitu diren etekinen zenbateko osoari. Hauek dira portzentajeok:

a) Lanaren etekinak bi urtetik gorako epean sortu direnean eta aldizka edo noizean behin lortu ez direnean, %60 aplikatuko da; portzentaje hori %50 izango da, berriz, sorrera-aldia 5 urtetik gorakoa denean edo, erregelamendu bidez, etekin horiek denboran era irregular nabarmenean lortutakotzat jotzen direnean.

Etekinak zatika kobratzen badira, etekinaren sorrera-aldia zenbatzerakoan kontuan hartuko da zenbat urtetan zatikatzen den kobrantza, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

Letra honetan aipatzen diren etekinei %100tik beherako integrazio-portzentajeak aplikatuko bazaizkie ere, etekinon zenbatekoa ezin dira 300.000 euro baino handiagoa izan urtean. Zenbateko horretatik gorako soberakina %100ean integratuko da.

%100 baino integrazio-portzentaje txikiagoa aplikatu behar zaien etekinak jasotzen badira, aurreko lerroaldean zehazten den 300.000 euroko muga zenbatzerakoan, lehenengo eta behin, integrazio-portzentaje txikienei dagozkien etekinak hartuko dira kontuan.

b) Foru arau honetako 18.a) artikuluan aurreikusitako prestazioak -6. zenbakikoak kanpoan utzita- kapital moduan jasotzen badira, jasotako zenbatekoa %100ean integratuko da.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena gorabehera, kapital gisa jasotako zenbatekoa %60an integratuko da, kontingentzia bakoitzagatik jasotzen den lehenengo prestazioa bada, betiere bi urte baino gehiago igaro badira lehenengo ekarpena egin zenetik. Prestazioak baliaezintasun edo mendetasunagatik jasotzen badira, ez da galdatuko bi urteko epea betetzea.

Paragrafo honetan ezarritako tratamendua gaixotasun larriaren eta iraupen luzeko langabeziaren kasuetan jasotako zenbatekoei ere aplikatuko zaie, bai eta eskubide ekonomikoen edo eskubide kontsolidatuen erreskatearen edo borondatezko edo nahitaezko bajaren kasuetan jasotakoei ere.

Letra honetan ezarritako ondorioetarako, zergaldi berean kapital moduan jasotako kopuruen batura hartuko da jasotako lehenengo zenbatekotzat.

...

c) Etekinak foru arau honetako 18. artikuluko a) letrako 6. zenbakian aipatzen diren aseguru kolektiboen kontratuengatik kapital moduan jasotako prestazioetatik baldin badatoz eta, betiere, enpresaburuen ekarpenak prestazioak jasotzen dituzten pertsonei egotzi bazaizkie, honela jokatuko da:

a') Erretiro-prestazioen kasuan .

- %60, haiei dagozkien primak prestazioak jaso baino gutxienez bi urte lehenago ordaindu badira.

- %25, haiei dagozkien primak prestazioak jaso baino gutxienez bost urte lehenago ordaindu badira. Lehen prima ordaindu denetik zortzi urte baino gehiago igaro badira eta kontratuaren iraupenean zehar ordaindutako primek aldizkakotasun eta erregulartasun nahikoa gordetzen badute, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, kontratu hauengatik jasotako prestazioen etekin osoari portzentaje hori bera aplikatuko zaio.

b') Elbarritasun-prestazioen kasuan:

- %25, baliaezintasuna erregelamendu bidez ezarritako modu eta graduen barruan dagoenean edo prestazioak zortzi urtetik gorako antzinatasunaz hitzartutako aseguru-kontratuetatik datozenean, baldin eta kontratuaren iraupenean zehar

ordaindutako primek aldizkakotasun eta erregulartasun nahikoa gordetzen badute, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

- %60, aurreko baldintzak betetzen ez direnean.

Era berean, honako prestazio hauei ere ezarri ahal izango zaie tratamendu hori: kapital gisa jasotako baliaezintasun-prestazioei, foru arau honetako 17.2.f) artikuluan jasotzen diren arrisku garbiko aldi baterako aseguru kolektiboetatik eratorritakoak badira.

Kapital moduan jasotako prestazioak foru arau honetako 18. artikuluko a) letrako 6. zenbakian aipatzen diren aseguru kolektiboen kontratuetatik datozenean, eta enpresaburuen ekarpenak egotzi ez zaizkienean prestazioak jasotzen dituzten pertsonei, %60 aplikatuko da:

- Elbarritasun-prestazioak direnean.

- Prestazioei dagozkien primak haiek jaso baino gutxienez bi urte lehenago ordaindu direnean.

Letra honetan, c) letran, jasotzen diren portzentajeak aplikatzeko, formula erraztuak finkatu ahal izango dira, erregelamendu bidez.

Foru arau honetako 18.a) artikuluan aipatzen diren prestazioak errenta moduan jasotzen direnean eta egotzitako kontribuzio enpresarialek zerga-oinarria murrizten dutenean, oso-osorik konputatuko dira.

Zenbaki honetako b) eta c) letretan aipatzen diren etekinei %100etik beherako integrazio-portzentajeak aplikatuko bazaizkie ere, etekinon zenbatekoa ezin da 300.000 euro baino handiagoa izan urtean. Zenbateko horretatik gorako soberakina %100ean integratuko da.

### 20. artikulua. Akzioen gaineko aukerak.

1. Lanaren etekinak sortzen badira subjektu pasiboak erabili egin dituelako berak lan egiten duen entitatearen, sozietate taldeko beste edozein entitateren edo harekin lotuta dagoen beste edozein entitateren akzioen gainean zituen aukerak, honako berezitasun hauek hartuko dira kontuan lanaren etekin garbia zehazterakoan:

   a) Soilik ulertuko da lanaren etekin horien sorrera-aldia bi edo bost urte baino handiagoa dela eta etekinok ez direla aldizka edo noizean behin lortzen, baldin eta eskubideak erabiltzen badira haiek eman ziren egunetik aurrera bi edo bost urte igaro ondoren, hurrenez hurren, eta, gainera, eskubideok ez badira urtero ematen.

   b) Aurreko 19.2a) artikuluan jasotzen diren portzentajeak aplikatzeko hartuko den etekinaren zenbatekoa ezin da handiagoa izan, erregelamendu bidez ezartzen den kopurua bider etekinaren sorrera-urteak eginez lortzen den zenbatekoa baino.

2. Aurreko zenbakian aipatutako mugaren zenbatekoa bikoiztu egingo da akzioen gaineko aukeren emateek baldintza hauek betetzen dituztenean:

   a) Eskuratutako akzio edo partaidetzak gutxienez 3 urtez eduki behar dira, erosteko aukera erabili denetik kontatzen hasita.

   b) Erosteko aukerak enpresako edo enpresa-taldeko zein -azpitaldeko langile guzti-guztiei eskaini behar zaizkie, baldintza berdinetan.

### 21. artikulua. Lanaren etekin garbia.

Etekin osoei gastu kengarrien eta hobariaren zenbatekoa kenduz kalkulatuko da lanaren etekin garbia.

### 22. artikulua. Gastu kengarriak.

Gastu kengarritzat honako hauek hartuko dira soil-soilik:

a) Gizarte Segurantzari edo funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorrei egindako kotizazioak, eskubide pasiboengatiko murrizketak eta zurtzen erakundeei edo antzeko erakundeei egindako kotizazioak, eta, orobat, zergadunek Gizarte Segurantzaren ordezko entitate edo instituzioei ordaindutako zenbatekoak, baldin eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, haiek beren gain hartu badute Gizarte Segurantzari dagozkion zenbait kontingentziaren prestazioa.

b) Herri-hautapeneko kargu politikoek eta izendapen askeko kargu politikoek euren erakunde politikoari nahitaez emandako kopuruak.

Kopuru horien muga lanpostu hori betez lortutako etekin osoen %25 izango da, betiere etekin horiek zergadunaren errenta-iturri nagusia baldin badira.

Foru arau honetako 116. artikuluko i) letran aipatzen den eredu informatiboan sartuta dauden zergadunek baino ezingo dute aplikatu letra honetan jasotakoa.

### 23. artikulua. Lanaren etekinen hobaria.

1. Lanaren etekin osoaren eta gastu kengarrien arteko diferentzia positiboak honako hobari hauek izango ditu:

   a) Diferentzia 7.500 euro edo txikiagoa bada, 4.650 euroko hobaria egingo da.

   b) Diferentzia 7.500,01 eta 15.000 euro artekoa bada, honako hobari hau egingo da: 4.650 euro ken diferentzi horri 7.500,00 euro gutxitu ondoren ateratzen den zenbatekoa bider 0,22 egitetik ateratzen den zenbatekoa.

   c) Diferentzia 15.000 eurotik gorakoa bada, 3.000 euroko hobaria egingo da.

2. Zerga-oinarrian lanetik ez datozen errentak konputatzen badira, eta errentok 7.500 eurotik gorakoak badira, hobaria 3.000 eurokoa izango da.

3. Aurreko zenbakietan aipatzen diren hobariak gehitu egingo dira kasu hauetan:

   a) %100; desgaitasun-gradua %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa duten langile aktibo desgaituentzat.

   b) 100eko 250, desgaitasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten langile aktibo desgaituentzat, baldin eta mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badaude –mugikortasuna murriztuta dutela joko da Mugikortasun Jardueren Mugen azpibaremoan, desgaitasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren bidez onetsian, 100eko 25eko edo hortik gorako mugikortasun falta ematen zaienean–. Orobat, 100eko 65eko edo hortik gorako desgaitasuna duten langile aktibo desgaituentzat ere 100eko 250 gehituko da hobaria.

4. Artikulu honetan aurreikusitako hobaria aplikatzearen ondorioz ateratzen den lanaren etekin garbia ezingo da negatiboa izan.

## III. KAPITULUA
## EKONOMIA-JARDUEREN ETEKINAK

### 24. artikulua. Ekonomia-jardueren etekin osoen kontzeptua.

1. Honako hauek hartzen dira ekonomia-jardueren etekin osotzat: norberaren lanetik eta kapitaletik -bietatik aldi berean edo horietako batetik bakarrik- datozen etekinak, baldin eta,

haiek lortzeko, zergadunak produkzio-bideak eta giza baliabideak -edo bietako bat bakarrik- bere kontura antolatzen baditu, ondasun eta zerbitzuen produkzio edo banaketan esku hartzeko.

Bereziki, halakotzat jotzen dira erauzketa-, fabrikazio- eta merkataritza-jardueren etekinak zein zerbitzuak emateko jardueren etekinak, artisautza, nekazaritza, basogintza, abeltzaintza, arrantza, eraikuntza eta meatzaritzako jarduerak nahiz jarduera profesionalak barne.

2. Ekonomi Jardueren gaineko Zergari buruzko tarifen bigarren eta hirugarren ataletan sailkatzen direnak baino ez dira joko jarduera profesionaltzat.

3. Higiezinen errentamendua eta salerosketa bakarrik joko da ekonomia-jardueratzat baldin eta jarduera hori antolatzeko pertsona bat badago, lan-kontratuarekin, lanaldi osoan eta jarduera horretarako dedikazio esklusiboarekin. Horri dagokionez, honako hauek ez dira kontratatutako pertsonatzat hartuko: batetik, zergadunaren ezkontidea, izatezko bikotekidea edo aurrekoa, ondorengoa edo bigarren graduko albo-ahaidea (ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotea eratzearen ondoriozko harremana edo adopzioa izan daiteke); bestetik, zergadunarekin lotura duten pertsonatzat jotzen direnak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42.3 artikuluaren ezartzen denaren arabera.

## 25. artikulua. Etekin garbia kalkulatzeko arau orokorrak.

1. Zuzeneko zenbatespenaren metodoa erabiliz egingo da etekin garbiaren kalkulua, eta modalitate hauek izango ditu:

   a) Arrunta.

   b) Erraztua. Modalitate hau ekonomia-jarduera jakin batzuei aplikatuko zaie, hain zuzen ere, zergadunak egindako jarduera guztiak hartuta, denek batera kasuan kasuko ekitaldiaren aurre-aurreko urtean 600.000 eurotik gorako eragiketa bolumena gainditzen ez dutenei.

   Foru Arau honen xedapen gehigarrietatik hogeita bederatzigarrenak ezarri duena hartuko da kontuan; xedapen horrek ezarri du magnitude hori ez dela aplikagarria izango nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta baxurako arrantzako jardueretan.

   Jarduera ekitaldiaren barruan egiten hasi bada, aurreko lerroaldean aipatzen den kopurua konputatzeko ekitaldi horretan egindako eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

   Jarduera hasi den ekitaldia urtebete baino laburragoa izan bada, aurreko kopurua konputatzeko, egindako eragiketak urtearekin parekatuko dira.

   Modalitate hau aplikatu ahal izateko, zergadunak beren-beregi adierazi beharko du hala nahi duela, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

2. Zergadunak ondasun, eskubide edo zerbitzuak dohainik laga edo mailegatzen dizkienean hirugarren batzuei, tartean kontraprestazioa dagoenean baina kontraprestazio hori ondasun, eskubide eta zerbitzuok merkatuan duten balio arrunta baino nabarmen txikiagoa denean eta, orobat, jardueraren xede diren ondasun edo eskubideak norberaren kontsumo eta erabilerarako bideratzen direnean, bada, hiru kasu horietan, foru arau honetako 58. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

3. Ekonomia-jardueren etekin garbia kalkulatzeko, haiei afektatutako ondare-elementuetatik eratortzen diren ondare-irabazi edo -galerak hartuko dira kontuan, zeinak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak ezarritakoaren arabera kuantifikatuko baitira.

   Halaber, aipatutako foru arau horretako 36. artikuluan aparteko mozkinen berrinbertsioari buruz xedatutakoa aplikatuko zaie. Berrinbertsioa aukeratu nahi bada, hura aplikatuko den

lehenengo ekitaldiko autolikidazioan adierazi behar da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 117.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren autolikidazioa egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

Hala denean, zenbaki honetan xedatutakoa aplikatuta irabazi edo galerak sortzen badira, irabazi-galerok ekonomia-jardueraren etekin arruntari gehitu edo kenduko zaizkio, etekin garbia kalkulatzeko.

4. Ekonomia-jardueraren etekin garbia bi urtetik gorako epean sortu denean eta aldizka edo noizean behin lortu ez denean, etekin horren %60 aplikatuko da; portzentaje hori %50 izango da, berriz, sorrera-aldia 5 urtetik gorakoa denean edo, erregelamendu bidez, etekin hori denboran era irregular nabarmenean lortutakotzat jotzen denean.

   Era irregular nabarmenean lortutakotzat jotako etekinak alde batera utzita, ez dira inola ere aplikatuko aurreko paragrafoan adierazitako integrazio-ehunekoak honako kasu hauetan:

   a) Halako etekinak modu erregularrean edo ohikoan eragiten dituzten ekonomia-jardueretatik eratorritako etekinak direnean.

   b) Ekonomia-jardueretatik datozen etekinen kasuan, jarduera horiek, orokorrean hartuta, berezkoa ez badute funtsen aplikazio eta lorpenen ziklo ondo definituak izatea, eta, hortaz, ez bada pasatzen bi urtetik edo bost urtetik gorako epea etekina sortzen duen inbertsioa egiten denetik etekina jasotzen den arte. Beraz, ezin izango zaizkie aplikatu diru-sarrerak sortzeko eragiketa jakin eta esklusiboei, modu isolatuan hartuta.

   Zatika kobratzen bada, sorrera-aldia zenbatzen denean kontuan hartu beharko da zenbat urtetan zatikatzen den kobrantza, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

   Integrazio-portzentajeak aplikatzeko hartuko den etekin garbiaren zenbatekoa ezin da izan 300.000 euro baino handiagoa urtean. Zenbateko horretatik gorako soberakina %100ean integratuko da.

   %100etik beherako integrazio-portzentajea aplikatu behar zaien etekinak jasotzen badira, aurreko paragrafoan zehazten den 300.000 euroko muga zenbatzerakoan, lehenengo eta behin, integrazio-portzentaje txikienei dagozkien etekinak hartuko dira kontuan

5. Ekonomia-jarduera bat hasten duten zergadunek %10 murriztu ahal izango dute jarduera horren etekin garbia, aurreko zenbakian ezarritakoa aplikatu ondoren betiere, etekin garbi hori positiboa den lehenengo zergaldian eta hurrengoan, beti ere etekin garbi positibo hori lortzen den lehenengo zergaldia jarduera hasi zenetik lehenengo bost zergaldien barruan gertatzen bada.

   Horri dagokionez, ez da ulertuko ekonomia-jarduera bat hasten denik, baldin eta zergadunak aurretik jarduera hori bera zuzenean edo zeharka egin badu. Zergadunak jarduera bera egiten duela ulertuko da jarduera hori talde berean sailkatuta badago Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren tarifetan.

   Murrizketa hau ez da aplikatuko baldin eta ekonomia-jardueraren ondoriozko sarreren %50 baino gehiago jarduera hasi aurreko urtean zergadunak lanaren etekinak jaso zituen pertsona edo entitate batengandik lortutakoak badira.

**26. artikulua. Jarduerari afektatutako ondare-elementuak.**

1. Honako hauek joko dira ekonomia-jarduera bati afektatutako ondare-elementutzat:

   a) Zergadunak jarduera garatzeko erabiltzen dituen ondasun higiezinak.

b) Jardueraren zerbitzupeko pertsonalaren zerbitzu ekonomiko eta soziokulturaletarako dauden ondasunak; ez dira afektatutzat joko, ordea, astialdi eta jolasaldirako ondasunak edo, oro har, ekonomia-jardueraren titularraren bakarreko erabilerakoak direnak.

c) Etekinak lortzeko beharrezkoak diren gainerako ondare-elementu guztiak. Ez dira inoiz ere horrelakotzat joko entitate baten funts propioetako partaidetza zein gainerakoei egindako kapital-lagapena adierazten duten aktiboak.

2. Ekonomia-jardueraren xederako zati batean bakarrik erabiltzen diren ondare-elementuak direnean, ulertuko da elementuon afektazioa jardueran benetan erabiltzen den zatiari mugatzen zaiola.

   Erregelamendu bidez zehaztu ahal izango da zein kasutan jo ahal izango diren ondare-elementu jakin batzuk ekonomia-jarduera bati afektatutzat, nahiz eta behar pribatuetarako erabili, erabilera hori osagarria eta guztiz garrantzigabea delako.

3. Ondare-elementuak jarduerari afektatutzat joko dira, kontuan hartu gabe ea titulartasuna bi ezkontideena edo izatezko bikoteko bi kideena den.

4. Zergadunak ondare-elementuak afektatzea edo aktibo ez-korronteak desafektatzeak ez du ondare-aldaketarik ekarriko, betiere ondasun-eskubideok haren ondarearen parte izaten jarraitzen badute.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoaren kalterik egin gabe, ekonomia-jarduerari afektatuta dauden elementuei atxikipena kentzen bazaie eta zergadunaren ondare pertsonalerako baliatzen badira, haien eskuratze-balioa honako hau izango da:

   a) Etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arrunta erabiltzen bada, atxikipena kentzen zaien unean zeukaten kontabilitate- balio garbia.

   b) Gainerako kasuetan, eskuratze-prezioaren eta dagoeneko egin diren edo egin beharko ziren amortizazioen arteko aldea.

   Elementuak jarduerari afektatuta egon diren denboran zergadunak etekinak kalkulatzeko bere ekonomia-jarduerari aplikatu dion modalitateak ezinezkoa egin badu —epe horretan guztian edo haren zati batean— berariazko kenkaria aplikatzea elementu horien amortizazioagatik, ulertu beharko da zergaldiotan kenkari gisa erabili den amortizazioa gehieneko epeen ondorioz ateratzen diren gutxieneko koefizienteak aplikatzetik ateratzen den amortizazioa izan dela; sozietateen gaineko zergaren araudian jasotzen da amortizazio hori.

   Geroagoko ondare-aldaketen ondorioetarako, eskuratze-baliotzat hartuko da bi faktore hauek biderkatzearen emaitza: batetik, desafektatutako ondare-elementuen eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua eta haiei dagozkien amortizazio metatuak eta, bestetik, sozietateen gaineko zergan aplikatu beharreko diruaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak, zeinak erregelamendu bidez onetsiko baitira; eskuratze-datatzat desafektazioa gertatu den data hartuko da. Geroago eskualdatzen bada, eskuratze-balio hori foru-arau honen 45.2 artikuluan xedatutakoaren arabera eguneratuko da.

5. Ondasun edo eskubideak besterentzen badira desatxikipena gertatu denetik hiru urte igaro baino lehen, desatxikipenik ez dela izan ulertuko da.

   Jarduera uzten den kasuetan, ondare-elementuak jarduera utzi den ekitaldi horren aurretik desafektatu direla ulertuko da, salbu eta zergadunak jarduera utzi ondorengo hiru urteko epean berriro ekiten badio edozein ekonomia-jarduerari.

   Aitzitik, ekonomia-jarduerari ondare pertsonaleko ondasun edo eskubideak afektatzen bazaizkio, ondasun-eskubideok beren eskuratze-balioagatik hartuko dira kontuan.

Ondorio guztietarako, ulertuko da ez dela afektaziorik egon, baldin eta ondasun-eskubideok jarduerari afektatu eta 3 urte igaro baino lehen besterentzen badira eta hortik lortutako zenbatekoa ez bada berrinbertitzen, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluan ezarritako eran.

**27. artikulua. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate arrunta erabiliz kalkulatzeko arauak.**

Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate arrunta erabiliz kalkulatzean, foru arau honetako 25. artikuluan jasotzen diren arau orokorrak eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan xedatutakoa aplikatu behar da. Gainera, honako erregela berezi hauek ere hartuko dira kontuan:

1. Ez dira gastu kengarritzat joko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 31. artikuluko 4. zenbakian aipatutako kontzeptuak, ez eta enpresaburuak edo profesionalak berak gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ere, foru arau honetako 70. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

   Hala ere, Norberaren Konturako Langile edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian sartu gabeko profesionalek diru-kopuruak ordaintzen dituztenean gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin sinatutako aseguru-kontratuengatik, ordaindutako kopuru horiek gastu kengarritzat joko dira, araubide berezi horrek estaltzen dituen kontingentziak estaltzeko den zatian, baldin eta, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko hemezortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako betekizuna betetzeko (testu bategin hori 2015eko urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen), mutualitate horiek Gizarte Segurantzako araubide berezi horren ordez aritzen badira. Halako zenbatekoen muga hau izango da: araubide berezi horretan kontingentzia arruntak direla-eta ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezarritako gehieneko kuota.

2. Behar bezala frogatzen bada -lan-kontratua dagoelako eta bakoitza dagokion Gizarte Segurantzako erregimenari afiliatuta dagoelako- zergadunaren ezkontideak, izatezko bikotekideak edo zergadunarekin bizi diren adingabeko seme-alabek hark garatutako ekonomia-jardueran modu jarraituan lan egiten dutela, orduan, etekinak kalkulatzeko garaian, haietako bakoitzarekin hitzartutako ordainsariak kengarriak izango dira, baldin eta ordainsariok ez badira handiagoak haien kualifikazio profesionalari eta egindako lanari dagozkion merkatuko ordainsariak baino.

   Kopuru horiek ezkontideak, izatezko bikotekideak edo adingabeko seme-alabek lanaren etekin gisa lortutako kopuruak direla joko da, zerga ondorio guztietarako.

3. Zergadunaren ezkontideak, izatezko bikotekideak edo harekin bizi diren adingabeko seme-alabek ondasun edo eskubideak lagatzen dituztenean ekonomia-jardueraren xederako erabiltzeko, jardueraren titularraren etekinak kalkulatzerakoan kengarria izango da lagapen hori dela-eta hitzartutako kontraprestazioa, betiere merkatu-balioa gainditzen ez badu. Kontraprestaziorik egon ez bada, merkatu-balioagatik egin ahal izango da kenkaria. Kontraprestazioa edo merkatu-balioa ezkontideak, izatezko bikotekideak edo adingabeko seme-alabek lortutako kapitalaren etekintzat joko da zerga-ondorio guztietarako.

   Ondasun eta eskubideak bi ezkontideenak edo izatezko bikoteko bi kideenak direnean, arau hau ez da aplikagarria izango.

4. Honako gastu hauek kengarriak izango dira, behean azaltzen diren zenbateko eta baldintzen arabera, baldin eta ekonomia-jarduerari loturik badaude:

   a) Zergadunak sukaldaritza, ostalaritza, bidaia eta joan-etorriei loturiko harreman publikoak direla-eta egiten dituen jarduera bakoitzeko gastuen %50. Kontzeptu horiek guztiak baturik, zergadunak zergaldian zehar dituen diru-sarrera guztien %5 izango da muga, jarduera bakoitzaren arabera zehaztua.

b) Opariak eta bestelako esku-erakutsiak, baldin eta hartzaile eta zergaldi bakoitzeko zenbateko unitarioa ez bada 300 euro baino handiagoa, eta hartzailearen nortasuna agiriren batean jasota geratzen bada. Baldin eta aipaturiko gastuak goian zehazturiko zenbatekoa baino gehiago badira, zenbateko horretaraino soilik izango dira kengarri.

5.

Bat. Oro har, ez dira kengarriak izango automobilekin eta beren erremolkeekin, motorrekin eta motozikletekin zerikusia duten gastuak, baldin eta halakoen erosketa, inportazio, alokatze, konponketa, mantentze-lan, baliogalera eta erabilerarekin zerikusia duten gastuak badira.

Bi. Zergadunak egiaztatzen badu berak erabiltzen duen ibilgailua -beraren ekonomia-jardueraren izaeraren ondorioz- oso garrantzitsua dela eta eskuarki erabili behar duela diru-sarrerak lortu ahal izateko, goraxeago aipatu diren gastuetan %50 izango da kengarria.Hala ere, ibilgailu baten gastuak soilik kendu ahal izango dira, eta honako muga hauekin:

a) Bi zenbateko hauetatik txikiena: edo 2.500 euro, edo zergadunak erabili duen amortizazio-portzentajea bider 25.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoaren %50, baldin eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo baliogalera dela eta.

b) 25.000 eurok ibilgailuaren eskuraketa-prezioan ordezkatzen duten parte proportzionala, baldin eta prezio hori handiagoa bada, ibilgailuok eskuratzearen ondoriozko finantza-gastuei dagokienez.

c) 3.000 euro gainerako kontzeptuak direla eta, elementuon erabilerarekin lotuta badaude, ibilgailu eta urte bakoitzeko edozelan ere.

Hiru. Zergadunak modu sinesgarrian frogatzen duenean ibilgailua esklusiboki afektatu zaiola beraren ekonomia-jarduerari, gastu horiek kengarriak izango dira, baina honako muga hauekin:

a) Bi zenbateko hauetatik txikiena: edo 5.000 euro, edo zergadunak erabili duen amortizazio-portzentajea bider 25.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoa, baldin eta munta txikiko zenbatekoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta.

b) 25.000 eurok ibilgailuaren eskuraketa-prezioan ordezkatzen duten parte proportzionala, baldin eta zenbateko hori handiagoa bada, ibilgailuok eskuratzearen ondoriozko finantza-gastuei dagokienez.

c) 6.000 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko beste kontzeptu guztiengatik.

Zergadunak ez badu urteko aldi batean ibilgailu hori erabiltzen, erabili duen denboraren arabera kalkulatuko dira goiko zenbakietan aipaturiko mugak.

Lau. Erregela honetako bigarren eta hirugarren zenbakietan aipatzen diren mugak ez dira aplikatuko, baldin eta erregelan aipatzen diren gastuak honako ibilgailu hauen erabilerari badagozkio, zeren ibilgailu horiek esklusiboki ekonomia-jardueraren garapenari afektatzen zaizkiola joko baita:

1. Salgaien garraioan erabilitako ibilgailu mistoak.

2. Bidaiariak kontraprestazio bat ordainduta garraiatzeko zerbitzuetan erabiltzen direnak.

3. Fabrikatzaileek probak, saioak, erakusketak edo salmenten sustapena egiteko erabilitakoak.

4. Ordezkari ego agente komertzialek beren joan-etorri profesionaletan erabiltzen dituztenak, baina, halakoetan, goiko hirugarren zenbakiko a) eta b) letretan ezartzen diren mugak kontuan hartuta.

5. Gidariei edo pilotuei kontraprestazio bat ordainduta irakasteko zerbitzuetan erabilitakoak.

6. Zaintza-zerbitzuetan erabilitakoak.

7. Eskuarki ibilgailuak alokatzen jarduten duten erakundeek kontraprestazio bidezko alokairu-jarduera horretarako soil-soilik eta egiaz erabiltzen dituztenak.

6. Ez dira kengarriak izango laketontziekin edo itsas kiroletako ontziekin zein aireontziekin zerikusia duten gastuak, baldin eta halakoen erosketa, inportazio, alokatze, konponketa, mantentze-lan, baliogalera eta erabilerarekin zerikusia duten gastuak badira.

   Garraiobide horiek ekonomia-jarduera bati bakarrik afektatuta badaude, aurreko lerroaldean aipatzen diren gastuak kengarriak izango dira, baina zergaldi bakoitzean lortutako diru-sarrerak gehieneko muga direla. Hala ere, muga hori ez da aplikagarria izango baldin eta zergadunak egiaztatua badu badituela ekonomia-jarduera horretan -alegia, garraiobideok ustiatzea- denboran zehar jarraituki jarduteko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak.

7. Ez dira kengarriak izango 2012ko urriaren 29ko 7/2012 Legeko 7. artikuluan eskudiruzko ordainketez xedatzen dena hausten duten eragiketetatik eratorritako gastuak. Lege hori iruzurraren kontrako prebentzio-ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearren tributuen eta aurrekontuen gaineko araudia aldatu eta finantza-araudia egokitzekoa da.

8. Eroskeria ere ez da kengarria izango.

9. Zergadunek betetzen badituzte zergadun bat mikroenpresa eta enpresa txiki edo ertaintzat hartzeko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluan ezartzen diren baldintzak, bada, orduan zergadun horiei halako enpresa bakoitzarentzat foru arau horretako 21. artikuluko 1.b) zenbakian, 2. eta 3. zenbakietan eta 22.3 artikuluan xedatzen dena aplikatuko zaie.

   13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzeari dagokionez, zergadunak egiten dituen ekonomia-jarduera guztiak hartuko dira kontuan.

**28. artikulua. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua erabiliz kalkulatzeko arauak.**

1. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua erabiliz kalkulatzeko, honela jokatuko da:

   a) Lehendabizi, sarrerak eta gastuak kalifikatu eta kuantifikatuko dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta aurreko artikuluko erregeletan xedatutakoaren arabera. Kanpoan utziko dira, baina, narriaduragatiko galerak, amortizazioak, foru arau honetako 27. artikuluko 5. erregelako 3. zenbakiko a) letran jasotzen diren errentamendu, lagapen eta baliogaleren gastuak, eta jarduerari afektatutako ondare-elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak.

   b) Goiko letran aipaturiko diru-sarrera eta gastuen arteko aldea kalkulatu, eta eragiketa horren emaitza %10 gutxituko da, amortizazioak, narriaduragatiko galerak eta justifikatzeko gaitzak diren gastuak direla eta.

   c) Goiko b) letran xedatutakotik ateratzen den zenbatekoari gehitu edo kendu egin behar zaizkio jarduerari afektatutako ondare-elementuetatik eratorritako irabaziak edo galerak, foru arau honetako 25. artikuluaren 3. zenbakian xedatutakoaren arabera.

2. Zuzeneko zenbatespen erraztuan dauden enpresaburu edo profesionalek osatutako talde jakin batzuen kasuan, erregela bereziak ezarri ahal izango da, erregelamendu bidez, gastu kengarri jakin batzuk kuantifikatzeko, artikulu honen 1. zenbakiko b) letran aipatzen den portzentajea barne.

## IV. KAPITULUA
## KAPITALAREN ETEKINAK

### 1. ATALA
### ARAU OROKORRAK

#### 29. artikulua. Definizioa.

1. Kapitalaren etekin osotzat hartuko dira zuzenean edo zeharka ondare-elementu, ondasun edo eskubideetatik datozen onura edo kontraprestazio guztiak, duten izendapena edo izaera dutelarik, diruzkoak izan edo gauzazkoak izan, baldin eta elementu, ondasun edo eskubide horien titularra zergaduna bada eta zergadunak berak egindako ekonomia-jarduerei afektatuta ez badaude.

   Hala eta guztiz ere, ondare-irabazi edo -galera gisa zergapetuko dira ondare-elementuen titulartasuna eskualdatzeak dakartzan errentak, nahiz eta jabari-erreserbarako ituna hitzartuta egon, non eta foru arau honek ez dituen kapitalaren etekintzat hartzen errenta horiek.

2. Gauzazko errentatzat hartzen dira doan edo merkatuko ohiko preziotik behera ondasun, eskubide edo zerbitzuak xede partikularretarako erabiltzea, kontsumitzea edo lortzea, nahiz eta haiek ematen dituenari benetako gasturik ez eragin.

   Errentak ordaintzen dituenak zergadunari eskudirutan ordaintzen dionean azken horrek ondasun, eskubide edo zerbitzuak eros ditzan, errenta diruzkoa dela joko da.

3. Edonola ere, hauek hartuko dira kapitalaren etekintzat:

   a) Landa- zein hiri-ondasun higiezinetatik datozen etekinak, zergadunak egindako ekonomia-jarduerei afektatuta ez badaude.

   b) Kapital higigarritik eta, oro har, zergadunaren titulartasunekoak diren gainerako ondasun edo eskubideetatik datozen etekinak, zergadunak berak egindako ekonomia-jarduerei afektatuta ez badaude.

### 2. ATALA
### KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK

#### 30. artikulua. Kapital higiezinaren etekin osoen kontzeptua .

1. Kapital higiezinaren etekin osotzat hartuko dira hiri- zein landa-ondasun higiezinak edota horien gaineko eskubide errealak lagatzetik datozen etekinak, eta barne hartuta egongo dira ondasun horiek errentan edo azpierrentan ematetik edota ondasunok erabiltzeko edo gozatzeko eskubide edo ahalmenak eratu edo lagatzetik datozen etekin guztiak, haien izena edo izaera edozein izanik ere.

2. Etekin oso gisa konputatuko da erabili edo lupertzeko eskubidearen edo ahalmenaren eraketaren errentari, azpierrentari, lagapen-hartzaile edo onuradunak kontzeptu guztiengatik ordaindutako zenbatekoa; zenbateko horren barruan egongo dira, halakorik lortuz gero, higiezinarekin batera lagatako ondasunei dagokien zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan utzita.

3. Hala ere, foru arau honetako 32.2 artikuluan aipatzen diren etekinak bi urtetik gorako epean sortu badira eta aldizka edo noizean behin lortu ez badira, haien zenbatekoaren %60 hartuko da etekin osotzat; portzentaje hori %50 izango da, berriz, sorrera-aldia bost urtetik

gorakoa denean edo, erregelamendu bidez, etekin horiek denboran era irregular nabarmenean lortutakotzat jotzen direnean.

Etekinak zatika kobratzen badira, etekinaren sorrera-aldia zenbatzerakoan kontuan hartuko da zenbat urtetan zatikatzen den kobrantza, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

Integrazio-portzentajeak aplikatzeko hartuko den etekinen zenbatekoa ezin da 300.000 euro baino handiagoa izan urtean. Zenbateko horretatik gorako soberakina %100ean integratuko da.

%100 baino integrazio-portzentaje txikiagoa aplikatu behar zaien etekinak jasotzen badira, aurreko lerroaldean zehazten den 300.000 euroko muga zenbatzerakoan, lehenengo eta behin, integrazio-portzentaje txikienei dagozkien etekinak hartuko dira kontuan.

Etekinak ondasun higiezinen erabilera- edo luperketa-eskubide errealak eratzetik datozenean, haien zenbatekoaren %100 konputatuko da beti.

**31. artikulua. Etekin garbia.**

Kapital higiezinaren etekin garbia kalkulatzeko, hurrengo artikuluan aipatzen diren kontzeptuak gutxitu behar zaizkie etekin osoei.

**32. artikulua. Gastu kengarriak eta hobaria.**

1. Etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinen kasuan, higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen %20ko hobaria aplikatuko da.

   Era berean, kengarritzat hartuko da, soilik, etekinak sortzen dituzten ondasunak, eskubideak edo erabilera- nahiz luperketa-ahalmenak erosteko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen zenbatekoa, bai eta gainerako finantzaketa-gastuak ere.

   Hobariaren eta gastuaren baturak ez du ekarriko, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik.

   Zenbaki honetan jasotakotzat joko dira, soilik, Hiri Errentamenduei buruzko 1994ko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikuluan aipatzen diren etxebizitzaren errentamendutzat jotakoetatik eratorritako etekinak.

2. Aurreko lerroaldean sartu gabe dauden kapital higiezinaren etekinetan, etekin osoari gastu kengarri hauen zenbatekoa gutxituko zaio:

   a) Etekinak lortzeko beharrezkoak diren gastuak, barne sartuta etekinak sortzen dituzten ondasunak, eskubideak edo erabilera- nahiz luperketa-ahalmenak erosteko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen zenbatekoa, eta gainerako finantzaketa-gastuak ere bai.

   b) Etekinen iturria diren ondasunek haiek erabiltzeagatik edo denbora igarotzeagatik jasandako narriaduraren zenbatekoa, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

   Erabilera- edo luperketa-eskubide edo -ahalmenen titulartasunetik datozen etekinen kasuan, kengarria izango da, baliogalera gisa, ordaindutako eskuraketa-balioen zati proportzionala, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

   Gastu kengarrien baturak ez du ekarriko, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik.

## 3. ATALA
## KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK

### 33. artikulua. Kapital higigarriaren etekinen kontzeptua.

1. Kapital higigarriaren etekin osotzat hartuko dira hauek:

   a) Edozein entitate motaren funts propioetako partaidetzagatik lortutako etekinak.

   b) Norberaren kapitala hirugarrenei lagaz lortutako etekinak.

   c) Kapitalizazio-eragiketetatik, bizi- edo elbarritasun-aseguruen kontratuetatik eta kapital-ezarpenen errentetatik datozen etekinak.

   d) Kapital higigarriaren beste etekin batzuk.

2. Ez da kapital higigarriaren etekintzat hartuko ohiko ekonomia-jarduera garatzean egindako eragiketen prezioa geroratu edo zatikatzeagatik zergadunak lortutako kontraprestazioa, dagokion kontzeptua dela-eta egin beharreko tributazioaren kalterik gabe.

### 34. artikulua. Edozein entitate motaren funts propioetako partaidetzagatik lortutako etekinak.

Etekin hauek hartuko dira, diruzkoak izan edo gauzazkoak izan, edozein entitate motaren funts propioetako partaidetzagatik lortutako etekintzat:

a) Dibidenduak, batzarretara joateko primak eta edozein entitate motaren mozkinetako partaidetzak.

b) Mota guztietako aktiboetatik datozen etekinak. Nolanahi ere, ez da halakotzat hartuko akzio liberatuen ematea, baldin eta akzio horiek ahalmena ematen badute -estatutuen bidez edo sozietateko organoen erabaki baten bidez- entitate baten mozkin, salmenta, eragiketa, diru-sarrera edo antzeko kontzeptuetan parte hartzeko, lan pertsonalaren ordainketarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik.

c) Entitatearen funts propioetako partaidetza ordezkatzen duten balore edo partaidetzen erabilera- edo luperketa-eskubideak eratu edo lagatzearen ondoriozko etekinak, eskubideon izena edo izaera edozein dela ere.

d) Entitate batetik jasotako beste edozein onura, aurrekoekin zerikusirik ez duena, entitate horren bazkide, akziodun, asoziatu edo partaide izateagatik jasotzen bada.

e) Akzio edo partaidetzen jaulkipen primaren banaketa. Lortutako zenbatekoa murriztuko da, deuseztatu arte, ukitutako akzio edo partaidetza bakoitzaren eskurapen- balioa, banaka hartuta, eta soberakina kapital higigarriaren etekin gisa tributatuko da.

   Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean emandako 2014/65/EB Zuzentarauan —finantzatresnen merkatuari buruzkoan— definitzen diren balore-merkatu arautuetako batean negoziatzeko onartuta ez dauden eta sozietate edo entitateen funts propioetako partaidetza ordezkatzen duten baloreen jaulkipen-prima banatzen bada eta akzio edo partaidetza horiei prima banatu aurretik itxitako azken ekitaldian dagozkien funts propioen balioaren eta haien eskuraketa-balioaren arteko diferentzia positiboa bada, lortutako zenbatekoa edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatu-balio normala kapital higigarriaren etekintzat hartuko da, diferentzia positibo horren mugarekin.

   Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan aipatzen diren funts propioen balioari kendu egingo zaizkio, batetik, jaulkipen-prima banatu aurretik emandako etekinen zenbatekoa, funts propio horietan sartutako erreserbetatik badatoz, eta, bestetik, funts propio horietan

sartutako erreserba legalki baliaezinen zenbatekoa, akzio edo partaidetzak eskuratu ostean sortuak badira.

Muga horretatik gorako soberakina akzio edo partaidetzen eskuraketa-balioa murrizteko erabiliko da, e) letra honetako lehenengo paragrafoan ezarritakoarekin bat.

Baldin eta e) letra honetako bigarren paragrafoan ezarritakoa aplikatuz jaulkipen-primaren banaketak ekarri badu kapital higigarriaren etekin gisa zenbatzea lortutako guztia edo zati bat edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatu- balio osoa edo zati bat eta, ondoren, zergadunak dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak lortzen baditu —artikulu honetako a) letran ezarritakoarekin bat—, erakunde beretik badatoz eta jaulkipen-prima banatu zenetik zergadunaren ondarean egon diren akzio eta partaidetzei badagozkie, dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen bidez lortutako zenbatekoak gutxitu egingo du haien eskuraketa-balioa, e) letra honetako lehenengo paragrafoan ezarritakoaren arabera, baina kontuan hartuta akzio edo partaidetza horiek direla-eta aurretik konputatu diren kapital higigarriaren etekinak.

**35. artikulua. Norberaren kapitala hirugarrenei lagaz lortutako etekinak.**

1. Mota guztietako kontraprestazioak hartuko dira kapital propioak hirugarrenei lagaz lortutako etekintzat, haien izendapena edo izaera edozein izanik ere, diruzkoak izan edo gauzazkoak izan (esaterako, interesak eta lagapenaren ordainsari gisa itundutako beste edozein ordainketa mota), bai eta besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea adierazten duten mota guztietako aktiboen eskualdaketa, itzulketa, amortizazio, truke edo bihurketatik datozen kontraprestazioak ere.

2. Bereziki, halakotzat hartuko dira hauek:

   a) Edozein igorpen-tresnatatik datozen etekinak, merkataritzako eragiketek sortutakoak barne, tresna hori endosatzen edo eskualdatzen den unetik aurrera, non eta endosua edo lagapena ez den gauzatzen hornitzaileen kreditu baten ordainketa gisa.

   b) Mota guztietako finantza-erakundeetako kontuetatik datozen kontraprestazioak, haien izena edo izaera edozein izanik ere, aktibo finantzarioen gaineko eragiketetan oinarritutakoak barne.

   c) Aktibo finantzarioak aldi baterako eta berrerosteko itunarekin lagatzeko eragiketen ondoriozko errentak.

   d) Finantza-erakunde batek bere titulartasuneko kreditu bat erabat edo partez eskualdatu, laga edo transferitzearen ondorioz erakunde horrek ordaindutako errentak.

3. Baloreak eskualdatu, itzuli, amortizatu, trukatu edo bihurtuz gero, hau izango da etekina: baloreen eskualdaketa-, itzulketa-, amortizazio-, truke- edo bihurketa-balioaren eta eskuraketa- edo harpidetza-balioaren arteko diferentzia.

   Jasotzen diren baloreen balioa hartuko da truke- edo bihurketa-baliotzat.

   Eskuraketa- eta besterentze-gastu osagarriak ere etekina kuantifikatzeko konputatuko dira, behar bezala frogatzen badira.

   Aktibo finantzarioak eskualdatzetik datozen etekin negatiboak zergadunaren ondarean mantentzen diren aktibo finantzarioak eskualdatu ahala integratuko dira, baldin eta zergadunak aktibo finantzario homogeneoak eskuratu baditu eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo bi hilabeteetan.

4. Artikulu honetan aipatutako besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea ordezkatzen duten aktiboak direla eta, zergadunaren heriotzaren zioz halako aktiboak dohainik eskualdatzen badira ulertuko da ez dagoela kapital higigarriaren etekinik, eta ez da kapital higigarriaren

etekin negatiborik konputatuko aktibo horien «inter vivos» kostu gabeko eskualdaketaren ondorioz.

Dohaineko eskualdaketa komisarioak testamentu-ahalordea erabiltzearen ondorioz egiten denean edo eraginkortasuna unean bertan duen edozein oinordetza-tituluren bidez egiten denean ere aplikatuko da aurreko lerroaldean ezarritakoa. Horri dagokionez, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5. artikuluan ezartzen direnak hartuko dira oinordetza-titulutzat.

Aurreko lerroaldean aipatu diren kostu gabeko eskualdaketetan, alegia, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-tituluen bidezko kostu gabeko eskualdaketetan, besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea ordezkatzen duten aktiboen eskualdatzaileari dagokionez, eskuraketa-balioa, hurrengo eskualdaketetarako, dohaintza-emaileak aktibo horiek dohaintza-hartzaileari ematean duten balioa izango da, dohaintza-hartzaileak aktiboak dohaintza-emailea hil aurretik eskualdatu ezean. Izan ere, hala gertatzen bada, dohaintza-hartzailea dohaintza-emailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien eskuraketa-balio eta -datei dagokienez, eta azken horrek eraginkortasuna unean bertan duen oinordetza-itunaren aurretik zituen balio eta datak atxikiko ditu.

**36. artikulua. Kapitalizazio-eragiketetatik, bizi- edo elbarritasun-aseguruen kontratuetatik eta kapital-ezarpenen errentetatik datozen etekinak.**

1. Halakotzat hartzen dira kapitalizazio-eragiketetatik edo bizitza-aseguru edo elbarritasun-aseguruen kontratuetatik lortutako diruzko edo gauzazko etekinak, non eta ez diren lanaren etekin gisa zergapetu behar, foru arau honetako 18.a) artikuluan jasotakoaren arabera. Bereziki, erregela hauek aplikatuko zaizkie kapital higigarriaren etekin horiei:

   a) Kapital geroratua jasotzen denean, jasotako kapitalaren eta ordaindutako primen arteko diferentzia izango da kapital higigarriaren etekina.

      Aurrekoa gorabehera, aseguru-kontratuak biziraupenaren kontingentzia, batetik, eta heriotza edo ezintasunaren kontingentziak, bestetik, konbinatzen baditu eta jasotako kapitala biziraupenaren kontingentziari badagokio, ordaindutako primetatik kendu egin ahal izango da ordura arte heriotzaren edo ezgaitasunaren arriskua dela-eta kontsumitu den kapitalari dagokion zatia, betiere, kontratuaren indarraldi osoan, arriskuan dagoen kapitala hornidura matematikoaren ehuneko bost edo gutxiago bada. Ondorio horietarako, hau izango da arriskuan dagoen kapitala: Heriotza edo ezintasunerako aseguratutako kapitala ken hornidura matematikoa.

   b) Berehalako biziarteko errenta berehalakoen kasuan, errentok ez badira jaraunspen, legatu edo beste edozein oinordetza-tituluren bidez eskuratuak, urteko zenbateko bakoitzari portzentaje hauek aplikatuz ateratzen den emaitza hartuko da kapital higigarriaren etekintzat:

      - %40, jasotzailea 40 urtetik beherakoa denean.
      - %35, jasotzailea 40 eta 49 urte bitartekoa denean.
      - %28, jasotzailea 50 eta 59 urte bitartekoa denean.
      - %24, jasotzailea 60 eta 65 urte bitartekoa denean.
      - %20, jasotzailea 66 eta 69 urte bitartekoa denean.
      - %8, jasotzailea 70 urtekoa edo hortik gorakoa denean.

      Errenta eratzerakoan errentadunak zenbat urte duen kontuan hartuta aplikatuko dira portzentajeok, eta errentaren indarraldi osoan mantenduko dira, aldatu gabe.

c) Berehalako aldi baterako errenten kasuan, ez badira jaraunspen, legatu edota beste edozein oinordetza-tituluren bidez eskuratuak, urteko zenbateko bakoitzari portzentaje hauek aplikatuz ateratzen den emaitza hartuko da kapital higigarriaren etekintzat:

- %12, errentaren iraupena bost urte edo gutxiago denean.

- %16, errentaren iraupena bost urtetik gorakoa eta hamar urtekoa edo hortik beherakoa denean.

- %20, errentaren iraupena hamar urtetik gorakoa eta hamabost urtekoa edo hortik beherakoa denean.

- %25, errentaren iraupena hamabost urtetik gorakoa denean.

d) Errenta geroratuak, biziartekoak edo aldi baterakoak jasotzen direnean, ez badira jaraunspen, legatu edota beste edozein oinordetza-tituluren bidez eskuratuak, urteko zenbateko bakoitzari aurreko b) eta c) letretan zehazten diren portzentajeak aplikatuz ateratzen den emaitza hartuko da kapital higigarriaren etekintzat, eta emaitza horri gehitu egingo zaio errenta eratu arte lortutako errentagarritasunaren zenbatekoa; errenta hori erregelamendu bidez zehazten den moduan kalkulatuko da. Errentak dohaintzaz edo dohainik eta inter vivos egindako beste edozein negozio juridikoren bidez eskuratu direnean (salbu eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-tituluak), kapital higigarriaren etekina hau bakarrik izango da: aurreko b) eta c) letretan jasotako portzentajea urteko zenbateko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza.

Aurreko paragrafoan jasotakoa gorabehera, zergaren zerga-oinarrian sartuko dira, kapital higigarriaren etekin gisa, erregelamendu bidez finkatzen den moduan, foru arau honek 18.a) artikuluan aipatutakoak ez diren eta haien indarraldian aseguru-kontratuaren horniduretan inolako mobilizaziorik izan ez duten bizi- edo elbarritasun-aseguruei buruzko kontratuen onuradunek errenta moduan jaso dituzten erretiro eta elbarritasun prestazioak, haien zenbatekoa kontratua dela-eta ordaindutako prima baino handiagoa den momentutik aurrera. Errentak eskuratu badira dohaintzaz edo dohainik eta inter vivos egindako beste edozein negozio juridiko bidez (salbu eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-tituluak), aldiz, zerga-oinarrian sartuko dira prestazio horiek errenten eraketa uneko balio aktuariala baino handiagoak direnean. Kasu horietan, ez dira aplikatuko aurreko b) eta c) letretan jasotako portzentajeak. Erretiro-prestazioen kasuan araubide hau aplikatuko bada, beharrezkoa da aseguru-kontratua gutxienez erretiro-data baino bi urte lehenago hitzartu izana.

e) Jaraunspen, legatu edota beste edozein oinordetza-tituluren bidez eskuratu ez diren aldi baterako edo biziarteko errentak iraungitzen direnean, errenta erreskate-eskubidea erabiltzean iraungi denean, kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko, erreskatearen zenbatekoari batu behar zaizkio momentu horretara arte ordaindutako errentak, eta, ondoren, baturatik kendu behar dira bai ordaindutako primak bai zenbaki honetako aurreko letren arabera kapital higigarriaren etekin gisa zergapetu diren diru-kopuruak. Errentak dohaintzaz edo dohainik eta inter vivos egindako beste edozein negozio juridikoren bidez eskuratu direnean (salbu eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-tituluak), gainera, errentak eratu arte metatutako errentagarritasunaren zenbatekoa kenduko da.

f) Kapital erako prestazioak aurreikusten dituzten bizi- edo elbarritasun-aseguruak, kapital hura biziarteko edo aldi baterako errentak eratzera zuzentzen denean, aurreko d) letraren lehen paragrafoan jasotakoaren arabera zergapetuko dira, betiere bihurtzeko aukera hori aseguru-kontratuan jasotzen bada. Inoiz ez da aplikatuko letra honetan jasotakoa, kapitala edozein bitarteko erabiliz jartzen denean zergadunaren eskura.

2. Kapital-ezarpenetik datozen biziarteko edo aldi baterako errenten kasuan, non eta ez diren eskuratu jaraunspen, legatu edota beste edozein oinordetza-tituluren bidez, kapital higigarriaren etekintzat hartuko da aurreko zenbakiko b) eta c) letretan bizi-aseguruei

buruzko kontratuetatik datozen biziarteko edo aldi baterako errenta berehalakoetarako jaso diren portzentajeak urteko zenbateko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza.

### 37. artikulua. Kapital higigarriaren beste etekin batzuk.

Halakotzat hartzen dira etekin hauek, diruzkoak izan edo gauzazkoak izan:

a) Jabetza intelektualetik datozen etekinak, zergaduna autorea ez denean, eta zergadunak egindako ekonomia-jarduerei afektatuta ez dagoen jabetza industrialetik datozenak.

b) Laguntza teknikoa ematetik datozen etekinak, non eta laguntza hori ez den ekonomia-jarduera baten esparruan ematen.

c) Ondasun higigarri, negozio edo meategiak errentan ematetik datozen etekinak, bai eta azpierrentatzaileak azpierrentamen-dutik jasotzen dituenak ere, betiere ekonomia-jarduerarik osatzen ez badute.

d) Irudiaren ustiapenerako eskubidea lagatzetik edo irudia erabiltzeko onarpen edo baimenetik datozen etekinak, non eta etekinak ez dituen lortzen irudia ustiatzeko eskubidea sortzen duenak edota ekonomia-jarduera baten esparruan lortzen ez badira.

### 38. artikulua. Kapital higigarriaren etekin osoak.

Kapital higigarriaren etekin osoa, oro har, atal honen aurreko artikuluetan zehaztutako etekin guztiez osatuko da.

### 39. artikulua. Etekin garbia.

1. Kapital higigarriaren etekin garbia bat etorriko da etekin osoen baturarekin, salbu artikulu honen hurrengo zenbakian jasotako kasuan.

2. Etekinak badatoz laguntza teknikoa ematetik, ondasun higigarri, negozio edo meategiak errentan ematetik edo azpierrentamenduetatik, etekin garbia lortzeko etekin osoetatik kendu behar dira haiek lortzeko beharrezkoak diren gastuak, eta, hala badagokio, diru-sarreren iturri diren ondasun edo eskubideek jasandako narriaduraren zenbatekoa ere bai.

   Gastu kengarrien baturak ez du ekarriko, inola ere, aurreko 37. artikuluan definitutako etekin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik.

   Zenbaki honetako lehenengo paragrafoan xedatzen dena gorabehera, Hiri Errentamenduei buruzko 1994ko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikuluan aipatzen diren etxebizitzen azpierrentamendutik datozen etekinak direnean, etekin garbia lortzeko soilik izango da kengarria azpierrentatzaileak errentamendu gisa ordaindutako zenbatekotik azpierrentan hartutako elementuari dagokion parte proportzionala, eta, gainera, %20ko hobaria aplikatuko zaio azpierrentan emandako higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen eta gastu kengarri gisa konputatuko zenbatekoaren arteko diferentziari.

3. Hala ere, foru arau honetako 37. artikuluan jasotako etekinetatik datorren etekin garbiaren %60 integratuko da, bi urtetik gorako epean sortu bada eta aldizka edo noizean behin lortu ez bada. Integrazio-portzentajea %50 izango da, aldiz, sorrera-aldia bost urtetik gorakoa bada edo etekinak erregelamendu bidez hartzen badira denboran era irregular nabarmenean lortutakotzat.

   Etekinak zatika kobratzen badira, etekinaren sorrera-aldia zenbatzerakoan kontuan hartuko da zenbat urtetan zatikatzen den kobrantza, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

   Integrazio-portzentajeak aplikatzeko hartuko den etekinen zenbatekoa ezin da 300.000 euro baino handiagoa izan urtean. Zenbateko horretatik gorako soberakina %100ean integratuko da.

%100 baino integrazio-portzentaje txikiagoa aplikatu behar zaien etekinak jasotzen badira, aurreko lerroaldean zehazten den 300.000 euroko muga zenbatzerakoan, lehenengo eta behin, integrazio-portzentaje txikienei dagozkien etekinak hartuko dira kontuan.

## V. KAPITULUA
## ONDARE IRABAZIAK ETA GALERAK

### 40. artikulua. Kontzeptua.

Zergadunaren ondarearen osaeran gertatutako edozein aldaketa dela-eta agerian jartzen diren balio-aldaketak dira ondare-irabaziak eta -galerak, baldin eta foru arau honek etekintzat jotzen ez baditu.

### 41. artikulua. Kasu bereziak.

1. Honako kasu hauetan, ondarearen osaera ez dela aldatzen ulertuko da, baldin eta ez bada gertatzen adjudikazio-gaindikinik:

    a) Gauza erkidea zatikatzen denean.

    b) Irabazpidezko sozietatea edo ondasunen foru komunikazioa desegiten denean, ezkontzako partaidetzako araubide ekonomikoa azkentzen denean eta izatezko bikote baten ondare araubide ekonomikoa azkentzen denean, baldin eta aurreko araubide ekonomikoetako bat itundu badute.

    c) Ondasun erkidegoak desegitean edo erkideak banantzen direnean.

    Idatz zati honetan aipatzen diren kasuetan jasotako ondasunen edo eskubideen balioa ez da inolaz ere eguneratuko.

    Nolanahi ere, ondarearen osaeran aldaketak egon direla ulertuko da, baldin eta alderdietako batek bere buruari ondasunak edo eskubideak esleitzen badizkio, aldez aurreko partaidetza-kuotari dagokiona baino balio handiagoarekin, besteari edo beste batzuei konpentsazioa emanez, edo inolako konpentsaziorik ordaindu gabe. Kasu horietan, soberan jasotako ondasunen edo eskubideen balioak eguneratu beharko dira.

2. Honako kasu hauetan ez da egongo ondare-irabazi edo -galerarik:

    a) Kapital-murrizketetan. Kapital-murrizketak, edozein xede duela ere, balore edo partaidetzak amortizatzea dakarrenean, eskuratutako lehenak joko dira amortizatutzat, eta haien eskuraketa-balioa proportzionalki banatuko da zergadunaren ondarean segitzen duten gainerako balore homogeneoen artean. Kapital- murrizketak ez badie zergadunaren balore edo partaidetza guztiei maila berean eragiten, lehenago eskuratutakoei dagokiela ulertuko da.

    Kapital-murrizketaren xedea ekarpenak itzultzea denean, murrizketaren zenbatekoa edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatu-balio normala gutxituko zaio ukitutako baloreen edo partaidetzen eskuraketa-balioari, aurreko lerroaldeko arauekin bat etorriz, balio hori deuseztatu arte. Soberakinik egonez gero, soberakin hori kapital higigarriaren etekin gisa integratuko da eta edozein motatako entitateen funts propioetan parte hartzeagatik lortu dela joko da. Integrazioa jaulkipen-primen banaketarako ezarritako era berberari jarraikiz egingo da, kapital-murrizketa banatu gabeko mozkinen ondorio denean izan ezik. Horrelakoetan, kontzeptu honengatik jasotzen diren kopuru guztiak foru arau honetako 34.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera zergapetuko dira. Ondorio hauetarako, kapital-murrizketak, edozein xede duela ere, banatu gabeko mozkinetatik ez datorren sozietatearen kapitalaren zatiari eragingo dio lehendabizi, hura deuseztatu arte.

    Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ekarpenak itzultzeko helburua duen eta banatu gabeko etekinetatik ez datorren kapital-murrizketaren kasuan, Europako

Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan (finantza-tresnen merkatuei buruzkoan) definitutako baloreen merkatu arauturen batean negoziatzeko onartu ez diren baloreei dagokienez, eta sozietateen edo entitateen funts propioetako partaidetzaren adierazgarri direnean, kapitala murrizteko dataren aurretik itxitako azken ekitaldiari dagozkion akzioen edo partaidetzen funts propioen balioaren eta eskuratze-balioaren arteko diferentzia positiboa bada, eskuratutako zenbatekoa edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatuko balio normala kapital higigarriaren etekintzat hartuko da, aipatutako alde positiboaren mugarekin.

Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan aipatzen diren funts propioen balioari kendu egingo zaizkio, batetik, kapital-murrizketa egin aurretik emandako etekinen zenbatekoa, funts propio horietan sartutako erreserbetatik badatoz, eta, bestetik, funts propio horietan sartutako erreserba legalki baliaezinen zenbatekoa, akzio edo partaidetzak eskuratu ostean sortuak badira.

Muga horretatik gorako soberakina akzio edo partaidetzen eskuraketa-balioa murrizteko erabiliko da, a) letra honetako bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat.

Baldin eta a) letra honetako hirugarren paragrafoan ezarritakoa aplikatuz kapital-murrizketak ekarri badu kapital higigarriaren etekin gisa zenbatzea lortutako guztia edo zati bat edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatu-balio osoa edo zati bat eta, ondoren, zergadunak dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak lortzen baditu —foru arau honetako 34. artikuluko a) letran ezarritakoarekin bat—, erakunde beretik badatoz eta kapital-murrizketa egin zenetik zergadunaren ondarean egon diren akzio eta partaidetzei badagozkie, dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen bidez lortutako zenbatekoak gutxitu egingo du haien eskuraketa-balioa, a) letra honetako bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera, baina kontuan hartuta akzio edo partaidetza horiek direla-eta aurretik konputatu diren kapital higigarriaren etekinak.

b) Zergadunaren heriotzaren ondorioz egiten diren dohaineko eskualdaketetan, dohaineko eskualdaketa hori komisarioak testamentu-ahalordea erabilita edo unean bertan eragina daukan oinordetza-titulu bat dela bide egiten denean ere.

Horri dagokionez, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 3. artikuluan ezartzen direnak hartuko dira oinordetza-titulutzat.

c) Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 6. artikuluan aipatutako enpresen edo akzio eta partaidetzen dohaineko eskualdaketetan, eskualdatzailearen ezkontidearen, izatezko bikotekidearen, aurreko edo ondorengo ahaideen edo laugarren gradurainoko albo-ahaideen (ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotea eratzearen ondoriozko harremana edo adopzioa izan daiteke) alde egiten direnean, honako baldintza hauek betetzen badira:

- Lehenengoa: Eskualdatzaileak hirurogei urte edo gehiago izatea edo ezintasun iraunkorreko egoeran egotea, dela absolutua dela baliaezintasun handia.

- Bigarrena: Eskualdatzaileak, zuzendaritza-funtzioak bete izan baditu, eskualdaketaren unetik beretik lan horiek egiteari eta dagozkien ordainsariak jasotzeari uztea.

  Ondorio horietarako, sozietatearen administrazio-kontseiluko kide izate hutsa ez da zuzendaritza-funtzioen barruan sartuko.

- Hirugarrena: Eskuratzaileak mantendu egin beharko ditu jasotako enpresa edo akzioak edo partaidetzak, dohaintzaren eskritura publikoaren dataren ondorego bost urteetan zehar, epe horren barruan hiltzen denean edo enpresa edo entitatea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen denean izan ezik. Halaber, eskuratzaileak ezin izango du xedapen-egintzarik edo sozietate-eragiketarik gauzatu, eragiketok, zuzenean edo zeharka, eskuraketa-balioa nabarmen murriztu dezaketenean.

Eskuratutakoari eusteko adierazitako epea betetzen ez bada, eskualdatzaileak tributu-egoera erregularizatu beharko du epea bete ez den ekitaldiko aitorpenean, eta ondare-irabazia edo -galera ekitaldi horretan gertatu dela joko da.

Ondare-elementuak eskuratu eta gero zergadunak elementuok ekonomia-jarduerari lotzen badizkio, ezinbestekoa izango da elementu horiek gutxienez bost urtez eta etenik gabe egon izana jarduerari afektatuta eskualdaketa egin aurretik.

d) Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 6. artikuluan aipatzen diren enpresen edo partaidetzen eskualdaketetan, enpresan edo taldeko entitate batean edo batzuetan lan egiten duen edo duten langile baten edo batzuen alde egiten direnean, baldin eta aurreko letran ezarritako baldintzak betetzen badira, eta kontuan hartuta honako espezialitate hauek:

- Lehenengoa: Langile eskuratzaileek enpresan edo taldeko entitate batean edo batzuetan langile izandakoak izan behar dute, eskuraketa egin aurreko bost urteetatik bitan gutxienez. Ondorio horietarako, lan egindako alditzat hartuko dira, halaber, langileak aipatutako entitateetako batean senideak zaintzeko borondatezko eszedentzian egon diren aldiak.

- Bigarrena: Aurreko c) letrako hirugarren baldintzaren lehenengo paragrafoan aipatutako bost urteko epea enpresaren edo entitatearen akzioen edo partaidetzen eskualdaketaren datatik zenbatuko da; eskualdaketak eskritura publikoan edo agiri pribatuan dokumentatu beharko dira, eta agiri hori Zerga Administrazioari aurkeztu beharko zaio.

  Aurrerago araututako langileen partaidetza baino ez duen entitate bati eskuratutako akzioak edo partaidetzak aurkezten baditu langile eskuratzaileak, baldintza hori betetzat joko da langile horrek entitate horretan partaidetza izaten jarraitzen badu gainerako denboran, aurreko paragrafoan aipatzen den epea bete arte.

- Hirugarrena: Aurreko bigarren baldintzan ezarritako epean, eskuratzaileek taldeko entitateko edo entitateetako langile izaten jarraitu beharko dute, edo, hala badagokio, entitateari foru-arau honen 24. artikuluaren 1. apartatuan aipatutako lan pertsonala ematen jarraitu beharko dute. Ondorio horietarako, ulertuko da langileek beren zerbitzuak ematen jarraitzen dutela senideak zaintzeko borondatezko eszedentzia-egoeran dauden denboran.

  Aurreko paragrafoan ezarritako betekizunak ez dira ez-betetzat joko eskuratzaileak hiltzen badira edo erakundean lan egiteari uzten badiote ezintasun iraunkor osoa edo absolutua edo baliaezintasun handia aitortu zaielako, eta inguruabar horiek eskualdaketaren ondoren eta aurreko paragrafoan ezarritako epea bete baino lehen gertatzen badira. Halaber, ez dira ez-betetzat joko enpresa edo entitatea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen bada.

- Laugarrena: Aurreko bigarren baldintzan ezarritako epean, eskuratzaile bakoitzak gehienez ere %40ko partaidetza izango du entitatean, zuzenean edo zeharka, ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin, aurrekoekin edo adoptatzaileekin, ondorengoekin eta adoptatuekin eta laugarren gradurainoko albokoekin batera. Entitatea talde bateko kide bada, talde horretako kide den entitate bakoitzari dagokionez bete beharko da aurreko baldintza hori.

- Bosgarrena: Eskualdatzaileak zuzendaritza-funtzioak bete behar ditu eta zeregin horregatik jasotzen duen ordainsaria ekonomia-jardueren eta lan pertsonalaren etekin guztien %50 baino gehiago izatea, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 6.Bi.d) artikuluaren lehen paragrafoan xedatutakoarekin bat etorrita. Horrez gainera, aurreko c) letraren bigarren betekizunarekin bat etorrita, eskualdaketaren unetik beretik lan horiek egiteari eta dagozkien ordainsariak

jasotzeari utzi beharko dio. Ondorio horietarako, sozietatearen administrazio-kontseiluko kide izate hutsa ez da zuzendaritza-funtzioen barruan sartuko.

Entitate batean akzioen edo partaidetzen eskualdaketa entitate horretako edo taldeko entitateetako langileen alde egiteko betekizuna betetzat joko da eskuratzailea aldi berean honako betekizun hauek betetzen dituen entitate bat denean:

a') Eskualdatzen diren akzio edo partaidetzak dagozkion entitateko edo taldeko entitateetako langileen partaidetza baino ez izatea, eta langile horiek d) letra honetako lehenengo betekizuna betetzea.

Entitateko akziodunen osaerari dagokionez, ulertuko da ez dela urratzen aurreko paragrafoan aipatutako langileen partaidetza baino ez izatearen betekizuna entitatean partaidetza duten langileek entitate enplegatzailean lan egiteari uzten diotenean erretiroa hartu dutelako edo ezintasun iraunkor osoa edo absolutua edo baliaezintasun handia aitortu zaielako.

Era berean, langileen partaidetza baino ez duen entitatearen akzioak edo partaidetzak eskuratu eta gero hil diren langileen oinordekoek dutenean partaidetza ez da ez-betetzat joko entitate baten akziodunen izaerari dagokion baldintza. Aurrekoa langilea hil eta hurrengo bi urteetan aplikatuko da, gehienez.

b') Aktiboaren %90, gutxienez, entitate horretako edo taldeko entitateetako akzio edo partaidetzez osatuta egotea. Ehuneko hori zehazteko, diruzaintza ez da aktiboan zenbatuko.

Entitatea eskualdaketa egin aurreko bi hilabeteetan eratu bada, edo epe horren barruan kapitala zabaldu badu diruzko ekarpenen bidez, b') letrako beharkizuna eragiketa formalizatzen denetik aurrera exijituko da.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren langileen partaidetza baino ez duen entitateak aurreko a') eta b') letretan ezarritako baldintzak bete beharko ditu bigarren baldintzan xedatutako epean zehar.

Bigarren baldintzan akzioak eta partaidetzak mantentzeko ezarritako epea langileen partaidetza baino ez duen entitateari zein langileei eskatu ahal izango zaie, entitateak eskuratutako akzioei eta partaidetzei dagokienez eta entitatean dituzten akzioei edo partaidetzei dagokienez, hurrenez hurren. Langileen partaidetza baino ez duen entitatea epea amaitu aurretik desegiten bada, bazkide langileek akzioei eta partaidetzei eutsi beharko diete epea osatu arte.

Aurreko paragrafoetan aurreikusitako langileen partaidetza baino ez duten entitateek egindako eskuraketetan, entitatean partaidetza duten langileen ardura izango da d) letra honen hirugarren eta laugarren betekizunak betetzea.

Eskualdatzearen ondorengo uneren batean d) letra honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, eskualdatzaileak tributu-egoera erregularizatuko du ez-betetzea gertatzen den ekitaldiari dagokion aitorpenean, kontuan hartu gabe eskualdaketa langileei egin zaien edo langileen partaidetza baino ez duten entitateei egin zaien. Erregularizazioak dagozkion berandutze-interesak jaso beharko ditu ere.

Enpresen edo akzioen edo partaidetzen eskualdaketa kostu bidez egin denean, langileak etorkizuneko eskualdaketa batean ondare-irabazia edo -galera kalkulatzeko kontuan hartu beharreko eskuraketa-balioa benetan ordaindutako zenbatekoa izango da.

Letra honetan taldeak aipatzen direnean ulertu behar da sozietate-taldeez ari dela, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluaren zentzuan.

Zergadunak d) letra honetan ezarritako eskualdaketaren bat egiten duenean, eragiketari buruzko datuak jaso beharko ditu bere aitorpenean.

Artikulu honen d) letra honetan ezarritakoa ez da aplikatuko akzioen eta partaidetzen eskualdaketa haien gaineko aukerak baliatuz egiten denean.

e) Ondasunen bananketako eraentza edo izatezko bikoteak adostutako ondare- eta ekonomia-araubidea azkentzen denean, baldin eta legeak edo epaileek aginduta konpentsazioak egiten badira —diruzkoak edo ondasunak adjudikatuz— eta haien zioak ezkontideen edo izatezko bikotekideen arteko konpentsazio- pentsioarekin zerikusirik ez badu.

Letra honetan aipatutako konpentsazioek ez diote zerga- oinarria murrizteko eskubidea emango ordaintzaileari, eta hartzailearentzat ez dira errenta izango.

Letra honetan aipatutako kasuak ezingo du inola ere ekarri adjudikatutako ondasun edo eskubideen balioak eguneratzea.

f) Apartatu honen b) letran jasota ez dauden eta desgaitasuna duten pertsonen alde eratutako ondare babestuetara egindako ekarpenen ondorioz.

**42. artikulua. Salbuetsitako ondare-irabaziak.**

Zergatik salbuetsita egongo dira honako hauetan agerian geratzen diren ondare-irabaziak:

a) Foru arau honetako 91. artikuluan aipatutako entitateei dohaintzak egiteagatik.

b) 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoaren arabera mendekotasun-egoera larrian edo mendekotasun oso larrian dauden pertsonek beren ohiko etxebizitzaren kostu bidezko eskualdaketa egiteagatik (lege hori autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa da).

c) 65 urtetik gorako pertsonek beren ohiko etxebizitzaren kostu bidezko eskualdaketa egiteagatik. Ohiko etxebizitzaren eskualdaketarekin irabazitako lehenengo 400.000 euroei aplikatuko zaie salbuespen hori, baina eskualdaketa bakarrari.

d) Foru arau honetako 103. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitako ordainketa egiteagatik.

e) Zordunak edo zordunaren berme-emaileak ordainean ohiko etxebizitza ematen duenean etxebizitzaren gaineko hipotekarekin bermatutako zorrak ordaintzeko, betiere kreditu-entitateekin edo modu profesionalean maileguak edo hipoteka-kredituak ematen dituen beste edozein entitaterekin baditu zor horiek.

Horrez gainera, salbuetsita geratuko dira etxebizitza eskualdatzearen ondorioz agerian geratzen diren ondare-irabaziak, baldin eta eskualdatze horretan aurreko baldintzak betetzen badira eta eskualdatzea betearazpen hipotekario, judizial edo notarialen ondorioa bada.

Edonola ere, beharrezkoa izango da ohiko etxebizitzaren jabeak beste era bateko ondasun edo eskubide nahikorik ez izatea zor guztia ordaintzeko eta etxebizitza besterentzea saihesteko.

f) 65 urtetik gorako zergadunek ondare-elementuak kostu bidez eskualdatzeagatik agerian geratzen diren ondare- irabaziak, baldin eta eskualdaketaren bidez lortutako zenbateko osoa haien aldeko biziarteko errenta aseguratu bat eratzeko erabiltzen badute, sei hilabeteko epean, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan. Gehienez ere 240.000 euro erabili ahal izango dituzte horrela biziarteko errentak eratzeko.

Zergadunak foru-arau honen 9. artikuluaren 37. apartatuan aurreikusitako salbuespena ere aplikatzen badu, apartatu honetako lehen paragrafoan aurreikusitako gehieneko kopurua 9.37 artikulu horretako lehen paragrafoan aurreikusitakoarekin batera aplikatuko da.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketan jasotako zenbateko osoa baino, lortutako ondare-irabazian berrinbertitutako zenbatekoari dagokion zati proportzionala baino ez da utziko zergapetu gabe.

Eratutako biziarteko errentaren ondoriozko eskubide ekonomikoak guztiz edo partez aurreratzen badira, kasu horretan lortzen den ondare-irabazia zergapetu egingo da.

g) Entitateetako akzioak edo partaidetzak eskualdatzean agerian gelditzen diren ondare-irabazien %50, hain zuzen ere horiek eskuratzeagatik zergadunak foru arau honen 90. artikuluan ezarritako kenkaria aplika dezakeenean, betiere ondorio horietarako aipatutako aginduaren 3. eta 7. apartatuetan xedatutakoa kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoa xedatutakoa aplikatzeko, zergadunak foru arau honen 90. artikuluaren 6. apartatuan aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Salbuespena ondare-irabaziaren 100eko 100era iritsiko da, zergadunak letra honen lehen paragrafoan aipatzen diren akzioak edo partaidetzak eskualdatzean lortutako zenbatekoa berriro inbertitzen duenean, paragrafo horretan aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten beste akzio edo partaidetza batzuk eskuratzean, betiere eskualdatze horren datatik gehienez ere bi urteko epealdian. Kasu horretan, ezin izanen da aplikatu foru arau honen 90. artikuluan ezarritako kenkaria aipatutako berrinbertsioa gauzatzen den akzio edo partaidetzei dagokienez.

Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketan jasotakoa baino gutxiago denean, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaio berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare-irabaziaren zati proportzionalari bakarrik.

Letra honetan aipatzen den % 100eko salbuespena aplikatzearen ondorioetarako, Zerga Administrazioak berrinbertsio-plan bereziak onartu ahal izango ditu, hori justifikatzen duten inguruabar espezifikoak daudenean.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren inguruabarrak gertatzen direla ulertuko da frogatzen denean ezen, bere ezaugarri ekonomikoengatik, inbertsioa nahitaez egin behar dela bi urtetik gorako epealdian, oro har ezarritako eskualdaketaren datatik aurrera, edo, gerora sortutako eta behar bezala arrazoitutako inguruabarrengatik, berrinbertsiorako prozesua ezin denean osatu aipatu epealdian.

Berrinbertsio-plan berezia onesteko eskaera egingo da arauz zehazten diren prozedura eta baldintzak betez. Ondare-elementua edo partaidetzak eskualdatu aurreko edo ondoko sei hilabeteko aldian aurkeztuko da eskaera hori, salbu eta ezusteko inguruabarren ondorio denean. Halakoetan, oro har ezarritako eskualdatze-datatik aurrera bi urteko epealdia amaitu baino lehen aurkeztu beharko da eskaera, eta egindako berrinbertsioaren zatia eta hura osatzeko behar den denbora-plana zehaztu beharko dira.

### 43. artikulua. Ondare-galera konputaezinak.

Honako hauek ez dira konputatuko ondare-galera gisa:

a) Justifikatu gabekoak.

b) Kontsumoaren ondorio direnak.

c) Inter vivos egintzengatik edo eskuzabaltasunengatik kostu gabe egindako eskualdaketetatik datozenak.

d) Ondasun higiezinen kostu bidezko eskualdaketen ondoriozkoak, baldin eta ondasunok aurretik egindako kostu gabeko eskuraketa salbuetsi edo tributazio efektiborik gabeko eskuraketa batetik badatoz.

Nolanahi ere, letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko zergadunak frogatzen badu ondasun higiezinaren balioa aparteko inguruabarrengatik aldatu dela edo galera bakar-bakarrik besterentzearen edo eskuraketaren berezko gastuen ondorioa dela.

e) Zergaldian zehar jokoan izandako galeren ondoriozkoak, baldin eta galerok zergaldi berean izandako irabaziak baino handiagoak badira.

Ez dira inola ere konputatuko foru arau honetako hamazortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren jokoetan parte hartzeagatik izandako galerak.

f) Ondare-elementuak eskualdatzeagatik gertatutakoak, baldin eta eskualdatzaileak berriro eskuratzen baditu eskualdaketaren datatik aurrerako urtean. Ondare-galera hori ondare-elementuaren hurrengo eskualdaketa gertatzen denean integratuko da.

g) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean emandako 2014/65/EB Zuzentarauan — finantza-tresnen merkatuari buruzkoan — definituta dauden bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziagarriak diren balore edo partaidetzak eskualdatzeagatik sortutakoak, baldin eta zergadunak eskualdaketa horien aurreko edo hurrengo bi hilabeteetan balore homogeneoak eskuratu baditu.

h) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean finantzatresnen merkatuez emandako 2014/65/EB Zuzentarauan azaldutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatzeko onartu ez diren balore edo partaidetzen eskualdaketen ondoriozkoak, baldin eta zergadunak balore homogeneoak eskuratu baditu eskualdaketa gertatu aurreko edo ondoko urtean.

Aurreko g) eta h) letretan aurreikusitako kasuetan, zergadunaren ondarean mantentzen diren balore edo partaidetzak eskualdatu ahala integratuko dira ondare-galerak.

**44. artikulua. Ondare-irabazi edo -galeren zenbatekoa. Arau orokorra.**

1. Ondare-irabazi edo -galeren zenbatekoa honako hau izango da:

   a) Kostu bidezko edo kostu gabeko eskualdaketetan, ondare-elementuen eskuraketa-balioaren eta eskualdaketa-balioaren arteko diferentzia. Hala badagokio, eskuraketa-balioa eguneratuta egongo da, hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera.

   b) Gainerako kasuetan, ondare-elementuen edo, halakorik balitz, haien zati proportzionalen merkatu-balioa.

2. Hobekuntzak egin badira eskualdatutako ondare-elementuetan, besterentze-balioan osagai bakoitzari dagokion zatia bereiziko da.

**45. artikulua. Kostu bidezko eskualdaketak.**

1. Eskuraketa-balioa honako hauen batura izango da:

   a) Ondasuna eskuratzeko ordaindutako benetako zenbatekoa.

   b) Eskuratzaileak eskuratutako ondasunetan egindako inbertsio eta hobekuntzen kostua eta eskuraketako berezko gastu eta tributuak, interesak kanpoan utzita; kostuok eskuratzaileak ordaindutakoak izan behar dute.

   Hala badagokio, balio horri erregelamendu bidez zehaztutako eran egindako amortizazioen zenbatekoa gutxituko zaio, eta, edonola ere, gutxieneko amortizazioa konputatuko da.

2. Aurreko zenbakian aipatutako eskuraketa-balioa erregelamendu bidez finkatzen diren koefizienteak aplikatuz eguneratuko da. Horretarako, kontuan hartuko da, batik bat, kontsumorako prezioen indizeak zer bilakaera izan duen ondare-elementuen eskuraketa-datatik eta zer bilakaera aurreikusten den eskualdaketaren ekitaldirako. Koefizienteak honela aplikatuko dira:

   a) Aurreko zenbakiko a) eta b) letretan aipatutako zenbatekoen gainean, zein urtetan ordaindu diren kontuan izanik.

   b) Amortizazioen gainean, dagokien urtea kontuan izanik.

3. Eskualdaketa-balioa besterentzearen benetako zenbatekoa izango da. Balio horri aurreko 1. zenbakiko b) letran adierazitako gastu eta zergak kenduko zaizkio, behin eskualdatzaileak horiek ordaindu ondoren.

   Besterentze balioaren benetako zenbatekotzat ordaindutakoa hartuko da, betiere merkatu-balio normalaren azpitik ez badago, kasu horretan azken balio hori hartuko baita.

### 46. artikulua. Kostu gabeko eskualdaketak.

Eskuraketa edo eskualdaketa kostu gabekoa denean, aurreko artikuluko arauak izango dira aplikagarriak, eta balio bakoitzaren benetako zenbatekotzat Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren arauak aplikatzetik ateratako balioak hartuko dira.

Foru arau honetako 41. artikuluko 2. paragrafoaren b) letran aipatzen diren kostu gabeko eskuraketetan, alegia, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-tituluen bidezko kostu gabeko eskualdaketetan, eskuraketa-balioa, hurrengo eskualdaketetarako, dohaintza-emaileak aktibo horiek dohaintza-hartzaileari ematean duten balioa izango da, dohaintza-hartzaileak aktiboak dohaintza-emailea hil aurretik eskualdatu ezean. Izan ere, hala gertatzen bada, dohaintza-hartzailea dohaintza-emailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien eskuraketa-balio eta -datei dagokienez, eta azken horrek eraginkortasuna unean bertan duen oinordetza-itunaren aurretik zituen balio eta datak atxikiko ditu.

Foru arau honetako 41. artikuluko 2. zenbakiko c), d) eta f) letretan aipatutako kostu gabeko eskuratzeetan, dohaintza-hartzailea dohaintza-emailearen lekuan subrogatuko da ondasunen eskuraketa-balio eta -datei dagokienez.

### 47. artikulua. Berariazko balorazio-arauak.

1. Ondarearen balioa honako arrazoiengatik aldatzen denean:

   a) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean emandako 2014/65/EB Zuzentarauan — finantza-tresnen merkatuari buruzkoan — definitzen diren balore-merkatu arautuetako batean negoziatzeko onartuta dauden kostu bidezko eskualdaketan, eta sozietateen edo entitateen funts propioetako partaidetzaren adierazgarri direnean, eskualdaketa-balioa hau izango da: baloreok merkatu horietan duten kotizazioa, eskualdaketa egiten den egunean, edo eskualdaketan itundutako prezioa, kotizazioa baino handiago denean.

      > Ikus honako Foru Arau honen hogeita laugarren xedapen gehigarria: «Negoziaziorako onartzen diren balioen emaitzako ondare-irabazietarako zerga-ordainketaren aukerako araubidea.

   Balore horien gaineko harpidetza-eskubideak eskualdatuz lortutako zenbatekoa ondare-irabazitzat hartuko da eskualdatzailearentzat, eskualdaketa gauzatzen den zergaldian.

   Zati batean liberatutako akzioak direnean, zergadunak benetan ordaindutako zenbatekoa izango da haien eskuraketa-balioa.

Erabat liberatutako akzioak direnean, akzio horien nahiz sorburuko akzioen eskuraketa-balioa kalkulatzeko, kostu osoa titulu kopuruaren artean banatuko da, hala zaharren nola dagozkien liberatuen artean.

b) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean emandako 2014/65/EB Zuzentarauan definitzen diren balore-merkatu arautuetako batean negoziatzeko onartuta dauden kostu bidezko eskualdaketan, eta sozietateen edo entitateen funts propioetako partaidetzaren adierazgarri direnean, eskuraketa-balioaren eta eskualdaketa- balioaren arteko diferentzia izango da eragiketa horretako irabazia edo galera.

Benetan ordaindutako zenbatekoa alderdi independenteek merkatuko baldintza arruntetan hitzartuko zutenarekin bat datorrela frogatu ezean, eskualdaketa-balioak ezingo du honako bi hauetako handiena baino txikiagoa izan:

- Eskualdatutako baloreei dagokien ondare garbiaren balioa, zergaren sortzapen-data baino lehen itxitako azken ekitaldiko balantzetik ateratakoa.

- Zergaren sortzapen-data baino lehen itxi diren hiru ekitaldi sozialetako mozkinen batez bestekoa %20an kapitalizatzetik ateratzen den balioa.Azken ondorio horretarako, banatutako dibidenduak eta erreserbetarako esleipenak mozkin gisa konputatuko dira, balantzeak erregularizatu edo eguneratzeko erreserbetarako direnak kanpoan utzita.

Horrela kalkulatutako eskualdaketa-balioa hartuko da kontuan eskuratzaileari dagozkion balore edo partaidetzen eskuraketa-balioa zehazteko. Balore edo partaidetza hauetatik datozen harpidetza-eskubideak eskualdatzeagatik lortutako zenbatekoa ondare irabazitzat-hartuko da eskualdatzailearentzat, eskualdaketa gertatzen den zergaldian.

Zati batean liberatutako akzioak direnean, zergadunak benetan ordaindutako zenbatekoa izango da haien eskuraketa-balioa.

Erabat liberatutako akzioak direnean, akzio horien nahiz sorburuko akzioen eskuraketa-balioa kalkulatzeko, kostu osoa titulu kopuruaren artean banatuko da, hala zaharren nola dagozkien liberatuen artean.

Lan-sozietateetako langileen akzioak edo partaidetzak eskualdatzen direnean, sozietatearen kontratuetan, kontratu sozialetan edo sozietatearekiko kontratuetan jasotakoa izango da eskualdatze-balioa, betiere kontratuotan ezarritako prezioetan egiten bada eskualdaketa.

c) Ondarearen balioa aldatzen bada ondare-sozietateen kapitaleko balore edo partaidetzak eskualdatzeagatik, eragiketa horretako irabazia edo galera Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera konputatuko da.

d) Balioa aldatzen bada inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzen kostu bidezko eskualdaketa edo itzulketagatik, akzio-partaidetzon eskuraketa-balioaren eta eskualdaketa-balioaren arteko diferentzia izango da eragiketa horretako irabazia edo galera. Eskualdaketa-balioa eskualdaketa edo itzulketa egiten den egunean aplikagarria den likidazio- balioak emango du, edo, halakorik ezean, argitaratutako azken likidazio-balioak. Likidazio-baliorik ez badago, eskualdatutako baloreei edo partaidetzei dagokien ondare garbiaren balioa hartuko da, zergaren sortzapen- data baino lehen itxitako azken ekitaldiko balantzetik ateratakoa.

Partaidetzen itzulketa ez diren kasuetan, hala kalkulatutako eskualdaketa-balioa ezingo da izan honako bi hauetako handiena baino txikiagoa:

- Eskualdaketan benetan itundutako prezioa.

- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean emandako 2014/65/EB Zuzentarauan — finantza-tresnen merkatuei buruzkoan — azaldutako bigarren mailako balore-merkatuetako kotizazio-balioa eta, bereziki, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Balore Merkatuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 43. artikuluaren 4. apartatuan ezarritakoaren arabera baimendutako balorenegozioko sistemetako kotizazio-balioa, eskualdaketa-datan betiere.

Eskuraketa-balioa kalkulatzeko, 1. zenbaki honetako a) letran xedatutakoa aplikatuko da, hala dagokionean.

Aurreko lerroaldeetan xedatutakoa gorabehera, eskualdatzen dena Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduko 79. artikuluan aipatzen diren inbertsio-funts kotizatuetako partaidetzak badira eta eskualdaketa balore-burtsan egin bada (erregelamendu hori 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onetsi zuen), eskualdaketa-balioa 1. zenbaki honetako a) letran jasotakoaren arabera kalkulatuko da.

e) Balioa aldatzen bada sozietateei diruzkoak ez diren ekarpenak egiteagatik, irabazia edo galera kalkulatuko da, hain zuzen ere, emandako ondasun edo eskubideen eskuraketa-balioaren eta honako hiru kopuru hauetako handienaren arteko kenketa eginez:

- Lehenengoa: Ekarpenarengatik jasotako akzio edo partaidetza sozialen balio nominala edo, bestela, balio horretatik dagokien zatia. Balio horri jaulkipen-primen zenbatekoa gehituko zaio.

- Bigarrena: Jasotako tituluen kotizazio-balioa, ekarpena gauzatzen den egunean edo aurre-aurreko egunean.

- Hirugarrena: Emandako ondasun edo eskubidearen merkatu-balioa.

Arestian esan bezala kalkulatutako eskualdaketa-balioa kontuan hartuko da diruzkoa ez den ekarpenaren ondorioz jasotako tituluen eskuraketa-balioa zehazteko.

f) Bazkideak banandu edo sozietateak desegiten direnean, honako hau hartuko da ondare-irabazi edo -galeratzat, sozietateari dagozkion irabazi-galeren kalterik gabe: sozietatearen likidazio-kuotaren balioa edo jasotako ondasunen merkatu-balioa ken titulu edo kapital-partaidetzaren eskuraketa-balioa.

Sozietateen zatiketa, bat-egite edo irenspenen kasuetan, zergadunaren ondare-irabazi edo -galera konputatzeko honako diferentzia hau hartuko da kontuan: bazkidearen partaidetza ordezkatzen duten titulu, eskubide edo baloreen eskuraketa-balioa ken jasotako nahiz emandako titulu, esku-diru edo eskubideen merkatu-balioa.

g) Balio-aldaketa intsuldaketa baten ondorioz gertatzen bada, ondare-irabazia lagatzaileari konputatuko zaio, intsuldaketan dagokion zenbatekoan.

Intsuldaketa-eskubidea prezio bidez eskuratu denean, prezio hori eskuraketa-baliotzat hartuko da.

h) Balio-aldaketa ondare-elementuek jasandako galera edo ezbeharren kalte-ordainen edo aseguratutako kapitalen ondorioz gertatzen bada, honako hau hartuko da ondare irabazi edo galeratzat: jasotako kopurua ken kalteari dagokion eskuraketa-balioaren zati proportzionala. Kalte-ordaina eskudirutan ematen ez bada, kenketa honen emaitza konputatuko da: jasotako ondasun, eskubide edo zerbitzuen merkatu-balioa ken kalteari dagokion eskuraketa-balioaren zati proportzionala. Zergadunaren ondarearen balioan gehikuntza gertatzen denean baino ez da konputatuko ondare-irabazia.

i) Balio-aldaketa ondasun edo eskubideak trukatzeak eragin badu -baloreen trukeak barne-, ondare-irabazia edo -galera honela kalkulatuko da: lagatako ondasunaren edo

eskubidearen eskuraketa-balioa ken jarraian adierazten diren bi balioetako handiena. Baliook hauek dira:

- Emandako ondasun edo eskubidearen merkatu-balioa.

- Trukean jasotzen den ondasun edo eskubidearen merkatu-balioa.

j) Balio-aldaketa biziarteko edo aldi baterako errentak iraungitzeagatik gertatzen bada, ondare- irabazia edo -galera hau izango da errenta horiek ordaintzera behartuta dagoenarentzat: jasotako kapitalaren eskuraketa-balioa ken ordaindutako errenten batura.

k) Balio-aldaketa gertatzen bada ondare-elementuak aldi baterako edo biziarteko errenta baten truke eskualdatu direlako, ondare- irabazia edo -galera hau izango da: errentaren egungo finantza-balio aktuariala ken eskualdatutako ondare-elementuen eskuraketa-balioa.

l) Balio-aldaketa gertatzen bada ondasun higiezinen gainean gozatu edota lupertzeko eskubide erreal baten titularrak eskubide hori eskualdatzen duelako edo eskubidea iraungitzen delako, ondare-irabazi edo -galera kalkulatzeko, foru arau honetako 45.1.a) artikuluan aipatzen den benetako zenbatekoa gutxitu egingo da eskubide horren titularra izan den denborarekiko proportzioan.

m) Eskualdaketa batetik ez datozen ondasun edo eskubideak eransten direnean, ondare-irabazia ondasun edo eskubide horien merkatu-balioa izango da.

n) 2010eko urriaren 15eko 1282/2010 Errege Dekretuak arautukako gerokoen eta aukeren merkatuetan burututako eragiketetan, hau hartuko da ondare-irabazi edo galeratzat: Zergadunak lortutako etekina, baldin eta eragiketa horrek ez badakar zergadunak bere ekonomia-jarduerak gauzatzerakoan hitzartutako eragiketa nagusi baten estaldura; izan ere, eragiketa horiek zerga titulu honetako III. kapituluan ezarritakoaren arabera tributatuko dute.

ñ) Balio-aldaketa gertatzen bada ondasunen foru-komunikazioari loturiko ezkontideen ondasunak edo ezkontza horretako ondasunak besterentzean direnean. Ezkontzak dirauen bitartean, foru-komunikazioaren araubidearen menpeko ezkontide batek ekarritako ondasun bat eskualdatzen bada, ondasunaren titularra den ezkontidearen errentan zenbatuko da irabazia edo galera, hots, eskuraketa-balioaren eta eskualdaketa-balioaren arteko aldea.

Foru-komunikazioaren ondorioz, aurrez hildako ezkontide batengandik datorren ondasun bat beste ezkontideari adjudikatzen bazaio ezkontza desegitean, eta azken horrek gero eskualdatu egiten badu ondasun hori, orduan, ondare-irabazia edo -galera kalkulatzeko, hildako ezkontideak ondasuna eskuratu zueneko balioa hartuko da eskuraketa-baliotzat, edota ezkontza egin zenekoa, ezkontza eskuraketaren ostean egindakoa bada.

Tratamendu bera aplikatuko zaie izatezko bikoteei, izatezko bikotearen araubide ekonomikoa foru-komunikazioarena bada.

o) Balio-aldaketa gertatzen bada testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsi batekoak izan diren ondasunak besterentzen direnean, testamentu-ahalordea erabili bitartean. Kasu horretan, ondare-irabazia edo -galera kalkulatzeko, testamentua egiteko ahalordea erabiltzean denean ondare-elementu horrek daukan balioa hartuko da eskuraketa-baliotzat.

2. Aurreko zenbakiko a), b), c) eta d) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, eta letra horietan adierazitako baloreen kostu gabeko eskualdaketen ondorioetarako, balore homogeneoak daudenean, ulertuko da zergadunak lehenengo eskuratutakoak direla hark eskualdatzen dituenak.

Erabat liberatutako akzioak direnean, haien antzinatasuna sorburuko akzioei dagokiena izango da.

3. Artikulu honetako 1. zenbakiko e), f) eta i) letretan baloreen trukerako xedatutakoa hala ulertuko da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko VII. kapituluan ezarritakoaren kalterik gabe.

4. Ondarearen balio-aldaketa artikulu honetako 1. zenbakiko a) letran ezarritakoaren ondorioz gertatzen denean, zergadunak foru arau honetako hogeitalaugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatu ahal izango du.

5. Baldin eta zergadunak ondare-galera lortzen badu Foru Arau honen 42. artikuluaren g) letran aipatzen den eskualdatzearen ondorioz, eta galera hori hartzekodunen konkurtso batetik edo entitatea likidatzeko beste kasu batzuetatik badator, aipaturiko Foru Arau honen 66.1 b) artikuluan xedatutakoa aplikatu ondoren geratzen den saldo negatiboa konpentsatu ahal izango da a) letran ezarritako etekinen ondoriozko saldo positiboarekin.

   Aurreko integrazioaren eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa ematen badu, haren zenbatekoa konpentsatu ahal izango da Foru Arau honen 65. artikuluaren a) eta b) letretan ezarritako errenten baturatik ateratzen den saldo positiboarekin, zergaldi berean lortua, saldo positibo horren 100eko 25eko mugarekin.

   Konpentsazio horien ostean ondare-galerari dagokion saldo negatiboa geratzen bada, zenbateko hori hurrengo lau urteetan konpentsatuko da, paragrafo honetan ezarritako ordena berean.

   Hurrengo ekitaldietako bakoitzak ahalbidetzen duen gehieneko zenbatekoan egin beharko da konpentsazioa, eta ezin izango da lau urteko epetik kanpo egin, hurrengo ekitaldietako ondare-galerei metatuta.

**48. artikulua. Berrinbertsioa inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak eskualdatzen direnean .**

1. Inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetza edo akzioen itzulketa edo eskualdaketagatik lortutako zenbatekoa inbertsio kolektiboko erakundeen beste akzio edo partaidetza batzuk eskuratu edo harpidetzeko erabiltzen badira, erregelamendu bidez ezarritako prozedurari jarraikiz, hala sortutako ondare-irabazi edo -galera ez da konputatuko, eta harpidetutako akzio edo partaidetzek eskualdatu edo itzulitako akzio edo partaidetzen balio eta data bera izango dute. Hori guztia honako kasu hauetan gertatuko da:

   a) Inbertsio-funts gisa kalifikatuta dauden inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetzen itzulketetan.

   b) Sozietate izaera duten inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eskualdatzen direnean, baldin eta honako baldintza hauek biak betetzen badira:

      - Akzioak eskualdatzen diren inbertsio kolektiboko erakundeak 500 bazkide baino gehiago izatea.

      - Eskualdaketaren aurreko hamabi hilabeteetan zergadunak inbertsio kolektiboko erakundean izan duen partaidetza ezin da izan kapitalaren %5 baino handiagoa.

   Zenbaki honetan ezarritako araubidea ez da aplikatuko baldin eta, edozein bitartekoren bidez, zergadunaren eskueran jartzen bada inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioen edo partaidetzen itzulketa edo eskualdaketaren ondorioz lortutako zenbatekoa. Gainera, araubide hori kasu honetan ere ezin izango da aplikatu: Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduko 79. artikuluan ezarritakoaren arabera inbertsio-funts kotizatuak diren inbertsio kolektiboko erakundeen ondarea ordezkatzen duten partaidetzak edo halako sozietateen akzioak itzultzen,

eskualdatzen, harpidetzen edo eskuratzen direnean (erregelamendu hori 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onetsi zuen).

2. Aurreko paragrafoan ezarritako araubidea aplikatuko zaie Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko ekainaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauak (zuzentarau horren bidez higigarrien baloreetako inbertsio kolektiboko erakunde batzuei buruzko lege-, arau- eta administrazio-xedapenak koordinatu dira) araututako inbertsio kolektiboko erakundeetatik bazkideei edo partaideei (foru arau honetako 52. artikuluan ezarritako erakundeak ez badira), baldin eta erakundeok Europar Batasuneko estatu kide batean eratu eta helbideratuta badaude eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistro berezian inskribatuta badaude, Espainiako entitate egoiliarrek merkaturatu ditzaten.

   Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

   a) Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistro berezian inskribatuta dauden entitate merkaturatzaileen bitartez eskuratu, harpidetu, eskualdatu eta itzuliko dira.

   b) Inbertsio kolektiboko erakundea konpartimentu edo azpifuntsetan egituratuta badago, aurreko 1. zenbaki b) letran aipatutako bazkide kopurua eta gehieneko partaidetza-portzentajea merkaturatutako konpartimentu edo azpifunts bakoitzari dagokiola ulertuko da.

   c) Itzulketaren, eskualdatzearen edo, behar denean, harpidetzaren edo eskuratzearen xedea ez izatea 35/2003 Legea garatzeko Erregelamenduaren 79. artikuluan ezarritako mota bereko sozietateetako edo inbertsio kolektiboko entitateetako partaidetzak edo akzioak, direnak direla kotizatzen duten merkatu arautua edo negoziazio-sistema aldeaniztuna eta erreproduzitzen, errepikatzen edo erreferentziatzat hartzen duten indizearen osaera.

3. Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide kopurua eta erakundeotako kapitalaren gehieneko partaidetza-portzentajea zehazteko, erregelamendu bidez ezartzen den prozedurari jarraituko zaio. Ondorio horietarako, bazkide kopuruari, haien identitateari nahiz partaidetza-portzentajeari buruz dagoen informazioa ez da egitate garrantzitsutzat hartuko.

4. Artikulu honetan xedatutakoa era berean izango da aplikatzekoa berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsetako eta kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzetan, baldin eta 2018ko martxoaren 21eko 02/2018 Foru Arauaren 4., 5. edo 6. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte funtsok.

### 49. artikulua. Berrinbertsioa ohiko etxebizitza eskualdatzen denean.

1. Zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatzean lortutako ondare-irabaziak zergapetu gabe geratuko dira baldin eta eskualdaketa horretan lortutako zenbateko osoa beste ohiko etxebizitza bat eskuratzeko berrinbertitzen bada, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

2. Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketan jasotako zenbateko osoa baino, lortutako ondare-irabazian berrinbertitutako zenbatekoari dagokion zati proportzionala baino ez da utziko zergapetu gabe.

3. Eskualdatu aurretik zergadunaren ohiko etxebizitza zen etxebizitza familiarra eskualdatzearen ondorioz lortutako ondare-irabazietarako ere aplikatuko da goiko zenbakietan xedatutakoa, baldin eta zergadunak etxebizitza horretan bizitzeari utzi badio ezkontideak banantzeko edo izatezko bikotea desegiteko prozedura batean emandako erabaki judizial bat dela-eta.

   Baldintza hau bete behar da zenbaki honetan xedatutakoa aplikatu ahal izateko: eskualdatzen den etxebizitza familiarrak zergadunaren ezkontide edo izatezko bikotekide

ohiaren eta, hala badagokio, haien arteko ondorengoen ohiko etxebizitza izan behar du, arauz ezarritako eran, betiere ondorengoek foru arau honetako 79. artikuluan jasotako kenkarirako eskubidea eragiten badute.

**50. artikulua. Justifikatu gabeko ondare-irabaziak.**

1. Ondasunak eta eskubideak justifikatu gabeko ondare-irabazitzat hartuko dira, baldin eta ondasun-eskubideon edukitza, aitorpena edo eskuraketa ez badator bat zergadunak aitortutako errenta edo ondarearekin. Halaber, justifikatu gabeko ondare-irabazitzat hartuko da existitzen ez diren zorrak zerga honen edo Ondarearen gaineko Zergaren edozein aitorpenetan sartzea, edo zor horiek liburu zein erregistro ofizialetan jasotzea.

2. Justifikatu gabeko ondare-irabaziak atzematen diren zergaldiko likidazio-oinarri orokorrean sartuko dira, salbu eta zergadunak behar bezala frogatzen badu ondasun zein eskubide horien jabe izan dela edo preskribatutako zergaldi bateko data jakin batetik aurrera, edo Zerga Administrazioak dagokion likidazioaren bidez zerga-zorra zehazteko daukan ahalmena egikaritzeko epea iraungi den zergaldi bateko data batetik aurrera.

3. ...

4. ...

## VI. KAPITULUA
## ERRENTEN EGOZPENA ETA ESLEIPENA

### 1. ATALA
### ERRENTEN EGOZPENA

**51. artikulua. Errentak egoztea nazioarteko zerga-gardentasunaren araubidean.**

1. Egoitza Espainiako lurraldean ez duen entitate batek lortutako errenta positiboa zergadunei egotziko zaie, errenta hori artikulu honetako 2. zenbakian ezarritako motetako batean sartzen denean, eta inguruabar hauek betetzen direnean:

   a) Entitateek eurek bakarrik, edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42.3 artikuluan ezarritakoaren arabera entitate lotuak direnekin batera, %50eko edo gehiagoko partaidetza izatea egoitza Espainiako lurraldean ez duen erakundearen kapitalean, funts propioetan, emaitzetan edo boto-eskubidean, delako erakunde horren ekitaldi soziala ixteko egunean. Entitate lotuez gain, beste hauekin ere izan dezakete partaidetza entitateek: ahaidetasun-harreman zuzen edo zeharkakoen bidez loturiko beste zergadun batzuekin (ezkontidea edo izatezko bikotekidea barne), edo odolkidetasunez, ezkontza bidez edo izatezko bikotea osatzetik, bigarren mailaraino, maila hori barne, elkartutako beste zergadun batzuekin.

      Aintzat hartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa emaitzetan duten partaidetzaren arabera zehaztuko da edo, halakorik ezean, entitatearen kapitalean, funts propioetan edo boto-eskubideetan duten partaidetzaren arabera.

   b) Egoitza Espainiako lurraldean ez duen entitateak ordaindutako zenbatekoa, sozietateen gaineko zergaren moduko edo antzeko karga baten ondorioz 2. zenbakian ezarritako errenta-motaren bati egozgarria dena, txikiagoa izatea zerga horren arauen arabera legokiokeen zenbatekoaren eta entitate ez-egoiliarrak benetan ordaindutakoaren arteko kendura baino.

2. Egoitza Espainiako lurraldean ez duen entitate batek lortutako errenta positibo osoa zergadunei egotziko zaie, baldin eta entitate horrek ez badu errenta hori gauzatzeko baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketa egokirik, nahiz eta eragiketa errepikariak izan. Nolanahi ere, dibidenduen, mozkinetako partaidetzen edo entitateen partaidetzak eskualdatuta lortzen diren errenten kasuan, zenbaki honen azken hiru paragrafoetan ezarritakoa beteko da beti.

Errenta osoa izango da, hain zuzen, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan zein zerga horri buruzko gainerako xedapenetan zerga-oinarria zehazteko ezartzen diren irizpideak eta printzipioak aplikatuz ateratzen den zerga-oinarriaren zenbatekoa.

Aurreko paragrafo bietan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta zergadunak egiaztatzen badu eragiketa horiek Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera talde berekoa den eta egoitza Espainiako lurraldean ez duen entitate baten baliabide material eta giza baliabideekin egiten direla, entitateon egoitzaren lurraldea eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra kontuan hartu gabe, edo egiaztatzen badu arrazoi ekonomiko baliodunak daudela entitatea eratzeko eta haren jardunerako.

Zenbaki honen lehenengo bi paragrafoetan ezarritakoa aplikatzen ez bada, dela haietan ezarritako inguruabarrak betetzen ez direlako dela aurreko lerroaldean ezarritakoa aplikatu delako, bakarrik egotziko da honako iturri hauetako bakoitzetik datorren errenta positiboa:

a) Landa- zein hiri-ondasun higiezinen edo haiei dagozkien eskubide errealen titulartasunetik datorrenean, salbu ekonomia-jarduera bati afektatuta badaude ?Foru Arau honetan xedatutakoaren arabera? edo Merkataritzako Kodeko 42. artikuluari jarraituz titularraren sozietate-talde berekoak diren entitate ez-egoiliarrei laga bazaie haien erabilera ?kontuan izan gabe haien egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egiteko betebeharra? eta jarduera ekonomiko bati afektaturik badaude.

b) Edozein entitate motaren funts propioetan parte hartzea eta hirugarren batzuei kapital propioak lagatzea, Foru Arau honetako 34. eta 35. artikuluetan aurreikusitako eran. Ez da letra honetan sartuko honako finantza-aktibo hauetatik eratorritako errenta positiboa:

    a') Ekonomia-jarduerak egiteagatik sortutako legezko eta arauzko obligazioak betetzeko edukitako finantza-aktiboak.

    b') Ekonomia-jarduerak egitearen ondorioz finkatutako kontratu-harremanetatik sorturiko kreditu-eskubideak jasotzen dituzten aktiboak.

    c') Baloreen merkatu ofizialetan bitartekaritza-jarduerak egitearen ondorioz edukitako aktiboak.

    d') Kreditu- eta aseguru-erakundeek beren jardueren ondorioz edukitako aktiboak, hargatik eragotzi gabe jarraian datorren i) letran ezarritakoa.

    Kapital propioak hirugarrenei lagatzetik eratorritako errenta positiboa hurrengo i) letran aipatuko diren kreditu- eta finantza-jarduerak burutzetik datorrela ulertuko da, baldin eta lagatzailea eta lagapen-hartzailea sozietate-talde batekoak badira, Merkataritzako Kodeko 42. artikuluak zehaztutakoaren arabera ?kontuan izan gabe haien egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egiteko betebeharra?,eta lagapen-hartzailearen diru-sarreren %85 gutxienez ekonomia-jarduerak egitetik badator.

c) Foru Arau honen 42.3 artikuluan ezarritako moduan lotutako pertsona edo entitateek ondasun eta zerbitzuekin egindako eragiketak, baldin eta entitate ez-egoiliarrak edo establezimendu iraunkorrak gehitzen duen balio ekonomikoa urria edo nulua bada.

d) Kapitalizazio- eta aseguru-eragiketak, haien onuraduna entitatea bera bada.

e) Jabetza intelektuala eta industriala, laguntza teknikoa, ondasun higigarriak, irudi-eskubideak eta negozio edo meategien errentamendu edo azpierrentamendua, Foru Arau honetako 37. artikuluan ezarritako baldintzetan.

f) Finantza-tresna deribatuak, salbu eta jarduera ekonomikoak egitetik datorren eta berariaz identifikatuta dagoen arrisku bat estaltzeko izendatutakoak.

g) Aurreko a), b), d) eta e) letretan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketak, ondare-irabazi eta -galerak eragiten badituzte.

h) Aseguru- edo kreditu-jarduerak, errentamendu finantzarioko eragiketak eta bestelako finantza-jarduerak, jarduera ekonomikoak egiteagatik lortzen direnean izan ezik, hurrengo i) letran ezarritakoa gorabehera.

i) Kreditu-, finantza-, aseguru- eta zerbitzu-jarduerak (esportazio-jarduerekin zuzenean lotutakoak izan ezik), baldin eta jarduera horiek zeharka edo zuzenean egin badira Espainiako lurraldean egoiliar diren eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoaren arabera lotuak diren pertsona edo entitateekin, eta baldin eta entitate egoiliar horientzat fiskalki kengarriak diren gastuak zehazten badituzte.

   Letra honetan ezarritako errenta positiboa ez da kontuan hartuko, baldin eta entitate ez-egoiliarrak egindako kreditu-, finantza-, aseguru- eta zerbitzu-jardueren (esportazio-jarduerekin zuzenean lotutako zerbitzuena izan ezik) sarreren %50 baino gehiago lortu bada entitate horrek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoaren arabera lotuak ez diren pertsona edo entitateekin egin dituen eragiketetatik.

   Ez dira kontuan hartuko aurreko b) eta g) letretan ezarritako errentak (erakunde ez-egoiliarrak lortutakoak), baldin eta errenta horiek badatoz edo entitate horrek zuzenean edo zeharka %5eko partaidetza baino handiagoa duen entitateetatik, edo %3eko partaidetza baino handiagoa duen entitateetatik ?partaidetutako sozietatearen akzioek bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen badute?, eta, gainera, honako bi baldintza hauek betetzen badira:

   - Lehenengoa: Entitate ez-egoiliarrak partaidetzak zuzendu eta kudeatzea giza baliabide eta bitarteko materialen antolaketa egokiaren bidez, eta entitatea benetan ezarrita egotea egoitza duen estatuan, eta haren egitura izaera artifizial hutsekoa ez izatea, hurrengo 12. zenbakian ezarritako moduan.

   - Bigarrena: Errenten sorburu diren entitateen sarrerak (%85, gutxienez) ekonomia-jardueren ondoriozkoak izatea.

   Horretarako, honako errenta hauek ekonomia-jardueren ondoriozkoak direla ulertuko da: aurreko b) eta g) letretan aurreikusitako errentak, baldin eta errenton jatorria aurreko bigarren baldintza betetzen duten entitateetan badute, eta, zuzenean nahiz zeharka, beste entitate batena baldin bada entitate horietako partaidetzaren %5 baino gehiago, edo partaidetzaren %3 baino gehiago ?partaidetutako sozietatearen akzioek bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen badute?.

   Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera talde berekoak diren entitateen kasuan, entitateon egoitzaren lurraldea eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra kontuan hartu gabe, partaidetza-portzentajeari buruzko betekizunak zein partaidetza eta kudeaketa egoteko betekizuna betetzen diren zehazteko, taldearen parte diren entitate guztiak hartuko dira kontuan.

3. Artikulu honetako 2. zenbakian adierazitako errentak egotzi gabe geratuko dira beren zenbatekoen batura txikiagoa bada entitate ez-egoiliarrak lortutako errenta osoaren %15 baino.

   Zenbaki honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko aurreko 2. zenbakiaren i) letran ezarritakoaren arabera sartu behar diren errentei. Errenta horiek, baina, kontuan hartu ahal izango dira aurreko paragrafoan adierazitako batura zehazteko.

   Sozietate ez-egoiliarrak Sozietateen gaineko Zergaren berdina edo antzekoa den zergaren batengatik ordaindutakoa ez da egotziko zergadunaren zerga-oinarrian, sartu beharreko errenta zatiari dagokionez.

   Artikulu honetako 2. zenbakian aipatutako iturri bakoitzeko errenta positiboak zerga-oinarri orokorrean egotziko dira, Foru Arau honetako 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4. 1. zenbakiko a) letraren barruan dauden zergadunei dagokiena egotziko zaie, bai entitate ez-egoiliarrean zuzenean parte hartzen badute, bai eta zeharka parte hartzen badute ere, entitate ez-egoiliar baten edo batzuen bitartez. Azken kasu horretan, errenta positiboaren zenbatekoa zeharkako partaidetzari dagokiona izango da.

5. Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitateak bere ekitaldi soziala amaitu den egunari dagokion zergaldian egin beharko du egozpena. Ildo horretan, ekitaldi sozialaren iraupena ezin da izan 12 hilabete baino luzeagoa.

6. Zerga-oinarrian egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa Sozietateen gaineko Zergan zerga-oinarria zehazteko finkatutako printzipio eta irizpideen arabera kalkulatuko da.

   Ondorio horietarako, Espainiako lurraldean egoitzarik ez duen entitatearen ekitaldi soziala ixtean indarrean dagoen kanbio-tasa erabiliko da.

   Inoiz ez da entitate ez-egoiliarraren errenta osoa baino handiagoa den diru-kopururik egotziko.

7. Egotzitako errenta positiboari dagokion zatiari dagokionez, dibidenduak edota mozkinetako partaidetzak ez dira egotziko. Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei.

   Erreserben banaketa egonez gero, sozietatearen akordioan egindako izendapenari begiratuko zaio, baina ulertuko da erreserba horietara ordaindutako azken diru-kopuruei aplikatzen zaiela banaketa.

   Errenta positibo bera behin bakarrik egotzi daiteke, nola eta zein entitatetan sortzen den kontuan hartu gabe.

8. Kuota osoan kengarria izango da dibidenduen banaketaren zioz edo mozkinetako partaidetzen zioz atzerrian benetan ordaindu den zerga edo karga, zerga-oinarrian sartuta dagoen errenta positiboari dagokion zatian, dela zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenen baten arabera, dela dagokion herrialde edo lurraldeko barne-legeriaren arabera.

   Kenkari hori beti egingo da, nahiz eta zergak ez izan diru errentak egotzi diren zergaldi berekoak. Inoiz ez dira kengarriak izango paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan ordaindutako zergak.

   Kenkari hori ezin da handiagoa izan zerga-oinarrian egotzitako errenta positiboarengatik ordaindu beharko litzatekeen kuota osoa baino.

9. Partaidetzaren eskualdaketaren ondoriozko errenta kalkulatzeko ?partaidetza zuzenekoa edo zeharkakoa dela ere?, Foru Arau honetako 47.1.c) artikuluan jasotako erregelak erabiliko dira, zerga-oinarrian egotzitako errenta positiboari dagokionez. Artikulu horretan aipatzen diren mozkin sozialak egotzitako errenta positiboari dagozkionak izango dira.

10. Artikulu honetan jasotakoa aplikatu dakiekeen zergadunek, zerga honen aitorpenarekin batera, Espainian egoitza ez duen entitateari buruzko datu hauek aurkeztu behar dituzte:

    a) Izena edo sozietate-izena eta egoitza soziala.

    b) Administratzaileen zerrenda.

    c) Balantzea eta galera-irabazien kontua.

    d) Egotzi behar diren errenta positiboen zenbatekoa.

    e) Egotzi behar den errenta positiboari dagokionez ordaindutako zergen justifikazioa.

11. Partaidetutako entitateak egoitza paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralde batean edo zerga-ordainketarik gabeko lurralde batean badauka, honako hau ulertuko da:

    a) Aurreko 1. zenbakiko b) letran ezarritako inguruabarra betetzen dela.

    b) Partaidetutako entitateak lortutako errenta aurreko 2. zenbakian aipatzen diren errenta-iturrietatik datorrela.

    c) Partaidetutako entitateak lortutako errenta partaidetzaren eskuraketa-balioaren %15 dela.

    Aurreko letretako presuntzioek kontrako frogak onartzen dituzte. Aurreko letretako presuntzioak ez dira aplikatuko partaidetutako entitateak kontuak bateratzen dituenean, Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, errentok integratzera behartuta dauden entitateren batekin edo batzuekin.

12. Partaidetutako entitatea Europar Batasuneko beste estatu kide bateko egoiliarra bada edo Europako Esparru Ekonomikoko Akordioa sinatu badu eta ez badago artikulu honetako 11. zenbakian aipatzen diren kasuetako batean, zergadunak aukera izango du artikulu honetan ezartzen dena ez aplikatzeko, baina, horretarako, frogatu beharko du partaidetutako entitatea benetan ezarrita dagoela egoitza duen estatuan eta entitate horren egitura ez dela artifiziala, Sozietateen gaineko Zergako tributazioa murrizteko helburu hutsarekin eratutakoa. Horretarako, hain zuzen, frogatu beharko du zergadunaren zerga-karga murriztea dakarten transakzioak benetan egin direla egoitza duen estatuan eta transakzio horiek interes ekonomikoa dutela zergadunaren jarduerari dagokionez.

    Bereziki, egitura hori artifizial hutsa ez dela frogatzeko, froga-elementu objektiboak aurkeztu behar ditu zergadunak, zeinetan azaldu behar baita partaidetutako sozietateak zenbateko presentzia fisikoa duen egoitza duen estatuan, zein den partaidetutako sozietateak egindako jardueraren benetako substantibotasuna eta zein den partaidetutako sozietatearen jardunaren balio ekonomikoa, zergadunaren nahiz talde osoaren jardunari dagokionez.

13. Era berean, artikulu honetan jasotakoa ez da aplikatuko entitate ez-egoiliarra Europar Batasuneko beste estatu kide batean egoitza duenean edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioa sinatu duenean, baldin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauan araututa dagoen inbertsio kolektiboko entitate bat bada, eta Europar Batasuneko estatu kide batean sortuta eta helbideratuta badago (Zuzentarau horren bitartez koordinatzen dira balio higigarrietako inbertsio kolektiboko organismo jakin batzuei buruzko lege, arau eta administrazio mailako xedapenak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 81. Artikuluan aurreikusitakoak ez bezalakoak).

14. Artikulu honetan jasotakoa gorabehera, indarrean jarraituko du barne-ordenamenduaren parte bihurtu diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoak.

15. Artikulu honen ondorioetarako, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan aipatzen den sozietate-taldean entitate taldeaniztunak eta elkartutako entitateak ere sartzen direla ulertuko da, entitateok merkataritzako legerian definituta dauden moduan.

**52. artikulua. Paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan eratu diren inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideen tributazioa.**

1. Paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan eratu diren inbertsio kolektiboko erakundeetan parte hartzen duten zergadunek honako hau egotziko duten beren zerga-oinarri orokorrean: partaidetza horrek zergaldiaren amaiera-datan duen likidazio-balioaren eta eskuraketa-balioaren arteko diferentzia positiboa .

    Egotzitako zenbatekoak handitu egingo du eskuraketa-balioa.

2. Inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako mozkinak ez dira egotziko, eta partaidetzaren eskuraketa-balioa gutxituko dute.

3. Kontrakoaren frogarik ezean, aurreko 1. zenbakian aipatutako diferentzia akzio edo partaidetzaren eskuraketa-balioaren %15 dela ulertuko da.

4. Akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo ordaintzetik eratorritako errenta foru arau honetako 47.1.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko da, eta, horretarako, aurreko lerroaldeetan aurreikusitakoa ezartzetik ateratzen den balioa hartuko da eskuraketa-baliotzat.

## 2. ATALA
## ERRENTEN ESLEIPENA

### 53. artikulua. Errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateak .

Foru arau honetako 11. artikuluan aipatzen diren entitateak eta, bereziki, atzerrian eratutako entitateak errenta-esleipenaren araubidean dauden entitatetzat hartuko dira, baldin eta haien izaera juridikoa Espainiako legeen arabera eratutako errenta-esleipenaren araubideko entitateen izaera juridikoaren berdina edo antzekoa bada.

Errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateen errentak bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei esleituko zaizkie, hurrenez hurren, atal honetan ezarritakoaren arabera.

Atal honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko foru arau honetako hogeita hamalaugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren sozietate zibiletako bazkideei.

### 54. artikulua. Esleitutako errentaren kalifikazioa.

Errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateek beren bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei esleitutako errentek izaera hau izango dute: bazkide, oinordeko, erkide edo partaide horietako bakoitzarentzat errenton sorburu den jarduera edo iturriaren arabera dagokiona, hain zuzen.

Errenta-esleipenaren araubidean dagoen entitate batek ekonomia-jarduera bat egiten badu, jarduera horri dagozkion etekinak ekonomia-jardueraren etekin izango dira jarduerari loturiko produkzio-bideak edo giza baliabideak ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean beren kontura antolatzen esku hartzen duten bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideentzat.

Dena den, esleitutako etekinak kapitalaren etekintzat hartuko dira bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideek ez badute antolaketa horretan esku hartzen eta entitatean duten partaidetza kapital-ekarpena egitera mugatzen bada. Kasu horretan, egindako kapital-ekarpenaren %15 jo ahal izango da, gehienez ere, etekin egozgarritzat.

### 55. artikulua. Esleitu daitekeen errentaren kalkulua eta konturako ordainketak.

1. Bazkide, oinordeko, erkide edo partaide bakoitzari esleitu beharreko errentak kalkulatzeko, erregela hauek erabiliko dira:

    1. Errentak zerga honen arauen arabera zehaztuko dira, eta honako berezitasun hauetan ez dira aplikatuko foru arau honetako 25.4, 30.3 eta 39.3 artikuluetan aurreikusitako integrazio-portzentajeak:

        a) Esleitu daitekeen errenta Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotakoaren arabera zehaztuko da, kasu honetan: errenta-esleipenaren araubidean dagoen entitateko kide guztiak zerga horretako zergadunak edo establezimendu iraunkorra duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak direnean, baina, lehenengo kasuari dagokionez, bakar-bakarrik entitatea ondare-sozietatetzat hartzen ez bada.

b) Establezimendu iraunkorrik ez duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei esleitu dakiekeen errenta zehazteko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko IV. kapituluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

c) Errenta-esleipenaren araubidean dagoen entitateko kideak badira edo Sozietateen gaineko Zergaren zergadunak edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak (hala establezimendu iraunkorra dutenak, nola establezimendu iraunkorrik gabekoak, pertsona fisiko ez badira), bada, orduan, kideoi esleitu dakiekeen errenta kalkulatzeko ez da aplikatuko foru arau honetako lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoa, errenta hori ekonomia-jarduerak egiteari lotuta ez dauden elementuak eskualdatzetik eratorri diren ondare-irabazietatik sortutakoa bada.

2. Zerga honen edo Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren bazkide, oinordeko, komunero edo partaideak atzerrian eratu den eta errenta-esleipenaren araubidean dagoen entitate bateko kide badira, horiei guztiei esleitu dakiekeen errentaren zatia aurreko 1. erregelan adierazitakoaren arabera zehaztuko da.

3. Baldin eta errenta-esleipenaren araubidean dagoen entitateak errentak lortzen baditu atzerrian, hain zuzen ere Espainiarekin zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenik (informazioa trukatzeko klausula duena) sinatuta ez duen herrialde batean, ez dira konputatuko herrialde horretan bertan iturri beretik lortutako errenta positiboak gainditzen dituzten errenta negatiboak.

Soberakina hurrengo lau urteen barruan konputatuko da, 3. erregelan adierazitakoaren arabera.

2. Zerga honen arauei jarraituz, atxikipena edo konturako sarrera egin beharko da errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateei ordaindutako errentak direla eta, kontuan hartu gabe entitate horren kide bat edo guztiak zerga honen, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun diren ala ez. Atxikipen edo konturako sarrera hori bazkide, oinordeko, erkide edo partaidearen ezarpen pertsonaletik kendu ahal izango da, errentak esleitzen zaizkien proportzio berean.

3. Kasu bakoitzean aplika daitezkeen arau edo itunen arabera esleituko zaizkie errentak bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei, eta Zerga Administrazioak ez badu arau edo itun horien berririk, modu sinesgarrian eduki ere, errentok zati berdinetan esleituko zaizkie.

4. Errenta-esleipenaren araubidean dagoen entitate horretako kideak zerga honen zergadunak direnean, foru arau honetako 25.4, 30.3 eta 39.3 artikuluetan aurreikusitako integrazio-portzentajeak erabili ahal izango dituzte beren autolikidazioetan.

5. Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek eta establezimendu iraunkorra duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek euren zerga-oinarrian integratuko dute akzio edo partaidetzetatik datozen eta kontabilizatuta edo kontabilizatzeko dauden errenten zenbatekoa, baldin eta errenta-esleipenaren araubidean dagoen entitate bateko kide badira eta entitate horrek inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak edo partaidetzak eskuratzen baditu. Halaber, euren zerga-oinarrian integratuko dute kapital propioak hirugarrenei lagatzetik eratorritako kapital higigarriaren etekinen zenbatekoa, etekin horiek errenta-esleipenaren araubidean dagoen entitatearen alde sortu direnean.

**56. artikulua. Errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateek informazioa emateko duten betebeharra.**

1. Errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateek aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute, erregelamendu bidez ezartzen den edukiarekin. Bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei esleitu beharreko errentak adieraziko dira aitorpen horretan, Espainiako lurraldean egoiliarrak izan edo ez..

2. Aurreko lerroaldean aipatutako informazio-betebehar hori, hauek bete behar dute: batetik, errenta-esleipenaren araubidean dagoen entitatearen ordezkariak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 44.3 artikuluan ezartzen denaren arabera; bestetik, atzerrian eratutako entitateen kasuan, zerga honen edo Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren entitate horretako kideek.

3. Errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateek beren bazkideei, oinordekoei, erkideei edo partaideei jakinarazi beharko diete zein den entitatearen errenta osoa eta zein den haietako bakoitzari esleitu beharreko errenta, erregelamendu bidez zehazten denaren arabera.

4. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarriko ditu artikulu honetan aipatzen den aitorpen informatiboaren eredua, hura aurkezteko epea, lekua eta modua.

5. Ekonomia-jarduerarik egiten ez badute eta haien urteko errentak 3.000 eurotik gorakoak ez badira, errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateek ez dute artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen den aitorpen informatiboa aurkeztu beharko.

## VI BIS. KAPITULUA
## ERREGIMEN BEREZIAK

### 56 bis. artikulua. Espainiako lurraldera lekualdatutako langileentzako araubide berezia.

1. Espainiako lurraldera lekualdatzearen ondorioz Bizkaian egoitza fiskala hartzen duten pertsona fisikoek artikulu honetan aurreikusitako araubide bereziaren arabera tributatzea aukeratu ahal izango dute, egoitza-aldaketa egiten den zergaldian eta hurrengo hamar zergaldietan, baldin eta, erregelamenduz xedatutako moduan eta baldintzetan eta betekizunetan, honako baldintza hauek betetzen badira:

    a) Bereziki kualifikatutako lanak egiteko lekualdatzea Espainiako lurraldera, baldin eta lan horiek, zuzenean eta nagusiki, ikerketa- eta garapen-jarduerarekin, jarduera tekniko edo finantzarioekin edo antolaketa, gerentzia eta kontrol ekonomiko- finantzarioekin edo komertzialekin lotuta badaude.

    b) Espainiako lurraldera lekualdatzearen ondorioz egoitza fiskala eskuratzen duten zergaldiaren aurreko 5 urteetan Espainian zerga-egoiliar izan ez izana. Edozelan ere, gutxienez 5 urtez egon beharko da nahitaez atzerrian, datatik datara zenbatuta.

    c) Lekualdaketa hori lan-kontratu baten ondorioz gertatzea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da Espainiako enplegu-emaile batekin lan-harreman bat, arrunta zein berezia, nahiz harreman estatutario bat hasten denean, edo lekualdaketa enplegu-emaileak agintzen duenean eta enplegu-emaileak lekualdaketaren gutuna egiten duenean, eta zergadunak lortzen dituen errentak Espainiako lurraldean kokatutako establezimendu iraunkorraren bitartez lortutakotzat kalifikatzerik ez dagoenean.

    d) Lanak benetan Espainian egitea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da, lanen zati bat atzerrian egina izan arren, betiere lan horiei dagozkien ordainsarien batura urte natural bakoitzean jasotako lan-kontraprestazio guztien %15etik gorakoa ez bada. Ez da kontuan hartuko Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testu bategineko 13.1.c) artikuluan jasotakoaren arabera ordainsari horiek Espainiako lurraldean lortutako errentatzat hartzen diren ala ez. Lan-kontratuan ezarritakoa dela-eta, zergadunak funtzio batzuk hartzen baditu bere gain taldeko beste enpresa batean — Merkataritzako Kodeak 42. artikuluan jasotako eran—, Espainiako lurraldetik kanpo, gorago aipatutako muga %30 izango da.

       Atzerrian egindako lanengatik jasotako berariazko ordainsarien zenbatekoa frogatzerik ez dagoenean, langileak atzerrian benetan eman duen egun kopurua hartuko da kontuan lan horiei dagokien ordainsaria kalkulatzeko.

e) Lan horiek egitea edo egoitza Espainian duen enpresa edo entitate batentzat, edo, bestela, Espainiako lurraldean egoiliarra ez den entitate batek bertan kokatua duen establezimendu iraunkor batentzat. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da zerbitzu horien onuradunak honako hauek direnean: egoitza Espainian duen enpresa edo entitate bat, edo, bestela, Espainiako lurraldean egoiliarra ez den entitate batek bertan kokatua duen establezimendu iraunkorra. Lekualdaketa enpresa-talde baten barruan gertatu bada, Merkataritzako Kodeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ondorio hauetarako bakar-bakarrik, beharrezkoa izango da langilea egoitza Espainian duen taldeko enpresak kontratatzea edo Espainiako lurraldera egin beharreko toki-aldaketa enplegu-emaileak agintzea.

2. Artikulu honetan ezarritako tributazio-araubide aukeratzen duten zergadunek foru arau honetan aurrez ikusitakoaren arabera zehaztuko dute beren zerga-zorra, eta honako berezitasun hauek aintzat hartuta:

a) Aurreko 1. paragrafoan zehaztutako lan-harremanetik eratorritako etekin osoen %30 salbuetsita egongo dira.

b) Aurreko letran aipatutako salbuespena aplikatu ondoren, lan pertsonalaren etekin garbia zehazterakoan gastu kengarritzat joko dira, foru arau honetako 22. artikuluan jasotakoez gainera, lekualdatzearen ondorioz sortzen diren gastuak, lanpostu hori betetzean lortutako etekin osoen %20ko mugarekin.

Erregelamenduz zehaztuko da zer gastu diren horiek, eta, haiek aplikatzeko, gastuok agiri bidez justifikatu behar dira betiere.

Enplegatzaileak zenbait zenbateko ordaintzen badizkio langileari b) letra honetan aipatzen diren gastu osagarriei aurre egiteko, zenbateko horiek ez dira gauzazko ordainketatzat joko, lanpostu hori betetzean lortutako etekin osoen %20ko mugarekin.

c) Atzerrian dauden zergadunaren titulartasuneko ondare-elementuen ondoriozko errentak salbuetsita egongo dira, baldin eta errenta horiek benetan tributatu badute zerga honen izaera berdina edo antzekoa duten zerga batean eta, gainera, herrialde edo lurralde hori ez bada tributazio eza duen edo paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde bat, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan.

Letra honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzen duten zergadunek ez dute eskubiderik izango foru arau honetako 92. artikuluan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko errenta horiekin.

d) Aurreko c) letran ezarritakoa berdin aplikatuko zaie araubide berezi hau aukeratzen duen zergadunaren izatezko bikotekideari eta haren familia-unitateko kideei, baldin eta lekualdatzearen ondorioz Bizkaian egoitza fiskala hartzen badute eta Espainiako lurralderako lekualdaketa gertatzen den zergaldiaren aurreko bost urteetan Espainiako egoiliarrak izan ez badira.

3. Artikulu honetan ezarritako araubidea Gizarte Segurantzaren ondorioetarako enplegatuari dagokion araubidea gorabehera aplikatuko da, eta araubide orokorra ez denean, araubide horri dagozkion eginkizunen baliokideak hartuko dira kontuan.

Ondorio horietarako, foru arau honen 56 quater artikuluaren 3. paragrafoan aipatzen diren ekintzaileei aplikatuko zaie araubidea, baldin eta jarduera ekonomikoa egiten badute edo jarduera hori egiten duten erakundearen kapitalean akzioak edo partaidetzak badituzte, betiere jarduera pertsona juridiko baten bidez gauzatzen denean.

4. Artikulu honetan ezarritako zerga-tratamendua beren konturako jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunei ere aplikatuko zaie, Foru Arau honen 56 quater artikuluaren 3. paragrafoan aipatzen direnak barne, edo horietatik lortzen dituzten etekinak jarduera

ekonomikoen etekintzat hartzen direnean, Foru Arau honetan ezarritakoaren arabera, betiere artikulu honen 1. paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen baldin badira.

Kasu horretan, artikulu honen 2. paragrafoaren a) eta b) idatz-zatietan aipatzen diren ehunekoak jarduera ekonomikoen etekin garbiaren gainean aplikatuko dira, foru arau honen 25. eta 27. artikuluetan ezarritakoaren arabera kalkulatuta, eta ezin izango dira baliatu kasuan kasuko jarduera ekonomikoen etekinak zehazteko zuzeneko zenbatespen-metodoaren modalitate sinplifikatua.

Era berean, paragrafo honetan aipatzen diren kasuetan, ez da beharrezkoa izango artikulu honetako 1. paragrafoko c) eta e) idatz-zatietan ezarritako baldintzak betetzea.

5. Foru Arau honetako 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, aurreko zenbakian xedatutakoa zergaldi bakoitzean aplikatzeko, aitorpenaren aurkezpenarekin batera erabili beharreko aukera hautatu beharko da. Zergaldi baterako egindako aukera ezin izango da aldatu zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren

### 56. ter artikulua. Ekintzailetzari, berrikuntzari eta jarduera ekonomikoren garapenari lotutako funtsak kudeatzearen zioz lortutako lan-etekinak

1. Lan-etekintzat joko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/EB Zuzentarauan (inbertsio alternatiboko funtsen kudeatzaileei buruzkoa da, eta 2003/41/EE eta 2009/65/EE Zuzentarauak eta 1060/2009 (EE) eta 1095/2010 (EB) erregelamenduak aldatzen ditu) definitutako inbertsio alternatiboko funtsetako edozeinetan eskubide ekonomiko bereziak ematen dituzten partaidetza, akzio edo bestelako eskubideetatik lortutako etekinak, haien forma edo izaera juridikoa edozein izanik ere, entitateotako edo entitateon erakunde kudeatzaileetako edo taldeko entitateetako administratzaileek, kudeatzaileek edo enplegatuek lortutakoak direnean.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren etekinak haien zenbatekoaren 100eko 50ean sartuko dira zerga-oinarrian, baldintza hauek betetzen direnean:

   a) Partaidetza, akzio edo eskubide horien eskubide ekonomiko bereziek bete beharrekoa dute baldintza bat; hain zuzen, inbertsio alternatiboko erakundean dauden gainerako inbertsoreek lortzea inbertsio alternatiboko erakundearen erregelamenduan edo estatutuan definitutako gutxieneko errentagarritasun bermatua.

   b) Partaidetzak edo eskubide bereziak bost urtez mantendu beharko dira, gutxienez, salbu eta aurretiaz likidatzen direnean, baliorik gabe geratzen direnean edo osorik edo partez galtzen direnean erakunde kudeatzailea aldatzearen ondorioz. Kasu horretan, beharrezkoa izango da etenik gabe mantentzea, inguruabar horiek gertatu bitartean.

      Letra honetan xedatutakoa eskatu ahal izango zaie artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen diren erakundeei, baldin eta partaidetzen, akzioen edo eskubideen jabetza badute.

3. Foru-arau honen 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, aurreko apartatuan xedatutakoa zergaldi bakoitzean aplikatzeko, aitorpenaren aurkezpenarekin batera erabili beharreko aukera hautatu beharko da. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

### 56 quater artikulua. Ordainsari espezifikoak ekintzailetzaren esparruan.

1. Artikulu honetako 3. idatz-zatian aipaturiko ekintzaileek erabakitzen badute eurei edo euren jardueran edo aipaturiko idatz-zatian aipatutako entitateetan enplegaturik dituzten pertsonei dagozkien lanaren edo jarduera ekonomikoen etekinen zati erabiliko dutela entitateko edo aipaturiko idatz-zatian aipaturiko entitateen akzioak edo partaidetzak eskuratzeko aukera-ematerako edo akzioen edo partaidetzen balioaren bilakaerari lotutako eduki ekonomikoko

beste eskubide-mota batzuetarako, orduan, aipatutako ordainsariak ez dira joko lanaren edo jarduera ekonomikoen etekintzat, halakoak aitortzen diren momentuan.

Aurreko paragrafoan adierazitako ordainsariak galdagarriak badira, berriz, jasotzen duten zenbateko osoa ondare-irabazitzat joko da, eta aurrezkiaren zerga-oinarrian sartuko, hura dela-eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzeko, Foru Arau honen 66.1. b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Bereziki, aipatutako ordainsariak entitateko akzioak edo partaidetzak eskuratzeko aukera-ematerako erabiltzen badira, ez da inolako etekinik konputatuko — artikulu honen 1. apartatuan ezarritakoaren arabera —, harik eta dagozkion akzioak edo partaidetzak eskualdatzen diren arte, eta, une horretan, akzio-partaidetza horien eskuratze- balioa 0 euro izango da, edo, hala badagokio, haiek eskuratzeko ordaindutako zenbatekoaren arabera dagokion balioa; hori hala izango da ondare-irabazia kalkulatzeko eta aurrezkiaren zerga-oinarrian sartzeko, dagokion ondare-irabazia kalkulatzeko eta aurrezkiaren zerga-oinarrian integratzeko eta konpentsatzeko, Foru Arau honen 66.1. b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako pertsona hau jotzen da ekintzailetzat: zerga honen zergaduna, jarduera ekonomiko berri bat egiten duena, edo jarduera ekonomiko berri bat egiten duen entitate baten eraketan zuzenean edo zeharka parte hartzen duena, zeinak entitatearen kapitaleko 100eko 10 gutxienez eskuratu behar baitu eta jardueraren garapenean pertsonalki inplikatu behar baita entitatearen garapenean lan-harreman edo zerbitzuak emateko harreman baten bitartez.

   Ez da joko apartatu honetan partaidetzari dagokionez ezarritako betekizuna ez dela bete, baldin eta ekintzaileak entitatearen kapitalean duen partaidetza murrizten bada — aurreko paragrafoan ezarritako ehunekoaren azpitik geratzeraraino — hurrengo finantzaketa-txandetan entitatearen jarduera-hazkundearen arabera egingo diren ondorengo kapital-gehikuntzen ondorioz, erregelamenduz ezarriko denaren arabera.

   Paragrafo honetan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera ekonomiko berri bat egiten ari den zehazteko, Foru Arau honen 25. artikuluaren 5. idatz-zatiaren bigarren lerrokadan eta 90. artikuluaren 1. idatz-zatiaren bigarren eta hirugarren lerrokadetan xedatutakoa hartuko da kontuan.

4. Artikulu honetan ezarritako zerga-tratamendua aplikatuko zaie akzioei edo partaidetzei buruzko aukerei edo eduki ekonomikoko beste eskubide mota batzuei, ekintzaileek ekonomia-jarduera gauzatzen duten lehenengo bost urteetan edo artikulu honetako 3. paragrafoan aipatzen diren erakundeak eratzen direnetik aitortzen diren akzioen edo partaidetzen balioaren bilakaerari lotutakoei.

## VII. KAPITULUA
## ERRENTAK ZEIN EKITALDIRI EGOTZI BEHAR ZAIZKIO

### 57. artikulua. Errentak zein ekitaldiri egotzi behar zaizkio.

1. Oro har, eta foru arau honetan ezarritakoaren kalterik gabe, zergaren oinarrian jaso behar diren errentak zehazten dituzten sarrerak zein gastuak sarrera-gastuok sortu diren zergaldiari egotziko zaizkio, haiek ordaindu edo kobratu diren unea beste bat izan arren. Bereziki, irizpide hauek aplikatuko dira:

   a) Lanaren eta kapitalaren etekinak jasotzaileari galdatzen zaizkion zergaldiari egotziko zaizkio.

   b) Jarduera ekonomikoen etekinak Sozietateei buruzko Zergari buruzko Foru Arauak ezarri den bezala egotziko dira, foru arau honetan edo bestelako arauen bidez ezartzen diren kasu bereziak gorabehera.

Hala ere, nekazari gazteak lehen aldiz instalatzeko laguntza publikoak, Espainiako Landa Garapenerako Esparru Nazionalean aurreikusitakoak, laurdenen arabera egotzi ahal izango dira, lortzen diren zergaldian eta hurrengo hiruretan.

c) Ondare-irabaziak eta -galerak ondare-aldaketa gertatu den zergaldiari egotziko zaizkio.

2. Erregela bereziak:

a) Errenta osoa edo haren zati bat ordaindu ez bada errenta hori jasotzeko eskubidea edo errentaren zenbatekoa ebazpen judizialaren zain dagoelako, ordaindu ez diren kopuruak ebazpen judiziala irmo bihurtzen den zergaldiari egotziko zaizkio.

b) Zergadunari egotzi ezin zaizkion inguruabar justifikatuengatik lanetik eratorritako etekinak eska daitezkeen zergaldiez bestelako zergaldietan jasotzen direnean, zergadunak zergaldi horiei egotzi beharko dizkie, zehapenik, berandutze-interesik eta errekargurik gabe. Aurreko a) letran ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean, etekinak epailearen ebazpena irmo bihurtzen den zergaldian eskatu ahal izango dira.

Aurreko paragrafoan aipatu den egozpena horiek jasotzen diren dataren eta zerga honen aitorpenaren hurrengo epearen amaieraren arteko epean egin beharko da.

c) Beren ekonomia-jardueraren etekin garbia zehazteko zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua erabiltzen duten zergadunek aukera izango dute beren sarrera eta gastuak kobrantza eta ordainketaren irizpidea erabiliz egozteko, baina betiere baldintza hauek beteta:

- Lehenengoa: Sarrera edo gastuen kalifikazio fiskalean inolako aldaketarik ez eragitea.

- Bigarrena: Sarrera-gastuak denboraren arabera egozteko irizpideak aldatzeak ezin du inola ere eragin gastu edo sarreraren bat egotzi gabe geratzea, eta, horretarako, dagokion erregularizazioa egin beharko da egozpen-irizpidea aldatu aurretik.

- Hirugarrena: Egozpen-irizpidea berdina izatea irizpide hori aplikatzen zaion ekonomia-jardueraren ondorioz sortutako sarrera eta gastu guztietarako.

Zerga Administrazioak diru-sarrera eta gastuak denboraren arabera egozteko kobrantza eta ordainketen irizpidea erabiltzea onesten duela ulertzeko nahikoa izango da irizpide hori erabiliko dela adieraztea ekonomia-jardueren erregistro-liburuaren edukiarekin egiten den aitorpen informatiboa aurkezten denean, eta hiru urtez gutxienez erabili behar da irizpide hori.

d) Epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketen kasuan, zergadunak proportzionalki egotzi ahal izango ditu eragiketa horietan izandako errentak, haiei dagozkien kobrantzak galdagarriak diren neurrian.

Kasu honetan ulertzen da eragiketak epeka edo prezio geroratuarekin egiten direla: haien prezio osoa edo prezioaren zati bat ondoz ondoko ordainketetan jasotzen denean, betiere ematea edo eskueran jartzea gertatu den egunetik azken epearen mugaegunera arte igarotako denbora urtebetetik gorakoa bada.

Epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketa bat, osorik edo zati batean, kanbio-efektuak jaulkiz ordaintzen bada eta efektu horiek epemugaren aurretik irmo eskualdatzen badira, eskualdaketa egin den zergaldiari egotziko zaio errenta.

Biziarteko edo aldi baterako errenta-kontratuetatik etorritako eragiketek inoiz ere ez dute tratamendu hori izango eskualdatzailearentzat. Ondasunak eta eskubideak biziarteko edo aldi baterako errenta baten truke eskualdatzen direnean, errenta hori eratzen den zergaldiari egotziko zaio errentadunaren ondare-irabazia edo -galera.

e) Ordaindu edo kobratzen diren uneari dagokion zergaldiari egotziko zaizkio dibisa edo atzerriko monetetan dauden saldoen kontu adierazgarrietan haien kotizazioetan izandako aldaketaren eraginez gertatzen diren diferentzia positiboak edo negatiboak.

f) Gertatutakotzat jotzen diren zergaldiari egotziko zaizkio foru arau honetako 7. artikuluan aipatzen diren errenta zenbatetsiak.

g) Foru arau honen 36. artikuluan aipatzen den kapital higigarriaren etekin gisa egotziko da, zergaldi bakoitzean, polizari atxikitako aktiboen likidazio-balioaren arteko diferentzia, zergaldiaren amaieran eta hasieran, hartzaileak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duen bizitza-aseguruen kontratuetan. Egotzitako zenbatekoak kontratu horietan zenbatekoak jasotzearen ondoriozko etekina murriztuko du.

Aldi baterako egozpenari buruzko arau berezi hau ez da aplikatuko egoera hauetakoren bat gertatzen den kontratuetan:

A) Hartzaileari ez ematea polizari lotutako inbertsioak aldatzeko ahalmena.

B) Zuzkidura matematikoak honako hauetan inbertituta egotea:

- Lehenengoa: Inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak, kontratuetan aurrez zehaztuak, betiere inbertsio kolektiboko entitateak badira, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legera egokituak edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EEE Zuzentarauak babestutakoak.

- Bigarrena: Aseguru-etxearen balantzean bereizita islatutako aktibo-multzoak, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

  Bereizitako aktibo-multzo bakoitza osatzen duten aktiboak zehaztea, une oro, aseguru- etxeari dagokio, eta, ondorio horietarako, askatasun osoa izango du aktiboak hautatzeko, baina soilik aktibo multzoaren arrisku-profilari edo beste inguruabar objektibo batzuei buruz aurrez zehaztutako irizpide orokorrei lotuta betiere.

  Aktibo multzo bakoitzaren horniduren inbertsioa Aseguru- eta berraseguru-etxeen antolamenduari, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren 89. artikuluan ezarritako arauak betetzen dituzten aktiboetan egin beharko da. Inola ere ezingo dira izan ondasun higiezinak edo higiezinen eskubide errealak.

  Hala ere, baldintza horiek betetzen dituztela ulertuko da Europar Batasuneko bigarren mailako balore-merkatu ofizial batzuen adierazgarri den burtsako edo errenta finkoko indize jakin bat erreproduzitzen duen inbertsio politika garatzen saiatzen diren aktibo-multzoek.

  Hartzaileak, aktiboen multzo bereizien artean, aseguru-etxeak aseguruaren zuzkidura matematikoa inbertitzeko aukera baino ez du izango, baina inola ere ezin izango du esku hartu zuzkidura horiek multzo bereizi bakoitzaren barruan zein aktibo zehatzetan inbertitzen diren zehazten.

  Kontratu horietan, hartzaileak edo aseguratuak, polizako zehaztapenen arabera, kontratuetan beren beregi izendatutako inbertsio kolektiboko entitateen edo aktiboetatik bereizitako multzoen artean aukeratu ahal izango dute, eta ezin izango da zehaztapen berezirik egin hartzaile edo aseguratu bakoitzarentzat.

  g) letra honetan aipaturiko baldintzak kontratuaren indarraldi osoan bete beharko dira.

h) Kapital higiezinaren etekinak kobratzen diren zergaldiari egotziko zaizkio.

i) Lan arloko araudian ezarritakoaren arabera langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen bada, ordainketa bakarra egin izan ez balitz prestazioa jasotzeko eskubidea egongo litzatekeen zergaldi guztietan egotz liteke ordainketa bakarrean jasotako prestazio hori. Egozpena egingo da, hain zuzen ere, ordainketa bakarra egin izan ez balitz zergaldi bakoitzean prestazioa jasotzeko eskubidea egongo litzatekeen denboraren arabera.

j) Laguntza publikoetatik eratorritako ondare-irabaziak kobratzen diren zergaldiari egotziko zaizkio, paragrafo honen l) letran aurreikusitako aukerari kalterik egin gabe.

k) Mugaeguneratuko baina kobratu gabeko kredituen ondoriozko ondare-galerak inguruabar hauetako edozein gertatzen den zergaldian egotzi ahal izango dira:

1. Maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Konkurtso Legearen testu bateginaren bigarren liburuaren III. tituluan aipatutakoekin judizialki homologatzekoa modukoa den berregituratze-plan batean ezarritako kita bat eraginkorra izatea.

2. Zorduna konkurtso-egoeran egonik, kredituaren zenbatekoaren kita erabakitzen duen hitzarmena eraginkorra izatea, maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Konkurtso Legearen testu bateginaren lehen liburuaren VII. tituluaren VI. kapituluan xedatutakoaren arabera. Hala denean, kitaren zenbatekoaren arabera zenbatuko da galera.

   Bestela, konkurtso-prozedura amaitzea kreditua ordaindu gabe, maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Konkurtso Legearen testu bateginaren 465. artikuluaren 1., 4. eta 7. zenbakietan aipatutako kausengatik konkurtsoa amaitzea erabakitzen denean izan ezik.

3. Urtebete bete bada kreditua exekutatzeko helburuarekin hasi den konkurtsoaz bestelako prozedura judiziala hasi zenetik, baina kreditua oraindik ordaindu ez bada.

   Kreditua k) letra honetan aipatzen den ondare-galera konputatu ondoren kobratzen bada, ondare-irabazia egotziko da, kobrantza gertatu den zergaldian kobratutako zenbatekoaren bestekoa.

l) Espainiako Landa Garapeneko Esparru Nazionalean nekazari gazteak lehen aldiz instalatzeko aurreikusitako laguntza publikoak, nekazaritza-enpresa sozietarioen kapitalean partaidetza bat eskuratzera bideratzen direnak, laurdenen arabera egotzi ahal izango dira, lortzen diren zergaldian eta hurrengo hiruretan.

3. Pertsona bat atzerrira badoa bizitzen eta ondorioz zergadun izateari uzten badio, egotzi gabeko errentak aurreko egoitza dagoen lurraldean aurkeztu behar duen azken aitorpenaren zergaldiko zerga-oinarrian integratu behar dira arautegian ezarrita dagoen bezala; beharrezkoa izanez gero, autolikidazio osagarria egingo da, eta ez zaio ezarriko zehapenik, ez berandutze-korriturik, ez errekargurik.

   Bizilekua Europar Batasuneko beste estatu kide batera edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batera lekualdatzen denean, baldin eta Espainiarekin edo Europar Batasunarekin zerga-kredituak kobratzeari buruzko elkarrekiko laguntzari buruzko akordioa egin badu, Kontseiluaren 2010eko martxoaren 16ko 2010/24/UE Zuzentarauarekin baliokidea dena, zerga, eskubide eta beste neurri batzuei dagozkien kredituak kobratzeko elkarrekiko laguntzari buruzkoan, zergadunak aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera egotzi ahal izango ditu egiteke dauden errentak, edo egotzi gabe dauden errentetako bakoitza lortu ahala egotzi ahal izango ditu, zehapenik, berandutze-interesik eta errekargurik gabe, zerga honengatik aitortu beharreko azken aldian.

Egozten diren errenten aitorpena, horiek lortu ahala egiten bada, errenta horiek egoztea legokiokeen zergaldiari dagokion aitorpen-epean egingo da, baldin eta zergadun izaera galdu ez bada.

4. Zergaduna hilez gero, egozteko dauden errenta guztiak, era berean, aitortu beharreko azken zergaldiko zerga-oinarrian jaso behar dira.

## VIII. KAPITULUA
## BALORATZEKO ERREGELA BEREZIAK

### 58 artikulua. Errenta zenbatetsien balorazioa.

1. Foru arau honetako 7. artikuluak aipatzen diren errenta zenbatetsien balorazioa merkatu-balio normalaren arabera egingo da, eta merkatu-balio normaltzat hau hartuko da, kontrakoaren frogarik ezean: subjektu independenteen artean adostuko litzatekeen kontraprestazioa.

2. Maileguen eta besteren kapitalak erakarri eta erabiltzeko eragiketen kasuan, zergaldiko azken egunean diruak merkatuan duen legezko interes-tasa hartuko da merkatu-balio normaltzat.

3. Zergadunak bere ekonomia-jarduerako ondasun, eskubide edo zerbitzuak dohainik laga edo mailegatzen dizkienean hirugarren batzuei, edo bere erabilera edo kontsumorako bideratzen dituenean, jarduera horren etekin garbia zehazteko ondasun, eskubide edo zerbitzuon merkatu-balio normalari begiratuko zaio.

   Era berean, kontraprestazioa badago, baina ondasun, eskubide eta zerbitzuon merkatu-balio normala baino nabarmen txikiagoa bada, azken balio hori hartuko da kontuan.

4. Zerga Administrazioak dituen datuetatik ondorioztatzen bada zergadunaren titulartasuneko ondasun higiezinak errentan edo azpierrentan emanda daudela edo haiek erabiltzeko eta lupertzeko eskubideak laga direla eta zergadunak ez badu etekinik jasotzen bere autolikidazioan, kapital higiezinaren etekin garbia zenbatetsiko da, higiezin horrek Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera duen balioaren %5, hain zuzen. Dena dela, ez da halako baliorik zenbatetsiko baldin eta ondasun higiezin horren edo haren gaineko eskubide errealaren eskuratzaile, lagapen-hartzaile, errentari edo azpierrentaria zergadunaren ezkontidea, izatezko bikotekidea edo ahaide bat bada, hirugarren mailara artekoak barne.

### 59. artikulua. Eragiketa lotuak.

Pertsona edo erakunde lotuen arteko eragiketen balorazioa merkatu-balio normalaren arabera egingo da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluan aurreikusitako eran.

### 60. artikulua. Gauzazko errentak.

1. Oro har, gauzazko errenten balorazioa merkatu-balio normalaren arabera egingo da, baina balio hori inolaz ere ezingo da izan gauzok ordaintzaileari eragin dioten kostua baino txikiagoa, tributuak eta gastuak barne.

2. Gauzazko lan-etekinak erregela berezi hauen arabera baloratuko dira:

   a) Ordaintzailearen jabetzako etxebizitza bat erabiltzen den kasuetan, hau da gauzazko etekina: etxebizitza hori dela-eta Ondarearen gainezko Zergari buruzko Foru Arauan xedatzen denaren arabera konputatu behar den balioa bider 100eko 8 egitetik ateratzen den zenbatekoa.

      Etxebizitza zerbitzuak ematen dituzten finka berean fisikoki kokatuta dagoen hiri-finketako enplegatuen kasuan, aurreko paragrafoan aipatzen den balorazioak ezin izango du jasotako lanaren gainerako etekin osoen ehuneko 10 gainditu.

Ordaintzailearena ez den etxebizitza bat erabiltzen den kasuetan gauzazko etekina hark jasaten duen kostua izango da (zergak eta gastuak barne); kopuru hori ezin da izan aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatzearen emaitza baino gutxiago.

Gainera, ordaintzaileak etxebizitzaren erabilerak eragiten dituen gastuak ordaintzen baditu (ur, gas eta elektrizitate kontsumoak eta etxebizitzarekin dakartzan gainerako gastu guztiak), gauzazko etekinaren balorazioa ordaintzaileak jasandako kostua izango da.

b) Ordaintzailearen jabetzako automobilak eta haien erremolkeak, motorrak, motozikletak, laketontziak edo itsas kiroletako ontziak zein aireontziak erabili edo ematen diren kasuetan:

- Ibilgailua eman egiten bada, ibilgailu horren eskuratze-kostua hartuko da, eragiketa kargatzen duten tributuak barne.

- Ibilgailua erabili egiten bada, aurreko lerroaldean aipatzen den kostuaren %20 hartuko da urteko.

- Ibilgailua erabili eta, horren ondoren, eman egiten bada, azken horren balorazioa aurreko erabileraren ondorioz ateratzen den balorazioa kontuan hartuz egingo da.

Baldin eta aipaturiko garraiobideak ez badira ordaintzailearenak, garraiobideok erabiltzeak hari dakarkion kostua hartuko da kontuan, tributuak eta gastuak barne.

Goian aipaturiko kasu guztietan, ordaintzaileak ordaintzen dituenean ibilgailua erabiltzeari berez dagozkion gastuak (hala nola konponketak, erregaia, aparkalekua eta ordainpeko autobideak), horrek guztiak ordaintzaileari dakarkion kostua.

Ibilgailua lanerako zein helburu partikularretarako erabiltzen denean, gauzazko ordainketaren balorazioa izango da letra honetan jasotako erregelak dena delako kasuari aplikatu ondoren ateratzen den emaitzaren %50.

c) Diruaren legezko interes-tasatik behera ematen diren maileguetan, balorazioa izango da ordaindutako interesaren eta zergaldian indarrean dagoen legezko interesaren arteko diferentzia.

d) Honako errenta hauek badira, balorazioa ordaintzailearentzat izan den kostuaren arabera egingo da, eragiketa kargatzen duten tributuak barne:

- Mantenu, ostatu, turismo-bidaia eta antzekoengatik emandako prestazioak.

- Aseguru-kontratua edo antzekoren bat dela-eta ordaindutako sariak edo kuotak, foru arau honetako 17. artikuluko 2. zenbakiko e) eta f) letretan xedatutakoaren kalterik gabe.

- Zergadunaren, haren ezkontide edo izatezko bikote-lagunaren mantenu- eta ikasketa-gastuak nahiz ahaidetasun-harreman batengatik harekin lotuta dauden pertsonenak (ezkon-ahaideenak edo izatezko bikoteak eratzeak sortaraz ditzakeen bestelakoenak) ordaintzera zuzendutako kopuruak, foru arau honetako 17. artikuluko 2. zenbakiko c) letran ezarritakoaren kalterik gabe.

e) Honako hauek: batetik, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek eta pentsio-planen sustatzaileek eginiko diru-ekarpenak; bestetik, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2016ko abenduaren 14an emandako 2016/2341 (EB) Zuzentarauan (enpleguko pentsio-funtsen jarduerei eta ikuskapenari buruzkoan) aurreikusitako enpresa sustatzaileek eginiko diru-ekarpenak; eta, azkenik, enpresaburuek pentsioengatik hartutako konpromisoei aurre egiteko ordaindutako kopuruak, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo

xedapen gehigarrian eta hura garatu duen arautegian ezarritakoaren arabera. Gainera, enpresaburuek mendetasun aseguruengatik ordaintzen dituzten kopuruak.

Aurreko letretan ezarritakoa gorabehera, gauzazko lan-etekina ordaintzen duena gauzazko etekin hori sortzen duten jarduerak egitea ohiko jardueratzat duen enpresa bat denean, balorazioa ezingo da izan ondasun, eskubide edo zerbitzu horrek jendearentzat, oro har, duen prezioa baino txikiagoa.

Jendeari eskainitako preziotzat hau joko da: 2023ko apirilaren 27ko 4/2023 Legeak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarenak, bere 47. artikuluan aipatzen duena, behin deskontu arruntak edo ohikoak kenduta. Deskontu arrunt edo ohikotzat hartuko dira enpresako langileekin pareka daitezkeen beste talde batzuei eskainitako deskontuak, bai eta izaera orokorrekoak diren eta gauzazko ordainketa egiteko unean indarrean dauden promozio-deskontuak ere, edota, bestela, %15 edo urteko 1.000 euro gainditzen ez dutenak.

3. Ekonomia-jarduera baten barruan lortzen diren gauzazko errentak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera baloratuko dira.

4. Gauzatan lortzen diren ondare-irabaziak foru arau honetako 44. eta 47. artikuluetan xedatutakoaren arabera baloratuko dira.

5. Gauzazko errentak zerga-oinarrian integratzeko, aurreko neurriak aplikatuz ateratzen den balioari konturako sarrera batu behar zaio, non eta azken horren zenbatekoa ez zaion jasanarazi errentaren jasotzaileari.

## IX. KAPITULUA
## ERRENTA MOTAK

### 61. artikulua. Errenta motak.

Zerga kalkulatzeko, zergadunaren errentak honela sailkatuko dira, kasuan zer dagokion: errenta orokorrak edo aurrezkiaren errentak.

### 62. artikulua. Errenta orokorra.

Honako hauek osatuko dute errenta orokorra: hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera, aurrezkiaren errentatzat jotzen ez diren etekinak, ondare-irabaziak eta -galerak, bai eta honako foru arau hauetan aipatzen diren errenta-egozpenak: foru arau honetako 51. eta 52. artikuluetan, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluaren III. kapituluan.

### 63. artikulua. Aurrezkiaren errenta.

Aurrezkiaren errentatzat hauek hartuko dira:

a) Foru arau honetako 32. artikuluaren 1. zenbakian aipatzen diren etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinak.

b) Foru arau honetako 34., 35. eta 36. artikuluetan ezarritako kapital higigarriaren etekinak. Hala ere, erregelamendu bidez ezartzen diren kasuetan izan ezik, 35. artikuluan aurreikusitako kapital higigarriaren etekinak, zergadunarekin lotutako erakundeetatik datozenak, errenta orokorraren parte izango dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikuluaren eta Foru Arau honen 54. artikuluaren hirugarren paragraforen zentzuan.

c) Ondare-elementuen eskualdaketen ondorioz agerian geratzen diren ondare-irabaziak eta -galerak, bai eta kalte-ordain izaera duten berandutze-interesak jasotzearen ondoriozko ondare-irabaziak ere.

## X. KAPITULUA
## ERRENTEN INTEGRAZIOA ETA KONPENTSAZIOA

### 64. artikulua. Errenten integrazioa eta konpentsazioa.

1. Zerga-oinarria kalkulatzeko, zergadunaren errenten zenbateko positiboak edo negatiboak foru arau honetan jasotakoaren arabera integratu eta konpentsatuko dira.

2. Errentaren sailkapena kontuan hartuta, zerga-oinarria bi alderditan zatituko da:

   a) Zerga-oinarri orokorra.

   b) Aurrezkiaren zerga-oinarria.

### 65. artikulua. Errenten integrazioa eta konpentsazioa zerga-oinarri orokorrean.

Zerga-oinarri orokorra saldo hauen batura izango da:

a) Batetik, foru arau honetako 62. artikuluan aipatzen diren etekinak (ekonomia-jardueretatik eratorriak salbu) eta errenta-egozpenak haien artean -zergaldi bakoitzean eta inolako mugarik gabe- elkarrekin integratu eta konpentsatuz ateratzen den saldoa.

b) Bestetik, ekonomia-jardueren ondoriozko etekinak, zergaldi bakoitzean eta inolako mugarik gabe, elkarrekin integratu eta konpentsatuz ateratzen den saldoa. Emaitzak saldo negatiboa badu, zenbateko hori hurrengo hogeita hamar urteetako ekonomia- jardueretatik lorturiko etekinen saldo positiboarekin konpentsatuko da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 55. artikuluan xedatzen direnbaldintzetan.

   Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 117.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, zergadunak adierazi behar du ea aplikatu nahi duen saldo negatiboen konpentsaziorako aurreko lerroaldean adierazten den aukera hori; konpentsazioa aplikatu nahi duen ekitaldiko autolikidazioa aurkezterakoan egin behar du adierazpen hori. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren autolikidazioa egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

c) Ondare-irabaziak eta -galerak soil-soilik haien artean eta zergaldi bakoitzean integratuz eta konpentsatuz ateratzen den saldo positiboa, hurrengo artikuluan jasotakoak alde batera utzita.

   Artikulu honen c) letra honetan aipatzen den integrazio eta konpentsazioaren emaitza saldo negatiboa bada, haren zenbatekoa artikulu honen a) eta b) letretan jasotako errentak batuta ateratzen den saldo positiboarekin konpentsatuko da, hau da, zergaldi berean lortutako saldo positiboarekin, muga izanik saldo horren % 25. Konpentsazio hori egin eta saldo negatiboa ateratzen bada, zenbateko hori hurrengo lau urteetan zehar konpentsatuko da, artikulu honen aurreko letretan ezarri den hurrenkera berari jarraituz. Ondorengo ekitaldi bakoitzean onar daitekeen gehieneko kopuruan egin beharko da konpentsazioa, betiere lau urteko epearen barruan, hurrengo ekitaldietan ondare-galera moduan jasoz.

### 66. artikulua. Errenten integrazioa eta konpentsazioa aurrezkiaren zerga-oinarrian.

1. Aurrezkiaren zerga-oinarria saldo hauek batuta lortzen den saldo positiboa izango da:

   a) Zergaldi bakoitzean, foru arau honetako 63. artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren etekinak euren artean soil-soilik integratuz eta konpentsatuz lortutako saldo positiboa.

      Zenbaki honetako a) letran aipatzen diren errentak integratu eta konpentsatu ondoren, emaitza saldo negatiboa bada, zenbateko hori a) letra honetan aipatzen diren etekinen saldo positiboarekin baino ezingo da konpentsatu, hain zuzen ere, ondorengo lau urteetan agerian jartzen direnekin.

b) Zergaldi bakoitzean, foru arau honetako 63. artikuluko c) letran aipatzen diren zergaldi bereko ondare-irabaziak eta -galerak haien artean soil-soilik integratuz eta konpentsatuz lortutako saldo positiboa.

Artikulu honetako b) letran aipatzen diren errentak integratu eta konpentsatu ondoren, emaitza saldo negatiboa bada, zenbateko hori b) letra honetan aipatzen diren irabazi eta galeren saldo positiboarekin baino ezingo da konpentsatu, hain zuzen ere, hurrengo lau urteetan agerian jartzen direnekin.

2. Aurreko zenbakian jasotako konpentsazioak ondorengo ekitaldi bakoitzean onar daitekeen gehieneko kopuruan egin beharko dira, eta aurreko zenbakian aipatzen den lau urteko epearen barruan,hurrengo ekitaldietan errenta negatibo moduan jasoz.

   Zergadunak agiri bidez justifikatu behar du, hala badagokio, nondik datozen eta zenbatekoak diren konpentsatu nahi dituen saldo negatiboak, haiek sortu ziren ekitaldia edozein dela ere.

## V. TITULUA
## LIKIDAZIO-OINARRIA

### 67. artikulua. Likidazio-oinarri orokorra eta aurrezkiarena.

1. Likidazio-oinarri orokorra eta aurrezkiaren likidazio-oinarria batuz lortuko da likidazio-oinarria.

2. Likidazio-oinarria lortzeko, zerga-oinarri orokorrean murrizketa hauek egin behar dira, baina hauek bakar-bakarrik, eta hurrenkera honetan:

   - Lehenengoa: Murrizketak konpentsazio-pentsioen eta mantenurako urtekoen ordainketagatik.

   - Bigarrena: Murrizketak gizarte-aurreikuspeneko sistemen alde egindako ekarpen eta kontribuzioengatik.

   - Hirugarrena: Murrizketak baterako tributazioagatik.

   Zenbaki honetan aipatzen diren murrizketak aplikatuz ezin da lortu likidazio-oinarri orokor negatiborik, ez eta likidazioa-oinarria gehitzea ere.

3. Aurrezkiaren likidazio-oinarria lortzeko, aurrezkiaren zerga-oinarriari kendu egin behar zaio 69. artikuluan jasotako murrizketaren gerakina, halakorik badago. Kenketaren ondorioz, likidazio-oinarri hori ezin da negatiboa izan.

### 68. artikulua. Likidazio-oinarri orokor negatiboak konpentsatzea.

Likidazio-oinarri orokorra negatiboa bada, ondorengo lau urteetan lortzen diren likidazio-oinarri orokor positiboekin konpentsatu daiteke haren zenbatekoa.

Ondorengo ekitaldietarako finkatzen den gehieneko kopurua kontuan hartuta egin behar da konpentsazioa, aurreko paragrafoan aipatzen den epearen barruan eta ondorengo urteetako likidazio-oinarri orokor negatiboei metatuz.

Hala badagokio, zergadunak agiri bidez justifikatu behar du nondik datozen eta zenbatekoak diren konpentsatu nahi dituen likidazio-oinarri orokor negatiboak, haiek sortu ziren ekitaldia edozein dela ere.

**69. artikulua. Murrizketak konpentsazio-pentsioengatik eta mantenurako urtekoengatik.**

Zerga-oinarri orokorrari eta, hala badagokio, aurrezkiaren zerga-oinarriari murriztu egin behar zaizkie, foru arau honetako 67. artikuluan jasotakoari jarraituz, epailearen aginduz ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen alde emandako konpentsazio-pentsioengatik eta mantenurako urtekoengatik ordaindutako zenbatekoak, zergadunaren seme-alabei ordaindutakoak izan ezik.

Murrizketa hori ez da aplikatuko baldin eta konpentsazio-pentsioak eta mantenurako urtekoak ordaintzen dituen pertsona halakoen hartzailearekin bizi bada.

**70. artikulua. Murrizketak gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioengatik.**

1. Zerga-oinarri orokorretik murriztu daitezke gizarte-aurreikuspeneko sistemei egiten zaizkien ekarpen eta kontribuzio hauek:

    1. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetako bazkideek egindako ekarpenak, betiere ekarpenok 1998ko ekainaren 30eko 6/1988 Foru Arauko 3. artikuluan jasotzen dituen kontingentziak nahiz bazkide langileen langabezia estaltzeko direnean (foru arau hori Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateen erregimen fiskalari buruzkoa da), bai eta bazkide babesleak egin eta entitateetako bazkideei lan-etekin gisa egotzi zaizkien kontribuzioak ere.

    2. Pentsio-planen partaideek plan horiei egindako ekarpenak, bai eta sustatzaileak egin eta partaideei lan-etekin gisa egotzi zaizkien kontribuzioak ere.

    3. Laneko pentsio funtsen jarduerak eta gainikuspena araupetu dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko (UE) 2016/2341 Zuzentarauan ezarritako pentsio planetara partaideek egindako ekarpenak, are enpresa sustatzaileek egindako kontribuzioak ere, hauek betez gero:

        a) Kontribuzioak prestazioa lotzen zaion partaideari egoztea zergen ondorioetarako.

        b) Etorkizuneko prestazioa jasotzeko eskubidea modu ezeztaezinean eskualdatzea partaideari.

        c) Kontribuzio horri dagozkion baliabideen titulartasuna partaideari eskualdatzea.

        d) Estali behar diren kontingentziak Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8 artikuluan jasotakoak izango dira; testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege-dekretuak onartu zuen.

    4. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpen eta kontribuzioak, baldintza hauek betetzen dituztenean:

        a) Baldintza subjektiboak:

            1.a. Gizarte Segurantzako erregimenen batean integraturik ez dauden profesionalek, haien ezkontideek edo izatezko bikotekideek eta lehen mailako ahaide odolkideek nahiz mutualitate horietako langileek gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin kontrataturiko aseguruengatik ordaindu dituzten kopuruak direnean, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8.6 artikuluan jasotako kontingentziak estaltzen dituen zatian (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen), baldin eta ordaindutako kopuru horiek gastu kengarritzat hartu ez badira ekonomia-jardueren etekin garbiak foru arau honetako 27. artikuluko 1. erregelaren bigarren paragrafoan jasotakoaren arabera zehazterakoan.

2.a. Gizarte Segurantzako edozein erregimenetan integraturik dauden profesional edo enpresaburu indibidualek, haien ezkontideek edo izatezko bikotekideek eta lehen mailako ahaide odolkideek nahiz mutualitate horietako langileek gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin kontrataturiko aseguruengatik ordaindu dituzten kopuruak direnean, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8.6 artikuluan jasotako kontingentziak estaltzen dituen zatian (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

3.a. Besteren konturako langileek edo bazkide langileek gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin kontrataturiko aseguruengatik ordaindutako kopuruak, sustatzaileek lan-etekin gisa haien alde egotzitako kontribuzioak barne, betiere Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera egiten badira eta aipaturiko bazkide langileen langabezia ere estaltzen badute (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

b) Mutualisten eskubide kontsolidatuak bakarrik gauzatu ahal izango dira Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8.8 artikuluan pentsio-planei dagokienez jasotako kasuetan (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

5. Aurreikuspen-plan aseguratuei ordaindutako primak. Aurreikuspen-plan aseguratuak aseguru-kontratuak dira, berez, eta baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Zergaduna izan behar da hartzailea, aseguratu eta onuraduna. Dena den, heriotza kasuan, prestazioak jasotzeko eskubidea sor dezake, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginak ezarritakoaren arabera (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

b) Estali behar diren kontingentziak Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategineko 8.6 artikuluan jasotakoak izango dira bakarrik, eta erretiroa estaliko dute nagusiki (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen). Testu bategin horretako 8. artikuluko 8. zenbakian jasotako kasuetan bakarrik baimenduko da kontratu horietako zenbatekoak aurrez erabiltzea, osorik edo zati batean. Kontratu hauetan ez da aplikatuko Aseguru kontratuei buruzko 1980ko urriaren 8ko 50/1980 Legeko 97. eta 99. artikuluetan xedatutakoa.

c) Gisa honetako aseguruek interes bat bermatu behar dute nahitaez, eta teknika aktuarialak erabili.

d) Polizaren baldintzetan berariaz eta nabarmen utzi beharko da agerian aurreikuspen-plan aseguratua dela.

e) Erregelamendu bidez ezarriko dira hornidura matematikoa beste aurreikuspen-plan aseguratu batera aldatzeko betekizunak eta baldintzak.

Foru arau honetan eta araua garatzeko arauetan berariaz erregulatuta ez dauden alderdietan, kontratu horien ekarpen, kontingentzia eta prestazioen araubidea pentsio-planen arautegi erregulatzailearen araberakoa izango da, salbu hornidura teknikoen alderdi finantzario eta aktuarialetan. Zehatzago, aurreikuspen-plan aseguratu batean jasotako eskubideak ezin izango dira enbargatu, ez eta epailearen edo Administrazioaren trabarik jaso ere, harik eta prestaziorako eskubidea sortu arte edo gaixotasun larria edo iraupen luzeko langabezia gertatzean haiek erabili arte, eta gauza bera gertatuko da gutxienez hamar urteko antzinatasuna duten prima ordainduei badagozkie.

6. Langileek Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian araututa dauden enpresen gizarte-aurreikuspeneko planetara egin

dituzten ekarpenak, hartzailearen kontribuzioak barne (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen). Dena dela, enpresen gizarte-aurreikuspeneko planek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Aseguru-kontratu mota honi printzipio hauek aplikatuko zaizkio: diskriminaziorik eza, kapitalizazioa, ekarpenen ezeztaezintasuna eta eskubideen esleipena; printzipio horiek guztiak Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 5. artikuluko 1. zenbakian jasotzen dira (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

b) Polizan zehaztuta agertuko da zein prima ordaindu beharko duen hartzaileak gizarte-aurreikuspeneko plana betetzeko. Prima horiek aseguratuei egotziko zaizkie.

c) Polizaren baldintzetan berariaz eta nabarmen utzi beharko da agerian enpresaren gizarte-aurreikuspeneko plana dela.

d) Erregelamendu bidez ezarriko dira hornidura matematikoa gizarte-aurreikuspeneko beste enpresa-plan batera aldatzeko betekizunak eta baldintzak.

e) Aurreko 5. zenbakiko b) eta c) letretan xedatutakoa.

Foru arau honetan eta araua garatzeko arauetan berariaz erregulatu ez diren alderdietan, aurreko 5. zenbakiaren azken letran jasotakoa aplikatuko da.

7. Mendetasun larri edo oso larrirako arriskua bakarrik estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primak, 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legean jasotakoaren arabera; lege hori Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa da.

Halaber, zergadunarekin zuzeneko edo alboko lerroko ahaidetasun-harremana (laugarren gradurainokoa, hori barne) duten pertsonek, edo haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak, edo haren kargura tutoretza edo harrera erregimenean dauden pertsonek, edo hari dagokionez ordezkaritza-ahalmena duen kuradoretza egiten dutenek aseguru horiei ordaindutako primak murriztu ahal izango dituzte beren zerga-oinarri orokorrean, foru arau honen hurrengo artikuluan ezarritako murrizketa-muga kontuan hartuta.

Zergadun beraren aldeko primak (zergadunaren beraren primak barne) ordaintzen dituzten pertsona guztiek egindako murrizketak, gehienez ere, 5.000 euro izango dira urtean.

Horretarako, zergadun beraren alde prima bat baino gehiago ordaintzen denean, lehenengo, zergadunak berak ordaindutako primak murriztu behar dira, eta, bakarrik 5.000 euroko mugara iristen ez badira, beste pertsona batzuek haren alde ordaindutako primak murriztu daitezke haien zerga-oinarri orokorrean. Azken kasu horretan, murrizketa modu proportzionalean egin behar da.

Prima horiek ez daude Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren mende.

Aseguru-kontratuak aurreko 5. zenbakiko a) eta c) letretan jasotakoa bete behar du betiere.

Foru arau honetan eta araua garatzeko arauetan berariaz erregulatu ez diren alderdietan, aurreko 5. zenbakiaren azken lerroaldean jasotakoa aplikatuko da.

Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera egindako mendetasuneko aseguru kolektiboen kasuan, enpresa bakarrik ageriko da aseguruaren hartzaile gisa, eta langileari dagokio, berriz, aseguratu eta onuradun izaera.

Zenbaki honetan jasotakoa erregelamendu bidez garatuko da.

2. Aurreko 1. zenbakiko 1etik 7ra bitarteko azpizenbakietan jasotako gizarte-aurreikuspeneko sistemetatik jasotako prestazioak osorik zergapetuko dira, eta ezingo dira inoiz gutxitu, murriztu ezin izan diren gehiegizko ekarpen eta kontribuzioen zenbatekoak direla eta.

3. Kontuan hartu gabe foru arau honen hurrengo artikuluan aipatutako mugen arabera egin diren murrizketak, zergadunaren ezkontideak edo izatezko bikotekideak ez badu zerga-oinarri orokorrean integratu beharreko errentarik lortzen edo lortzen dituenak urteko 8.000 eurotik beherakoak badira, zergadunek zerga-oinarri orokorrean murriztu ahal izango dituzte artikulu honetan jasotako gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak, ezkontidea edo izatezko bikotekidea haietako bazkide, partaide, mutualista edo titularra denean, urteko 2.400 euroko gehieneko mugarekin.

   Ekarpen horiek ez daude Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren mende.

4. Zergadunak artikulu honetan aurreikusitako gizarte-aurreikuspeneko sistemetatik eratorritako eskubide kontsolidatuak eta eskubide ekonomikoak baditu, osorik edo zati batean, pentsio-plan eta -funtsei edo borondatezko edo nahitaezko bajari edo entitatearen desegiteari eta likidazioari buruzko araudian aurreikusitakoez bestelako kasuetan, zerga-oinarri orokorrean bidegabe egindako murrizketak birjarri beharko ditu dagozkion zergaldietan, eta berandutze-interesak sortuko dira.

   Zerga ordaintzeari dagokionez, egindako ekarpenen zenbatekoaren gainetik jasotako kopuruak (sustatzaileak egotzitako ekarpenak tartean, halakorik bada) lanaren etekintzat hartuko dira, jaso diren zergaldian.

5. Zerga-oinarrian ezin da murrizketarik egin aurreko 1etik 3ra arteko zenbakietan aipatzen diren gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak eta kontribuzioak direla eta, baldin eta bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuak erretiro egoeran dauden zergaldiaren osteko lehenengo zergaldiaren hasieratik aurrera egiten badira.

6. Era berean, aurreko 1. paragrafoan aipatutako gizarte-aurreikuspeneko sistemetarako ekarpen eta kontribuzioei dagokienez, baldin eta erretiro-kontingentziagatik edo estalitako kontingentzia desberdinen gertakariengatik edo iraupen luzeko langabeziagatik edo gaixotasun larriagatik kapital gisa prestazio bat kobratzen den ekitaldi berean egiten badira, murrizketa honako hauetan egindako ekarpenen zenbatekora mugatuko da: Zerga-oinarrian benetan integratzen diren hartzekoekin bat datorren ekitaldia.

   Zenbaki honetan ezarritakoa ez da aplikatuko enpleguko pentsio-planei, enpresetako gizarte-aurreikuspeneko planei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan araututako pentsio-planei egindako ekarpenak eta kontribuzioak direnean, enpleguko pentsio-funtsen, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen edo enpleguko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen jarduerei eta gainbegiratzeari buruz, ezta artikulu honen 3. paragrafoan eta foru arau honen 72. artikuluan aipatzen diren ekarpenei buruz ere.

**71. artikulua. Murrizketen mugak, gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioengatik.**

1. Halakoen berariazko araudian jasotako muga finantzarioen kalterik gabe, muga hauek izango dituzte gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioengatik egin daitezkeen murrizketek:

   a) Urteko 5.000 euro: bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuek aurreko artikuluan aipatzen diren gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen baturarako.

   b) Urteko 8.000 euro, bazkide babesleek, aurreko artikuluko 1. zenbakiko 2. eta 3. azpizenbakietan aipatzen diren enpleguko pentsio-planen sustatzaileek, edo enpresen gizarte-aurreikuspeneko tresna gisa edo enpresaren gizarte-aurreikuspeneko planetan hartzaile gisa jarduten diren gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek edo mendetasuneko

aseguru kolektiboek bazkide, partaide, aseguratu edo mutualisten alde egin eta haiei egotzitako kontribuzio enpresarialen baturarako.

Ulertu behar da muga horren barruan sartuta daudela enpresaburu indibidualak gizarte-aurreikuspeneko entitate edo mutualitateei, aurreko artikuluko 1. zenbakiko 2. eta 3. azpizenbakietan aipatzen diren enpleguko pentsio-planei edo enpresen gizarte-aurreikuspeneko planei edo mendetasuneko aseguru kolektiboei egindako ekarpen propioak, baldin eta enpresaburua, aldi berean, sustatzailea eta partaide, mutualista edo hartzailea edo bazkide babeslea eta onuraduna bada.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei egindako ekarpenek erregelamendu bidez ezarritako betekizunak bete behar dituzte.

c) 1. zenbaki honetako aurreko letretan ezarritakoa gorabehera, eta haietan ezarritako mugak betez, urtean 12.000 euroko muga egongo da murrizketak egiteko enpresek gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioengatik.

2. Aurreko zenbakian jarritako mugak banaka eta modu independentean aplikatuko zaizkio familia-unitatean sartutako mutualista, partaide, aseguratu edo bazkide bakoitzari.

3. Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren gizarte- aurreikuspeneko sistemei ekarpenak egin dizkieten bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuek aukera izango dute hurrengo bost urteetan murrizketa egiteko ekarpen horiek direla eta, baldin eta zerga-oinarri orokorrean ezin izan badute zenbateko horiei dagokien murrizketa egin, artikulu honetako 1. zenbakiko a) letran ezarrita dagoen gehieneko muga gainditzen baita; dena dela, murrizketa egiten duten ekitaldian beti errespetatu beharko dute muga hori eta ekitaldi horretan ezingo dira egon erretiro egoeran.

   Modu berean jokatu daiteke bai kontribuzio enpresarialen gehiegizko zenbatekoekin, haien mugari dagokionez, bai eta artikulu honetako 1 zenbakiko c) letran aipatutako baterako muga aplikatu behar den kasuan ere.

   Ekarpen edo kontribuzioei dagokien murrizketa ezin izan bada egin zerga-oinarri orokorra nahikoa ez delako, hurrengo bost ekitaldietan egin ahal izango da zenbateko horiei dagokien murrizketa, eta betiere murrizketa egiten den ekitaldietan bazkidea, partaidea, mutualista edo aseguratua ez badago erretiro egoeran.

   Era berean, aurreko artikuluko 3. zenbakian xedatutakoa dela bide egindako ekarpenengatik ezin izan bada murrizketa egin zerga-oinarri orokorrean, zenbaki horretan ezarrita dagoen gehieneko muga gainditzen delako, hurrengo bost ekitaldietan egin ahal izango da zenbateko horiei dagokien murrizketa, betiere murrizketa egiten den ekitaldietan bazkide, partaide, mutualista edo aseguratua den ezkontidea edo izatezko bikotekidea ez badago erretiro egoeran. Ekarpen edo kontribuzioei dagokien murrizketa ezin izan bada egin zerga-oinarri orokorra nahikoa ez delako, hurrengo bost ekitaldietan egin ahal izango da zenbateko horiei dagokien murrizketa, zenbateko horiek gainditu gabe, eta betiere murrizketa egiten den ekitaldietan bazkide, partaide, mutualista edo aseguratua den ezkontidea edo izatezko bikotekidea ez badago erretiro egoeran.

   Erregela horiek ez zaizkie aplikatuko beren araudi finantzarioan jasotako gehieneko mugak gainditzen dituzten ekarpen eta kontribuzioei.

4. Honako artikulu honetan xedatzen denaren ondorioetarako, zergaldi berean enpresaren ekarpenak eta kontribuzioak daudenean, kontribuzioei dagokien murrizketa egingo da lehenengo, eta, ondoren, ekarpenei dagokiena; edozein kasutan, 1. zenbakiko a), b) eta c) letretan ezarritako mugak aplikatuko dira.

**72. artikulua. Murrizketak desgaitasuna duten pertsonentzat eratutako gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik.**

1. Foru arau honen 70. artikuluan aipatzen diren gizarte-aurreikuspeneko sistemetan %65eko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa edo sentsoriala dutenen eta %33ko edo gehiagoko desgaitasun psikikoa dutenen alde egindako ekarpenak, baita Kode Zibilaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan ordezkaritza-ahalmena duten eta kuradoretzaren mende dauden pertsonen alde egindakoak ere, zerga-oinarri orokorrean murriztu ahal izango dira, gehieneko muga hauekin:

   a) Desgaitasuna duten pertsonen alde urtean egindako ekarpenak, gehienez 8.000 euro ekarpena egiten duen pertsona bakoitzeko. Hori guztia, beren gizarte- aurreikuspeneko sistemetan beren kabuz egin ditzaketen ekarpenak alde batera utzi gabe, foru arau honen 71. artikuluan ezarritako mugen arabera.

      Honako pertsona hauek egin ahal izango dituzte ekarpenak:

      a') Desgaitasuna duen pertsonarekin zuzeneko edo alboko ahaidetasun-harremana, laugarren gradurainokoa (bera barne) dutenak.

      b') Desgaitasuna duenaren ezkontideak edo izatezko bikotekideak.

      c') Desgaitasuna duen pertsonarekin tutoretza edo harrera arrazoiengatik lotuta daudenak, edo hari dagokionez ordezkaritza-ahalmena duen kuradoretza betetzen dutenak.

      Kasu horietan, desgaitasuna duten pertsonak onuradun izendatu behar dira, haiek bakarrik eta modu ezeztaezinean, edozein kontingentziatarako.

      Edozelan ere, desgaitasuna duenaren heriotza kontingentziak alarguntasun- edo zurztasun-prestazioak jasotzeko eskubidea sor dezake, desgaituaren aldeko ekarpenak egin dituzten pertsonek prestazioak jasotzeko eskubidea, azken horiek egindako ekarpenen proportzioan.

   b) Pertsona desgaituek eurek egindako ekarpenen urteko muga 24.250 euro da.

   Desgaitasuna duen pertsona beraren alde ekarpenak (desgaituaren beraren ekarpenak barne) ordaintzen dituzten pertsona guztiek egindako murrizketa guztiak ezin dira 24.250 euro baino gehiago izan urtean. Ondorio horietarako, desgaitasuna duen pertsonaren alde ekarpen batzuk batera egiten direnean, desgaituak berak egindako ekarpenak direla-eta egin beharko da murrizketa. Eta, ondoren, 24.250 euroko muga horretara iristen ez badira, beste pertsona batzuek ere murrizketa egin ahal izango dute, proportzionalki, bakoitzaren zerga-oinarri orokorrean, desgaitu horren alde egindako ekarpenak direla eta. Dena dela, desgaitasuna duen pertsona beraren alde ekarpenak egiten dituzten pertsona guztiek aplikatutako murrizketek inoiz ezingo dute 24.250 euroko muga gainditu.

   1. zenbaki honetan jarritako mugak batera bete behar dira desgaituen alde eratutako gizarte-aurreikuspeneko sistema guztietarako.

2. Zerga-oinarri orokorrean ezin izan bada murrizketarik egin zerga-oinarria nahikoa ez delako edo artikulu honetako 1. zenbakiko a) letran ezarrita dagoen gehieneko muga gainditzen delako, hurrengo bost ekitaldietan egin ahal izango da zenbateko horiei dagokien murrizketa.

   Erregela hori ez zaie aplikatuko beren araudi finantzarioan jasotako gehieneko mugak gainditzen dituzten ekarpenei.

3. Artikulu honetan aipatzen diren ekarpenak ez daude Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren mende.

4. Desgaitasuna duten pertsonen alde eratutako gizarte-aurreikuspeneko sistemen araudian jasotakoez besteko kasuetan edo borondatezko edo ezinbesteko baja gertatu eta entitatea likidatzean prestazioak jaso eta eskubide kontsolidatuak edo eskubide ekonomikoak aurrez erabili nahi badira, foru arau honetako 70.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

### 73. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren ziozko txikipena.

1. Foru Arau honetako 98. artikuluan xedatutakoaren arabera baterako zerga ordainketa hautatuz gero, urteko aitorpenaren zerga oinarritik 4.800 euro ken daitezke.

2. Aurreko idatz zatian aipatutako murrizketa 4.169 eurokoa izango da Foru Arau honetako 98. artikuluko 2. idatz zatian adierazitako familia unitateen aitorpenean.

## VI. TITULUA
## KUOTA OSOA

### 74. artikulua. Kuota osoaren kontzeptua.

Oro har, honako zenbateko hauen batura izango da kuota osoa:

- Hurrengo artikuluko 1. zenbakiko karga-eskala likidazio-oinarri orokorrari aplikatuz ateratzen dena. Zenbateko hori murriztu egingo da, foru arau honetako 77. artikuluan ezarritakoaren arabera, baina ezin da inoiz negatiboa izan.

- 76. artikuluko 1. zenbakiko karga-eskala aurrezkiaren likidazio-oinarriari aplikatuz ateratzen dena.

- Hogeita laugarren xedapen gehigarrian ezartzen dena aplikatuz ateratzen dena, hura aplikatzea badagokio.

### 75. artikulua. Likidazio-oinarri orokorrari aplikatzeko eskala.

1. Likidazio oinarri orokorra ondoko eskalan agertzen diren tasekin kargatuko da:

| Likidazio oinarri orokorra, gehienez (€) | Kuota osoa (€) | Likidazio oinarriaren gainerakoa, gehienez (€) | Tasa aplikagarria (%) |
|---:|---:|---:|---:|
| 0,00 | 0,00 | 17.720,00 | 23,00 |
| 17.720,00 | 4.075,60 | 17.720,00 | 28,00 |
| 35.440,00 | 9.037,20 | 17.720,00 | 35,00 |
| 53.160,00 | 15.239,20 | 22.750,00 | 40,00 |
| 75.910,00 | 24.339,20 | 29.220,00 | 45,00 |
| 105.130,00 | 37.488,20 | 35.000,00 | 46,00 |
| 140.130,00 | 53.588,20 | 64.140,00 | 47,00 |
| 204.270,00 | 83.734,00 | Hortik aurrera | 49,00 |

2. Batez besteko karga-tasa orokorra honela kalkulatzeko, honako eragiketa hau egin behar da: aurreko zenbakian xedatutakoa aplikatuz lortzen den kuota zati likidazio-oinarri orokorra egin, eta, gero, koziente hori bider 100 egin behar da. Batez besteko karga-tasa orokorra bi zenbaki hamartarrekin adieraziko da.

3. Zergadunaren batez besteko karga-tasa orokorra Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorra baino handiagoa denean, kuota osoari kopuru hau murriztuko zaio: ekonomia-jardueren etekin garbi positiboa osatzen duten ondare-irabazien zenbatekoari batez

besteko tasa horren eta Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorraren arteko diferentzia aplikatuz ateratzen den emaitza.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatzeari dagokionez, ondare-irabazien zenbatekoari kendu egingo zaizkio jardueraren etekin garbia zehazteko kontuan hartutako ondare-galerak, halakorik badago.

### 76. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarriari aplikatu beharreko karga-tasa.

1. Aurrezkiaren likidazio-oinarriari eskala honetan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

| Aurrezkiaren likidazio-oinarriaren zatia (€) | Aplikatu beharrekoa tasa % |
|---|---|
| 2.500,00 eurora arte | 20,00 |
| 2.500,01 eurotik 10.000,00 eurora | 21,00 |
| 10.000,01 eurotik 15.000,00 eurora | 22,00 |
| 15.000,01 eurotik 30.000,00 eurora | 23,00 |
| 30.000,01 eurotik aurrera | 25,00 |

2. Aurrezkiaren batez besteko karga-tasa lortzeko, honako eragiketa hau egin behar da: aurreko zenbakian xedatutakoa aplikatuz lortzen den kuota zati aurrezkiaren likidazio-oinarria egin, eta, gero, koziente hori bider 100 egin behar da. Aurrezkiaren batez besteko karga-tasa bi hamartarrekin adieraziko da.

### 77. artikulua. Kuota murriztea.

Zergadunek 1.583 euro gutxitu ahal izango dituzte kuotan, aitorpen bakoitzean, Foru Arau honetako 74. artikuluan ezarritakoaren arabera.

# VII. TITULUA
# KUOTA LIKIDOA ETA KENKARIAK

## I. KAPITULUA
## KUOTA LIKIDOA

### 78. artikulua. Kuota likidoaren kontzeptua.

1. Kuota likidoa lortzeko, honako eragiketa hau egin behar da: kuota osoari kendu egin behar zaio titulu honetan jasotako kenkarien zenbatekoa, bai eta foru arau bidez berariaz adierazten diren kenkariena ere.

2. Kuota likidoa ezin da inoiz negatiboa izan.

## II. KAPITULUA
## FAMILI KENKARIAK ETA KENKARI PERTSONALAK

### 79. artikulua. Kenkaria ondorengoengatik.

1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko kenkari hau aplikatuko da:

   - 668 euro urtean lehenengoagatik.

   - 827 euro urtean bigarrenagatik.

   - 1.393 euro urtean hirugarrenarengatik.

- 1.647 euro urtean laugarrenarengatik.

- 2.151 euro urtean bosgarrenagatik eta hurrengo bakoitzarengatik.

2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo bakoitzeko aurreko idatz-zatiaren araberako kenkaria aplikatzeaz gainera beste 386 euro kenduko dira urtean.

3. Kenkari hau ez da aplikatuko ondorengoak egoera hauetako batean daudenean:

   a) Hogeita hamar urte baino gehiago edukitzea, ondorengo horiek foru arau honetako 84. artikuluan jasotzen den kenkaria egiteko eskubidea ematen dutenean izan ezik.

   b) Ondorengoak dagokion zergaldian lortu dituen urteko errentak, salbuetsiak kanpoan utzita, lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoak izatea edo, bestela, ondorengoa beste familia-unitate batekoa izanik, bertako kideetako edozeinek zergaldian lortzen dituen urteko errentak, salbuetsiak kanpoan utzita, lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorakoak izatea.

   c) Kasuan kasuko zergaldian zerga honen autolikidazioa aurkeztea edo aurkeztera behartuta egotea.

4. Ondorengoren bat maila bereko aurreko ahaide batzuekin bizi denean, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta aplikatuko da aurreko ahaide bakoitzeko.

   Ahaidetasun-maila desberdina duten aurreko ahaideekin bizi diren ondorengoen kasuan, maila gertueneko aurreko ahaideek bakarrik izango dute kenkaria egiteko eskubidea, eta zati berdinetan hainbanatu eta aplikatuko da haien artean. Aurreko ahaideen artean inork ez badu lortzen dena delako zergaldian lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako urteko errentarik, salbuetsitakoak kanpoan utzita, maila urruneneko aurreko ahaideek izango dute kenkaria aplikatzeko aukera.

5. Baldin eta epaileen erabaki bidez ondorengoen aldeko diru-mantenua emateko obligazioa badago, kenkaria ondorengoaren diru-mantenua ematen duen gurasoaren autolikidazioan egingo da, karga hori guraso horrek osorik bere gain hartzen duenean; bestela, erdi bana egingo da guraso bakoitzaren autolikidazioan, baldin eta ondorengoaren diru-mantenua bien menpe badago. Zenbaki honetan aipatzen diren kasuetan, agintaritza judizial eskudunak ebatzitakoa beteko da, eta diru-mantenu hori benetan eta behar bezala ematen dela frogatu beharko da.

6. Artikulu honen ondorioetarako, ondorengoekin parekatuko dira tutoretza edo harrera dela-eta zergadunari lotuta dauden pertsonak, tutoretza edo harrera hori adingabeak babesteko eskumena duen entitate publikoaren aurrean hitzartu bada, edo hari dagokienez kuradoretza ordezkaritza-ahalmenekin erabiltzeagatik.

**80. artikulua. Kenkaria seme-alaben mantenurako urtekoak ordaintzeagatik.**

1. Epaileen erabakiz seme-alaben mantenurako urtekoa ordaintzen duten zergadunek kontzeptu horregatik ordaindutako kopuruen ehuneko 15eko kenkaria egiteko eskubidea dute. Seme-alaba bakoitzeko muga hau da: aurreko artikuluaren 1. zenbakian ondorengo bakoitzarentzat ezartzen den kenkariaren ehuneko 30.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoa gorabehera, epaileen erabakiz seme- alaben gaineko zaintza eta babes partekatua adostu bada eta bi gurasoek egin behar badituzte ekarpenak beren seme-alaba komunen mantenurako urtekoan, zergaldian zehar zenbatekorik handiena ordaintzen duen gurasoak bakarrik aplikatuko du kenkaria, eta kenkariaren oinarria izango da hark egiten duen ekarpenaren zenbatekoari beste gurasoak egiten duen ekarpenaren zenbatekoa kentzetik ateratzen dena.

   Zergaldian zehar bi gurasoek zenbateko bera ordaintzen badute urteko moduan, kenkaria ez da aplikatuko.

**81. artikulua. Kenkaria aurrekoengatik.**

1. Egutegiko urte osoan etengabe eta jarraian zergadunarekin bizi den aurreko ahaide bakoitzarengatik 321 euroko kenkaria aplikatu ahal izango da.

   Kenkari hau aplikatzeko, ondorengoak, bere ondarearekin, zenbatekoak ordaintzen baditu aurrekoa urte natural osoan etengabe eta jarraian bizi den egoitzaren gastuei aurre egiteko, berdinetsi egingo dira egoera hori eta aurreko lerroaldean deskribatutako elkarbizitza.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den kenkaria egiteko ezinbestekoa izango da hau:

   a) Kasuan kasuko zergaldian aurreko ahaideak dituen urteko errentak, salbuetsiak kanpoan utzita, ez izatea lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoak.

   b) Aurreko ahaide hori familia-unitate batean egonez gero, bertako kideetako inork ez lortzea kasuan kasuko zergaldian lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako errentarik, salbuetsiak kanpoan utzita.

   c) Aurreko ahaideak zergaldi horretan zerga honen autolikidaziorik ez aurkeztea edo aurkeztera behartuta ez egotea.

3. Aurreko ahaideak maila bereko ondorengo batzuekin bizi denean, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta aplikatuko da ondorengo bakoitzeko.

   Ahaidetasun-maila desberdina duten ondorengoekin bizi diren aurrekoen kasuan, maila gertueneko ondorengoek bakarrik izango dute kenkaria egiteko eskubidea, eta zati berdinetan hainbanatu eta aplikatuko da haien artean. Kasuan kasuko zergaldian ondorengoen artean inork ez badu lortzen lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako urteko errentarik, salbuetsiak kanpoan utzita, maila urruneneko ondorengoek izango dute kenkaria aplikatzeko aukera.

4. Aurreko ahaideak egoitzetan bizi badira, kenkaria mailarik gertueneko ondorengoek egingo dute, baldin eta, beharrezko faktura aurkeztuta, frogaturik uzten badute aurreko ahaidearen egoitzako egonaldi-gastuak eurek ordaindu dituztela. Gastu horiek maila bereko ondorengo batek baino gehiagok ordaindu badituzte, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta aplikatuko da haien artean.

**82. artikulua. Kenkaria desgaitasun edo mendetasunagatik.**

1. Mendekotasuna edo desgaitasuna duen zergadun bakoitzagatik kenkari bat aplikatuko da, eta, haren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da mendetasunedo desgaitasun-gradua zein den (gradu hori erregelamendu bidez ezarritako eran egiaztatu beharko da). Hona hemen kenkari horri dagokion taula:

| Menpekotasunaren edo urritasunaren gradua | Kenkaria (€) |
|---|---|
| Desgaitasuna %33 edo handiagoa eta %65 baino txikiagoa | 888 |
| Desgaitasuna %65 edo handiagoa. Mendekotasun moderatua (I. gradua) | 1.268 |
| Menpekotasun larria (II. gradua) | 1.521 |
| Mendekotasun oso larria (III. gradua) | 1.897 |

   Aurreko paragrafoan aipatzen den mendekotasun- eta desgaitasun-gradua 2022ko urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan eta 2011ko otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera neurtuko dira. Haien bidez, hurrenez hurren, desgaitasun-gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen da eta Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotasun-egoera baloratzeko ezartzen duen baremoa onartzen da.

Kenkari bera aplikatuko da ezkontideak edo izatezko bikotekideak desgaitasuna edo mendekotasuna badu eta apartatu honetan ezartzen diren betekizunak betetzen baditu.

2. Kopuru bereko kenkaria aplikatu ahal izango da zergadunak bere kargura duen ondorengo edo aurreko bakoitzagatik, edo laugarren gradura arteko (berau barne) albo-ahaide bakoitzagatik, zeinahi ere dela haien adina, baldin eta desgaituak edo mendeko pertsonak badira eta kasuan kasuko zergaldian lortutako errentak (salbuetsiak sartu gabe) ez badira lanbide arteko gutxieneko soldata halako bitik gorakoak.

   Ondorengoak, aurrekoak edo laugarren gradura arteko (berau barne) odolkidetasuna duten albo-ahaideak egoitzetan bizi badira, kenkaria mailarik gertueneko ahaideek egingo dute, baldin eta, beharrezko faktura aurkeztuta, frogaturik uzten badute ahaide horien egoitzako egonaldi- gastuak eurek ordaindu dituztela. Gastu horiek maila bereko ahaide batek baino gehiagok ordaindu badituzte, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta aplikatuko da haien artean.

   Halaber, kenkaria aplikatuko da desgaitasunen edo mendetasunen bat duen pertsona zergadunarekin lotuta dagoenean adingabeen babesaren arloan eskumenak dituen erakunde publikoan formalizatutako tutoretza edo harrera arrazoiengatik, edo zergadunak, Kode Zibilaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan, desgaitasuna duenari dagokionez ordezkaritza-ahalmenak dituen kuradoretza gauzatzen duenean, apartatu honetan ezarritako gainerako inguruabarrak gertatzen badira.

3. Aurreko apartatuan adierazitako senitartekoen edo haiekin parekatutakoen zerrendan ageri ez den 65 urteko edo hortik gorako pertsonaren bat zergadunarekin bizi bada eta haren urteko sarrerak, salbuetsiak kontuan hartu gabe, lanbide arteko gutxieneko soldata halako bi baino gutxiago badira, aurreko 1. apartatuan ezarritako kenkariak aplikatuko dira halako pertsona bakoitzeko, mendekotasunedo desgaitasun-gradua kontuan hartuta.

4. Zergaren aitorpena aurkezten duenean, desgaituak edo mendeko pertsonak osorik aplikatuko du kenkaria, non eta ez duen erabakitzen kenkaria berarekin bizi den zergadunak edo haren ardura duenak aplikatzea, aurreko 2. eta 3. Apartatuetan ezarritako terminoetan. Bigarren aukera egiten bada, eta desgaitua edo mendeko pertsona zergadun batekin baino gehiagorekin bizi bada, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta aplikatuko da zergadun bakoitzeko.

   Foru Arau honetako 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, aipatutako aukera aitorpena aurkezteko unean egin beharko da. Zergaldi baterako egindako aukera ezin izango da aldatu zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren.

### 83. artikulua. Adinaren ziozko kenkaria.

1. 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko 385 euroko kenkaria aplikatuko da.

   Zergadunak 75 urte baino gehiago badauzka, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 700 eurokoa izango da. Atal honetan zehaztutakoa aplikatzean, zergadunaren zerga-oinarria 20.000 eurokoa edo gutxiagokoa izan beharko da.

2. 20.000 - 30.000 euro bitarteko zerga-oinarria duten 65 urtetik gorako zergadunek 385 euroko kenkaria aplikatuko dute urtean, ondoko eragiketaren emaitza kenduta: zerga-oinarriari 20.000 euro kendu eta emaitza 0,0385z biderkatu.

3. 20.000 - 30.000 euro bitarteko zerga-oinarria duten 75 urtetik gorako zergadunek 700 euroko kenkaria aplikatuko dute urtean, ondoko eragiketaren emaitza kenduta: zerga-oinarriari 20.000 euro kendu eta emaitza 0,0700z biderkatu.

4. Artikulu honen ondoreetarako, zerga-oinarriaren zenbatekoa zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren oinarri orokorraren batura izango da, foru arau honetako 65. eta 66. artikuluetan ezarritakoari lotuta. Zerga-oinarri orokorra negatiboa izanez gero, aurrean aipatutako batuketan zero konputatuko da.

Hala ere, zerga-oinarri orokorrean gauzatzen baldin bada, eta hala badagokio, aurrezpen zerga-oinarrian, Foru Arau honen 69. artikuluan adierazten diren konpentsaziozko pentsioengatiko eta mantenu-urtekoekiko kenkariak zerga-oinarria gutxituko du, hain zuzen ere aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera kalkulatutakoa.

### 84. artikulua. Egoera pertsonala eta familia-egoera.

1. Zergaren sortzapen-egunean dagoen egoera aintzat hartuz zehaztuko dira kapitulu honetan jasotako kenkariak aplikatzeko kontuan hartu behar diren inguruabar pertsonal eta familiarrak.

   Kenkari horiek konputatzeko garaian, kalkulua inoiz ez da egingo kenkariak aplikatzeko galdatutako inguruabarrak gertatu diren urte naturaleko egun kopuruaren proportzioan.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, kenkarirako eskubidea sortzen duen pertsona zergaldiaren barruan hil bada, kapitulu honetan jasotako kenkariak aplikatzeko kontuan hartuko diren inguruabar pertsonal eta familiarrak heriotzaren egunean dagoen egoera aintzat hartuz zehaztuko dira. Kenkarien zenbatekoa ez da proportzionalki murriztuko egun horretara arte.

## III. KAPITULUA
## KENKARIA EZINDUAREN ONDARE BABESTUARI EGINDAKO EKARPENENGATIK

### 85. artikulua. Desgaitasuna duen pertsona baten ondare babestura egindako ekarpenengatik aplika daitekeen kenkaria.

1. Zergadunek 100eko 30eko kenkaria egin dezakete (urtean 3.000 euro gehienez) desgaitasuna duen pertsonaren ondarea babestu eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta horri buruzko zerga araudia aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legeak araututako desgaitasuna duen pertsonaren ondare babestura egindako ekarpenengatik.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen den kenkaria honako zergadun hauek aplikatu ahal izango dute:

   a) Desgaitasuna duen pertsonarekin zuzeneko edo alboko ahaidetasun-harremana (laugarren gradurainokoa, bera barne) dutenek.

   b) Desgaitasuna duen pertsonaren ezkontideak edo izatezko bikotekideak.

   c) Desgaitasuna duen pertsonarekin tutoretza edo harrera arrazoiengatik lotuta daudenak edo, Kode Zibilaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan, pertsona horrekin ordezkaritza-ahalmena duen kuradoretza gauzatzen dutenek.

   Ondare babestuaren titularra den pertsona desgaituak berak egindako ekarpenek inoiz ere ez dute kenkari honetarako eskubidea sortuko.

3. Ekarpena diruzkoa ez bada, zenbatekoa hau izango da: irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriei buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren 21. artikuluan ezartzen dena aplikatzearen emaitza.

4. Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergatik salbuetsita dago artikulu honetan aipatzen diren desagaitasuna duten pertsonen ondare babestuari egindako ekarpenei dagozkien ondasun eta.

## IV. KAPITULUA
## KENKARIAK OHIKO ETXEBIZITZAGATIK

### 86. artikulua. Kenkaria ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik.

1. Zergaldian zehar ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzen duten zergadunek zergaldian ordaindutako kopuruen %20ko kenkaria egin dezakete, eta urtean 1.600 euro gehienez.

   Dena den, zergadunak familia ugariaren titularrak badira, aurreko lerroaldean jasotako kenkaria %25ekoa izango da, eta urtean 2.000 euro gehienez.

   Era berean, aurreko paragrafoetan esandakoa gorabehera, zergadunak 30 urtetik beherakoak badira, aurreko paragrafoan jasotako kenkaria %30ekoa izango da, eta urtean 2.400 euro gehienez.

   Horretarako, ordaindutako zenbatekoari kendu egin beharko zaio zergadunak etxearen alokairurako jasotako diru-laguntzen zenbatekoa, zeinak salbuetsirik egongo baitira zerga honen arautegi erregulatzailearen arabera.

2. Kapitulu honetan jasotakoaren ondorioetarako, zerga sortzen den egunean dagoen egoerari begiratuko zaio zergadunaren adina edo familia ugariaren titulartasuna zehazteko.

3. Baterako tributazioa aukeratzen bada eta kenkari horretarako eskubidea dutenak pertsona bat baino gehiago badira, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, aurreko 1. zenbakiaren hirugarren lerroaldean ezarritako portzentajea eta muga aplikatuko dira.

4. Epai erabagiz, familiako etxebizitzaren alokairua zergadunak bakarrik —eta ez beste inork— ordaindu behar badu, zergadun horrek eskubidea izango du artikulu honetan zehaztutako kenkaria egiteko autolikidazioan. Alokairua zergadun biek ordaindu behar badute, kenkaria bien artean hainbanatuko da eta bakoitzaren autolikidazioan bakoitzari doakion proportzioan egingo da, artikulu honen 1 zenbakian ezarritako portzentajean eta mugen barnean, salbu eta 1 zenbaki horretako bigarren eta hirugarren paragrafoetan jarritako baldintzak betetzen direnean; kasu horretan, paragrafo horietan zehaztutako portzentajeak eta mugak aplikatzeko eskubidea izango dute.

5. Aurreko zenbakietan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako zenbatekoen parekoak izango dira erabilera-lagapeneko erregimeneko etxebizitzengatik ordaindutako kanonak edo errenta sozialak, baldin eta ohiko etxebizitzatzat hartzen badira etxebizitza-kooperatibetako edo bestelako elkarte-moduetako bazkideek edo irabazi-asmorik gabeko elkarteetako bazkideek, betiere hotel-industriari dagozkion zerbitzu osagarriak ematen ez badira; adibidez, jatetxea, arropa garbitzea edo antzeko beste batzuk, edo gizarte-laguntzako zerbitzuak.

   Ala ere, ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako zenbatekoen parekoak ez dira izango ohiko etxebizitzatzat hartzen diren eta ohiko etxebizitzatzat hartzen diren erabilera-lagapeneko erregimeneko etxebizitzengatik ordaindutako kanonak edo errenta sozialak, erosketa-aukeraren eskubidea edo jabetza transferitzeko klausula dutenak, bai eta etxebizitza-kooperatibetako edo bestelako elkarte-moduetako bazkideek edo irabazi-asmorik gabeko elkarteetako bazkideek ordaindutako beste batzuk ere, ekainaren 18ko 3/2015 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintza guztiak betetzen ez direnean.

   Administrazio publiko baten jabetzako lurren gaineko azalera-eskubide bat eratuz egindako babes publikoko etxebizitzen sustapenen kasuan, erabiltzeko eskubidearen izaera mugagabea betetzat joko da elkartekideen erabilera-eskubidearen iraupena aipatutako azalera-eskubidearen iraupenarekin bat datorrenean.

### 87. artikulua. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik.

1. Zergadunek ohiko etxebizitza erosteko zergaldian inbertitu dituzten kopuruen %18ko kenkaria egin dezakete, haien kargura joan diren erosketa-gastuak barne.

   Era berean, ohiko etxebizitza erosteko besteren kapitalak erabili badituzte, kapital horiek erabiltzeagatik zergaldian ordaindutako interesen 100eko 18ko kenkaria egin dezakete; horretarako kontuan hartuko dira besteren finantzaketak zergadunari sortutako beste gastuak, zergadunen kargura joan badira.

2. Aurreko 1. Zenbakian aipatzen diren kontzeptuen baturagatik urtean, gehienez, 1.530 euroko kenkaria egin daiteke.

3. Zergadun bakoitzeko aurreko 1. zenbakian diren kontzeptuengatik zergaldi jarraituetan zehar egindako kenkarien batura ez da 36.000 euro baino gehiago izango. Zifra horri gutxitu egingo zaio, hala badagokio, foru arau honetako 49. artikuluan jasotakoaren arabera berrinbertsioagatik salbuetsita dagoen ondare-irabaziaren zenbatekoari %18 aplikatuz ateratako emaitza edo 42.b) nahiz 42.c) artikuluetan xedatutakoa aplikatuz ateratakoa.

4. Zergaduna 30 urtetik beherakoa bada edo familia ugariaren titularra bada, berezitasun hauek aplikatuko dira:

   a) Aurreko 1. Zenbakian jasotako portzentajea %23 izango da, salbu artikulu honen 5. Zenbakiko b) letran aipatzen diren kasuetan.

   b) Aurreko 2. Zenbakian aipatzen den urteko gehieneko kenkaria 1.955 euro izango da, salbu artikulu honen 5. Zenbakiko b) letran aipatzen diren kasuetan.

   Baterako tributazioa aukeratzen bada eta kenkari horretarako eskubidea dutenak pertsona bat baino gehiago badira, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, zenbaki honetan ezarritako portzentajeak eta muga aplikatuko dira.

5. Artikulu honetan jasotako ondorioetarako, berdinetsi egingo dira honako hauek eta ohiko etxebizitzaren erosketa:

   a) Ohiko etxebizitza birgaitzeko erabili diren diru-kopuruak.

   b) Erregelamendu bidez ezarritako formalizazio- eta erabilera-baldintzak betetzen dituzten kreditu-erakundeetako kontuetan gordailatzen diren kopuruak, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen badira, kontua ireki denetik 6 urte igaro baino lehen.

      Ez da bete gabekotzat hartuko erabilera-baldintza, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten diru-kopuruak berriro osorik sartzen badira kreditu-erakunde berean edo beste kreditu-erakunde batera osorik eramaten badira zergaren sortzapena gertatu baino lehen.

      Zergaduna letra honetako lehen lerroaldean aipatzen den epea amaitu aurretik hiltzen bada, ez da bete gabekotzat hartuko etxebizitza-kontuko kopuruak ohiko etxebizitza erosteko edo birgaitzeko erabiltzeko obligazioa.

      Ezin izango da berriro kenkaririk egin letra honetan aipatzen diren kontuetan gordailatutako diru-kopuruak direla eta, aurrez kenkarirako eskubidea sortu badute, ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen direnean.

   c) Erregelamendu bidez zehazten diren kasuak.

6. Birgaitzetzat hartuko dira jabeak bere ohiko etxebizitzan egindako obrak, baldin eta ebazpen batek jarduketa babestutzat kalifikatu edo aitortu baditu, Eusko Jaurlaritzaren 2002ko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan xedatutakoaren arabera (dekretu hori

ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa da), edo babesteko jarduketatzat kalifikatu badira, 2008ko abenduaren 12ko 2066/2008 Errege Dekretuak edo hura ordezkatzen duten antzeko arauek xedatutakoaren arabera.

7. Epaileak erabakita, bakarrik zergadunari ezarri bazaio etxebizitza familiarrarengatik aurreko 1. paragrafoan aipatzen diren dirukopuruetako bat ordaintzeko betebeharra, hark eskubidea izango du autolikidazioan egiteko artikulu honetan aipatzen den kenkaria. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren autolikidazioan egingo da, bakoitzari dagokion proportzioan, artikulu honetako 1. eta 2. zenbakietan ezarritako portzentajeak eta muga aplikatuta, salbu eta 4. zenbakian ezarritako baldintzak betetzen badira, kasu horretan eskubidea izango baitute paragrafo horretan adierazitako portzentajea eta muga aplikatzeko.

8. Zerga honen ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da zergaduna hiru urtez jarraian bizi den etxebizitza. Hala ere, etxebizitza ohiko etxebizitzatzat hartuko da, epe hori igaro ez arren, baldin eta zergaduna hil bada, edo ezinbestez etxebizitza aldatzera behartzen duten inguruabarrak gertatu badira. Inguruabar horiek honako hauek dira: etxebizitza ez egokitzea zergadunaren desgaitasun-gradura edo harekin bizi den ondorengo edo aurreko ahaide baten, ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen desgaitasun- gradura edo zergaren kuota osoan kenkaria egiteko eskubidea ematen duen pertsona baten desgaitasun-gradura; ezkontideak banantzea; izatezko bikotea desegitea; lantokia aldatzea; lehen enplegua lortzea edo enplegua aldatzea; epe horretan etxebizitza ordaindu ezin izatea dakarten inguruabar ekonomikoak, edo antzeko beste zirkunstantziak gertatzea.

   Ohiko etxebizitza izan den etxebizitzak ez da ohikotzat joko zergadunak egoitza bertan ez duenetik aurrera. Erregelamendu bidez salbuespenak ezarri ahal izango dira.

   Ohiko etxebizitzaren kontzeptutik kanpo geratuko dira lorategiak, parkeak, igerileku eta kirol-instalazioak, garajeak eta, oro har, eranskinak eta etxebizitza bera ez diren elementu guztiak. Aldiz, elementu horiek kontzeptu horren barruan sartuko dira etxebizitzarekin batera erregistro-finka bakarra osatzen dutenean.

   Familia-unitateko kideak hiri-ondasun higiezin bat baino gehiagoren titularrak badira, haietako bat bakarrik hartuko da ohiko etxebizitzatzat. Horretarako, familia-unitateak bere bizitza-interesen eta harreman pertsonal, sozial eta ekonomikoen gune nagusitzat duena hartuko da ohikotzat.

9. Artikulu honetan xedatzen den kenkariari dagokionez, arestian aipaturiko zenbatekoei kendu egin beharko zaie zergadunak etxea erosteko edo zaharberritzeko jasotako diru-laguntzen zenbatekoa, zeinak salbuetsirik egongo baitira zerga honen arautegi erregulatzailearen arabera.

## V. KAPITULUA
## EKONOMIA-JARDUERAK SUSTATZEKO KENKARIAK

### 88. artikulua. Kenkaria inbertsioengatik eta beste jarduera batzuengatik.

1. Zerga honen zergadunek aktibo ez-korronte berrietan inbertitzeko eta jarduera jakin batzuk egiteko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren V. tituluaren III. kapituluan ezarritako kenkariak aplikatu ahal izango dituzte, ehuneko eta muga berdinekin.

   Hala ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis eta 66 quinquies artikuluetan araututako kenkariak aplikatuz gero, muga % 25 izango da. Muga hori aplikatuko da, halaber, ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideei foru-arau horren 66 quater artikuluan ezarritako kenkariak egozten zaizkienean, baldin eta elkartze horiei egindako ekarpenak ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar badira kontabilitate-irizpideen arabera.

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan artikulu honetako 1. apartatuan aipatutako kenkariak aplikatzeko ezartzen diren mugak zerga honen kuota osoari aplikatuko

zaizkio, betiere kuota hori bat datorrenean ekonomia-jardueren etekinez osatzen den zerga-oinarri orokorraren zatiarekin.

3. Kuota osoa txikiegia izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak ondoz ondoko hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango dira, baina muga berak errespetatuz.

4. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis eta 66 quinquies artikuluetan araututako kenkariak aplikatzeko, beharrezkoa izango da artikulu horietan aipatzen den finantzaketa-kontratua formalizatzea erregelamenduz ezarritako epeetan eta, betiere, finantzatzaileak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena egiteko duen borondatezko aldia hasi aurretik.

   Epe berean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis artikuluaren 7. apartatua eta 66 quinquies artikuluaren 10. apartatuan aipatzen diren komunikazioak aurkeztu beharko dira.

5. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 117.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, artikulu honetan jasotzen diren kenkariak aplikatu ahal izateko, zergadunak berariaz adierazi behar du kenkariok aplikatuko dituela; kenkariak aplikatu nahi dituen ekitaldiko aitorpena aurkezterakoan egin behar du adierazpen hori. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

### 89. artikulua. Kenkaria langileek enpresan parte hartzeagatik .

1. Zergadunek %10eko kenkaria egin ahal izango dute, 1.200 euroko mugarekin urtean, lan egiten duten entitateko edo sozietate-taldeko beste edozein entitateko akzio edo partaidetzak erosi edo harpidetzeko zergaldian dirutan ordaindutako kopuruengatik.

2. Aurreko horretaz gain, baldintza hauek bete beharko dira:

   a) Balore horiek ezingo dira egon merkatu arautuetan negoziatzeko onartuta.

   b) Entitate horiek mikroenpresa, enpresa txiki edo ertainen multzoan sailkatuta egon behar dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak ezarritakoaren arabera.

   c) Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan jasotako sozietate-taldeen kasuan ere aplikatu daiteke kenkari hau, taldeko partaide den edozein sozietatetako akzio edo partaidetzei dagokienez, baina, betiere, aurreko bi letretan jasotako baldintzak betetzen direnean.

   d) Akzioak edo partaidetzak eskuratu edo harpidetu aurretik, eskaintza bat egin beharko zaie entitateetako langile guztiei, guztiei baldintza berdinetan, eta inor diskriminatu gabe.

   e) Langile bakoitzaren partaidetza, zuzena edo zeharkakoa, entitatean edo taldeko beste edozeinetan, ez da %5etik gorakoa izango, eta partaidetza hori kalkulatzeko batu egingo dira langilearen ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen eta laugarren mailara arteko ahaideen partaidetzak (maila horretakoenak barne).

   f) Kenkari honetarako eskubidea ematen duten akzioak edo partaidetzak gutxienez bost urtetan eduki behar dira. Epe hori betetzen ez bada itzuli eta ordaindu egin beharko da behar ez bezala aplikatutako kenkarien zenbatekoa, hari dagozkion berandutze-interesekin batera. Zenbat ordainduko den kalkulatzeko, behar ez bezala aplikatutako kenkarien zenbatekoa batuko zaio ez-betetzea gertatzen den zergaldiko kuota diferentzialari. Hala ere, zergadunak horren aurretik ere ordain ditzake behar ez bezala aplikatutako kenkarien zenbatekoa eta hari dagozkion berandutze-interesak.

3. Halaber, zergadunek %10eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, 6.000 euroko mugarekin urtean, lan egiten duten entitateko edo sozietate-taldeko beste edozein entitateko akzio edo partaidetzak erosi edo harpidetzeko zergaldian dirutan ordaindutako kopuruengatik, baldin eta funts horiek euskal administrazio publikoek eratutako funtsen maileguetatik badatoz.

   Eskuratzen edo harpidetzen diren baloreak ez dira merkatu arautuetan negoziatzeko onartuta egon behar eta baloreen jatorri diren entitateak mikroenpresak edo enpresa txiki eta ertainak izan behar dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatuarekoaren arabera.

   Erregelamendu bidez beste betekizun batzuk ere ezar daitezke zenbaki honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko.

4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 117.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, artikulu honetan jasotzen diren kenkariak aplikatu ahal izateko, zergadunak berariaz adierazi behar du kenkariok aplikatuko dituela; kenkariak aplikatu nahi dituen ekitaldiko aitorpena aurkezterakoan egin behar du adierazpen hori. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

**90. artikulua. Kenkaria, mikroenpresa, enpresa txiki edo enpresa ertain sortu berrietan, berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiari lotuta daudenetan inbertitzeagatik.**

1. Zergadunek, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, mikroenpresatzat edo enpresa txiki edo ertaintzat jotzen diren enpresetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik edo eskuratzeagatik ordaindutako zenbatekoen % 25eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, eta, kapitalari aldi baterako ekarpena egiteaz gain, inbertitzen duten erakundea garatzeko enpresa edo lanbide ezagutza egokiak ere eman ahal izango dituzte, erakundearen eta erakunde autonomoaren arteko inbertsio akordioak ezarritako baldintzetan.

   Kenkari hori aplikatzeko, enpresak baliabide pertsonalak eta materialak izan behar ditu jarduera ekonomiko berria garatzeko. Baldintza hori ez da betetzat joko sozietateak sortu badira bat-egiteen, zatiketen, aktibo-ekarpenen, aktiboaren eta pasiboaren lagapen orokorren, jarduera-adarren ekarpenen, interes ekonomikoko elkarteen edo aldi baterako enpresa-elkarteen bidez, edo jarduera ekonomiko berri bat sortzea benetan eta eraginkortasunez berekin ez dakarren beste forma edo eragiketa baten bidez.

   Erakunde batean akzioak edo partaidetzak harpidetzeak edo eskuratzeak ez du kenkari hau aplikatzeko eskubiderik emango, baldin eta entitate horren bidez lehendik beste titulartasun baten bidez egiten zen jarduera bera egiten bada.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako kenkaria ordaindutako zenbatekoen % 35 izango da, enpresa berritzaileen akzioak edo partaidetzak harpidetzeko edo eskuratzeko direnean, edo xede soziala zilarrezko ekonomiari zuzenean lotuta duten enpresetan, baldin eta mikroenpresatzat, enpresa txikitzat edo ertaintzat jotzen badira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

   Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako:

   a) Ondorio hauetarako, enpresa berritzailetzat joko dira partaidetza hartzen den urtean Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduko (EB) 2.80 artikuluan xedatutakoa betetzen dutenak; erregelamendu horren bidez, laguntza- kategoria batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak betez.

   b) Zilarrezko ekonomiatzat jotzen da adineko pertsonen sektoreak eskatutako eta egindako jardueren eragin ekonomikoaren eta sozialaren ondoriozko aukera sorta.

Erakunde baten xede soziala sektore horrei zuzenean lotuta dagoela ondorioztatzeko betekizunak eta baldintzak arau bidez zehaztuko dira.

3. Artikulu honen aurreko idatz-zatietan aipatzen den kenkariaren oinarria zergaldiaren barruan eskuratu edo harpidetutako akzioen edo partaidetzen eskuratze-balioak osatuko du. Erakundearen kapitalean % 25etik gorako partaidetza duten akzioen edo partaidetzen eskuratze-balioak ezin izango du haren parte izan, honako hau kontuan hartuz: zergadunak eta zergadunari lotutako pertsonek edo erakundeek dituzten akzio edo partaidetza guztiak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 42.3 artikuluan ezarritako baldintzetan.

   Aurreko paragrafoan aipaturiko ehunekoa kalkulatzeko, zergadunaren partaidetza zuzena edo zeharkakoa hartuko da kontuan, haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak edo zergadunarekin ahaidetasun-lotura zuzena edo albokoa, odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna duen edozein pertsonak erakunde berean duen partaidetzarekin batera, bigarren graduraino barne.

4. Aurreko idatz-zatietan zehaztutako kenkariak aplikatzeko:

   a) Aplikatuko diren akzioak edo partaidetzak eskuratzen edo harpidetzen dituen erakundeak sozietate anonimo, erantzukizun mugatuko sozietate, kooperatiba, lan-sozietate anonimo edo erantzukizun mugatuko lan sozietatearen forma izan behar du, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean (2010eko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) eta Lan-sozietateei eta partaidetutako sozietateei buruzko 2015eko urriaren 14ko 44/2015 Legean ezarritako moduan, eta, bestetik, ezin egongo dira negoziatzeko onartuta ezein merkatu antolatutan.

      Baldintza hori ekintza edo partaidetza izan den urte guztietan bete beharko da eta, halaber, betetzat joko da atzerrian egoitza duten erakundeen akzioak edo partaidetzak eskuratzen edo harpidetzen direnean, baldin eta a) letra honetan ezarritako antzeko izaera juridikoa badute.

   b) Erakundeko akzioak edo partaidetzak erakundea eratzen denean eskuratu behar ditu zergadunak, edo, bestela, eraketaren ondoko bost urteetan egindako kapital-zabalkuntza baten bidez; zergadunak bost urte baino gehiagoz eduki behar ditu akzio-partaidetzok bere ondarean.

   Artikulu honetako 2. idatz zatiko a) letrak aipatzen duen kasuan, akzioak edo partaidetzak harpidetu edo eskuratu beharko dira, eraketa hori egin eta hurrengo zazpi urteetako epean. Hala ere, epe hori ez da eskatuko arriskua finantzatzeko hasierako inbertsioa behar duten erakundeetan, baldin eta, geografia- edo produktu-merkatu berri batean sartzeko egindako negozio-plan batean oinarrituta, aurreko bost urteetan urteko eragiketa-bolumenaren batez bestekoaren %50 baino handiagoa bada.

5. Kenkari hori ez zaie aplikatuko honako kasu hauetakoren batean dauden erakundeetan egindako inbertsioei:

   a) Egiteko dagoen berreskuratze-agindu bati atxikitako enpresak. Horretarako, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki bat eman beharko du barne-merkatuarekiko legez kanpokoa edo bateragarria ez den laguntza bat aitortuz.

   b) Krisian dauden enpresak, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Araubideak (EB) 2.18 artikuluan xedatutakoekin bat eginez; araubide horren bidez, laguntza-kategoria batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak betez.

   c) Artikulu honetako 1. eta 2. idatz-zatietan aipatutako akzioak edo partaidetzak jaulkitzeagatik aurreko letran adierazitako erregelamenduak 21.9 artikuluan jasotako arriskuko finantzaketaren zenbateko osoa gainditu duten edo gaindituko duten enpresak.

6. Kenkari hori aplikatzeko, akzioak edo partaidetzak harpidetuak edo eskuratuak izan dituen erakundeak ziurtagiri bat eman beharko du, adieraziz akzioak edo partaidetzak eskuratu ziren zergaldian dagokion kenkaria aplikatzeko eskubidearen betekizunak betetzen dituela.

   Horrez gain, 2. idatz-zatiko a) letran araututako kasuan, aurreko idatz-zatiko b) eta c) letretan jasotako erregelamenduaren 2.80 artikuluan agindutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu erakundeak.

7. Zergaldiko gehieneko zenbateko kengarriak ezin izango du zergadunari dagokion likidazio-oinarriaren %20 gainditu, eta funts berberek ezin izango dute pertsona edo erakunde batean baino gehiagotan kenkarirako eskubiderik eman.

   Ezarritako mugak gainditzen direlako kendu gabe geratzen diren zenbatekoak hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira, muga berberak errespetatuz.

8. Aurreko 1. idatz-zatitik 7.era aipatzen diren baldintzak betetzen ez badira, zergadunak kenkariaren ondoriozko kuota eta dagozkion berandutze-interesak sartu beharko ditu ez-betetze hori gertatu den zergaldiari dagokion aitorpenean.

9. Artikulu honetan araututako kenkaria egitea aitorpena aurkeztearekin batera gauzatu beharreko aukera bat da, foru-arau honen 105. artikuluan xedatutakoaren ildotik. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

**90 bis. artikulua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan inbertitzeagatiko kenkaria.**

1. Zergadunek berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak eskuratzeko zergaldian ordaindutako kopuruen ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahalko dute martxoaren 21eko 02/2018 Foru Arauaren 4. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen badituzte.

   Halaber, zergadunek kenkari berbera aplikatu ahalko dute kreditu-entitateetan funts horietako partaidetzak eskuratzeko kontuetan gordetako kopuruengatik.

2. Arestiko idatz-zatiak aipatzen duen kenkaria ezingo da izan urteko 750 euro baino handiagoa.

3. Gordetako partaidetzak edo kopuruak eurak eskuratu edo gordailua ireki eta bost urteko epean mantendu beharko dira.

   Mantentzeko baldintza ez da bete gabetzat joko partaidetzen edo gordailuaren titular den zergaduna arestiko paragrafoak aipatu epea amaitu baino lehen hiltzen bada.

   Zergadunak aipatu epea mantentzen ez badu, finantza-entitateak gordetako zenbatekoak berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak eskuratzeko erabiltzen ez baditu, edo biek martxoaren 21eko 02/2018 Foru Arauaren 4. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen ez badituzte, era desegokian kendutako kopuruak ordaindu beharko dira, dagozkien berandutze interesekin batera. Murriztutako kopuru horri horietako edozein betetzen ez den zergaldiari legokiokeen kuota diferentzialari gehituko zaio eta batuketatik ateratzen den kopurua ordainduko da. Alabaina, zergadunak behar ez bezala murriztutako kopuru horiek, dagozkion berandutza interesekin batera, aurrez, edozein unetan ordaintzeko aukera izango du.

4. Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatzekoa izango zergadunak eskuratutako partaidetzetan baldin eta partaidetza horiek direla-eta zergadunak aplikatu badu foru-arau honen 48. artikuluko 4. zenbakian ezarritakoa.

5. Artikulu honetan araututako kenkaria egitea aitorpena aurkeztearekin batera gauzatu beharreko aukera bat da, foru-arau honen 105. artikuluan xedatutakoaren ildotik. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

## VI. KAPITULUA
## KENKARIAK DOHAINTZENGATIK

### 91. artikulua. Kenkariak mezenasgo-jarduerengatik.

1. Zergadunek Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauan zerga honetarako aurreikusitako kenkariak aplikatu ahal izango dituzte.

2. Artikulu honetan aipatzen den kenkariaren oinarriak ezin izango du gainditu zerga honen zerga-oinarriaren 100eko 35; foru-arau honen 65. eta 66. artikuluetan ezarritako zerga-oinarri eta aurrezkiaren oinarri orokorren batura izango da zerga-oinarria.

   Muga hori gainditzeagatik kendu ez diren zenbatekoak ondoz ondoko hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga bera errespetatuz.

3. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzea aukera bat da, autolikidazioa aurkeztean erabili behar dena, foru-arau honen 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

## VII. KAPITULUA
## BESTE KENKARI BATZUK

### 92. artikulua. Kenkariak nazioarteko zergapetze bikoitzagatik.

1. Zergadunaren errentan atzerrian lortu eta zergapetutako etekinak edo ondare-irabaziak daudenean, kopuru hauen arteko txikienari dagokion kenkaria egingo da:

   a) Zerga honen edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren izaera berdina edo antzekoa duen zerga bat dela medio etekin edo ondare-irabazi horiengatik atzerrian ordaindu den benetako zenbatekoa.

   b) Atzerrian lortutako errentari batez besteko karga-tasa orokorra edo aurrezkiaren karga-tasa aplikatuz lortzen den emaitza, errenta horretatik likidazio-oinarri orokorrean edo aurrezkiaren likidazio-oinarrian sartu den zatiaren arabera.

2. Zergadunaren errenten artean zerbitzuak atzerrian modu iraunkorrean ematetik eratorritako lan-etekinak badaude, orduan zergadunak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko kenkari bat aplikatzea hauta dezake: aipaturiko lan-etekinei dagokien kuota osoaren %50. Kenkari hori, dena dela, artikulu honetako aurreko zenbakian araututakoaren ordezkoa izango da, harekin bateraezina baita.

   Atal honetan xedaturikoa aplikatzeko, nahitaezkoa izango da zergadunak zergaldiko ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago igarotzea atzerrian aurreko paragrafoan aipatzen diren etekinak eragiten dituen lan-kontratuari dagozkion zereginak egiten, eta, dena dela, zeregin horiek atzerrian soilik egin behar ditu.

   Zenbaki honetan ezarritakoa ez da aplikatuko, batetik, foru arau honetako 9. artikuluaren 17 zenbakian aurrez ikusitako salbuespena aplikatzen denean, eta, bestetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiak tributaziotik kanpo uzten dituen soberakinen araubidea aplikatzen denean.

Artikulu honetan xedatutakoa aukera bat da, autolikidazioa aurkeztean erabili behar dena, foru-arau honen 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Aukera hori ezin da aldatu borondatezko aitorpen-epea amaituta badago.

### 93. artikulua. Kenkaria langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik eta alderdi politikoei emaniko kuota eta ekarpenengatik.

1. Zergadunek langileen sindikatuei ordaindutako kuoten %20ko kenkaria egin dezakete.

2. Halaber, alderdi politikoei ordaindutako afiliazio-kuoten eta alderdiei eginiko ekarpenen %20ko kenkaria egin dezakete zergadunek.

   Ez dira kenkari horren oinarrian sartuko foru arau honetako 22. artikuluko b) letran aurreikusitako baldintzetan gastu legez deduzitu diren kopuruak.

3. Foru arau honetako 116. artikuluko h) eta i) letretan aipatzen diren eredu informatiboetan sartuta dauden zergadunek soilik egin ditzakete aurreko zenbakietan aurreikusitako kenkariak.

## VIII. KAPITULUA
## AGIRI BIDEZKO JUSTIFIKAZIOA

### 94. artikulua. Agiri bidezko justifikazioa.

Titulu honetan araututako kenkariak egingo badira, kenkariok justifikatzen dituzten agiriak aurkeztu behar dira. Agiriok bete egin behar dituzte enpresaburu eta profesionalek fakturak egin eta emateko duten betebeharra erregulatzen duten arauetan eskatutako baldintzak, hala badagokio.

# VIII. TITULUA
# KUOTA DIFERENTZIALA

### 95. artikulua. Kuota diferentziala.

1. Kuota likidoari kopuru hauek gutxituz lortzen da kuota diferentziala:

   a) Zergei buruzko arautegian aurreikusitako atxikipenak, konturako sarrerak eta zatikako ordainketak.

   b) Foru arau honetako 106.3 artikuluan aipatzen diren atxikipenak.

   c) Pertsona bat bizilekua aldatzeagatik bihurtzen bada zerga honetako zergadun, bai foru arau honetako 105.2 artikuluan aipatzen diren atxikipenak eta konturako sarrerak, bai eta bizilekua aldatu duen zergaldian Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan sortu eta ordaindutako kuotak ere.

2. Aurreko lerroaldean aipatutako zenbatekoen kenkaria egingo bada, zenbatekook agiri bidez justifikatu behar dira betiere.

# IX. TITULUA
# ZERGA-ZORRA

### 96. artikulua. Zerga-zorra.

1. Zerga-zorraren osagaiak hauek dira: zerga-kuota eta, hala badagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 56. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan jasotako gainerako kontzeptuak.

2. Zergadunak zerga-zorra ordaintzera behartuta daude.

# X. TITULUA
# BATERAKO TRIBUTAZIOA

## 97. artikulua. Baterako tributazioa aukeratzea.

1. Hurrengo artikuluan ezarritako familia-unitateen modalitateetako batean sartzen diren pertsona fisikoek edozein zergalditan aukeratu dezakete zerga honetan baterako tributazioa egitea, zergari buruzko arau orokorrei eta titulu honetan bildutako xedapen bereziei jarraituz, betiere familiako kide guztiak zerga honen zergadunak badira.

   Familia-unitateko kideak lurralde desberdinetan bizi direnean eta batera tributatzeko asmoa dutenean, foru arau honetako 2.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

   Legezko banantzea gertatu ondoren edo ebazpen judizialaren bidez haien arteko loturarik ez dagoela adierazi ondoren edo izatezko bikote azkendu ondoren, gurasoek ezingo dute inoiz ere aukeratu baterako tributazioa, elkarrekin bizitzen jarraitu arren.

2. Baterako tributazioa aukeratzeak ez du ekarriko hurrengo zergaldietan ere batera tributatu beharra.

3. Baterako tributazioa aukeratzeak familia-unitateko kide guztiak hartu beharko ditu barne. Kideetako batek baterako tributazioaren arauak aplikatzen ez baditu edo autolikidazio indibiduala aurkezten badu, familia-unitateko gainerako kideek ere araubide bera erabili beharko dute.

4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 117. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, aitorpena aurkezten duen familia-unitateko lehen kideak baliatu beharko du aukera, eta ezin izango da aldatu zergaren aitorpena egiteko borondatezko epearen barruan. Hala ere, aitorpena aurkezteko borondatezko epea amaitu ondoren, egindako aukera aldatu ahal izango da Zerga Administrazioak beste ekintza berri bat egin ez badu.

5. Zergadunek ez badute autolikidaziorik aurkezten, banaka tributatuko dutela ulertuko da.

## 98. artikulua. Familia-unitatearen modalitateak.

1. Familia-unitatearen barruan banandu gabeko ezkontideak eta izatezko bikoteko kideak sartzen dira, eta honako hauek ere bai:

   a) Seme-alaba adingabeak, gurasoak edo adoptatzaileak ados egonik horietatik aparte bizi direnak izan ezik.

   b) Adinez nagusi diren seme-alabak, baldin eta, Kode Zibilaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan, ordezkapen-ahalmena duen kuradoretza bati lotuta badaude, eta, betiere, hori gurasoek edo adoptatzaileek gauzatzen badute.

2. Era berean, senar-emazteak legez banantzen direnean edo ezkontza-loturarik nahiz izatezko bikoterik ez dagoenean, eta aurreko horri buruzko ebazpen judiziala eman denean, gurasoetako batek eta aurreko lerroaldean aipaturiko baldintzak betetzen dituzten seme-alabek osatuko dute familia-unitatea, norekin bizi diren alde batera utzita. Kasu horietan, beste guraso bat egonez gero, azken hori ez da aipaturiko familia-unitateko kide izango.

   Familia-unitatea osatzeko, seme-alaba guztiak gurasoetako bati bakarrik egotziko zaizkio, bien arteko akordioz.

   Akordiorik ez badago, epailearen erabakiz seme-alabak bakar-bakarrik bere ardurapean dituen gurasoak osatuko du familia-unitatea, seme-alaba guztiekin batera. Kasu horretan, bi familia-unitate egon daitezke, eta guraso batek eta epailearen erabakiz berari bakar-bakarrik esleitutako seme-alabek osatuko dute familia-unitate bakoitza. Hala gertatzen

denean, familia-unitatea osatzeko, gurasoetako batek epailearen erabakiz esleituta izan behar du seme-alabetako baten zaintza.

3. Inor ezingo da bi familia-unitatetako kide izan aldi berean.

4. Familia-unitatea nortzuk osatzen duten zehazteko, urte bakoitzeko abenduaren 31n dagoen egoerari begiratuko zaio.

   Urtean zehar familia-unitateko kideren bat hiltzen bada, familia- unitateko gainerako kideak edo kideek baterako tributazioa aukeratu ahal izango dute, eta haien autolikidazioan sartuko dituzte hildakoaren errentak. Gainera, hildakoak foru arau honetako VII. tituluko II. kapituluan jasotako kenkari pertsonal eta familia-kenkarietarako eskubidea sortu badu, kenkari horiek ere autolikidazioan sartu ahal izango dituzte, haien zenbatekoa egun horretara arte proportzionalki murriztu gabe.

**99. artikulua. Baterako tributazioaren arauak.**

1. Zergadunen errenta, zerga-oinarria, likidazio-oinarria eta zerga-zorra kalkulatzeko zerga honetan jasota dauden arau orokorrak aplikatu ahal izango dira baterako tributazioan, artikulu honetan ezartzen diren berezitasunekin.

2. Banakako tributaziorako finkatutako zenbateko eta muga kuantitatiboak neurri berean aplikatuko dira baterako tributazioan, familia-unitateko kide kopuruaren arabera handitu edo biderkatu gabe.

   Aurreko lerroaldean ezarritakoa gorabehera:

   a) Lan-etekinak pertsona batek baino gehiagok jasotzen dituenean, foru arau honetako 23. artikuluan aipatzen den hobaria lan-etekin guztiak kontuan izanik aplikatuko da, jasotzaile kopurua edozein dela ere.

   b) Zerga honen arau orokorren arabera konpentsatuko dira familia-unitatea osatzen duten zergadunek banaka tributatu duten zergaldietan gauzatu bai baina konpentsatu ez dituzten ekonomia-jardueren etekinen eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren saldo negatiboak, ondare-galerak eta likidazio-oinarri orokor negatiboak.

      Ondoren banakako tributazioa egiten bada, kontzeptu horiek bakarrik konpentsatu ahal izango dituzte hala dagokien zergadunek, foru arau honetan errentak indibidualizatzeko ezarrita dauden erregelekin bat.

   c) Foru arau honetako 71.eta 72. artikuluetan nahiz zortzigarren xedapen gehigarrian jasota dauden zerga-oinarri orokorra murrizteko gehieneko mugak banaka aplikatuko ditu familia-unitatean sartutako partaide, mutualista, asegurratu edo bazkide bakoitzak. Era berean, foru arau honetako 67. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, kontuan hartuko da zerga-oinarrian zer proportzio dagokion zergadun bakoitzari.

   d) Foru arau honetako 83. artikuluko kenkaria artikulu horretan aipatzen den adina duen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio. Kenkari hori aplikatu ahal izateko, baterako tributazioko zerga-oinarria - artikulu horretako 4. zenbakiaren arabera kalkulatuta- 35.000 euro edo txikiagoa izan beharko da.

   e) Foru arau honetako 8.3 artikuluan aipatzen den 36.000 euroko kopurua banaka aplikatuko da zergadun bakoitzeko. Dena den, foru arau honetako 87. artikuluko 2. eta 4. zenbakietan aipatzen den urteko gehieneko kenkaria 1.530 eta 1.955 eurotik beherakoa izan behar da, hurrenez hurren, kontuan hartu gabe zenbat kide dituen familia-unitateak; foru arau honetako 98.1 artikuluan aipatzen diren familia-unitateen baterako aitorpenaren kasuan, aldiz, bikoiztu egingo dira gehieneko kenkari horiek.

   f) Foru Arau honen 90. bis artikuluan xedatutako gehieneko muga zergadun bakoitzeko aplikatuko da, hain zuzen ere artikulu horretan xedatutakoarekin bat eginez,

partaidetzak jasotzen dituztenak edo kreditu-erakundeetan zenbatekoak sartzen dituztenak.

g) Foru arau honetako 93. artikuluan aipatutako kenkaria langileen sindikatuei kuotak ordaintzen dizkien zergadun bakoitzeko egingo da.

3. Baterako tributazioa hautatuz gero, familia-unitate bateko pertsona fisikoek lortutako errenta guztiak batera zergapetuko dira, edozein motatakoak direla ere.

4. Baterako tributazioko autolikidazioa familia-unitateko adin nagusiko kideek sinatu eta aurkeztu behar dute, eta haiek ordezkatuko dituzte familia-unitatean sartutako adingabeak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 44.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. Familia-unitateko kide guztiak batera eta modu solidarioan geratuko dira zerga honen mende, zerga-zorra elkarren artean hainbanatzeko eskubidearen kalterik gabe, bakoitzari dagokion zergapeko errentaren zatiaren arabera.

# XI. TITULUA
# ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

### 100. artikulua. Zergaldia eta sortzapena: erregela orokorra.

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin.

2. Zerga urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko da, hurrengo artikuluan jasotakoaren kalterik gabe.

### 101. artikulua. Urte naturala baino laburragoa den zergaldia.

1. Zergaldia urte naturala baino laburragoa izango da zergaduna abenduaren 31 ez den beste edozein egunetan hiltzen bada.

2. Aurreko lerroaldean jasotako kasuan, heriotzaren egunean amaituko da zergaldia eta zergaren sortzapena ere egun horretan gertatuko da, foru arau honetako 98.4 artikuluan baterako tributazioa aukeratzen denerako xedatutakoaren kalterik gabe. Kasu horretan, eta bakar-bakarrik baterako tributazioa aukeratu eta dagokion murrizketa aplikatzeko, heriotza abenduaren 31n gertatu dela joko da.

# XII. TITULUA
# KUDEAKETA

## I. KAPITULUA
## AITORPENAK

### 102. artikulua. Aitorpena egiteko betebeharra.

1. Zergadunek zerga honi dagokion aitorpena, erregelamenduz ezartzen diren mugak eta baldintzak beteta aurkeztu eta sinatu beharko dute.

   Zergaren aitorpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, artikulu honen 7. atalean adierazitakoarekin bat etorriz.

2. Hala ere, zergadunek ez dute aitorpena egin beharrik, baldin eta lortu dituzten errentak honako iturri hauetatik bakarrik jasotakoak badira:

   a) Laneko etekin gordinak, urtean 14.000 euroko mugarekin banakako tributazioan. Muga hori baterako tributazioan aplikatuko da, horrelako etekinak lortzen dituzten zergadun bakoitzari dagokionez.

b) 14.000 eurotik gorako lan-etekin gordinak, urtean 20.000 euro artekoak, banakako tributazioan, hurrengo 3. zenbakian jasotzen diren kasuetako batean sartuta daudenean izan ezik.

   Muga hori baterako tributazioan aplikatuko da, horrelako etekinak lortzen dituzten zergadun bakoitzari dagokionez.

c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare-irabaziak batuta (kasu bietan, salbuetsiak barne), haien urteko kopuru gordina 1.600 euro baino handiagoa ez bada.

   Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetzak edo akzioak berreskuratu edo eskualdatzeagatik lortutako ondare-irabaziei dagokienez, baldin eta haien atxikipen-oinarria, erregelamenduz ezartzen denaren arabera, ez bada zehaztu behar zerga oinarrian txertatu beharreko zenbatekoaren arabera.

3. Aurreko apartatuko b) letran aipatzen diren zergadunak kasu hauetan daude behartuta zerga honen aitorpena aurkeztera:

a) Ordaintzaile batek baino gehiagok emandako lan-etekinak jasotzen diren kasu guztietan.

   Hala ere, 20.000 euroko mugaraino lan-etekin gordinak jasotzen dituzten zergadunek ez dute aitorpenik aurkeztu beharko, baldin eta bigarren ordaintzaileengandik eta gainerako ordaintzaileengandik jasotako zenbatekoen baturak, zenbatekoen arabera, ez badu urteko 2.000 euroko zenbatekoa gainditzen.

b) Ordaintzaile bakar batengandik lan-etekinak jasoz, ekitaldian lan- edo administrazio-kontratu bat baino gehiago sinatu badituzte, edo indarrean dagoena luzatu badute.

c) Ezkontidearengandik edo izatezko bikotekidearengandik konpentsazio-pentsioak jasotzen dituztenean edo Foru Arau honetako 9.1 artikuluan aipatzen diren mantenurako urtekoak barik beste batzuk jasotzen dituztenean.

d) Erregelamendu bidez ezarritako kasuetako batean daudenean.

   Dena den, apartatu honetan jasotakoaren ondorioz zergaduna aitorpena aurkeztera behartuta dagoenean, aukera hauetako bat izango du:

   - Zerga honen xedapen orokorrei jarraituz tributatzea, edo

   - Soilik lan-etekinak kontuan hartuta tributatzea, honako erregela hauen arabera:

     a) Lanaren etekinetarako ezarritako atxikipen-portzentajeen taulak aplikatuko zaizkio sortutako lanaren etekinen zenbateko osoari, betiere foru arau honetan xedatutakoarekin bat etorriz salbuetsita daudenak sartu gabe.

        Horretarako, kontuan hartuko dira atxikipena egin behar zaien etekinen zenbatekoa zehazteko arauak eta zergaren sortzapen egunean indarra duten atxikipen taulak finkatu eta aplikatzeko arauak.

     b) Aurreko a) letran ezarritakoa aplikatu ondoren ateratzen den kopuruari hau gutxituko zaio: lan-etekinei egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa. Hortik ateratzen den kopurua ordainduko zaio Foru Aldundiari, eta erregelamendu bidez finkatzen den eran zatikatu daiteke. Inola ere ez da diru-kopururik itzuliko prozedura hori erabiltzearen ondorioz.

     c) Inoiz ez da aplikatuko gastu kengarririk, hobaririk, murrizketarik, kenkaririk, baterako zerga-ordainketarako erregelarik edo Zerga honen arautegi erregulatzailean jasota dagoen beste edozein pizgarririk.

4. Ogasun eta Finantza Sailak emandako aitorpen-zirriborroetatik abiatuta Foru Arau honetako 104. artikuluan aipatzen dira zirriborro horiek, zergadunek zirriborroetan jasotako datu guztiak aldatu eta/edo osatu behar dituzte, datu horiek eragiten dietenean, eta ezarritako edo ezartzen diren dokumentuak eta frogagiriak erantsi beharko dizkiete aitorpenei.

5. Kausatzailearen oinordekoek aurkeztu eta sinatu egin behar dituzte kausatzaileak zerga hau dela-eta egin gabe utzi zituen aitorpenak, zehapenak izan ezik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 38. artikuluaren arabera.

6. Zergadunek bizilekua aldatzen badute, horren berri eman beharko diote Zerga Administrazioari, aldaketa horrek zerga galdatzeko eskumenean ere aldaketak eragiten dituenean.

7. Zerga honi dagozkion aitorpenak aurkezteko, baita zuzenketak edo administrazio- bideko errekurtsoak aurkezteko ere, bitarte informatiko, elektroniko edo telematikoak erabili beharko dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira.

   Erregelamendu bidez garatuko dira adierazpen, zuzenketa eta errekurtso horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko prozedurak, bai eta Zerga Administrazioak zergaren aitorpenak aurkeztean laguntza pertsonala eskainiko duen kasuak ere.

**103. artikulua. Aitorpena eta zerga-zorraren diru-sarrera**

1. Zergadunek, zerga-egitatea gertatu dela jakinarazteko, aitorpena aurkezten dutenean, behar diren datuak eman beharko dituzte Zerga Administrazioak tributu-betebeharraren zenbatekoa zehatz dezan behin-behineko likidazioa baten bidez.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluan ezarritakoa gorabehera, zerga honen behin-behineko likidazioan ezartzen den zerga-zorra sartu egin beharko da. Zergadunak zor hori zatikatzeko aukera izango du, erregelamenduz ezarritako eran eta epeetan.

3. Foru Aldundiak onar dezake zerga-zorra ondasun hauek emanez ordaintzea:

   a) Euskal Kultura Ondareko kideak, baldin eta babes ertain edo bereziko kulturaondasuntzat jotzen badira Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean xedatutakoaren arabera.

   b) Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasunak, baldin eta Ondasun Higigarrien Inbentario Orokorrean eta/edo Interes Kulturaleko Ondasunen Erregistro Orokorrean inskribatuta badaude, Espainiako Ondare Historikoari buruzko 1985eko ekainaren 25eko 16/1985 Legeko 73. artikuluan xedatutakoaren arabera.

   Ez dira zerga-oinarrian sartuko aurreko a) eta b) letretan aipatutako ondasunak ordainetan ematean agerian geratzen diren errentak, ez eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 58.2 artikuluan aipatutako kasuetan agerian geratzen direnak ere.

4. Kausatzailearen oinordekoek bete egin beharko dituzte zerga hau dela-eta bete gabe dauden zerga-betebeharrak, zehapenak izan ezik, Zergei buruzko Foru Arauko 38. artikuluaren arabera.

**104. artikulua. Aitorpenaren aurkezpenaren bidez hasitako prozedura**

1. Zergadunak aitorpena aurkeztu baino lehen, Ogasun eta Finantza Sailak aitorpen-zirriborro bat jarriko du zergadunaren eskura Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren

bidez. Zirriborro horrek dirua itzultzeko edo ordaintzeko proposamena izango du, administrazioak dituen datuak, aurrekariak edo bestelako elementuak kontuan hartuta.

Aitorpen-zirriborroa sortzeko eta horretarako bakarrik, erregelamendu bidez ezarritako kasuetan, Zerga Administrazioak parametro batzuk erabili ahal izango ditu emaitza lortzeko, eta zergadunak aldatu ahal izango ditu aitorpenean.

2. Ogasun eta Finantza Sailak emandako aitorpen-zirriborroak dirua itzultzeko proposamena duenean:

   a) Zergadunak modu espresuan adierazten badu, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, ados dagoela zirriborroak dituen datuekin, behin-behineko likidazioa egingo da, eta zergadunari itzuli behar zaion kopurua ordainduko zaio horretarako ezarritako epean.

   b) Zergadunak aitorpen-zirriborroarekiko isilbidezko adostasuna adierazi badu, modu espresuan ez duelako adierazten edukiarekiko adostasuna edo desadostasuna, behin-behineko likidazioa egingo da, eta zergadunari itzuli behar zaion kopurua ordainduko zaio, aurreko letran ezarritako epea amaitu eta gero.

   Aurreko bi kasuetan, betetzat joko da zerga honen aitorpena aurkezteko betebeharra.

   c) Zergadunak atzera botatzen badu aurreko b) letran aipatutako aitorpenaren aurkezpen tazitua, aitorpena aurkeztu beharko du, modu espresuan eta, hala badagokio, zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aurkeztu eta/edo aldatu beharko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

   Aurreko paragrafoan deskribatutako inguruabarrak ematen direnean zergadunak aitorpenik aurkezten ez badu, ez aurkeztutzat joko da.

3. Ogasun eta Finantza Sailak dirua ordaintzeko proposamena duen aitorpen-zirriborro bat ematen duenean, zergaduna proposamenarekin ados badago, modu espresuan adierazi beharko du adostasuna Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, aitorpenak aurkezteko borondatezko epea amaitu baino lehen.

   Aurreko kasuan, betetzat joko da zerga honen aitorpena aurkezteko betebeharra.

   Zergadunak ez badu modu espresuan adierazten ados dagoela, aitorpena aurkeztu beharko du borondatezko epearen barruan eta, hala badagokio, zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aldatu eta/edo aurkeztu beharko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

   Aurreko paragrafoan deskribatutako inguruabarra ematen denean zergadunak aitorpenik aurkezten ez badu, ez aurkeztutzat joko da.

4. Ogasun eta Finantza Sailak emandako aitorpen-zirriborroak datu ekonomikorik ez badu, zergadunak zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aldatu eta/edo aurkeztu beharko ditu, erregelamenduz ezartzen den prozedurarekin bat etorrita.

5. Zergadunak uste badu Ogasun eta Finantza Sailak emandako aitorpen-zirriborroak ez duela ondo jasotzen bere tributu- egoera zerga honi dagokionez, zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aldatu eta/edo aurkeztu beharko ditu, erregelamenduz ezartzen den prozedurarekin bat etorrita.

6. Aurreko apartatuetan deskribatutako prozedura gorabehera, datu berriak agertzen badira, Zerga Administrazioak aldatu ahal izango du emandako aitorpen-zirriborroa, zergadunak aldez aurretik adostasuna emanda, aitorpena aurkeztu baino lehen.

7. Nolanahi ere, emandako behin-behineko likidazioa berrikusi ahal izango da dagokion prozedura beteta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauarekin bat etorriz..

**105. artikulua. Autolikidazioa aurkeztean egin behar diren aukerak.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 117.3 artikuluan ezarritakoari dagokionez, ulertuko da zerga honetan honako aukera hauek egin behar direla autolikidazioa aurkezten denean:

a) Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan-etekinei dagokien salbuespena —9. artikuluko 17. zenbakian arautzen dena— edo salbuespen horren ordez —zenbaki horretan bertan aipatutako— soberakinen araubidea aplikatzea.

b) Aparteko mozkinen berrinbertsioa; 25.3 artikuluan arautzen da.

c) Aurreko ekitaldietako saldo negatiboen konpentsazioa; 65. artikuluko b) letran arautzen da.

d) Desgaitasun edo mendetasunagatiko kenkaria; 82. artikuluan arautzen da.

e) Ekonomia-jarduerak sustatzeko kenkariak; 88, 89 eta 90. artikuluetan arautzen dira.

f) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan inbertitzeagatiko kenkaria.

g) Baterako tributazioa aukeratzea; 97. artikuluan arautzen da.

h) Negoziatzeko onartuta dauden baloreen ondoriozko ondare-irabazientzako aukerako tributazio-araubidea; hogeita laugarren xedapen gehigarrian arautzen da.

i) Foru Arau honetako IV. tituluko VI. Bis kapituluan jasotako erregimen bereziak aplikatzeko aukera.

j) Mezenasgo-jardueren ziozko kenkariak aplikatzeko aukera, foru-arau honen 91. artikuluan arautua.

k) Nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria, foru-arau honen 92.2 artikuluan arautua.

## II. KAPITULUA
## KONTURAKO ORDAINKETAK

**106. artikulua. Konturako ordainketak.**

1. Zerga honetan hauek izan daitezke konturako ordainketak, eta zerga-zortzat hartuko dira beti:

   a) Atxikipenak.

   b) Konturako sarrerak.

   c) Ordainketa zatikatuak.

2. Pertsona bat bizilekua aldatzeagatik bihurtzen bada zerga honetako zergadun, zerga honen konturako ordainketatzat hartuko dira bizilekua aldatu duen zergaldian Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

   Besteren konturako langileak, zerga honen zergadunak izan gabe, Espainiako lurraldera aldatzeagatik zergadun bihurtuko badira, zirkunstantzia horren berri eman diezaiokete Zerga Administrazioari: adierazita utzi beharko dute zein egunetan sartzen diren Espainiako

lurraldean. Hori guztia bakarrik da lan-etekinen ordaintzaileak zerga honen zergaduntzat har ditzan.

Besteren konturako langileek hala eskatzen dutenean, Zerga Administrazioak egiaztagiri bat emango die, erregelamendu bidez ezartzen den prozeduraren arabera. Egiaztagiri hori, ondoren, angile horiek Espainiako lurraldean egoiliarra den edo establezimendu iraunkorra duen lan-etekinen ordaintzaileari emango diote, eta bertan jasota egongo da langileoi zein egunetatik aurrera egin behar zaizkien zerga honi dagozkion atxikipenak eta konturako sarrerak. Atxikipen tasa kalkulatzeko, berriz, zenbaki honetako lehenengo lerroaldean adierazitakoa hartuko da kontuan.

3. Zerga honen konturako ordainketatzat hartuko dira Kontseiluaren ekainaren 3ko 2003/48/EE Zuzentarauko 11. artikuluan ezarritakoa dela bide egindako konturako atxikipenak (zuzentarau hori interes moduan ordaintzen diren aurrezkiaren etekinen fiskalitateari buruzkoa da).

**107. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko eta ordaintzeko betebeharra.**

1. Jarraian zehazten direnak behartuta daude atxikipena eta konturako sarrera egitera, hartzaileari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa, eta erregelamendu bidez zehaztuko da zein izan behar den egin beharreko atxikipen eta konturako sarrera horren zenbatekoa. Halaber, behartuta daude atxikipena eta konturako sarrera hori Foru Aldundiari ordaintzera, Ekonomia Itunean zehazten diren kasuetan eta erregelamendu bidez zehazten den moduan. Bada, honako hauek dira betebehar horiek dituztenak:

   a) Zerga honi lotuta eta salbuetsi gabe dauden errentak ordaintzen dituzten pertsona juridikoak eta entitateak, errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateak barne.

   b) Ekonomia-jarduerak egiten dituzten zerga honen zergadunak, jarduera horiek egitean ordaintzen dituzten errentak zerga honi lotuta eta salbuetsi gabe badaude.

   c) Espainiako lurraldean egoiliarrak ez diren pertsona fisikoak, juridikoak eta gainerako entitateak, Espainian establezimendu iraunkorraren bitartez edo establezimendurik gabe badihardute, atxikipena edo konturako sarrera egin behar dute haiek ordaintzen dituzten lan-etekinei dagokienez, bai eta egiteko betebeharra dakarten beste etekin batzuei dagokienez ere, baldin eta etekinok ordaintzea gastu kengarritzat har badaiteke Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 24.2 artikuluan ezartzen diren errentak lortzeko.

      Entitate batek, egoiliarra izan ala ez, lanaren etekinak ordaintzen badizkio edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera entitate horri lotuta dagoen entitate egoiliar bati, edo Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor bati, zergadunak zerbitzuak ematen ditueneko entitateak edo establezimendu iraunkorrak egin beharko du atxikipena edo konturako sarrera.

      Espainian zerbitzuak libre emateko araubidean diharduten Europako esparru ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratutako aseguru-erakundeek atxikipena eta konturako sarrera egin beharko dute Espainian egindako eragiketak direla eta.

      Europar Batasuneko beste estatu kide batean egoiliartutako pentsio-funtsak, Espainiako legeriaren mende dauden enpleguko pentsio-planak garatzen dituztenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 EB) Zuzentarauan, enpleguko pentsio-funtsen jarduerei eta ikuskapenari buruzkoan, edo, hala badagokio, haien erakunde kudeatzaileetan aurreikusitakoaren arabera, atxikipena eta konturako sarrera egin beharko dute Espainian egiten diren eragiketei dagokienez.

      Atzerriko estatuek Espainian dituzten ordezkaritza diplomatikoak eta kontsularrak inoiz ere ez daude behartuta atxikipenak edo konturako sarrerak egitera.

2. Erregelamendu bidez ezar daiteke errenta jakin batzuen gaineko atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharrerako salbuespena.

3. Nolanahi ere, atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra duten subjektuek atxikipen edo konturako sarrera horri dagokion sarrera Foru Aldundian egiteko betebeharra berenganatuko dute, eta nahiz eta atxikipena edo konturako sarrera egin ez, sarrera, aldiz, beti egin beharko dute.

4. Ebazpen judizial edo administratiboa dela medio zerga honen atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errenta bat ordaindu behar denean, hark ordaindu beharreko kopuru osoaren gainean egingo du ordaintzaileak atxikipena edo konturako sarrera, eta haien zenbatekoa Foru Aldundian ordaindu beharko du, artikulu honetan jasotakoari jarraituz.

5. Zergadunek eurek jakinarazi behar diete zergadunoi atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako etekinak ordaintzen dizkieten ordaintzaileei zer inguruabar hartu behar dituzten aintzat zergadunoi dagokien atxikipen edo konturako sarrera egiteko; erregelamendu bidez jasota dago zer baldintzatan egin behar den aurreko jakinarazpen hori.

**108. artikulua. Atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa.**

1. Atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko, erregelamendu bidez finkatzen den portzentajea aplikatu behar zaio ordaintzen den zenbateko osoari.

2. Gauzazko ordainsariengatik egin beharreko konturako ordainketaren zenbatekoa kalkulatzeko, berriz, erregelamendu bidez finkatzen den portzentajea aplikatu behar zaie foru arau honetan jasotako arauei jarraituz ordainsariontzat zehaztutako balioari.

3. Hartzaile berberari diruzko eta gauzazko lan-errentak ordaintzen zaizkionean, ordaindutako kontraprestazio edo onura guztien gainean egingo da atxikipena.

   Kasu horietan, aurreko 1. zenbakian zehazten den atxikipen-portzentajea kalkulatzeko, aurreikus daitezkeen diruzko eta gauzazko ordainsari guztiak hartu behar dira kontuan, bai finkoak bai aldakorrak. Urtean zehar diruzko eta gauzazko ordainsarien zenbatekoa aldatzen bada, beste portzentaje bat kalkulatu beharko da, aldaketok kontuan hartuta. Hala ere, aldaketak gertatzen direnetik aurrera bakarrik aplikatuko da beste portzentaje hori.

   Ordaindutako diruzko etekinei kendu egingo zaie aurreko lerroaldean aipatutako portzentajea ordaindutako kontraprestazio eta onura guztiei aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

**109. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak konputatzea.**

1. Zerga honen konturako atxikipena egin behar zaien errentak jasaotzen dituztenek haiek sortutako kontraprestazio osoari dagozkion atxikipenak hartuko dituzte kontuan.

   Horrenbestez, atxikipena egin ez bada edo egin beharrekoa baino txikiagoa egin bada, atxiki behar zitzaion zenbateko osoa kendu ahal izango du hartzaileak kuotan.

   Sektore publikoak ordaindutako legezko ordainsariak direnean, aldiz, benetan atxikitako kopuruen kenkaria bakarrik egin dezake hartzaileak.

   Sortutako kontraprestazio osoa frogatzerik ez badago, Zerga Administrazioak hau konputatu ahal izango du haren zenbateko oso moduan: egin beharreko atxikipena kenduz benetan jasotakoa erakusten duen zenbatekoa. Kasu horretan, konturako atxikipen legez, benetan jasotakoaren eta zenbateko osoaren arteko diferentzia kenduko da kuotan.

2. Konturako sarrera egiteko betebeharra badago, sarrera hori egindakotzat joko da. Zergadunak hauek sartuko ditu zerga-oinarrian: foru arau honetan jasotako arauei jarraituz baloratutako gauzazko ordainsariari dagokion zenbatekoa, batetik, eta konturako sarrera, bestetik, baldin eta azken hori ez bazaio zergadunari berari erasan.

### 110. artikulua. Ordainketa zatikatuak.

1. Ekonomia-jarduerak egiten dituzten zergadunak behartuta daude ordainketa zatikatuak egitera eta sartzera zerga honen kontura, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

2. Erregelamendu bidez, zergadunak betebehar horretatik salbuetsi daitezke, baldin eta haiek jasotako errentei atxikipena edo konturako sarrera egin bazaie, horretarako finkatzen den portzentajean.

3. Ekonomia-jarduerak egiten dituzten errenta-esleipenaren araubideko entitateei dagokien ordainketa zatikatua izaera horretako errentak esleitu behar zaizkien bazkide, oinordeko, erkide edo partaide bakoitzeko egingo da, bakoitzak entitatearen mozkinean duen partaidetzaren proportzioan.

## III. KAPITULUA
## BEHIN-BEHINEKO LIKIDAZIOAK

### 111. artikulua. Behin-behineko likidazioak.

Zerga Administrazioak egin beharreko behin-behineko likidazio guztiak egin ditzake, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat.

### 112. artikulua. Ofiziozko itzulketak.

1. Foru arau honetako 95.1 artikuluko 1. lerroaldean aipatzen diren diru-kopuruen batura handiagoa denean kuota likidoa baino, Zerga Administrazioa likidazioa egitera behartuta dago, autolikidazioa aurkeztu ondoren, autolikidazioa aurkezteko epea amaitu eta ondorengo sei hilabeteen barruan.

   Autolikidazioa epez kanpo aurkeztu bada, aurkezpen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen aurreko lerroaldean aipatzen den sei hilabeteko epea.

2. Autolikidaziotik edo, hala badagokio, behin-behineko likidaziotik ateratzen den kuota likidoa txikiagoa denean foru arau honetako 95.1 artikuluan aipatzen den batura baino, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du kuota horren gaineko soberakina, aurreko paragrafoan jasotako epean, geroago egin beharreko behin-behineko edo behin betiko likidazioen kalterik gabe.

3. Behin-behineko likidazioa ez bada egin artikulu honetako 1. zenbakian finkatutako epean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du autolikidatutako kuotaren gaineko soberakina, geroago egin beharreko behin-behineko edo behin betiko likidazioen kalterik gabe.

4. Itzulketa egiteko epea amaitu bada baina ez bada haren ordainketa agindu, Zerga Administrazioari egotzi beharreko arrazoi bat dela medio, berandutze-interesa aplikatuko zaio itzultzeko geratzen den zenbatekoari, epea amaitu osteko egunetik itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzea erabakitzen den egunera arte kalkulatuta. Eta berdin-berdin aplikatuko da interes hori, nahiz eta zergadunak erreklamatu ez. Berandutze-interesa, hain zuzen ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 26. artikuluan jasotzen da.

5. Erregelamendu bidez zehaztuko dira artikulu honetan aipatzen den ofiziozko itzulketa egiteko prozedura eta ordaintzeko era.

## IV. KAPITULUA
## BETEBEHAR FORMALAK

### 113. artikulua. Zergadunen betebehar formalak.

1. Zergadunak behartuta daude autolikidazioetan jaso beharreko edozein motatako eragiketa, errenta, gastu, sarrera, murrizketa eta kenkariren frogagiriak eta egiaztagiriak gordetzera, preskripzio- eta iraungitze-epearen barruan.

2. Erregelamendu bidez, zenbait prozedura edo sistema ezar daitezke, ekonomia-jarduerak egiten dituzten zergadunek egin beharreko fakturak kontrolatzeko.

3. Erregelamendu bidez, ondarearen inguruko informazioa emateko betebehar zehatz batzuk ezar daitezke, zerga honen autolikidazioa aurkeztearekin batera bete beharrekoak, zergadunen errentak edo ondasun eta eskubide jakin batzuen erabilera kontrolatzeko.

4. Zerga honen zergadunak 2003ko azaroaren 18ko 41/2003 Legeak araututako ondare babestuaren titular badira, autolikidazioa aurkeztu behar dute, erregelamendu bidez jasotzen denaren arabera, non adieraziko duten nola dagoen osatuta ondarea, zein ekarpen jaso duten eta zertan erabili duten zergaldian. 41/2003 Lege hori desgaitasuna duten pertsonen ondare-babesari eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea nahiz zerga-arautegia helburu horretarako aldatzeari buruzkoa da.

**113 bis artikulua. Ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema.**

1. Foru Arau honetako 24. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita ekonomia-jarduerak garatzen dituzten pertsona fisikoek sistema informatiko bat erabili beharko dute beren ekonomia-jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu- prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzeko, edozein dela ere haien etekina zehazteko erabiltzen den metodoa. Sistema horrek betekizun hauek bete beharko ditu:

   a) Ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla eta, sinadura elektronikoa duen fitxategi informatiko bat sortu beharko dute, eta erregelamenduz ezarritako formatua, edukia eta ezaugarriak izan behar ditu. Eragiketak justifikatzen dituen faktura edo dokumentua —euskarri elektronikoan edo paperean sortutakoa— egin baino lehen sortu beharko dute fitxategi hori.

      Zehazki, letra honetan aipatzen den fitxategi informatikoan, hurrengo b) letran aipatzen dena egin aurre-aurretik euskarri elektronikoan edo paperean emandako fakturaren edo beste dokumentu baten identifikazioa jaso beharko da, baita erabilitako softwarea garatu duen pertsonaren edo erakundearen identifikazioa ere.

   b) Eragiketak justifikatzen dituen euskarri elektronikoan edo paperean sortutako fakturak edo dokumentuak dokumentuaren identifikazio-kode bat eta "QR" kode bat izan beharko ditu. Kode horiek erregelamenduz ezarritako zehaztapenekin bat etorrita sortu beharko dira.

2. Aurreko apartatuan ezarritako betebeharrak betetzeko, zergadunek hauek erabili beharko dituzte:

   a) Bizkaiko Foru Aldundiak haien esku jartzen duen aplikazio informatikoa, erregelamenduz ezartzen diren mugak eta baldintzak beteta.

   b) Ondorio hauetarako sortutako erregistroan inskribatutako software bat, zeinak erregistro horretan inskribatutako pertsona edo erakunde batek garatutakoa izan behar duen. Pertsona edo erakunde horrek erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu behar du.

      Letra honetan aipatutako erregistroan inskribatzeko, inskripzioa aldatzeko edo baja emateko, erregelamenduz ezarritakoa bete beharko da.

      Aurreko paragrafoan adierazitako softwarea zergadunak berak garatzen duenean, zergaduna inskribatu beharko da erregistro horretan.

3. Halaber, aurreko 1. apartatuan ezarritako betekizunak betetzen dituen sistema informatiko bat erabili beharko dute errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateek eta testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsiek, ahalordea erabili bitartean, baldin eta ekonomia-

jarduerak egiten badituzte. Horrek, ordea, ez du galaraziko haien kideei dagokien etekinen esleipena egitea.

4. Zergadunak aurreko 1. apartatuan ezarritako betebeharrak betetzetik salbuetsita egongo dira eragiketa hauei dagokienez:

a) Zerga Administrazioaren baimena dutenak baldintza berezietan laburpen-idazpen bereziak egiteko, dagokion jarduera-sektoreko merkataritza- edo administrazio-jardunbideak edo fakturak eta kontabilitateko frogagiriak egiteko baldintza teknikoak direla eta, aipamen edo informazio hori jasotzea zaila dela egiaztatzen bada.

b) Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudiko 5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, faktura egiteko betebeharra materialki eragiketaren hartzaileak betetzen duenean, betiere hartzaileari ez bazaio aplikatu behar Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko arautegia edo Araba edo Gipuzkoako lurralde historikoetakoa, eta artikulu honetako 1. apartatuan jasotakoen antzeko betebeharrak badituzte.

c) Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan, artikulu honetan aipatzen diren betebeharrak betetzetik salbuesteko baimena eman ahalko die hiru urteko epearen barruan egiten ari ziren jarduera ekonomikoak egiteari uzteko asmoa duten zergadunei, baldin eta, egiten ari diren jarduera ekonomikoen ezaugarriak direla-eta, aipatutako betebeharra betetzeko, inbertsio edo gastu garrantzitsuak egin behar badituzte ekipoak eta terminalak eta haiei lotutako softwarea eta periferikoak eskuratzeko, instalatzeko eta ezartzeko. Hiru urteko epeari dagokionez, azaroaren 22ko 08/2023 Foru Arauaren 1. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoaren arabera (foru-arau horren bidez, BATUZ sistema behin betiko ezartzeko eta fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzko 2011/16 (EB) Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiteko neurriak eta beste zerga-aldaketa batzuk onartzen dira) betebehar hori nahitaez betetzen hasi behar duten datatik aurrera zenbatuko da.

   Salbuespena aplikatzeko, eskabidea aurkeztu beharko zaio Zerga Administrazioari, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan horretarako jarriko den formularioaren bidez. Informazio hau eman beharko da:

   a') Salbuespena aplikatu nahi duen pertsona edo erakundearen identifikazio fiskaleko zenbakia eta izen-abizenak edo sozietate- izena, osorik.

   b') Egiten ari den jarduera ekonomikoaren edo ekonomikoen deskribapena.

   c') Jarduera ekonomiko hori edo horiek egiteari uzteko aurreikusitako data.

   d') Artikulu honen 1. apartatuan ezarritako betebeharrak betetzeko, ekipoak eta terminalak, haiei lotutako softwarea eta periferikoak eskuratzeko, instalatzeko eta ezartzeko egin beharreko inbertsioen eta/edo gastuen zerrenda.

   Letra honetan ezarritako salbuespena hiru urterako izango da, letraren lehen paragrafoan aipatzen den datatik zenbatzen hasita. Beraz, epe hori igaro eta erakundearen jarduera edo jarduerak bertan behera uzten ez badira, iraungitzen denetik aurrera nahitaez bete beharko da salbuetsitako betebeharra, eta ezin izango da berriro eskatu salbuesteko.

d) Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan, artikulu honetan eta foru arau honetako 114. artikuluan jasotako betebeharrak betetzetik salbuesteko baimena eman ahalko die zergadunei, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

   i) Jarduera ekonomikoetatik eratortzen diren urteko diru-sarrera guztiak 2.000 eurotik beherakoak izatea.

ii) Gastu kengarririk ez edukitzea jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko.

iii) Jarduera ekonomikoetatik eratorritako diru-sarrera guztiek zerga horren konturako atxikipena edukitzea.

iv) i) eta iii) betekizunetan aipatzen diren diru-sarrera guztiak Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita egotea.

Salbuespena aplikatzeko, eskabidea aurkeztu beharko zaio Zerga Administrazioari, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan horretarako jarriko den formularioaren bidez. Bertan, d) letra honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela jaso beharko da.

Letra honetako salbuespena indarrean egongo da zergadunak uko egiten ez badio eta ezarritako lau baldintzak betetzen diren bitartean. Lau baldintzetako bat betetzen ez den zergalditik aurrera, salbuespenak indarrean egoteari utziko dio eta ezingo da berriro eskatu.

e) Erregelamenduz ezartzen diren gainerakoak.

5. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, zergadunak salbuetsita egongo dira aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako "QR" kodea sortzetik ondoren aipatzen diren eragiketei dagokienez, baina salbuespen horrek ez die eragingo apartatu horretan ezarritako gainerako betebeharrei. Hauek dira salbuespenerako aukera ematen duten eragiketak:

   a) Jasotzailetzat bere ekonomia-jardueraren barruan enpresa- edo lanbide-jarduerak egiten dituen pertsona edo erakunde bat dituzten eragiketak edo jasotzailetzat administrazio publiko bat dutenak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 7. artikuluko 8. apartatuko B) letran ezarritako baldintzetan, betiere, jatorrian, irakurri ezin den formatu elektroniko batean egin badira.

   b) Erregelamenduz ezartzen diren gainerako eragiketak.

6. Zergadunek artikulu honetako 1. apartatuan aipatzen diren betebeharrak betetzearen ondorioz sortzen den informazioa bidali beharko diote Zerga Administrazioari, eskatutako gainerako informazioarekin batera, erregelamenduz ezarritako eran eta epeetan.

7. Zerga Administrazioak aukera bat jarriko du euskarri elektronikoan edo paperean dauden fakturen edo dokumentuen jasotzaileen eskura, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez faktura edo dokumentu horiek egin dituzten zergapekoek 1. apartatu horretan ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko aukera izan dezaten.

   Erregelamendu bidez garatuko da egiaztapen hori egiteko modua.

**114. artikulua. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua.**

1. Ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoek, foru arau honetako 24. artikuluan xedatutakoaren arabera, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat izan beharko dute, edozein dela ere haien etekina zehazteko erabiltzen den metodoa. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko dira, osatzen duten erregistroak elektronikoki emanda.

   Erregelamendu bidez zehaztuko da noiz joko den guztiz betetzat ekitaldi edo likidazio- aldi bakoitzari dagokion informazioa, Foru Arau honetako 104 artikuluan aipatzen den aitorpenaren zirriborroa sortzeko eta 5/2020 Foru Arauko lehenengo xedapen gehigarrian aipatzen den autolikidazioaren zirriborroa sortzeko.

2. Betebehar bera izango dute -eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat eraman beharra, alegia- errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateek eta testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsiek, ahalordea erabili bitartean, baldin eta ekonomia-jarduerak egiten badituzte. Horrek, ordea, ez du galaraziko haien kideei dagokien etekinen esleipena egitea.

3. Aurreko zenbakietan aipatzen diren zergapekoek ekonomia-jarduera bat baino gehiago egiten badute liburu bakarra izan beharko dute, baina behar bezala identifikatu behar dute zer eragiketa dagokion jarduera bakoitzari.

4. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua zergari buruzko erregelamenduan zehazten den bezala egin behar da, eta honako kapitulu hauetan sailkatu:

    - Diru-sarreren eta egindako fakturen kapitulua.
    - Gastuen eta egindako fakturen kapitulua.
    - Jarduerari lotutako ondasunen eta/edo inbertsio-ondasunen kapitulua.
    - Batasunaren barruko zenbait eragiketen kapitulua.
    - Horniduren eta aurrerakinen kapitulua.
    - Tributuen arloan eragina duen bestelako informazioari buruzko kapitulua.

5. Artikulu honetako 1. eta 2. zenbakietan aipatzen diren zergapekoek, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua betetzeaz gainera, Merkataritzako Kodean xedatutakoaren arabera eginiko kontabilitatea izan beharko dute, baldin eta zergadunok egiten dituzten ekonomia-jardueren etekinak zuzeneko zenbatespeneko modalitate arruntaren arabera zehazten badituzte, salbu eta haiek egindako jarduera ez bada merkataritzakoa.

6. Diru-sarreren eta egindako fakturen kapituluan, Foru Arau honetako 113 bis artikuluko 1. apartatuko a) letran aipatutako sinadura elektronikoa duten fitxategi informatikoak erregistratuko dira bereziki.

**115. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrerak egitera behartuta dagoenaren betebehar formalak.**

Atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko betebeharra duen subjektuak atxikitako kopuruei edo kontura sartutako kopuruei buruzko aitorpena aurkeztu behar du, erregelamendu bidez ezarritako leku, modu eta epean: atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharrik ez dagoenean, aldiz, aitorpen negatiboa aurkeztu behar du. Aldi berean, atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpen bat aurkeztuko du, erregelamendu bidez zehaztutako edukiarekin.

Atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dagoen subjektuak haiei dagozkien agiriak gorde behar ditu eta egin dituen atxikipenen edo konturako sarreren egiaztagiriak eman behar ditu, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onetsiko ditu horretarako aitorpen-ereduak.

**116. artikulua. Informazioa emateko beste betebehar formal batzuk.**

Erregelamendu bidez, informazioa emateko betebeharrak finkatu dakizkieke eragiketa hauek egiten dituzten edo egoera hauetan dauden pertsona eta entitate hauei:

a) Maileguak ematen dituzten entitateei -etxebizitzak eskuratzeko emandako maileguei dagokienez-.

b) Atxikipenik gabeko lanaren edo kapitalaren errentak ordaintzen dituzten entitateei.

c) Sariak ordaintzen dituzten entitateei zein pertsona juridikoei, nahiz eta sariok errenta salbuetsitzat jo zerga honen ondorioetarako.

d) Zerga honetan kenkarirako eskubidea ematen duten dohaintzak jasotzen dituzten entitateei -dohaintza emailearen identitateari eta jasotako zenbatekoei dagokienez-, zerga honen autolikidazioaren ondorioetarako dohaintzaren ziurtagiria eskatu dutenean.

e) Kreditu-erakundeei -haietan etxebizitza-kontu gisa gordailatutako diru kopuruei dagokienez-. Ondorio horietarako, zergadunek kreditu-erakundearen aurrean identifikatu beharko dute zer kontu erabiltzen diren helburu horretarako.

f) Espainian zerbitzuak libre emateko araubidean diharduten Europako esparru ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratutako aseguru-erakundeei, Espainian egiten diren eragiketei dagokienez.

g) Foru arau honetako 107. artikuluko 1. zenbakiko c) letrako azkenaurreko paragrafoan jasota dauden entitateei, Espainian egiten diren eragiketei dagokienez.

h) Langileen sindikatuei, haiei ordaindutako kuotei dagokienez, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

i) Alderdi politikoei -haien antolaketa politikorako foru arau honetako 22. eta 93. artikuluetan ezartzen diren baldintzetan jasotako afiliazio-kuota eta diruzko ekarpenei dagokienez-.

j) Kooperatibei -kooperatibari eginiko ekarpen sozialen eskualdaketa itzulketatik sorturiko errentei dagokienez-.

k) Sektore publikoari —hark ematen dituen laguntza publiko, prestazio eta diru-laguntzei dagokienez—.

l) Jaulkipen-prima banatzen duten edo ekarpenak itzuliz kapitala murrizten duten entitateei, atxikipenik ez duten banaketei dagokienez.

m) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak kudeatzeko entitateentzat, eta finantza-entitateentzat, funts horietako partaidetzei dagokienez eta haietako partaidetzak eskuratzeko gordetako kopuruekin.

## XIII. TITULUA
## ONDARE ERANTZUKIZUNA ETA ZEHAPEN ARAUDIA

### 117. artikulua. Zergadunaren ondare-erantzukizuna.

Zerga honengatik sortutako zerga-zorrek eta zerga-zehapenek Kode Zibileko 1.365. artikuluan aipatutakoen izaera bera izango dute. Ondorioz, ondasunen foru-komunikazioan, irabazpidezko ondasunek edo irabazitako ondasunek zuzenean erantzungo diote Foru Aldundiari, zor eta zehapen horiek direla eta, baldin eta ezkontideetako batek hartutakoak badira; nolanahi ere, foru arau honetako 98.5 artikuluan baterako tributaziorako ezarritakoa ere aplikatzekoa izan daiteke.

Aurreko lerroaldean ezartzen dena orobat aplikatuko zaie izatezko bikoteei, baldin eta bikote horretako kideek ezarritako ondare- eta ekonomia-araubideari Kode Zibileko manu hori aplikatu behar bazaio.

### 118. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Zerga honen arau-hausteak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko IV. tituluan xedatutakoaren arabera zehatuko dira, artikulu honen hurrengo apartatuetan eta Foru Arau honen gainerako manuetan jasotako berezitasunen kalterik gabe.

2. Zerga-arloko arau-hausteak dira hauek:

a) Foru Arau honetako 113 bis artikuluan eta berau garatzeko xedapenetan ezarritakoarekin bat, ekonomia-jarduera baten barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat ez erabiltzea.

b) Ekonomia-jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen euskarri diren softwarea eta fitxategi informatikoak —Foru Arau honen 113 bis artikuluan aipatzen dira— suntsitzea, ezabatzea edo manipulatzea.

3. Zehapen hauek ezarriko dira aurreko apartatuan adierazitako arau-hausteengatik:

a) Aurreko apartatuko a) letran aipatzen den ez-betetzeagatik, zergadunari negozio-zifraren %20ko diru-isun proportzionala ezarriko zaio. Isun hori 20.000 eurokoa izango da, gutxienez.

Jarduera egin den denbora urtebete baino laburragoa izan bada, aurreko kopurua konputatzeko, egindako eragiketak urtekotu egingo dira.

Arau-haustea jarduera hasi denean egiten bada, lehenengo ekitaldiari dagokion negozio-zifra hartuko da kontuan, eta, ekitaldi hori urtea baino laburragoa bada, ekitaldi horretako negozio-zifrari dagokion magnitudea urtekotu egingo da.

Subjektu arau-hausleari, ez-betetze honek eragindako arau-haustea dela eta, zehapen bat ezarri bazaio arau-hauste hau egiteagatik aurreko lau urteen barruan, eta zehapen hori administrazio-bidean ebazpen irmo bidez ezarri bazaio, zehapena negozio-zifraren %30eko diru-isun proportzionala izango da. Isun hori 30.000 eurokoa izango da, gutxienez.

b) Aurreko apartatuko a) letran aipatzen den ez-betetzea noizbehinkakoa denean, 2.000 euroko zehapena jarriko da ez-betetze hori gertatu den eragiketa bakoitzeko.

Ondorio horietarako, ez-betetzea noizbehinkakoa dela ulertuko da egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat erabiltzeko betebeharra bete ez duten eragiketen zenbatekoa arau-haustea gertatu den zergaldiko negozio-zifraren %2 baino handiagoa ez bada.

Hala ere, Zerga Administrazioak egiaztatzen badu arau-hausteari dagokion zergaldia amaitu gabe zegoela egiaztapena egin den unean, arau-haustea noizbehinkakotzat joko da aurreko paragrafoan aipatzen diren eragiketen zenbatekoa zergaldiaren une horretara arte egindako negozio-zifraren %2 baino handiagoa ez bada.

c) Aurreko apartatuko b) letran aipatzen den ez-betetzeagatik, zergadunari negozio-zifraren %20ko diru-isun proportzionala ezarriko zaio. Isun hori 40.000 eurokoa izango da, gutxienez.

Ezin izango dira aldi berean ezarri zehapen hau eta aurreko a) letran xedatutako zehapena.

Jarduera egin den denbora urtebete baino laburragoa izan bada, aurreko kopurua konputatzeko, egindako eragiketak urtekotu egingo dira.

Arau-haustea jarduera hasi denean egiten bada, lehenengo ekitaldiari dagokion negozio-zifra hartuko da kontuan, eta, ekitaldi hori urtea baino laburragoa bada, ekitaldi horretako negozio-zifrari dagokion magnitudea urtekotu egingo da.

Subjektu arau-hausleari, ez-betetze honek eragindako arau-haustea dela eta, zehapen bat ezarri bazaio arau-hauste hau egiteagatik aurreko lau urteen barruan, eta zehapen

hori administrazio-bidean ebazpen irmo bidez ezarri bazaio, zehapena negozio-zifraren %30eko diru-isun proportzionala izango da. Isun hori 60.000 eurokoa izango da, gutxienez.

d) Zerga Administrazioak egiaztatzen badu Foru Arau honetako 113 bis artikuluan aipatzen diren zergadunaren ekonomia-jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen euskarri diren softwarea eta fitxategi informatikoak programa informatikoa garatu duen pertsonak edo erakundeak suntsitu, ezabatu edo manipulatu dituela edo zergaduna ez den pertsona batek aldatu duela edo sistema informatikoaren gainean kontrola izan duela edo duela, pertsona edo erakunde hori joko da arau-hausletzat, eta b) letran xedatutakoa aplikatzearen ondorioz zergadunari aplikatu ahal zaion zenbateko bera ezarriko zaio zehapen gisa. Subjektu arau-hausleari, ez-betetze honek eragindako arau-haustea dela eta, zehapen bat ezarri bazaio arau-hauste hau egiteagatik aurreko lau urteen barruan, eta zehapen hori administrazio-bidean ebazpen irmo bidez ezarri bazaio, b) letran xedatutakoaren arabera zergadunari aplikatu ahal zaion zenbateko bera ezarriko zaio zehapen gisa, eta gutxienez, 60.000 euroko isuna izango da.

4. Artikulu honetako 2. apartatuko c) eta d) letretan ezarritakoaren ondorioetarako, kasu hauetan ulertuko da pertsona edo erakunde batek zergadunaren jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen euskarri diren softwarearen eta fitxategi informatikoen suntsipen, ezabatze edo manipulazioan esku hartu duela:

- Softwarea edo artxibo, fitxategi edo erregistro informatikoak aldatu dituenean.

- Sistema informatikoaren, softwarearen edo artxibo, fitxategi edo erregistro informatikoen gaineko kontrola izan duenean edo duenean.

- Zergadunei edo beste pertsona edo erakunde batzuei elementu horiek suntsitu, ezabatu edo manipulatzeko sistemak, bitartekoak edo metodoak eman dizkienean.

- Suntsipen, ezabatze edo manipulazio horretarako jarraibideak eman edo erakutsi dituenean

- Egite edo ez-egite bat egiten duenean, berez suntsipen, ezabatze edo manipulaziotzat jo ezin bada ere, prozesu horren parte den egite edo ez-egite bat bada eta, beste pertsona edo erakunde batzuen egite edo ez-egitearekin batera, suntsipen, ezabatze edo manipulazio hori eragiten badu.

5. Artikulu honetan ezarritako arau-hausteak eta zehapenak bateragarriak izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 207. artikuluan ezarritakoekin.

   Hala ere, aurreko 3. apartatuan ezarritako zehapenetako bat ezartzen denean ezin izango da ezarri Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 207.2.b) artikuluko bigarren paragrafoan ezarritako zehapena.

6. Aurreko apartatuan ezartzen dena betez jartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

## XIV. TITULUA
## JURISDIKZIO-ORDENA

### 119. artikulua. Jurisdikzio-ordena.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da -aurretik bide ekonomiko-administratiboa amaitu eta gero- jurisdikzio eskudun bakarra, foru arau honetan aipatzen diren gaietako

edozein dela-eta Administrazioaren eta zergadunen, atxikitzaileen nahiz gainerako zergapekoen artean gerta daitezkeen izatezko eta zuzenbideko eztabaidak ebazteko.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehenengoa. Izatezko bikoteak.

Foru-arau honen ondorioetarako, izatezko bikoteak aipatzen direnean ulertuko da Izatezko bikoteak arautzeko Eusko Legebiltzarraren 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikoteak direla.

Berebat, ulertuko da aipamen horiek honelako izatezko bikoteak ere hartzen dituztela aintzat: beste autonomia-erkidego batzuetako, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako, Europako Esparru Ekonomikoko edo beste herrialde batzuetako erregistro publikoetan modu berean eratu eta inskribatutakoak.

Era berean, ezkontza bidezko ahaidetasun-harremanei egindako aipamenetan, izatezko bikotea eratzearen ondoriozko harremanak ere sartuko dira.

### Bigarrena. Nazioarteko bake eta segurtasun-operazioetako partaideen aldeko salbuespena.

Nazioarteko bake- eta segurtasun-operazioetako partaideek jasotzen dituzten kalte-ordainak salbuetsita daude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik eta haien gaineko edozein zerga pertsonaletik salbuetsita egongo dira; kalte-ordainok 2004ko azaroaren 5eko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuan aipatzen dira, nazioarteko bake- eta segurtasun-operazioetako partaideen aldeko kalte-ordainei buruzkoan.

### Hirugarrena. Erregistro berezian inskribatutako itsasontzietako zenbait tripulatzailerentzako salbuespena.

Salbuetsita egongo da itsasontzietako tripulatzaileek beren lan pertsonalagatik lortzen dituzten etekinen %50, baldin eta etekin horiek 1994 uztailaren 6ko 19/1994 Legeko 75. artikuluan aipatzen den ontzien eta ontzi-enpresen erregistro berezian inskribatutako itsasontzietan egindako nabigazioaren ondorioz sortutakoak badira; lege hori Kanarietako araubide ekonomiko eta fiskala aldatzeko da.

### Laugarrena. Aurrezki sistematikorako banakako planak.

1. Aurrezki sistematikorako banakako planetatik jasotzen den biziarteko errentak foru arau honetako 36.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera tributatuko du. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen dituen Legeko hirugarren xedapen gehigarrian arautzen dira plan horiek.

2. Zergadunak, biziarteko errenta eratu baino lehenago, osorik edo partez erabiltzen baditu metatutako eskubide ekonomikoak, orduan foru arau honetan xedatutakoaren arabera tributatuko da, egindako erabilpenaren proportzioan. Horren ondorioetarako, berreskuratutako kopurua lehenengo ordaindutako primei dagokiela iritziko da, haien errentagarritasuna barne.

   Eratutako biziarteko errentaren ondoriozko eskubide ekonomikoak guztiz edo partez aurreratzekotan, zergadunak aurreratze hori egiten den zergaldian integratu beharko du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudiaren indarrez salbuetsita egon zen errenta.

3. Honelako kontratuetan prima moduan gehienez ere 8.000 euro ordaindu ahal izango dira urtero, eta muga horrek ez du zerikusirik gizarte-aurreikuspeneko sistemetako ekarpenek dituzten mugekin. Orobat, kontratu hauetan metatutako prima guztien zenbatekoa ezin izango da 240.000 euro baino handiagoa izan zergadun bakoitzeko.

4. Ordaindutako lehenengo primak bost urte baino gehiagoko antzinatasuna izan beharko du, biziarteko errenta eratzen den unean.

**Bosgarrena. Zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatearen bidez zehazten diren ekonomia-jardueren etekinen gaineko atxikipena.**

Zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatearen bidez zehazten diren ekonomia-jardueren etekinak atxikipenari loturik egongo dira, arauz ezartzen diren kasu, portzentaje eta baldintzen arabera.

**Seigarrena. Araudiari buruzko aipamenak.**

Foru araudian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 21eko 6/2006 Foru Arauari buruz jasotako aipamen guztiak foru arau honetako xedapenei buruz egindakotzat ulertuko dira.

**Zazpigarrena. Ondare-irabazi salbuetsiak.**

Foru arau honetako 42. artikuluko e) letran xedatutakoak preskribatu gabe dauden zergaldietan eskualdatutako ohiko etxebizitzetan sortuko ditu ondorioak.

**Zortzigarrena. Besteren konturako langileen mutualitateak.**

Zerga-oinarri orokorra murriztu ahal izango dute dena delako profesionalen elkargoek ezarrita dauzkaten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin itundutako aseguru-kontratuen ondorioz besteren konturako langile diren mutualista elkargokideek, beren ezkontide, izatezko bikotekide edo lehen mailako ahaide odolkideek eta mutualitate horietako langileek ordaindutako kopuruek, foru arau honetako 71. eta 72. artikuluetan jasotako baldintzetan, baldin eta mutualitateko organoen erabaki batek ahalbidetzen badu laguntzak Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8. artikuluan jasotako kontingentziak gertatzen direnean bakarrik kobratzea (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

**Bederatzigarrena. Kirolari profesionalen gizarte-aurreikuspeneko mutualitateari egindako ekarpenen eta jasotako prestazioen zerga-araubidea.**

1. Kirolari profesionalei eta goi mailakoei xedapen gehigarri honetako 3. zenbakian ezarritako tratamendua aplikatuko zaie tributuak direla-eta, baldin eta izaera hori aitortua badute aplikatzekoa den legeriaren arabera eta kirolari profesionalen mutualitateari ekarpenak egiten badizkiote (prima finkoko gizarte-aurreikuspeneko mutualitatea).

2. Xedapen gehigarri honetan ezarritako zerga-araubidea aplikatzeko, bete egin beharko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen dituen Legeko hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizun, ezaugarri eta baldintzak.

3. Kirolari profesionalen gizarte-aurreikuspeneko mutualitateari (prima finkoko gizarte-aurreikuspeneko mutualitatea) egindako ekarpenek eta hartatik eratorritako prestazioek zerga-araubide hau izango dute:

    a) Ekarpenek, zuzenekoek nahiz egotziek, murriztu egin ahal izango dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarri orokorra, muga honekin: etekin osoari gastu kengarriak kenduta gelditzen diren lan-etekinak gehi ekitaldian ekonomia-jardueretatik banaka lortutako etekin garbiak, baina 24.250 euro gehienez ere.

    b) Ezin izan bada murrizketarik egin zerga-oinarria nahikoa ez delako edo aurreko a) letran ezarritako muga aplikatu delako, hurrengo bost ekitaldietan egin ahal izango da ekarpen horiei dagokien murrizketa Erregela hau ez zaie aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-

egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen dituen Legeko hamaikagarren xedapen gehigarriko bat zenbakiko 2. azpi-zenbakian jasotako muga gainditzen duten ekarpenei.

c) Eskubide kontsolidatuak xedatzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren Legeak partzialki aldatzen dituen Legearen hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehenengo paragrafoaren 4. zenbakian aipatutakoez bestelako kasuetan, zergadunak bidegabe egindako murrizketei dagozkien zergaldiak zerga-oinarri orokorrean berrezartzeko betebeharra izango du, eta dagozkion berandutze-interesak sortuko dira. Zerga ordaintzeari dagokionez, egindako ekarpenen zenbatekoaren gainetik jasotako kopuruak (sustatzaileak egotzitako ekarpenak tartean, halakorik bada) lanaren etekintzat hartuko dira, jaso diren zergaldian.

d) Oso-osorik lan-etekin gisa tributatuko dute, foru arau honek jasotakoaren arabera, bai jasotako prestazioek, baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen dituen Legeko hamaikagarren xedapen gehigarriko bat zenbakiko 4. azpi-zenbakian ezartzen diren kasuetan jasotako eskubide kontsolidatuek ere.

e) Foru arau honetako 70.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, baldin eta zergadunak eskubide kontsolidatuak erabiltzen baditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen dituen Legeko hamaikagarren xedapen gehigarriaren bat zenbakiko 4. azpi-zenbakian aipatzen diren kasuetan baino beste batzuetan.

4. Aurreko zenbakian jasotako araubidea zeinahi dela ere, kirolari profesionalek eta goi mailakoek aukera izango dute ekarpenak egiten jarraitzeko kirolari profesionalen gizarte-aurreikuspeneko mutualitateari, kirolari gisa egiten zuten lan-jarduna amaitu arren edo izaera hori dagoeneko galdu arren.

   Ekarpen horiengatik murrizketak egin ahal izango dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarri orokorrean, ekarpen horietatik Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8. artikuluan jasotako kontingentziak estaltzeko den zatian (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

   Mutualisten eskubide kontsolidatuak bakarrik gauzatu ahal izango dira Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8. artikuluan pentsio-planei dagokienez jasotako kasuetan (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

   Ekarpenon baterako murrizketa muga gisa foru arau honetako 71.1 artikuluan ezarritako muga aplikatuko da.

   Foru arau honetako 70.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, baldin eta zergadunak eskubide kontsolidatuak erabiltzen baditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen dituen Legeko hamaikagarren xedapen gehigarriaren bat zenbakiko 4. azpi-zenbakian aipatzen diren kasuetan baino beste batzuetan.

**Hamargarrena. Informazioa emateko betebeharra.**

1. Erregelamendu bidez, informazioa emateko betebeharrak ezarri ahal izango zaizkie inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten sozietateei, inbertsio-sozietateei, egoitza Espainian edo atzerrian duten inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak edo

partaidetzak Espainiako lurraldean komertzializatzen dituzten entitateei, eta zerbitzuak libre emateko araubidean diharduen entitate kudeatzailearen izenean aritzen den eta 2004ko Zergen arloko Neurriei buruzko apirilaren 23ko 2/2004 Foru Arauko zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera izendatua den ordezkariari. Hain zuzen ere, entitateon akzio edo partaidetzen gaineko eragiketei gaineko informazioa eman behar dute, haien salmenta- eta erosketa-eragiketen emaitzari buruz daukaten informazioa barne.

...

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek informazioa eman beharko dute, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurraldeekin egiten dituzten edo haiekin zuzenean edo zeharka loturiko balore edo ondasunen ukantzaren ondorio diren eragiketa, egoera, kobrantza eta ordainketei buruz.

3. Erregelamendu bidez, informazioa emateko betebeharrak ezarri ahal izango dira kasu hauetan:

   a) Pertsonei edo entitateei, foru arau honetako 70. artikuluan aipatzen diren gizarte-aurreikuspeneko sistemei buruz.

   b) Finantza-entitateei, haiek komertzializatzen dituzten aurrezki sistematikorako banakako planei buruz -plan horiek foru arau honetako hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen dira-, edo biziarteko errenta aseguratuei buruz -errenta horiek foru arau honetako 42. artikuluko f) letran aurreikusten dira-.

   c) Gizarte Segurantzari eta mutualitateei, haien afiliatu edo mutualistengatik sortutako kotizazio eta kuotei buruz.

   d) Erregistro Zibilari, jaiotza, adopzio eta heriotzei buruz.

   e) Foru arau honen hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian arautuko kontratuak merkaturatzen dituzten erakundeak.

4. Bankuek, aurrezki-kutxek, kreditu-kooperatibek eta banku- edo kreditu-trafikoan diharduten pertsona fisiko nahiz juridiko guztiek, erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera, entitate horietan irekitako edo entitateok hirugarrenen eskura jarritako kontu guztien identifikazioa eskuratu beharko diote Zerga Administrazioari, zeinahi ere den haien modalitatea edo jasotzen duten izena, bai eta atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez denean ere.

   Informazio horren barruan, kontu horien titular baimenduen edo edozein onuradunen identifikazioa egongo da.

5. 2003ko azaroaren 18ko 41/2003 Legeko 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, babestutako ondareetarako ekarpenen formalizazioan esku hartzen duten pertsonek ekarpen horiei buruzko aitorpena aurkeztu beharko dute, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan (lege hori desgaitasuna duten pertsonen ondare-babesari eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea nahiz zerga-arautegia helburu horretarako aldatzeari buruzkoa da). Ogasun eta Finantzen foru diputatuak erabakitzen duen leku, modu eta epean egingo da aitorpena.

6. Espainian egoitza duten pertsonek eta entitateek eta atzerrian egoitza duten pertsonek edo entitateek Espainian dituzten establezimendu iraunkorrek, baldin eta hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak gordetzeko, moneta birtualak mantentzeko, biltegiratzeko eta transferitzeko zerbitzuak ematen badituzte, eta zerbitzu hori nagusiki edo beste jarduera bati lotuta ematen badute, Zerga Administrazioari eman beharko diote mantentzen dituzten moneta birtual guztiei buruzko informazioa, betiere erregelamenduan ezartzen denarekin bat etorriz. Hornidura horretan, diru birtual desberdin bakoitzeko saldoei buruzko

informazioa jasoko da, eta, behar denean, legezko erabilerako diruari buruzkoa, baita saldo horien titularren, baimenduen edo onuradunen identifikazioa ere.

7. Espainian egoitza duten pertsonek eta entitateek eta atzerrian egoitza duten pertsonek edo entitateek Espainian dituzten establezimendu iraunkorrek txanpon birtualen eta legezko erabilerako diruaren arteko edo moneta birtualen arteko truke-zerbitzuak ematen badituzte, edo edozelan eragiketa horiek egiteko bitartekari gisa jarduten badute, edo inoren izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen badituzte, moneta birtuala mantentzeko, biltzeko eta transferitzeko, Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaizkio arauetan ezarritakoaren arabera, moneta birtuala eskuratzeko, eskualdatzeko, trukatzeko eta transferitzeko eragiketak, baita moneta horietan egindako kobrantzak eta ordainketak ere, haietan esku hartzen badute edo bitartekari gisa jarduten badute. Horretarako, esku hartzen duten subjektuen zerrenda aurkeztu beharko da, hauexek adierazita: helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia, txanpon birtualen mota eta kopurua, eta eragiketaren prezioa eta data.

   Aurreko betebehar bera izango dute Espainian egoitza duten pertsonek eta entitateek eta atzerrian egoitza duten pertsonen edo entitateen Espainiako lurraldeko establezimendu iraunkorrek, moneta birtual berrien hasierako eskaintzak egiten badituzte eta beste moneta birtual batzuen edo legezko erabilerako diruaren truke ematen badituzte.

**Hamaikagarrena. Kuradoretzaren menpe dauden eta ordezkaritza-ahalmena duten pertsonen zerga-araubidea.**

Foru arau honetan % 65eko desgaitasun-maila edo handiagoa duten desgaituen alde aurreikusitako xedapen espezifikoak desgaitasuna duten pertsonei aplikatuko zaizkie, baldin eta, Kode Zibilaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan, ordezkaritza-ahalmena badute eta kuradoretzaren mende badaude, maila horretara iritsi ez arren.

**Hamabigarrena. Erreskate-eskubidea enpresek Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera pentsioengatik hartutako konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuetan (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).**

Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera hartutako pentsio konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuetan erreskate-eskubidea erabiltzearen ondorioz agertzen den errenta ez da lotuta egongo kasu bakoitzeko baliabide ekonomikoen titularraren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, honako kasu hauetan (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen):

a) Polizan bideratutako konpromisoak osorik edo partez sartzen badira lehenengo xedapen gehigarri horretan ezarritako betekizunak betetzen dituen beste aseguru-kontratu batean.

b) Lan-harremana amaitzen denean jatorrizko aseguru-kontratuaren arabera langileari dagozkion eskubideak aseguru kolektiboko beste kontratu batean sartzen badira.

Aurreko a) eta b) letretan jasotako kasuek ez dute aldatuko primek duten izaera enpresek haien egozpen fiskala egiteari dagokionez, ez eta jatorrizko aseguru-kontratuan ordaindutako primen antzinatasunaren konputua ere. Dena dela, aurreko b) letran jasotako kasuan, primak egotzi ez baziren, enpresak haien kenkaria egin ahal izango du, eskubideak beste aseguru batera aldatzen direla eta.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari lotu gabe geratuko da enpresek Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera pentsioengatik hartutako konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuek mozkinetan duten partaidetzaren ondorioz agertzen geratzen den errenta ere, baldin eta mozkinetako partaidetza hori kontratu horietan aseguratutako prestazioak gehitzeko

erabiltzen bada (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

**Hamahirugarrena. Ondare pertsonala osatzen duten ondasunak erabiltzea zahartzaroak eta mendetasunak dakartzaten beharrizan ekonomikoei erantzuteko.**

1. Ez dira errentatzat hartuko 65 urtetik gorako pertsonek beren ohiko etxebizitzaz baliatuz jasotzen dituzten kopuruak, eta berdin gertatuko da mendetasun larrian edo oso larrian dauden pertsonekin, hain zuzen ere, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legeak 26. artikuluan aipatzen dituenekin. Horretarako, baliatze horiek 2007ko abenduaren 7ko 41/2007 Legeko lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera egin behar dira. Lege horrek aldatu egiten du Hipoteka merkatua arautzeko 1981eko martxoaren 25eko 2/1981 Legea eta hipoteka- eta finantza-sistemaren beste arau batzuk, eta, halaber, alderantzizko hipotekak eta mendekotasun-asegurua arautzen ditu, eta zerga-arau jakin bat ezartzen du.

2. Etxebizitzaz baliatzen bada haren gaineko alderantzizko hipoteka bat eratuz, 2007ko abenduaren 7ko 41/2007 Legeko lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintzen arabera, onuradunak eragiketa horretatik aldian behin jasotzen dituen kopuruak (osorik edo partez) aurreikuspen-plan aseguratu bat kontratatzeko erabili ahal izango dira, foru arau honetako 70.1 artikuluan aurreikusitako baldintzei jarraituta. Horretarako, erretiro kontingentziaren berdintzat hartuko da (kontingentzia hori foru arau honetako 72.1.5.b) letran aurreikusten da) aurreikuspen-plan aseguratu horren hartzaileak bizirik irautea planeko lehenengo prima ordaindu denetik hamar urtera.

   Aurreikuspen-planeko hornidura matematikoa ezingo da gizarte-aurreikuspeneko beste tresna batera aldatu, eta ezingo dira tresna horretara aldatu gizarte-aurreikuspeneko beste sistema batzuetako hornidura matematikoak edo eskubide kontsolidatuak.

**Hamalaugarrena. Gauzazko ordainketak.**

Ez dira gauzazko ordainketatzat hartuko diruaren legezko interes-tasa baino txikiagoa duten maileguak, 1992ko urtarrilaren 1a baino lehenago itunduak badira eta haien printzipala egun hori baino lehen jarri bazen mailegu-hartzailearen esku.

**Hamabosgarrena. Negoziatzeko onartuta ez dauden balore eta partaidetzak kapital-murrizketa baten ostean eskualdatzea.**

1. Espainiako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartuta ez dauden balore eta partaidetzak eskualdatu baino lehen kapital-murrizketa bat egin bada, balio nominala gutxituz, baina gutxitze horrek ez badie berdin eragin zergadunak zirkulazioan dituen balore eta partaidetza guztiei, orduan, foru arau honetako IV. tituluko V. kapituluan jasotako erregelak aplikatuko dira, berezitasun hauek kontuan izanik:

   1. Eskualdaketa-baliotzat hau joko da: foru arau honetako 41.2.a) artikuluan ezarritakoa aplikatzetik ateratzen den balio nominalaren arabera balore-partaidetzoi legokiokeen eskualdaketa-balioa.

   2. Zergadunak ez baditu bere balore edo partaidetza guztiak eskualdatzen, benetan eskualdatutako baloreen edo partaidetzen balio nominalari dagokion eskualdaketa-balioaren eta aurreko lerroaldean aipatzen den eskualdaketa-balioaren arteko diferentzia positiboa kenduko zaio gainerako balore edo partaidetza homogeneoen eskuraketa-balioari, hura deuseztatu arte. Ondare-irabazi gisa zergapetuko da eragiketa horretatik atera daitekeen soberakina.

2. Aurreko zenbakian jasotako arauak aplikatuko dira ondare-sozietateen baloreak edo kapitaleko partaidetzak eskualdatzen diren kasuetan.

**Hamaseigarrena. Eskubide ekonomikoak gizarte-aurreikuspeneko sistemen artean mobilizatzea.**

Foru arau honetako 70. eta 72. artikuluetan aipatzen diren gizarte-aurreikuspeneko sistemetako eskubide ekonomikoak mobilizatzeak ez du zerga-ondoriorik ekarriko, baldin eta erregelamendu bidez ezartzen diren betekizun eta baldintzak betetzen badira eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen berariazko araubidea errespetatzen bada.

**Hamazazpigarrena. Sozietateen gaineko Zergaren karga-tasa orokorra aplikatzen ez zaien kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek egindako kapital-murrizketak (ekarpenak itzulita) eta jaulkipen-primen banaketak.**

1. Foru arau honetako 34. artikuluko e) letran eta 41.2.a) artikuluko bigarren lerroaldean ezarritakoa gorabehera, Sozietateen gaineko Zergaren karga-tasa orokorra aplikatzen ez zaien kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek (Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legean arautzen dira) kapital-murrizketak egiten badituzte ekarpenak itzultzeko eta akzioen jaulkipen-prima banatzen badute, honela zehaztuko da bazkideek edo partaideek integratu beharreko errenta:

   a) Kapital-murrizketaren helburua ekarpenak itzultzea bada, hau izango da integratu beharreko errenta: murrizketen zenbatekoa edo jasotako ondasun eta eskubideen merkatu-balio normala. Errenta hau kapital higigarriaren etekintzat joko da, foru arau honetako 34. artikuluko a) letran ezarritakoaren arabera. Errentaren gehieneko kopurua bi hauetako handiena izango da:

      - Akzioen likidazio-balioaren gehikuntza, eskuratu edo harpidetu zirenetik sozietatearen kapitala murriztu arte.

      - Kapital-murrizketa banatu gabeko mozkinen ondoriozkoa bada, berriz, mozkinon zenbatekoa. Ondorio horietarako, kapital-murrizketak, helburua edozein dela ere, banatu gabeko mozkinetatik datorren sozietatearen kapitalaren zatiari eragingo dio lehendabizi, hura deuseztatu arte.

      Muga horretatik gora dagoen kopurua akzioen eskuraketa-balioa gutxitzeko erabiliko da, foru arau honetako 41.2 a) artikuluko bigarren lerroaldeko erregelak aplikatuta, hura deuseztatu arte. Gainera, soberakinik badago, mota guztietako erakundeen funts propioetako partaidetzaren ondorioz lortutako kapital higigarriaren etekintzat hartuko da, jaulkipen-primaren banaketa egiteko ezarri den moduan.

      Letra honetan araututako kapital higigarriaren etekinei inola ere ez zaie aplikatuko foru arau honetako 9.24 artikuluan ezarritako salbuespena.

   b) Kapital aldakorreko inbertsio-sozietateetako akzioen jaulkipen-prima banatzen den kasuetan, lortutako zenbateko osoa integratuko da, eta ezingo da aplikatu akzioen eskuraketa-balioa gutxitzeari buruz foru arau honetako 34. artikuluko e) letran ezarritakoa.

2. Aurreko 1. zenbakian xedatutakoa berdin aplikatuko zaie beste estatu batzuetan erregistratutako inbertsio kolektiboko erakundeei, kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen baliokide direnei, inbertsiogile talde murritzak direla eta dituzten mugak gorabehera, haien akzioak eskuratzen, lagatzen edo erreskatatzen direnean. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauak araututako sozietateei, berriz, kasu guztietan aplikatuko zaie (zuzentarau horren bidez higigarrien baloreetako inbertsio kolektiboko erakunde batzuei buruzko lege-, arau- eta administrazio-xedapenak koordinatu dira).

**Hamazortzigarrena. Loteria eta apustu jakin batzuetako sarien gaineko karga berezia.**

1. PFEZaren zergadunek lortutako zenbait sari zerga horri lotuta egongo dira, karga berezi baten bidez. Hona hemen sariok:

a) Estatuko Loteria eta Apustuen Estatu Sozietateak edo autonomia erkidegoetako organo edo entitateek antolatutako loteria eta apustuetan irabazitako sariak, Espainiako Gurutze Gorriak antolatutako zozketetan irabazitakoak eta Espainiako Itsuen Erakundeari baimendutako joko-modalitateetan irabazitakoak.

b) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetan irabazteko asmorik gabe gizarte- edo laguntza-lanetan ari diren erakunde publikoek edo entitateek antolatzen dituzten loteria, apustu eta zozketetako sariak, baldin eta antolatzaileon helburuak aurreko letran azaldu diren erakunde eta entitateenak bezalakoak badira.

Karga berezia saritutako loteriako dezimo, zatiki edo kupoi bakoitzari edo saritutako apustu bakoitzari aplikatuko zaio.

2. Sari osoa 40.000 euro edo gutxiago bada, sari hori karga berezia ordaintzetik salbuetsita egongo da. Sari osoa 40.000 euro baino gehiago bada, berriz, karga berezia ordaindu beharko da, zenbateko hori gainditzen duen sariaren zatia dela eta.

   Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta loteriaren dezimo, zatiki edo kupoiaren edo apustuaren kostua gutxienez 0,50 euro bada. Kostua 0,50 euro baino gutxiago bada, aurreko lerroaldean adierazitako zenbateko salbuetsia modu proportzionalean murriztuko da.

   Sariaren titulartasuna pertsona batek baino gehiagok badute, aurreko lerroaldeetan ezarritako zenbateko salbuetsia titular guztien artean hainbanatuko da, bakoitzari dagokion kuotaren arabera.

3. 2. zenbakian ezarritako zenbateko salbuetsia gainditzen duen sariaren zenbatekoa izango da karga bereziaren zerga-oinarria. Gauzazko saria bada, zerga-oinarriaren zenbateko hau izango da: sariaren merkatu-balioak 2. zenbakian ezarritako zenbateko salbuetsia gainditzen duen zatia ken konturako sarrera.

   Sariaren titulartasuna pertsona batek baino gehiagok badute, zerga-oinarria titular guztien artean hainbanatuko da, bakoitzari dagokion kuotaren arabera.

4. Aurreko 3. zenbakian ezarritako zerga-oinarriari 100eko 20ko tasa aplikatuz kalkulatuko da karga bereziaren kuota osoa. Kuota horri xedapen gehigarri honen 6. zenbakian ezarritako atxikipenen edo konturako sarreren zenbatekoan kenduko zaio.

5. Lortutako saria ordaintzen den unean sortuko da karga berezia.

6. Xedapen gehigarri honetan ezarritako sariei atxikipena edo konturako sarrera aplikatuko zaie, PFEZari buruzko Foru Arauko 106, 115 eta 116. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

   Atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea %20 izango da. Atxikipenaren edo konturako sarreraren oinarria, berriz, karga bereziaren zerga-oinarriaren zenbatekoaren araberakoa izango da.

7. Xedapen gehigarri honetako sariak lortu dituzten zergadunek ez dute autolikidaziorik aurkeztu beharko karga berezi hau dela eta.

   Hala ere, autolikidazioa aurkeztu beharko da, baldin eta lortutako saria 2. zenbakian ezarritako zenbateko salbuetsitik gorakoa bada edo atxikipenik edo konturako sarrerarik aplikatu ez bada 6. zenbakian xedatutakoarekin bat. Halakoetan, kasuan kasuko zerga-zorraren zenbatekoa zehaztuko da, eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarriko duen lekuan, moduan eta epeetan ordainduko da zor horren zenbatekoa.

8. Zergaren zerga-oinarrian ez dira sartuko xedapen gehigarri honetan zehaztutako sariak, eta haien zenbatekoa ez da kontuan hartuko foru arau honetako 102.2c) artikuluan xedatutako ondorioetarako. Foru arauan xedatutakoarekin bat aplikatutako atxikipenek edo konturako

sarrerek ez dute gutxituko zergaren kuota likido osoa, eta ez dira kontuan hartuko foru arauko 112. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

9. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko 2013ko urtarrilaren 1aren aurretik egindako jokoen ondoriozko sariei.

**Hemeretzigarrena. Gauzazko ordainsariak, 2014an eta 2015ean etxebizitza erabiltzetik datozenak.**

2014ko eta 2015eko ekitaldietarako, foru arau honetako 60.2.a) artikuluaren lehenengo lerroalde honela geratuko da idatzirik:

> «a) Ordaintzailearen jabetzako etxebizitza bat erabiltzen den kasuetan, hau da gauzazko etekina: etxebizitza hori dela-eta Ondarearen gainezko Zergari buruzko Foru Arauan xedatzen denaren arabera konputatu behar den balioa bider %16 egitetik ateratzen den zenbatekoa.».

**Hogeigarrena. Irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren aldaketa.**

Aldatu egiten da Irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko 2004ko apirilaren 7ko 1/2004 Foru Arauko 21. artikulua, eta honela geratuko da:

> «1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eskubidea izango dute kuota osotik kentzeko foru arau honetako 20. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatutako kenkariaren oinarriaren %20.».

**Hogeita batgarrena. Ondarearen gaineko zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauaren aldaketa.**

1. Berridatzi egiten da Ondarearen gaineko zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauko 5. artikuluko bost zenbakiko f) letra, eta honela geratuko da idatzita:

> «f) Mendetasuna estaltzen duten aseguru pribatuei (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 70.1.7 artikuluan aipatzen dira) ordaindutako primei dagozkien eta eduki ekonomikoa duten eskubideak.» .

2. Berridatzi egiten da Ondarearen gaineko zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauko 5. artikuluko hamaika zenbakia, eta honela geratuko da idatzita:

> «Hamaika. Zergadunaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko zortzi zenbakian definitzen den bezala: gehieneko zenbatekoa 400.000 euro izango da.».

3. Berridatzi egiten da Ondarearen gaineko zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauko 6. artikuluko lau zenbakia, eta honela geratuko da idatzita:

> «Lau. Artikulu honek xedatzen duena betetzeko, aktibo bat ekonomia-jarduera bat garatzeko beharrezkoa dela joko da, baldin eta jarduera horri afektatuta badago, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 26. artikuluan ezartzen denaren arabera. Dena dela, salbuespena egongo da artikulu horren 1. zenbakiko c) letraren azken tartekian aurreikusten diren aktiboak direla-eta, zeren aktibook ekonomia-jarduerari atxikirik egon ahal izango baitira.
>
> Foru arau horretako 27. artikuluko 5. eta 6. erregeletan eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 31.3 artikuluan aipatzen diren aktiboen kasuan, manu horiek aktiboen gastuak kengarritzat jotzen dituzten hein berean joko dira afektatutzat.» .

4. Berridatzi egiten da Ondarearen gaineko zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauko 12. artikuluko bat zenbakiko c) letra, eta honela geratuko da:

> «c) Ondasun higiezinek ez badaukate katastro-baliorik zergaren sortzapen-unean, edo atzerrian baldin badaude, haien eskuratze-balioaren ehuneko 50 konputatuko da, eta balio hori eguneraturik egon beharko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 45. artikuluaren 2. zenbakian moneta-zuzenketari buruz aipatzen dituen koefizienteen arabera.».

5. Berridatzi egiten da Ondarearen gaineko zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauko 13. artikuluko bigarren lerroaldea, eta honela geratuko da idatzita:

> «Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera joko dira ondasunak ekonomia-jarduerei afektatutzat. Foru arau horren 27. artikuluko 5. eta 6. erregeletan aipatzen diren aktiboak, berriz, erregela horiek aktiboon gastuak kengarritzat jotzen dituzten hein berean joko dira afektatutzat.» .

6. Berridatzi egiten da Ondarearen gaineko zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauko 33. artikuluko bat zenbakiko b) letra, eta honela geratuko da idatzita:

> «b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriari batu behar zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian aipatzen den dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen zenbatekoa.» .

7. Berridatzi egiten da Ondarearen gaineko zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarriko 1. zenbakiko c) letra, eta honela geratuko da idatzita:

> «c) Ondasun higiezinek ez badaukate katastro-baliorik zergaren sortzapen-unean, edo atzerrian baldin badaude, haien eskuratze-balioaren ehuneko 25 konputatuko da, eta balio hori eguneraturik egon beharko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 45. artikuluaren 2. zenbakian moneta-zuzenketari buruz aipatzen dituen koefizienteen arabera.».

**Hogeita bigarrena. Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributu-sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitu zuen 2002ko urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauaren aldaketa.**

1. Aldatu egiten da Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tributu-sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitu zuen 2002ko urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauko 10. artikulua, eta honela geratuko da idatzita:

> «10. artikulua.-Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
>
> Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 12.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenei dagozkien errentei foru arau horretan ezarritako xedapen orokorrak eta araua garatzeko erregelamenduzko xedapenak aplikatuko zaizkie, artikulu honetako hurrengo paragrafoetan biltzen diren berezitasunekin.
>
> Zerga honetatik salbuetsita daude testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenetako ondasun edo eskubideak eskualdatuz lortzen diren ondare-irabaziak edo -ga-lerak, baldin eta eskualdaketa horrek ez badakar Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena.
>
> Halaber, zerga honetatik salbuetsita daude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 35. artikuluan aipatutako kapital higigarriaren etekinak, baldin eta testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenen baitako besteren kapitalen erakarketa eta erabilera ordezten dituzten aktiboak eskualdatuz lortzen badira eta eskualdaketa horrek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez badakar.
>
> Zerga-oinarria zehazteari dagokionez, ekonomia-jardueren etekinak testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenen bidez lortutakotzat hartuko dira beti, kontuan hartu gabe ea betetzen duten ala ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 24. artikuluko 1. zenbakian ezarritako betekizuna.
>
> Likidazio-oinarri orokorra kalkulatzeko, hala badagokio, testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dagoen jaraunspenaren kargura epailearen erabakiz ordaindu den mantenurako urtekoaren ondoriozko murrizketa soil-soilik aplikatuko zaie zerga-oinarri orokorrari eta aurrezkiaren zerga-oinarriari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 67. eta 69. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko Legean xedatutakoaren arabera.
>
> Zergaren kuota likidoa kalkulatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 51.8, 88. eta 91. artikuluetan ezarritako kuota-kenkariak aplikatu ahal izango dira, eta ez besterik.
>
> Likidazio-oinarri negatiboak eta kuota nahikorik ez izateagatik aplikatu ez diren kuota-kenkariak soilik konpentsatu ahal izango dira testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dagoen jaraunspenari dagozkion likidazio-oinarri positiboekin eta positiboak diren kuota osoekin.
>
> Testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dagoen jaraunspenak zerga ordaindu beharko du, eta, era berean, foru arau honetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren

> 29ko 6/2006 Foru Arauan eta arau hori garatzeko erregelamenduzko xedapenetan ezartzen diren gainerako betebeharrak bete beharko ditu.
>
> Testamentu-ahalordearen erabilera oso eta ezeztaezina edo ahalorde hori azkentzeko beste edozein arrazoi abenduaren 31 ez den beste egun batean gertatzen bada, zergaldia egutegiko urtea baino laburragoa izango da. Hala denean, zergaldia egun horretan amaitu, eta zerga orduan bertan sortuko da.».

2. Aldatu egiten da Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tributu-Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunei egokitzen duen 2002ko urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauko 11. artikuluko 3. zenbakia, eta honela geratuko da idatzita:

> «b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriari batu behar zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian aipatzen den dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen zenbatekoa.» .

**Hogeita hirugarrena. Kapital higiezinaren etekinak 2014ko eta 2015eko zergaldietan.**

2014ko eta 2015eko zergaldietan, 58.4 artikuluan aipatzen den kapital higiezinaren etekina zehazteko, %10 aplikatuko zaio higiezinak Ondarearen gainezko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera duen balioari.

**Hogeita laugarrena. Negoziatzeko onartuta dauden baloreen ondoriozko ondare-irabazientzako aukerako tributazio-araubidea.**

Bat. Foru arau honetako 47.1.a) artikuluan aipatzen diren baloreak kostu bidez eskualdatzen dituzten zergadunek bi hauetako bat aplikatzea aukeratu dezakete: batetik, artikulu horretan bertan eskualdaketaren ondoriozko ondare-irabazia kalkulatzeko xedatzen dena; bestetik, eskualdaketa-balioaren gaineko %3ko karga berezia, baldin eta balio hori 10.000 euro baino txikiagoa bada zergaldi bakoitzean eskualdatutako balore guztiak kontuan hartuta.

Xedapen honetan ezarritakoa ez zaio aplikatuko balore horietatik datozen harpidetza-eskubideen eskualdatzeari, eta haien eskualdatze- balioa ez da kontuan hartuko goian aipatzen diren eskualdatutako balore guztien eskualdatze-balioa zehazteko. Foru arau honetako 47. artikuluko 1. zenbakiko a) letrako bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera zehaztuko da zein den harpidetza-eskubideok eskualdatzearen ondoriozko ondare-irabazia.

Egiten den aukera berariaz adierazi behar da hura aplikatuko den ekitaldiko aitorpenean, Foru Arau honetako 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egindako aukera ezin izango da aldatu zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren.

Zergadunak erabakitzen badu aukerako araubide hori aplikatzea eta balore homogeneoak badaude, ulertuko da zergadunak eskualdatzen dituenak hark lehenengo eskuratutakoak direla.

Bi. Karga berezia aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa ez da sartuko foru arau honen 66. artikuluan aipatzen den aurrezkiaren zerga-oinarrian, eta kuota osoari gehituko zaio, 74. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hiru. Foru arau honetako 111. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egin ahal izango du, xedapen gehigarri honetan xedatutakoa aplikatuz, kasu hauetan:

a) Zergadunak ez badu autolikidaziorik aurkeztu edo autolikidazioan ez badu konputatu eskualdaketa horien ondoriozko ondare-irabazi edo -galerarik.

b) Zerga Administrazioak errekerimendua egin ondoren zergadunak ez badu modu nahikoan justifikatzen autolikidazioan konputatutako ondare-irabazi edo -galera.

Zerga Administrazioak behin-behineko likidazio-proposamenak bidali ahal izango ditu, xedapen gehigarri honetan xedatutakoa aplikatuz.

**Hogeita bosgarrena. Pentsio-planetako eskubide kontsolidatuen itzulketa ohiko etxebizitzaren gaineko exekuzio-prozeduran.**

1. Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategineko zazpigarren xedapen gehigarrian (2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina) aurrez ikusten da partaideek pentsio-planetako eskubide kontsolidatuen itzulketa egin dezaketela; bada, itzulketa horiek foru agindu honetan ezarritako zerga-araubidearen pean geratuko dira, eta eskubideon lehenengo itzulketa ere %60an integratuko da.

2. Aurreko atalean xedatutakoa aseguratuei ere aplikatuko zaie, baldin eta foru arau honetako 70. artikuluan aipatzen diren aurreikuspeneko plan aseguratuen, enpresen gizarte-aurreikuspeneko planen eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen itzulketak egiten badituzte zazpigarren xedapen gehigarrian aurrez ikusitakoaren ondorioz.

3. Aseguratuek zazpigarren xedapen gehigarrian aurrez ikusitako aseguru kolektiboetako eskubide kontsolidatuak itzultzean, aseguru kolektiboetarako ezarritako zerga-araubidea bete beharko da.

   Hain zuzen, foru arau honetako 19. artikuluko 2. zenbakiko c) letran ezarritakoaren arabera aplikatu beharreko portzentajea zehazteko, berdinetsi egingo dira aseguru kolektiboen itzulketak eta erretiro-prestazioak.

**Hogeita seigarrena. Arrantza-ontzi jakin batzuen tripulatzaileak.**

…

**Hogeita zazpigarrena. Pertsona fisikoek abenduaren 20ko 11/2019 Legean, Euskadiko kooperatibenean, xedatutako mendeko finantza-ekarpenen ondorioz lortutako etekinei aplikagarri zaien zerga araubidea.**

1. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 57. artikuluaren 5. paragrafoan aipatzen diren mendeko finantza-ekarpenetatik eratorritako errentak, edo, hala badagokio, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 60. artikuluaren 6. paragrafoa kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ondorioz lortutako etekin gisa kalifikatuko da, Foru Arau honen 35. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Ondoren adierazten diren egoerak noiz gertatzen edo gertatuko diren gorabehera, hau izango da aplikagarri den zerga tratamendua:

   a) Etekinak aurreko idatz zatian xedatutakoaren arabera kalifikatuko dira, balore horiek eskualdatzeko, berreskuratzeko, ordaintzeko, amortizatzeko, trukatzeko edo bihurtzeko eragiketetan.

      Zerga trataera bera izango dute saltzen dituzten erakundeekin epaiz kanpoko erabakien ondorio diren salerosketa edo transakzioek, ordainketa horiei konturako atxikipena egin zaien ala ez gorabehera.

   b) Tituluen harpidetzaren deuseztasuna deklaratzen duten epaiak direnean, esan nahiko du haien titularrak ondare irabazi edo galera bat izan duela, eta bata edo bestea epaia behin betiko bihurtzen den ekitaldiari egotziko zaiola. Horrelakoetan kontuan izango da bere alde onartutako berandutze interesen eta ordaindu behar duen zenbatekoaren, dagozkion berandutze interesak barne, artean dagoen alde garbia. Arrazoi horregatik, ordea, ez dira dagozkion autolikidazioak zuzenduko.

   c) Titulu horien kooperatiba jaulkitzaileei dagokienez, kooperatiba horiek konkurtso egoeran badaude eta titulu horiek konkurtso kreditu bihurtzen badira, zergadunek kreditu horren ondorio den ondare aldaketa errenta orokorrean sartu ahal izango dute, foru arau honen 62. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz edo xedapen gehigarri honen 1. idatz zatian araututako kalifikazioa aplikatzeagatik.

3. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoak ez du aldatuko kooperatiba jaulkitzaileen mendeko finantza-ekarpenen zerga-tratamendua, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Arauaren 18.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie beti.

**Hogeita zortzigarren. Mendeko finantza- ekarpenetatik eta lehentasunezko partaidetzetatik eta mendeko zorretik lortutako errenta negatiboak integratu eta konpentsatzeko araubidea.**

1. Foru arau honen 66. artikuluaren 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, paragrafo horren a) eta b) idatz zatietan aipatzen diren saldo negatiboen zatia, abenduaren 20ko 11/2019 Legearen, Euskadiko kooperatibenaren, 60. artikuluaren 6. paragrafoan aipatzen diren mendeko finantza-ekarpenen ondorio diren ondare galeren edo higigarrien kapitalaren etekin negatiboen emaitza dena, noiz gertatu den gorabehera, idatz zati horietan aipatutako saldo positiboarekin konpentsatu ahal izango dira, bata zein bestea.

   Konpentsazioa egiteko, hain zuzen, ez da kontuan hartuko galera edo etekin negatiboak zein egunetan gertatzen diren edo gertatu diren. Konpentsazio-araubide hau mendeko finantza-ekarpen horiek berrerosteko eta harpidetu edo trukatzeko eragiketengatik jasotako baloreen eskualdaketetatik datozen ondare-galerei eta kapital higigarriaren etekin negatiboei ere aplikatuko zaie.

2. Mendeko zorren baloreen eta Inbertsio-koefizienteei, baliabide propioei eta finantza-bitartekarien informazio-betekizunei buruzko 1985eko maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 2. xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan jaulkitako lehentasunezko partaidetzen kasuan, aurreko zenbakian xedatutako tratamendu bera aplikatuko zaio saldo negatiboetan ondare-galeretatik edo kapital higigarriaren etekin negatiboetatik datorren zatiari, baita berrerosteko eta harpidetu edo trukatzeko eragiketengatik jasotako baloreen eskualdaketetatik datozenei ere, kontuan izan gabe galera edo etekin negatiboak zein egunetan gertatzen diren edo gertatu diren.

3. Xedapen gehigarri honetan araututako integrazio- eta konpentsazio- araubidea 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da, 2. zenbakian ezarritakoa izan ezik. Kasu horretan, 2014ko urtarrilaren 1etik izango ditu ondorioak.

**Hogeita bederatzigarrena. Zuzeneko zenbatespen erraztuaren araubidea aplikatzea lehen sektorean.**

Foru arau honetako 25. artikuluko 1. zenbakiko b) letran ezarritako zenbatekoa ez zaie aplikatuko nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako eta baxurako arrantzako jarduerei.

**Hogeita hamargarrena. Zordunak konkurtso-prozeduretan lortutako errenten salbuespena.**

Zergatik salbuetsita egongo dira zordunek lortutako errenten zergak, baldin eta zorrak ordaintzeko kiten eta emateen ondorioz sortzen badira eta hauexetan ezarrita badaude: maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Konkurtso Legearen Testu Bateginean ezarritako prozeduran, Testu Bategin horren bigarren liburuko II. tituluan aipatzen den judizialki homologatutako birfinantzaketa-akordio batean, bigarren liburuko III. tituluan aipatzen den ordainketen judizioz kanpoko akordio batean edo testu bategin horren lehen liburuko XI. tituluko II. kapituluan aipatzen den ordaindu gabeko pasibotik libratzearen ondorioz, betiere zorrak jarduera ekonomikon ondoriozkoak badira.

**Hogeita hamaikagarrena. Onuraduntzat hipoteka-hartzekoduna duten aseguruetatik datozen etekinak.**

Aseguru batek estaltzen duen ezintasun-kontingentzia jasotzetik datozen errentak zergadunaren hipoteka-hartzekodunak jasotzen baditu haren onuradun gisa, baina zergadunaren hipoteka-zorra osorik edo zati batez amortizatzeko betebeharrarekin, bada,

errenta horiek onuraduna zergaduna bera litzatekeen kasuan izango luketen tratamendu bera izango dute. Nolanahi ere, errenta horiei ez zaie inoiz atxikipenik egingo.

Horretarako, hipoteka-hartzekoduna kreditu-erakunde bat izan behar da edo modu profesionalean hipoteka-maileguak edo -kredituak ematen dituen beste erakunde bat.

**Hogeita hamabigarrena. Mugaeguneratu baina kobratu gabeko kredituen ondoriozko ondare-galerak.**

Foru arau honetako 57. artikuluko 2. zenbakiko k) letran aurreikusten den denbora-egozpenerako erregela berezia aplikatzeko, k) letra horretako 3. zenbakiko inguruabarra bakarrik hartuko da kontuan urtebeteko epea 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera amaitzen denean.

**Hogeita hamahirugarrena. Epe luzerako aurrezki-planak.**

1. Epe luzerako aurrezki-plana zergadunaren eta aseguru- edo kreditu-erakunde baten arteko kontratu bat da, baldintza hauek betetzen dituena:

   a) Epe luzerako aurrezki-plan batera ekarritako baliabideak honela bideratu behar dira: Edo bizi-aseguru indibidual baten edo segidako aseguru batzuen bidez - xedapen gehigarri honetako 2. zenbakian aipatzen dira, eta epe luzerako bizi-aseguru indibidual deritze-, edo, bestela, finantza-gordailu edo -kontratuen bidez -xedapen gehigarri honetako 3. zenbakian aipatzen dira, eta epe luzerako aurrezkirako kontu indibidual batean sartuko dira-.

      Zergadun bat, aldi berean, epe luzerako aurrezki-plan baten titular soilik izan daiteke.

   b) Epe luzerako aurrezki-plana irekiko da lehenengo prima ordaintzen denean edo epe luzerako aurrezkirako kontu indibidualerako lehenengo ekarpena egiten denean -kasu bakoitzean dagokiona-, eta iraungi, berriz, plan horretako dirua erabiltzen denean edo zenbaki honetako c) letran ekarpenentzat ezarritako muga betetzen ez denean iraungiko da.

      Ondorio horietarako, epe luzerako aurrezkirako aseguru indibidualen kasuan ez da ulertuko aseguru horretako dirua erabili denik baldin eta aseguruaren muga-egunera ailegatutakoan aseguru-erakundeak prestazioaren zenbateko osoa eskualdatzen badu, zergadunak aginduta, zergadun horrek erakunde berarekin kontratatutako epe luzerako aurrezkirako beste aseguru indibidual batera. Kasu horietan, aseguru berrira eramandako prestazioaren zenbatekoa ez da kontuan hartuko zenbaki honetako c) letran ezartzen den 5.000 euroko mugari begira, eta foru arau honetako 9. artikuluko 32. zenbakian zehazten den epea zenbatzeko, berriz, planerako ekarpenak egiteko erabili zen lehenengo aseguruko lehenengo prima noiz ordaindu zen hartuko da aintzat.

   c) Epe luzerako aurrezki-plan batean ezin dira inoiz 5.000 euro baino gehiago jarri urtean, plana indarrean dagoen urte guztietan.

   d) Zergadunak kapital moduan bakarrik erabil dezake planean metatutako kapitala, osorik, eta ezin du planeko dirua zatika erabili.

   e) Aseguru-erakundeak edo kreditu-erakundeak bermatu behar du zergadunak, bizi-aseguru indibiduala muga-eguneratzen denean edo finantza-gordailu edo -kontratu bakoitza muga-eguneratzen denean, gutxienez, ordaindutako primen edo finantza-gordailu edo -kontratuari egindako ekarpenen %85aren baliokidea den kapitala jasoko duela.

      Aurrekoa gorabehera, bermea %100 baino txikiagoa bada, kontratatutako finantza-produktua gutxienez urtebeterako izan behar da.

2. Epe luzerako aurrezkirako aseguru indibiduala (SIALP) bizi-aseguru indibiduala da, baina ez da foru arau honetako 36. artikuluan aurreikusten diren bizi-aseguruen modukoa, ez ditu biziraupena edo heriotza ez diren kontingentziak estaliko, eta zergaduna bera izango da kontratatzailea, aseguratua eta onuraduna, heriotzaren kasuan izan ezik.

   Kontratuaren baldintzetan berariaz eta modu nabarmenean adierazi behar da epe luzerako aurrezkirako aseguru indibidual bat dela eta zer sigla dituen plan horrek (SIALP), eta 2016ko urtarrilaren 1etik sinatutako kontratuak soilik izan daitezke, eta foru arau honetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

3. Epe luzerako aurrezkirako kontu indibiduala diruaren gordailu-kontratu bat da, zergadunak kreditu-erakunde batekin egiten duena, eta haren kargura diru-gordailu bat edo gehiago eratu ahal izango dira, bai eta (Balore Merkatuari buruzko Legearen Testu Bategineko 37.6 artikulua garatzen duen) EHA/3537/2005 Aginduko bigarren artikuluko 1. zenbakiko azken paragrafoan definitzen diren moduko finantza-kontratuak ere, baldin eta haien baldintzetan zehazten bada bai ekarpenak bai muga-egunean egingo den likidazioa dirutan eta dirutan bakarrik egingo direla. Epe luzerako aurrezkirako kontu indibiduala ireki duen kreditu-erakunde berarekin kontratatu behar ditu zergadunak finantza-gordailu eta -kontratuok. Kontuaren etekinak, nahitaez, kontu indibidualean bertan sartuko dira, eta ez dira zenbatuko aurreko 1. zenbakiko c) letran ezarritako mugari dagokionez.

   Epe luzerako aurrezkirako kontu indibiduala bereziki identifikatu behar da, beste ezarpen-modu batzuetatik bereizita. Gainera, kontuan sartuta dauden finantza-gordailu eta -kontratuon identifikazioan kontuari berari buruzko aipamena jaso behar da.

   Kontratuaren baldintzetan berariaz eta modu nabarmenean adierazi behar da epe luzerako aurrezkirako kontu indibidual bat dela eta zer sigla dituen plan horrek (CIALP); 2016ko urtarrilaren 1etik sinatutako kontratuak soilik izan daitezke, foru arau honetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte, eta bertan sartuko dira egun horretatik aurrera kontratatutako finantza-gordailu eta -kontratuak.

4. Erakunde kontratugileek kontratuan bereziki adierazi behar dute, berariaz eta modu nabarmenean, xedapen gehigarri honetako 1. zenbakiko e) letrako bermeak zer zenbateko izango duen eta zer data hartuko duen kontuan; halaber adierazi behar dute bizi-aseguru indibidualeko edo finantza-gordailu edo -kontratuko kapitala zer baldintzatan erabil daitekeen muga-eguneratu aurretik edo noiz eta nola egin daitekeen ekarpen gehiago.

   Erakunde kontratugileek, gainera, kontratuan berariaz eta modu nabarmenean ohartarazi behar dituzte zergadunak, eta adierazi behar diete aldi berean epe luzerako aurrezkirako plan bakarraren titular soilik izan daitezkeela, urtean ezin dituztela 5.000 eurotik gorako ekarpenak egin, ez eta plan horretan eratzen den kapitala zatika erabili ere. Halaber jakinarazi behar diete zer ondorio fiskal dituen planean metatutako dirua planera lehenengo ekarpena egin zenetik bost urte igaro aurretik eta ondoren erabiltzeak.

5. Erregelamendu bidez garatu ahal izango dira epe luzerako aurrezkirako aseguru indibidualetako eskubide ekonomiko guztiak eta epe luzerako aurrezkirako kontu indibidualetan metatutako funts guztiak mobilizatzeko baldintzak, baina horrek ez du esan nahi baliabideak erabiliko direnik foru arau honetako 9 artikuluko 32. zenbakian ezarritakoari begira.

6. Foru arau honetako 9 artikuluko 32. zenbakian ezarritako epea amaitu aurretik metatutako kapitalaren zatiren bat erabiltzen bada edo ez bada betetzen xedapen honetako 1. zenbakiko c) letran ekarpenentzat ezarritako muga, erakundeak erregelamenduz ezartzen den zenbatekoaren besteko atxikipena edo konturako ordainketa egin beharko du plana ireki zenetik lortutako kapital higigarriaren etekin positiboak direla eta, plana iraungitzeak sor litzakeen etekinak ere kontuan hartuta.

7. Epe luzerako aurrezkirako plana indarrean dagoen urteetan lortzen diren kapital higigarriaren etekin negatiboak -plana iraungitzeak sor litzakeen etekinak barne- plana

iraungitzen den zergaldian egotziko dira, baina bakarrik egotziko dira salbuespena aplikatu zaien plan horretako etekin negatiboen batura gainditzen duten etekin negatiboak.

**Hogeita hamalaugarrena. Sozietateen gaineko Zergaren kargapeko sozietate zibilak.**

1. Sozietateen egoitza fiskaleko araudia dela-eta Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren sozietate zibiletako bazkideek ez dute beren zerga-oinarrian sartuko foru arau honetako 11. artikuluan ezarritakoaren arabera egotzi beharko litzaizkiekeen errenten parte proportzionala.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, sozietate zibil horietako bazkideek beren zerga-oinarriaren barruan sartu beharko dute sozietate zibilak lortutako errenta positiboa, bakoitzari dagokion proportzioan, eta erregela hauek aplikatuko zaizkie:

   a) Errenta positibo hori zerga-oinarrian sartuko dute, hain zuzen, sozietate zibilak bere ekitaldi soziala amaitzen duen egunaren ostean amaitzen den zergaldian.

   b) Zerga-oinarriaren barruan sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa kalkulatzeko, zerga-oinarria zehazteari buruz foru arau honetan bertan zein zerga honi buruzko beste xedapenetan ezarritako printzipio eta irizpideak jarraituko dira.

      Errenta osotzat joko da, hain zuzen, irizpide eta printzipio horiek aplikatzetik ateratzen den zerga-oinarriaren zenbatekoa.

   c) Xedapen gehigarri honetan jasotakoa aplikagarria zaien zergadunek, zerga honen aitorpenarekin batera, sozietate zibilari buruzko datu hauek aurkeztu behar dituzte:

      i) Sozietatearen izen edo izendazioa, eta sozietatearen egoitzaren lekua.

      ii) Administratzaileen zerrenda.

      iii) Balantzea eta galera-irabazien kontua.

      iv) Zerga-oinarriaren barruan sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa.

      v) Zerga-oinarrian sartu beharreko errenta positiboari dagokionez ordaindutako zergen justifikazioa.

   d) Xedapen gehigarri honetan ezarritakoa aplikagarria zaien zergadunek zerga honen kuota osotik kendu ahal izango dituzte Sozietateen gaineko Zergaren antzeko edo pareko zerga edo kargengatik ordaindutako zenbatekoak, zerga-oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion partean.

      Benetan ordaindutako zergatzat joko dira, alegia, sozietate zibilak nahiz hark partaidetutako sozietateek ordaindutakoak, baldin eta haien gaineko partaidetza-portzentajea Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 33. artikuluko 1. zenbakiko a) letran ezarritako portzentaje bera bada.

      Letra honetan aipatutako kenkariak ezin du gainditu zerga- oinarrian sartutako errenta dela-eta zerga honetan ordaindu beharreko kuota osoa, eta atzerrian ordaindutako zergak kenduz gero, kenkariaren zenbatekoa ezin da izan errenta Bizkaiko Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren arautegiaren menpean dagoen entitate batek ordainduz gero errenta hori dela-eta ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.

3. Ez dira zerga-oinarrian sartuko sozietate zibiletatik jasotako dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, ez eta sozietate horietako partaidetza eskualdatuz lortutako errentak ere, baldin eta errenta horiek zerga honen zerga- oinarrian integratu badira xedapen gehigarri honetan ezarritakoa aplikatuz.

   Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei.

Errenta positibo bera behin bakarrik integratu daiteke, nola eta zein entitatetan sortzen den kontuan hartu gabe.

**Hogeita hamabosgarrena. Finantza-erakundeekin lortutako akordioen ondorioz edo epaiak edo arbitraje-laudoak betetzearen ondorioz, maileguen interes- tasak mugatzeko klausulak itzultzeagatik jasotako kopuruei dagokien tratamendu fiskala.**

1. Zerga honen zerga-oinarrian ez dira sartuko, finantza-erakundeekin lortutako akordioen ondorioz, erakunde horiei maileguen interes-tasak mugatzeko klausulak direla-eta interes gisa aurretiaz ordaindutako zenbatekoetatik itzulitako kopuruak, eskudirutan jaso zein bestelako konpentsazio-neurri batzuen bidez jaso. Ez dira sartuko kalte-ordain gisa sortutako interesak ere.

2. Zergadunak aurretiaz ordaindutako zenbatekoek, 1. zenbakian ezarritako itzulketa eragin dutenek, tratamendu fiskal hau izango dute:

   a) Aurreko ekitaldietan, kopuru horiek ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkariaren oinarrian sartu direnean, haien gaineko kenkaria egiteko eskubidea galduko da, eta finantza-erakundearekin akordioa egin den ekitaldian sorrarazitako kuota likidoari oker kendutako kopuruak baino ez zaizkio gehitu beharko, betiere Administrazioak zerga-zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko duen eskubidea preskribatu gabe duten ekitaldietan kendutakoak badira. Kopuru horietan ez dira sartuko berandutze-interesak.

      Ez zaio aplikatuko goiko paragrafoan aurreikusitako batuketa, ukitutako zergadunarekin akordioa egin eta gero, finantza-erakundeak ohiko etxebizitza erosteko maileguaren printzipala gutxitzeko erabiltzen duen zatiari.

   b) Zenbateko horiek gastu kengarritzat hartzen badira aurreko ekitaldietan, eta Administrazioak dagokion likidazioaren bidez zerga-zorra zehazteko eskubidea preskribatu ez bazaie, zenbateko hori galdu egingo da, eta ondoriozko zenbatekoak dagokien aldiari egotzi beharko dizkio zergadunak, zehapenik, berandutze- interesik eta errekargurik gabe, akordioaren egunetik zerga honen aitorpena aurkezteko hurrengo epea amaitu arte.

   c) Finantza-erakundearekin kopuruak itzultzeko egindako akordioa baino lehen zerga honen deklarazioa aurkezteko epea amaitu gabe dagoen ekitaldietan ordaindu baditu zergadunak kopuru horiek, kopuruok eta a) letrako bigarren paragrafoan aipatzen diren kopuruak ez dira sartuko ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkariaren oinarrian, eta ez dira joko gastu kengarritzat ere.

3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa berdin aplikatuko da aurreko 1. zenbakian aipatutako kopuruak epai judizialak edo arbitrajelaudoak betearaztearen edo betetzearen ondorioz itzuli badira.

**Hogeita hamaseigarrena. Aldaketa terminologikoa**

Foru Arau honetan autolikidazioaz hitz egiten denean aitorpenaz ari dela ulertuko da.

**Hogeita hamazazpigarrena. Banakako pentsioen produktu paneuroparrak.**

Banakako pentsioen produktu paneuropar bati buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan arautitako banakako pentsioen produktu paneuroparrei borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei eta pentsio-planei dagokien tratamendua aplikatuko zaie zerga honetan.

Zehazki:

a) Pertsona aurreztaileek banakako pentsioen produktu paneuroparrei egindako ekarpenek zerga-oinarri orokorra murriztu ahal izango dute, borondatezko gizarte- aurreikuspeneko erakundeei, pentsio-planei eta gizarte-aurreikuspeneko beste sistema batzuei egindako

ekarpenetarako foru-arau honen 70. artikuluan ezarritako modu berean, eta artikulu horren 3. apartatuan ezarritako gehieneko mugan eta foru-arau honen 71. artikuluan gizarte-aurreikuspeneko sistemetarako ezarritako gehieneko muga bateratuan sartuko dira.

b) Banakako pentsioen produktu paneuroparren onuradunek jasotzen dituzten prestazioak lan-etekintzat hartuko dira beti, eta ez dira egongo oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari lotuta.

c) Zergadunak osorik edo zati batean erabiltzen baditu banakako pentsioen produktu paneuroparretatik datozen eskubide ekonomikoak pentsio-plan edo -funtsen araudian jasota ez dauden kasuetan, berriro jarri beharko ditu zerga-oinarri orokorrean behar ez bezala egin dituen murrizketak. Horretarako, aitorpen osagarriak egin beharko ditu, eta berandutze-interesak ere gehitu beharko ditu. Ekarpen erregularizatuen zenbatekoa gaindituta jaso diren kopuruek lan-etekin gisa tributatuko dute, jasotzen diren zergaldian.

**Hogeita hamazortzigarrena. Beste araudi baten pean dauden ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideak.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-araudiaren mende ez dauden ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideen kasuan, kontabilitate-irizpideen arabera ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar diren ekarpenak egiten dituztenean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 66 quater artikuluan araututako kenkariek muga hau aplikatuko dute: ekonomia-jardueren etekinez osatzen den zerga-oinarri orokorraren zatiarekin bat datorren zerga horren kuota osoaren % 25.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehena. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ondare-elementuetatik datozen ondare-irabazien zenbatekoa kalkulatzea.**

Bat. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratu diren eta ekonomia-jarduerei loturik ez dauden ondare-elementuak eskualdatzeagatik lortutako ondare-irabazien zenbatekoa honako erregela hauen arabera kalkulatuko da:

1. Oro har, foru arau honetako IV. tituluko V. kapituluan ezarritakoaren arabera kalkulatuko dira, ondare-elementu bakoitzerako. Horrela kalkulatutako ondare-irabazitik bereizi beharko da zein zati sortu den 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen, eta hauxe hartuko da halakotzat: eskuraketa-egunetik 2006ko abenduaren 31ra arte (bi egunak barne) igarotako egun kopuruari zergadunaren ondarean egon den egun kopuru osoarekiko proportzioan dagokion ondare-irabaziaren zatia.

   2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako ondare-irabaziaren zatia era honetan murriztuko da:

   a) Zergadunaren ondarean elementuak izan duen iraupen-alditzat honako hau hartuko da: elementua eskuratu den egunetik 1996ko abenduaren 31ra bitartean igarotako urte kopurua, goitik biribilduta.

      Eskualdatutako ondare-elementuetan hobekuntzak egin badira, elementu horiek ondarean izan duten iraupen-aldia honako hau izango da: hobekuntzak egin diren egunetik 1996ko abenduaren 31ra bitartean igarotako urte kopurua, goitik biribilduta.

   b) Eskualdatutako ondare-elementuak ondasun higiezinak, haien gaineko eskubideak edo (2015eko urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) Baloreen Merkatuari buruzko Legearen Testu Bategineko 314. artikuluan aipatutako entitateen baloreak badira —kanpoan utzita higiezinen merkatutan inbertitzeko sozietate edo funtsen kapital sozialaren edo ondarearen akzio edo partaidetzak—, murrizketa %11,11 izango da, aurreko letran adierazitako iraupen-aldiko urte kopurua bi baino handiagoa den urte bakoitzeko.

c) Eskualdatutako ondare-elementuak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan (finantza-tresnen merkatuei buruzkoan) definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartutako akzioak badira eta sozietate edo erakundeen funts propioetan parte hartzearen adierazgarriak badira, kanpoan utzita ondasun higigarri zein higiezinetan inbertitzen dituzten sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzioak, murrizketa %25ekoa izango da bitik gorako iraupen-urte bakoitzeko.

d) 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako gainerako ondare-irabaziak %14,28 murriztuko dira, aurreko a) letran adierazitako iraupen-aldiko urte kopurua bi baino handiagoa den urte bakoitzeko.

e) Aurreko b), c), eta d) letretan adierazitakoaren arabera 1996ko abenduaren 31n, hurrenez hurren, hamar, bost eta zortzi urteko iraupen-aldia (aurreko a) letran definitzen den bezalakoa) duten ondare-elementuetatik 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortu den ondare-irabaziaren zatia ez da zergapetuta egongo.

2. 2006ko abenduaren 31n merkatu arautuetan negoziatzeko onartuta dauden baloreen kasuan edo foru arau honetako 47. artikuluko 1. zenbakiko a) eta d) letretan zehazten den araubidea aplikagarria zaien inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzen kasuan, ondare-irabaziak eta -galerak foru arau honetako IV. tituluko V. kapituluan ezarritakoaren arabera kalkulatuko dira balore, akzio edo partaidetza bakoitzerako.

   Aurreko lerroaldean xedatutakoaren ondorioz ondare-irabazi bat lortzen bada, honako murrizketa hauen artetik dagokiona egingo da:

   a) Eskualdaketa-balioa baldin bada balore, akzio edo partaidetzei 2006ko Ondarearen gaineko Zergan dagokienaren berdina edo handiagoa, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortu den ondare-irabaziaren zatia aurreko 1. erregelan ezarritakoaren arabera murriztuko da. Ondorio horietarako, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako ondare-irabazia honako hau izango da: balore, akzio edo partaidetzei 2006ko Ondarearen gaineko Zergan dagokien balioa eskualdaketa-baliotzat hartuta ateratzen den ondare-irabaziaren zatia.

   b) Eskualdaketa-balioa txikiagoa bada balore, akzio edo partaidetza horiei 2006ko Ondarearen gaineko Zergan dagokiena baino, orduan ondare-irabazi guztia 2007ko urtarrilaren1a baino lehen sortua dela iritziko da, eta aurreko 1. erregelan ezarritakoaren arabera murriztuko da.

3. Eskualdatutako ondare-elementuetan hobekuntzarik egin bada, bereizi egingo da osagai bakoitzari besterentze-balioan dagokion zatia, xedapen iragankor honetan xedatutakoa aplikatzeari begira.

Bi. Zergadunaren ekonomia-jarduerari afektatuta egon diren ondare-elementuen eskualdaketetan ez da aplikatuko xedapen iragankor honetan ezarritakoa, jarduera hori beste titulartasun batekin egiten jarraitzen denean.

**Bigarrena. 1985eko maiatzaren 9a baino lehenagoko errentamendu-kontratuak.**

Kapital higiezinaren etekinak 1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindako errentamendu-kontratuetatik datozenean eta kontratu horiek ez badute errenta berrikusteko eskubiderik, Hiri Errentamenduei buruzko 1994ko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak bigarren xedapen iragankorraren 11. paragrafoko 7. erregelan ezarritakoa aplikatuz, etekinok zehazteko garaian foru arau honetako 32. artikuluan jasotakoa aplikatuko da, honako berezitasun hauek kontuan izanik:

1. Kapital higiezinaren etekinak etxebizitzetatik baldin badatoz, ondasun higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen %50eko hobaria aplikatuko da.

2. Aurreko 1. zenbakian sartu ez diren kapital higiezinaren etekinetan, hobaria %40 izango da ondasun higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen gainean.

Foru arau honetako 58.4 artikuluan xedatzen dena ez zaie aplikatuko xedapen iragankor honetan zehazten diren errentamendu-kontratuei.

**Hirugarrena. Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik 1999ko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldietan egindako kenkariak.**

Foru arau honetako 87.3 artikuluan aipatzen den 36.000 euroko muga zergadun guztiei aplikatuko zaie, ohiko etxebizitza zein unetan eskuratu duten kontuan hartu gabe.

Aurrekoa hala izanik ere, 36.000 euroko muga horri zenbateko hauetatik txikiena kenduko zaio:

- Zergadunak 1998ko abenduaren 24ko 10/1998 Foru Arauko 77. artikuluari jarraikiz ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kendu dituen kopuruak gehi, hala badagokio, foru arau horretako 46. artikuluaren arabera egindako berrinbertsioagatik salbuetsitako ondare-irabaziari %15 aplikatuta ateratzen den emaitza.

- Zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 24ko 6/2006 Foru Arauko 89. artikuluari jarraikiz ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kendu dituen kopuruak gehi, hala badagokio, foru arau horretako 51. artikuluaren arabera egindako berrinbertsioagatik salbuetsitako ondare-irabaziari %18 aplikatuta ateratzen den emaitza.

**Laugarrena. Pertsona batek baino gehiagok 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen elkarrekin eskuratutako ohiko etxebizitzan inbertitzeagatiko kenkaria.**

Foru arau honetako 87.3 artikuluan aipatzen den muga banan-banan aplikatuko zaie 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen ohiko etxebizitza elkarrekin eskuratu duten zergadunei, aurreko hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa kontuan hartuz.

**Bosgarrena. Paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan eratutako inbertsio kolektiboko erakundeen balio fiskala.**

1. Foru arau honetako 52. artikuluan adierazten den likidazio balioaren soberakina kalkulatzeko, 1999ko urtarrilaren 1eko likidazio-balioa hartuko da eskuraketa-baliotzat, zergadunak egun horretan dituen partaidetza eta akzioei dagokienez. Balio horren eta eskuraketaren benetako balioaren arteko diferentzia ez da eskuraketa-baliotzat joko akzio edo partaidetzak eskualdatu edo ordaintzetik eratorritako errentak zehaztean.

2. Inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen lortutako mozkinetatik datozenean, erakundeotako bazkide edo partaideen zerga-oinarrian sartuko dira. Ondorio horietarako, banatutako lehenengo erreserbak irabazitako lehenengo mozkinekin zuzkitu direla iritziko da.

**Seigarrena. Enplegu-erregulazioko espedienteetatik jasotako prestazioak.**

Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginak laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa betetzeko hitzartzen diren aseguru-kontratuak enplegu-erregulazioko espedienteen prestazioak bideratzeko egiten badira (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen), eta kontratu horien onuradunek 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera jaso dituzten diru-kopuruei -kontratua egin aurretik barruko funtsen kontura ordaindutakoei- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 1998ko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauak 16.2 artikuluan aurreikusitako integrazio-portzentajeak aplikagarri bazaizkie, foru arau honetako 19 artikuluko integrazio-portzentajeak aplikatuko zaizkie diru-kopuruoi, eta ondorio horietarako, gisa horretako kontratuak egiteak ez du aldatuko prestazio horien sorrera-aldia kalkulatzeko era.

**Zazpigarrena. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei aplikagarri zaien araubide iragankorra.**

1. Erretiro- eta elbarritasun-prestazioak gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin hitzarturiko aseguru-kontratuetatik badatoz eta haiei dagozkien ekarpenak, 1999ko urtarrilaren 1 baino lehen egindakoak, gutxienez zati batean murriztu badira zerga-oinarrian, lan etekin-gisa integratu beharko dira zerga honen zerga-oinarrian.

2. Integrazio hori egingo da jasotako zenbatekoa mutualitateari egindako ekarpenen zenbatekoa baino handiagoa denean, eta betiere, ekarpen horiek ezin izan direnean zerga-oinarrian murriztu edo gutxitu, zerga honek une bakoitzean indarrean izan duen araudiaren arabera, eta, beraz, lehendik tributatu dutenean.

3. Zerga-oinarrian murriztu edo gutxitu ezin izan diren ekarpenen zenbatekoa frogatzerik ez badago, erretiro edo elbarritasunagatik jasotako prestazioen %75 integratuko da.

**Zortzigarrena. 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen ondare-gehikuntzak edo -gutxipenak sortu dituzten bizi-aseguruen kontratuen araubide iragankorra.**

Kapital geroratu bat jasotzen denean, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako eta foru arau honetako IV. tituluko IV. kapituluko 3. atalean ezarritakoaren arabera kalkulatutako etekin garbi osotik 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako primei dagokien zatiak %14,28ko murrizketa izango du prima ordaindu zenetik 1994ko abenduaren 31ra arte igarotako urte bakoitzeko, goitik biribilduta. Etekin garbi osotik kendu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, honela jokatuko da:

1. Kalkulatuko da etekin garbi osoan zer zati dagokion 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako prima bakoitzari. Aseguru-kontratuko prima bakoitzari dagokion etekin osoaren zatia kalkulatzeko, etekin oso hori hurrengo zatiduratik datorren haztapen-koefizienteaz biderkatuko da:

    - Zenbakitzailean, biderkadura bat: dagokion prima bider prima hori ordaindu zenetik hartukizuna jaso arte igarotako urte kopurua.

    - Izendatzailean, batura bat: prima bakoitza bider prima hori ordaindu zenetik hartukizuna kobratu arte igarotako urte kopurua eginez ateratzen diren biderkadura guztien batura.

2. Etekin garbi osotik 1994ko abenduaren 31 baino lehenago ordaindutako prima bakoitzari dagokion zati bakoitzerako, zehaztu beharko da, baita ere, zer zati sortu den 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen. Egun hori baino lehenago sortu den zatia kalkulatzeko, biderkatu egingo dira aurreko zenbakian adierazitako eragiketatik 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako prima bakoitzerako ateratzen den zenbatekoa, batetik, eta honako zatiketa honetatik ateratzen den haztapen-koefizientea, bestetik:

    - Zenbakitzailean, prima ordaindu zenetik 2007ko urtarrilaren 1era arte igarotako denbora.

    - Izendatzailean, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako denbora.

3. Etekin garbi osotik kendu beharreko zenbatekoa zehaztuko da. Horretarako, aurreko 2. azpi-zenbakian xedatutakoaren arabera kalkulatutako etekin garbi osoaren zatietako bakoitzari, %14,28 kenduko zaio, dagokion primaren ordainketatik 1994ko abenduaren 31ra arte igarotako urte bakoitzeko. Bi data horien artean sei urte baino gehiago igaro baldin badira, aplikatu beharreko portzentajea %100 izango da.

**Bederatzigarrena. Biziarteko eta aldi baterako errentei aplikagarri zaien araubide iragankorra.**

1. Biziarteko eta aldi baterako errentetatik -berehalakoak nahiz geroratuak izan- kapital higigarriaren etekintzat jotzen den zatia zehazteko, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera errenta

moduan jasotzen diren prestazioei foru arau honetako 36. artikuluko 1. zenbakiaren b) eta c) letretan ezarritako portzentajeak bakarrik aplikatuko zaizkie, baldin eta errentak 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eratu badira.

Biziarteko errenten kasuan, portzentaje horiek errenta eratzen den unean hartzaileak duen adinaren arabera aplikatuko dira, edo errentaren iraupen osoaren arabera, aldi baterako errentak baldin badira.

2. Erreskatatu egiten badira 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eratu diren biziarteko edo aldi baterako errentak, erreskate hori dela-eta sortutako kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko, kendu egingo da errenta eratu arte lortutako errentagarritasuna.

3. Biziarteko eta aldi baterako errentetan -berehalakoak nahiz geroratuak izan- zehazteko zer zati jotzen den kapital higigarriaren etekintzat, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera errenta moduan jasotzen diren prestazioei foru arau honetako 36. artikuluko 1. zenbakiaren b) eta c) letretan ezarritako portzentajeak aplikatuko zaizkie, baldin eta errenta horiek 1999ko urtarrilaren 1etik 2006ko abenduaren 31ra bitartean eratu badira.

   Biziarteko errenten kasuan, portzentaje horiek errenta eratzen den unean hartzaileak duen adinaren arabera aplikatuko dira, edo errentaren iraupen osoaren arabera, aldi baterako errentak baldin badira. Gainera, foru arau honetako 36. artikuluko 1. zenbakiaren d) letran aipatzen den errenta eratu arte lortutako errentagarritasuna gehituko da, halakorik badago.

**Hamargarrena. Aseguru-kontratu berri jakin batzuen zerga-araubidea.**

Foru arau honetako 19.2.c) artikuluan etekin osoa lortzeko aurreikusten den %25eko portzentajea bakarrik aplikatuko zaie 1994ko abenduaren 31tik aurrera hitzartutako aseguru-kontratuei.

**Hamaikagarrena. Lan-etekinak sortzen dituzten bizitza-aseguru kolektiboak, enplegatuei primak egotzi gabe .**

Foru arau honetako 19.2 c) artikuluan xedatutakoa gorabehera, 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen hitzartutako aseguru-kontratuen kasuan, gertatzen bada prima guztiak 2003ko urtarrilaren 21a baino lehen ordaindu direla baina enplegatuei gauzazko lan-etekin gisa egotzi gabe, kasu horretan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 1998ko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauko hamaseigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko da.

**Hamabigarrena. Bizi-aseguru kontratu jakin batzuk aurrezki sistematikorako banakako plan bihurtzea .**

1. 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen formalizatu diren bizi-aseguruei buruzko kontratuetan zergaduna ageri bada kontratatzaile, aseguratu eta onuradun gisa, eta, gainera, kontratu horiek foru arau honetako hirugarren xedapen gehigarrian araututako aurrezki sistematikorako banakako plan bihurtzen badira, foru arau honetako 9. artikulua eta hirugarren xedapen gehigarria aplikatuko zaizkie, biziarteko errentak eratzen diren unean, baldin eta honako betekizun hauek betetzen badira:

   a) Aseguru-kontratua indarrean egon den denboran prima gisa urtean ordaindutako gehieneko kopurua 8.000 euro baino handiagoa ez izatea, eta metatutako prima guztien zenbatekoak ez gainditzea, zergadun bakoitzeko, 240.000 euroko kopurua.

   b) Lehenengo prima ordaindu den egunetik bost urte baino gehiago igaro izana.

2. Kontratua banakako plan bihurtzeko garaian, kontratuaren baldintzetan espresuki eta nabarmen adierazi behar da aurrezki sistematikorako banakako plan bat dela, foru arau honetako hirugarren xedapen gehigarrian araututakoa.

3. Kontratua banakako plan bihurtu eta gero, modu aurreratuan baliatzen badira -dela osorik dela partez- eratutako biziarteko errentatik datozen eskubide ekonomikoak, zergadunak

eskubideak modu aurreratuan baliatu dituen zergaldian integratu behar du foru arau honetako 23.9 artikuluan xedatutakoaren indarrez salbuetsita egon zen errenta.

**Hamahirugarrena. Desgaitasuna duten pertsonei beren gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzea.**

Desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko aldez aurretik ezarritako neurriak ekainaren 2ko 8/2021 Legearen bosgarren xedapen iragankorrean eta hura garatzen duten xedapen guztietan ezarritakoaren arabera berrikusten diren bitartean (lege horren bidez, legeria zibila eta prozesala erreformatzen dira desgaitasuna duten pertsonei gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko), ordezkaritza-ahalmena duten eta kuradoretzaren menpe dauden pertsonak eta foru-arau honen 70., 72., 79., 82. eta 85. artikuluetan eta hamaikagarren xedapen gehigarrian aipaturiko ordezkaritza-ahalmen horiek erabiltzen dituzten pertsonak aipatzen direnean, hauek direla ulertu behar da, hurrenez hurren: Kode Zibilean ezarritako arrazoien ondorioz judizialki deklaratutako ezgaitasuna duten pertsonak eta aurrekoei dagokienez tutore-kargua betetzen dutenak.

Halaber, aurreko paragrafoan aipatzen den aldian, foru arau honen 98.1 artikuluaren b) letran xedatutakoaren ondorioetarako, familia-unitateko kide izango dira luzatutako edo birgaitutako guraso-ahalaren mende dauden seme-alaba adindunak.

**Hamalaugarrena. 2012ko urtarrilaren 1aren aurretik eskualdatutako harpidetza-eskubideei aplikatu beharreko zerga-araubidea.**

Eskuraketa-balioa zehazteko (balio hori foru arau honetako 49.1.a) artikuluan aipatzen da) kendu egingo da 2012ko urtarrilaren 1aren aurretik eskualdatutako harpidetza-eskubideengatik lortutako zenbatekoa, salbu eta eskualdaketa horietan lortutako zenbatekoa eskualdatzailearen ondare- irabazitzat hartu bazen eskualdaketa egin zen zergaldian. Harpidetza-eskubide guztiak eskualdatu ez badira, eskualdatutakoak lehenengo eskuratutako baloreei dagozkiela ulertuko da.

**Hamabosgarrena. Enpresaren akzioak edo partaidetzak ematea langileei.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 30eko 6/2006 Foru Arauko 17.2.c) artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie foru arau hau indarrean jarri aurretik ezarrita zeuden akzioak eta partaidetzak emateko planei, langile guztiei egin zitzaien eskaintza data horren aurretik egin bazen, eta plan horiei indarrean zegoen arauketa aplikatu behar bazitzaien 2013ko zergaldian.

**Hamaseigarrena. Frogatu gabeko ondare-irabazien egozpena.**

...

**Hamazazpigarrena. Kaleratzearen ondoriozko kalte-ordain salbuetsiak.**

1. 2012ko otsailaren 12tik 2013ko urtarrilaren 1era bitartean gertatutako kaleratzeen ondoriozko kalte-ordainak salbuetsita egongo dira, kaleratzea bidegabetzat aitortu izan balitz egokituko litzatekeen zenbatekoa gainditzen ez duten zatian, baldin eta enpresaburuak hala aitortzen badu kaleratzea jakinarazteko unean edo adiskidetze-ekitaldiaren aurreko beste edozer unetan, eta, betiere, kontratu-amaierak ez badira alderdien arteko akordioaren bidez egin, sustaturiko bajen planen edo sistemen esparruan.

2. 2012ko uztailaren 6ko 3/2012 Legearen hamargarren xedapen iragankorrak aipatzen dituen enplegu-erregulazioko espedienteen ondorio diren kaleratzeengatiko edo kargugabetzeengatiko kalte-ordainak salbuetsita egongo dira (lege hori lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzkoa da), lan-urteko berrogeita bost eguneko soldata gainditzen ez duten zenbatekoan. Urtebetetik beherako aldiak hileka hainbanatuko dira, gehienez ere berrogeita bi hilabetera.

Enplegu-erregulazioko espedientea eragin duten arrazoiak antolaketa edo ekoizpenekoak bakarrik direnean, aurreko lerroaldean ezartzen dena soilik aplikatuko zaio 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako kaleratze edo kargugabetzeei.

**Hamazortzigarrena. 2014ko zergaldiaren aurreko zergaldietan murriztu ez diren gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen gaindikinen araubide iragankorra.**

1. Gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioen gaindikinak (foru arau honetako 71.3 artikuluan eta zortzigarren xedapen gehigarrian -2013ko abenduaren 31an aplikatu beharreko idazketan- aipatzen dira gaindikinok), 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietakoak badira eta murriztu gabe badaude 2014ko urtarrilaren 1ean, foru arau honetako 71.1 artikuluan ezartzen diren mugak errespetatuz murriztu ahal izango dira, eta hala egiterakoan ez da aplikatuko erretiro egoera dela-eta foru arau honetako 70.5 artikuluan ezartzen den salbuespena.

2. Zergadunaren ezkontidea edo izatezko bikotekidea bazkide, partaide, mutualista edo titular den gizarte-aurreikuspeneko sistemei zergadunak berak egindako ekarpenen gaindikinak (foru arau honetako 71.3 artikuluan —2013ko abenduaren 31n aplikatu beharreko idazketan— aipatzen dira gaindikinok), 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietakoak badira eta murriztu gabe badaude 2014ko urtarrilaren 1ean, foru arau honetako 71.1 artikuluan ezartzen diren mugak errespetatuz murriztu ahal izango dira, eta hala egiterakoan ez da kontuan hartuko zergaduna edo bazkide, partaide, mutualista edo titularra den ezkontidea edo izatezko bikotekidea erretiro egoeran dauden ala ez.

**Hemeretzigarrena. Langilea kaleratu edo kargugabetzeagatik ematen diren kalte-ordainei aplikagarri zaien araubide iragankorra.**

Foru arau honetako 9.5 artikuluan ezartzen den salbuespen-muga ez zaie aplikatuko 5. zenbaki horretan arautzen diren kaleratze edo kargugabetzearen ondoriozko kalte-ordainei, baldin eta foru arau hau indarrean jarri aurretik azkendutako lan-harremanen ondorio badira.

**Hogeigarrena. Etekin irregularrei aplikagarri zaizkien integrazio-portzentajeen araubide iragankorra.**

1. Foru arau honetako 19.2 artikuluan eta 25.4 artikuluan ezarritakoa gorabehera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 26ko 6/2006 Foru Arauan ezarritakoarekin bat denboran era irregular nabarmenean lortutakotzat jotzen diren etekinei, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen hitzartutako kontratu edo akordioei badagozkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 26ko 6/2006 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuko zaie.

2. Foru arau honetako 30.3 artikuluan eta 39.3 artikuluan ezarritakoa gorabehera, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen hitzartutako kontratu edo akordioen ondoriozko etekinei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 26ko 6/2006 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuko zaie.

3. Foru arau honetako 19.2 artikuluan, 25.4 artikuluan, 30.3 artikuluan eta 39.3 artikuluan ezarritakoa gorabehera, foru arau hau indarrean jarri aurretik lortutako etekinei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 26ko 6/2006 Foru Arauan ezarritako integrazio-portzentajeak aplikatu bazaizkie eta etekinok zatika kobratzen badira, etekin horiei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 26ko 6/2006 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuko zaie.

**Hogeita batgarrena. Ekonomia-jarduera baten hasieran inbertitzeko kreditu-erakundeetan jarritako gordailuengatiko kenkaria.**

Zergadunek 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen gordailuak egin badituzte kreditu-erakundeen kontuetan eta gordailuon xedea ekonomia-jarduera bat hasteko beharrezko gastu eta inbertsioei aurre egitea bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 26ko 6/2006 Foru Arauko 92. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta data horretan

oraindik ez badira hiru urte igaro kontua ireki zenetik, bada, orduan, zergadun horiek kenkari hori aplikatzen jarraitu ahal izango dute, manu horretan ezarritakoaren arabera.

**Hogeita bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 81.2 artikuluko bigarren lerroaldeko araubide iragankorra.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 81.2 artikuluko bigarren lerroaldean aplikatuko da 2013ko zergaldian; lerroalde hori, hain zuzen ere, 2012rako eta 2013rako zenbait xedapen iragankor eta zergen arloko beste neurri batzuk onartu zituen 2012ko otsailaren 29 1/2012 Foru Arauaren bidez gehitu zen.

**Hogeita hirugarrena. Kontularitzako eta erregistroko betebeharrak.**

Foru arau honetako 114. artikuluan ezarritakoaren araberako eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua, erreglamentu bidez ezarritako eran, eraman beharrik izan ez dezaten zergapekoek kontularitzako eta erregistroko betebeharrak bete behar izango dituzte Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 115. artikuluan eta foru araua garatzen xedapenetan -2013ko abenduaren 31n indarrean dagoenari jarraituta-ezarritakoaren arabera, kontuan izanik 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera beraien jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko erabilitako modalitatea.

**Hogeita laugarren. Sozietateen gaineko Zergaren testu bateginaren hogeita laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren babesean desegin edo likidatu diren ondare-sozietateetako bazkideen araubidea (2004ko martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsi zen testu bategina).**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek Sozietateen gaineko Zergaren testu bateginaren hogeita laugarren xedapen iragankorreko 2. zenbakiko d) letran eta 3. zenbakian xedatutakoa aplikatu beharko dute, baldin eta xedapen iragankor horretan xedatutakoa aplikatu behar zaien ondaresozietateetako bazkide badira (2004ko martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsi zen testu bategina).

**Hogeita bosgarrena. 2016ko urtarrilaren 1aren aurretik formalizatutako aseguru-kontratuek aurrezki sistematikorako banakako planen tratamendua izateko antzinatasuna dela-eta bete beharreko betekizuna.**

2016ko urtarrilaren 1aren aurretik formalizatutako aurrezki sistematikorako banakako planei foru arau honetako laugarren xedapen gehigarriko 4. zenbakian ezartzen den bost urteko antzinatasuna aplikatuko zaie.

2016ko urtarrilaren 1aren aurretik formalizatutako aurrezki sistematikorako banakako plan bat edo foru arau honetako hamabigarren xedapen iragankorrean arautako aseguru-kontratuetako bat haien muga-eguna aldatuz eraldatzen bada, eraldaketa horrek ez du tributu-efekturik izango hartzailearentzat, baldin eta eraldaketaren helburu bakarra hau bada: Biziarteko errenta baten eraketa aurreratzea, errenta horrek bai bete dezan lehenengo prima ordaintzen denetik igaro beharreko bost urteko epea dela-eta xedapen horietan ezartzen den betebeharra.

**Hogeita seigarrena. 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen hemeretzigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera desegin eta likidatutako sozietate zibiletako bazkideen araubidea (lege horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu).**

2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen hemeretzigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatu behar zaien sozietate zibiletako bazkide diren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek xedapen iragankor horretako 2. zenbakiko c) letran ezarritakoa

aplikatuko dute (35/2006 Legeak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu).

**Hogeita zazpigarrena. Mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertain berri edo sortu berrietan egindako inbertsioen tratamendua.**

...

**Hogeita zortzigarrena. 2018 eta 2019 ekitaldietako zenbait loteria eta aposturen sarien gaineko karga berezitik salbuetsitako zenbatekoa.**

2018ko uztailaren 5ean baino lehen ospatutako jokoen ondoriozko sariak salbuetsita egingo dira karga berezitik foru arau honen hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian, 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen idazketan, jasotako zenbatekoan.

Zenbateko hori 10.000 eurokoa izango da 2018ko zergaldian, 2018ko uztailaren 5az gero ospatutako jokoen ondoriozko sarietarako eta 20.000 eurokoa 2019ko zergaldian ospatutako jokoen ondoriozko sarietarako.

**Hogeita bederatzigarrena. 2020., 2021., 2022., 2023., 2024. eta 2025. ekitaldietan ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat ezartzea eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat egiteko betebeharra betetzea sustatzeko kenkaria**

1. Ekonomia-jarduerak egiten dituzten zerga honen zergadunek Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko hogeita bosgarren xedapen iragankorrean ezarritako kenkaria aplikatu ahal izango dute, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko betebeharra betetzen dutenean (Foru Arau honetako 114. artikuluan dago jasota betebehar hori). Xedapen horretan ezarritakoaren arabera eta artikulu honetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta aplikatuko da kenkaria.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den kenkaria zerga honen kuota osoari aplikatuko zaio, betiere kuota hori bat datorrenean ekonomia-jardueren etekinez osatzen den zerga-oinarri orokorreko kuota zatiarekin.

3. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 117.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, artikulu honetan jasotzen den kenkaria aplikatu ahal izateko, zergadunak berariaz adierazi behar du kenkaria aplikatuko duela; autolikidazioa aurkezterakoan egin behar du adierazpen hori.

   Zergadunek aldatu egin ahal izango dute zergaren aitorpenean artikulu honetan aipatutako kenkaria dela-eta egindako aukera zerga aitortzeko borondatezko epea amaitu ondoren, betiere Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendua egin ez badie.

4. Foru-arau honen 88 artikuluan ezarritako mugak xedapen iragankor honetan arautako kenkaria aplikatu ondoren aplikatuko zaizkie manu horietan aipatzen diren kuotei.

**Hogeita hamargarrena. 2022ko eta 2023ko ekitaldietan aplikatu beharreko konpentsazioa, mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek sistema informatiko bat ezar dezaten sustatzeko, ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzeko, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eragiketa ekonomikoen erregistro- liburu bat eramateko betebeharra betetzeko.**

1. Zerga honen zergadunek, jarduera ekonomikoak egiten badituzte, konpentsazio bat jasotzeko eskubidea izango dute, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren hogeita seigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako moduan,

baldin eta, egiten dituzten jarduera ekonomiko guztietarako, beren borondatez hartzen badute uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritako aukera (Jarduera ekonomikoen etekinak kontrolatzeko sistema integral bat ezartzen duena, bai eta zerga-betebeharrak betetzea errazteko neurriak ere), betiere Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergaren Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra aldatuta.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako konpentsazioa zergadunaren jarduera ekonomiko bakoitzetik sortutako etekin garbi positiboari aplikatuko zaio, banaka hartuta. Ondorio horietarako, etekin garbian ez dira sartuko foru arau honen 25. artikuluaren 3. paragrafoan aipatzen diren ondare-irabazi eta -galerei dagozkien zenbatekoak.

   Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate sinplifikatua aplikatuz errendimendu garbia zehazten duten zergadunen kasuan, konpentsazioa gastuen koefizientea aplikatu aurreko errendimenduaren gainean aplikatuko da, amortizazioen, narriadura-galeren eta justifikazio zaileko gastuen kontzeptupean, Foru Arau honen 28. artikuluaren 1. zenbakiaren b) letran adierazitakoaren arabera.

3. Zergadunak ez baditu betetzen jarduera ekonomikoen etekinak kontrolatzeko sistema integral bat ezartzen duen uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren lehenengo paragrafoan aipatzen den aukera baliatzeari lotutako betebeharrak, bai eta zerga-betebeharrak betetzea errazteko neurriak ere, betiere Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergaren Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra aldatuz, 2023ko zergaldia amaitu baino lehen, xedapen iragankor honetan aipatzen den konpentsazioa aplikatu den zergaldiko edo zergaldietako zerga-oinarrian sartu beharko dira konpentsazio horri dagozkion zenbatekoak, eta ateratzen den kuotari dagozkion berandutze-interesak gehitu beharko zaizkio.

**Hogeita hamaikagarrena. Geroratze-araubidea aplikatzea inbertsio kolektiboko entitateetan 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako partaidetza edo akzio jakin batzuei.**

Foru arau honen 48. artikuluaren 2. paragrafoaren c) letran ezarritako baldintza ez zaie aplikatuko c) letra horretan aipatzen diren inbertsio kolektiboko entitateetako partaidetzei edo akzioei, zergadunak 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratu baditu eta Espainiako balore-burtsan kotizatu ez baditu, errenboltsoaren edo eskualdatzearen zenbatekoa ez bada aipatutako c) letran ezarritako inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak eskuratzeko erabiltzen.

**Hogeita hamabigarrena. 2024 eta 2025eko ekitaldietan ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat ezartzea eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat egiteko betebeharra betetzea sustatzeko konpentsazioa.**

1. BATUZ sistema behin betiko ezartzeko eta fiskalitatearen arloko administrazio- lankidetzari buruzko 2011/16 (EB) Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiteko neurriak eta beste zerga-aldaketa batzuk onartzen dituen azaroaren 22ko 08/2023 Foru Arauaren 1. artikuluaren 2. apartatuko a) eta b) letretan aipatzen diren zerga honen zergadunek xedapen iragankor honetan ezarritako konpentsaziorako eskubidea izango dute 2024ko zergaldiari dagokionez, jarduera ekonomikoak egiteagatik etekinak lortzen badituzte eta aipatutako foru-arauaren 1. artikuluaren 7. apartatuan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen badituzte, betiere egiten dituzten jarduera ekonomiko guztietarako Batuz sistema borondatez aplikatzeko aukera baliatzen badute.

2. BATUZ sistema behin betiko ezartzeko eta fiskalitatearen arloko administrazio- lankidetzari buruzko 2011/16 (EB) Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiteko neurriak eta beste zerga-aldaketa batzuk onartzen dituen azaroaren 22ko 08/2023 Foru Arauaren 1. artikuluaren 2. apartatuko c) eta d) letretan aipatzen diren zerga honen zergadunek xedapen iragankor honetan ezarritako konpentsaziorako eskubidea izango dute 2024ko eta 2025eko zergaldiei dagokienez, jarduera ekonomikoak egiteagatik etekinak lortzen badituzte eta aipatutako foru-arauaren 1. artikuluaren 7. apartatuan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen badituzte, betiere egiten dituzten jarduera ekonomiko guztietarako Batuz sistema borondatez aplikatzeko aukera baliatzen badute. Hala ere, konpentsazioa 2024ko zergaldian aplikatu ahal izateko, Batuz sistemaren borondatezko aplikazioak ondorioak izan beharko ditu, gutxienez 2024ko uztailaren 1etik aurrera.

3. Konpentsazioaren zenbatekoa zergadunari indibidualki dagozkion eta 2024ko zergaldiari eta, hala badagokio, 2025eko zergaldiari egozten zaizkion jarduera ekonomietako bakoitzetik eratorritako etekin garbi positiboaren % 10 izango da.

4. Aurreko apartatuetan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, foru-arau honen hogeita hamargarren xedapen iragankorrean ezarritako konpentsazioa 2024ko zergaldiaren aurretik aplikatu izan duten zerga honen zergadunei.

5. Xedapen iragankor honen aurreko apartatuetan xedatutakoaren aurka ez dagoen bitartean, bertan araut於tako konpentsazioa aplikatzen duten zergadunei foru-arau honen hogeita hamargarren xedapen iragankorraren 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoa aplikatuko zaie, behar diren egokitzapenak eginda.

**Hogeita hamahirugarrena. Mugikortasun mugatuko egoera egiaztatzeko araubide iragankorra, lan-etekinaren hobari areagotua zehazteko.**

Foru-arau honen 23.3 artikuluaren b) letran ezarritako hobaria aplikatzeari dagokionez, desgaitasunaren beste aitorpen, deklarazio edo kalifikazio bat egiten ez den bitartean, letra horretan aipatzen den mugikortasun mugatuko egoera egiaztatutzat joko da, halaber, Desgaitasun-gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko 1999ko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera emandako ziurtagiriaren bidez, b) letra horrek 2023ko abenduaren 31n indarrean zuen edukian xedatutakoa betez.

**Hogeita hamalaugarrena. Desgaitasunagatiko edo mendekotasunagatiko kenkaria aplikatzeko araubide iragankorra.**

Foru-arau honen 82. artikuluan ezarritako desgaitasunagatiko edo mendekotasunagatiko kenkaria aplikatzeko, eta desgaitasunaren beste aitorpen, deklarazio edo kalifikazio bat egiten ez den bitartean, desgaitasun-egoera Desgaitasun-gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko 1999ko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera aitortu zaien zergadunek 82. artikulu horretan desgaitasun-graduari eta inoren laguntza behar izateari dagokionez ezarritako betekizunen arabera aplikatuko dute kenkaria, artikulu horrek 2023ko abenduaren 31n indarrean zuen edukian xedatutakoa kontuan hartuta.

**Hogeita hamabosgarrena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 66 quater artikuluan arautako kenkariak aplikatzeko modua, foru-arau horren VI. tituluaren III. kapituluan xedatutakoaren ondorioz aplikatzen direnean, eta 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen eratutako ekonomia-intereseko elkartzeei egindako ekarpenak ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar direnean kontabilitate- irizpideen arabera.**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 66 quater artikuluan arautako kenkariak aplikatzen badituzte foru-arau horren VI. tituluaren III. kapituluan xedatutakoaren ondorioz, eta 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen eratutako ekonomia-intereseko elkartzeei egindako ekarpenak ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar badira kontabilitate-irizpideen arabera, aukeratu ahal izango dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 88. artikuluan xedatutakoa aplikatzea —2023ko abenduaren 31ra arte indarrean zuen edukiaren arabera.

Aukera bera emango zaie Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-araudiaren mende ez dauden ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideei, kontabilitate-irizpideen arabera ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar diren ekarpenak egiten dituztenean.

**Hogeita hamaseigarren xedapen iragankorra. Murrizketen mugak, gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioengatik.**

2024rako bakarrik, gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioen ondoriozko murrizketen mugak aplikatzeko, foru-arau honen 71.1.b) artikuluan aipatzen den mugaren barruan zenbatuko dira ekarpen hauek: Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 67. artikuluaren 1. apartatuaren a) letran ezarritako pentsio-plan sektorialei egindako ekarpenak, beren jarduera dela- eta plan horietara atxikitzen diren norberaren konturako langileek edo autonomoek egindakoak; Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 67. artikuluaren 1. apartatuaren c) letran ezarritako norberaren konturako langileen edo autonomoen enpleguko pentsio-plan sinplifikatueei egindako ekarpenak, eta norberaren konturako langileek edo langile autonomoek enpleguko aurreikuspen-planei egindako ekarpenak.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

**Bat.**

Indarrik gabe geratzen dira foru arau honetan ezarritakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak, eta bereziki, abenduaren 21eko 6/2006 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa.

**Bi.**

Foru arau honetan ezarritakoarekin bat datozen erregelamenduzko arauek indarrean jarraituko dute, arau honetan aurreikusten diren erregelamenduzko gaikuntzak erabiltzen ez diren bitartean.

**Hiru.**

Aurreko bat zenbakian aipatzen diren xedapenak indargabetzeak ez die kalterik eragingo xedapena indarrean egon den bitartean sortutako betebeharrak direla-eta Zerga Administrazioak dituen eskubideei.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa. Indarrean jartzea eta ondorioak.**

Bat. Foru arau hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bi. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako, foru arau hau aplikagarria izango da 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera lortzen diren errentetan eta data horretatik aurrera egotzi beharrekoetan, betiere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren orain arteko araudiak denboraren araberako egozpenerako jasotzen dituen irizpideekin bat.

**Bigarrena. Arauak emateko gaikuntza.**

Gaitasuna ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari foru arau hau garatzeko eta betearazteko beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Bilbon, 2013ko abenduaren 5ean.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,

JON ANDONI ATUTXA SAINZ.

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANA MADARIAGA UGARTE.